Isaias Prophetac. *Venerunt usque ad partum & virtus non est pariendi.* Ethorri ciren erdit cecopuntura, ordea etciren erdi, etcen hartatacotçat indarric asqui. Hartcen dugu gogo, hartcen dugu vorondate, obra onac eguin behar ditugula: eta ethortcen gara eguin behar ditugun orenara, ordea han itxitcen eta guibelatcen gara, han anu eta vkho eguiten dugu, beharrean faltatcen dugu. Ceren hartcen dugun gogo eta vorondate hyra, ez paita fina, ez paita cinezcoa, eta ez deliberatu qui deliberatua; nahi cunde baia, eta ez nahia. *Voluntas nova que mihi esse ceperat, non erat idonea, ad superandam priorem, vetustate roboratam,* dio San Agustinec. Ene vorondate berriac etçuen indarric asco vorondate çahar-raren garaitceco; lo datçanac, erdi iratçartcendean, eguitendu cenbait muguida, iaiqui nahi iduri bat, baiña nola ezpaita asco cinez permatcen, berriz lotara bihurtcen da, loa nabusi guelditcen da. Hala dio San Agustinec, guerthaccen ceçala aldia batez, berari ere. *Cogitationes quibus meditabar in te similes erant conatibus expurgisci volentium, qui tamen superari soporis aliiudine remerguntur* Munduco ateguinec eta placerec, lo goço batec beçala azpian nenducaten, eta noizic behin ethortcen ceizquidan plazer hetaric ilquitceco eta jaincoa baithan phenlatceco desitcunde batçuc. Baiña hec guztiaç, lotaric iratçarri nahi

Isai. 37.
Augus. lib. 8.
confes. cap. 5.
Augus. ubi 8.



cuñaren ensein eta permadura flaco baçue
beçala ciren , probetcha gabecoac , loaren
garaitceco , munduco eguñtecoetaric atberate-
ceco , indarric asco etçutenac. Eta halatan
neure desircunde on guztien baruan ere, neu-
re leheneco vsantcetari eta beccaruetari guel-
diteen ninteen.

Prover. *Vult & non vult piger*, dio Salomonec. Nahid
13. du, eta eztu nahi naguiac. Eztu nahi ossoa. eta
ez complitua. *Pigri vocabulo denotatur, quod
vult regnare cum Deo, & non laborare pro Deo:
delectant premia cum pollicentur, deterrunt cer-
tamina cum iubentur.* Nahid du naguiac iaincoar-
ren errefuman parte, ez ordea errefuma ha-
ren erdieiteco, iragan behar diren trabailhu-
etan. Pagamenduac alegueratcen du, trabail-
huac tristercen du eta icitcen. Ongui eguñte-
tibeldu den irabacia, onguiric eguin gabe
nahidque goçatu. Nahidu ioan parabisurari
ordea nekhatu gabe. Ez atseguinic nahidu
vtci, eta ez penaric hutu. Herabedu bieleari

Ifidor. lorcera *Piger, quasi eger pedibus.* Maingu da
lib. 2. oñiac ditu eri, gogoa etbal eta flaco. Nahid
Bthim. cundea badu eta badugu, nahia eta obratce-
çaiçu falta, hura gueroçotz egotzen dugu.
Deus ere obratu gabe deus ere, geure gogoa
eta vorondateac dioscun gauçaric baiçen e-
guin gabe, desira hutfen botherez, voronda-
teaz beraz nahi guenduque salbatu eta cer-
co lorlan sartku. Eta desira haytan, gueroçotz
gogoa

gogoa eta vorondatean, dembora guztia ira-
gaiten çaiçu.

Erran comuna da infernua desira onez be-
thea dagoela. Ceren han direnec obratu ez-
paçuten ere cenbait desira on debere içan çu-
ten. Ezta nehor ere hain gaixtoric, cenbait
aldiz, bere gaixtaquerien vtzteco gogoa e-
thorteen et çaiçanic, eta cenbait desircunde
on ere içaiten eztuenic. Ordea desircunde on
hec berac eztira asco. Ceren hec lorea beça-
la dira. Eta nola hartcen eztuen loreaz, it-
chat chetquitcen eztenaz, botean edo nini-
coan gaitcen denaz, ezpaita probetchuric:
halavotondateaz beraz, desira hutfaz, choil-
laz eta baccarraz, obra ahal ditequeyela, o-
bratu gabe guelditcen denaz, ecin dateque
probetchuric eta ez fruituric.

Alterratu erran beharçaiça daguiela, eta
naguiari, higuia dadilla: eta halabata, nola
bertcea, biac orobatu baitira, biac dira vo-
rondate huts: eztira nahicunderic, desircun-
deric, gogoric eta guticiaric baiçen. Eta gu-
Prover. 2. ticia hec berac dira pena garric asco *Desideria*
occidentum pigrum. Erraiten ohida. *Ignavis sem-
per sunt feriae* Naguientçat eta alferientçat
Adagiü egun guztiaç dira besta. Baina hobequi er-
tan liteque, halacoentçat, bestac ere aste le-
gun direla. Ceren trabailariac bere trabail-
luan baño, anhitz etan ere alferiac, bere al-
ferquerian, trabailu guchi ago editeien bai-
C



tu. Agueri da erregue David baithan. Erregue hari etceraucaten egun-daiño guetlec, eta guerletaco traballuec, hanbat eguiteco, eta atsecabe eman, nola alferqueriac, eta alfercegoela eguin cituen beccatuec. *Non sunt otiosorum voluptates multum negotium habent;* dio Senecac. Eztaude ez alferric, placeretan dabilctanac. Ceren plazer hetan bada deflazer eta atsecabe, trabillu eta eguiteco.

Laert. *Dum otio vacanti in rem negotiosissimam incidunt.*
lib. 2. Alfer egoiteas, erortcen dira eguiteco handitan. *Sicut enim cum quis non comedit, dentibus nocet; ita qui comedis non accommodat.*
Chris. *stupescere facit.* Nola ez iateac galcten baititu hortz-haguinac: hala behar eztenetic iateac ere hortzquitceintu.

§. I.

G Auca segura da eta eguiazcoa fedcac erregusten duena, salbatseco, ceruco loriat fecteco, ez-tirela defira onac berac asco. Baiña behar direla iaincoaren manamendua. Sainduac, defiraz beçala obraz ere complite. Haur da eguia, eta eguia haur guinifino garet guztioac sinhesten dugu. Ordea guztjarequit ere edireitendu gure maliciac eta vorondate gaixtoac cenbait itculpide; cenbait defencusa, eta escapateco bide, obrateca vtciric defiratan demboraren iragaiteco, luçamend

dutan ibiltceco. *Propter frigus piger arare noluit.* Traballatu nahi etçuenac, hotzaren atchaquia eguin çuen: b: rutcera herabe çuenac, buruan minçuela errançuen. *Dicit piger, leo est in via.* Naguiac; bere leccutic higitu nahi eztuenac, trabu handiac edireiteintu, bidean ere, lehoiña dagoela erraitendu. *Occasiones querit qui vult recedere ab amico.* Adifquideaz defeguin nahi denac, adifquidetafuna hautsi nahi duenac, occasinoac bilhatceintu, hanhitz defencusa eta estacuru edireitendu: hala edireiten ditugu bada gure occasinoac, defencufac, estaculuac, atchaquia eta itculpideac, beccatutan egoiteco, defircundetan eta nahicundetan demboraren iragaiteco.

Nehorc ontasunera hersten çaituenean, eta guibela çaudenean, ihardesten dioçu, hala hersten çaituenari: Othoi orai presenteon barccatu behar derautaçü, ecin daidiquet oraiño, çue dioçuna. Ceren buruan sarthü baitçait fantasia bat, complitu behardut fantasia hura: Gogora baitçait guticia bat, iragan behar dut guticia hura: appur bat asse behardut; aspectu behardut, dichiritu behardut: eta guero orduan asse, asper, dichiri eta nekhandinean, vianda, higuintcen has daquidanean; orduan guztjac utcicoitut: orduan bide on batean iartcera eta finatcera deliberatuqui deliberatucodut. Baiña bitartean, anart-



raino, ezta cer mintçaturic. Ceren nic orai ahal duquedan guztia da, desira ona, gueroco gogoia eta intencioea, eta ez bertceric. Ezta bide gaixtoa haur, eta hunela orai eguiteca, guero fin gaitz eguiteco.

§. 2.

SAn Agustinec, frogatuac beçala; anhitauça erraiten du luçamendutan ibiltceco pontu hunen gainean. Contatcen du, nola bere bicitce gaixtoaren vtzteco inguruneracenean, ibili cen ecin ethenduz, ecin partituz, eta bere baithan ecin deliberatuz. Contatcendu halaber, cenbat trabu edireiten çuen, cenbat guerla eguiten cioten bere lagunenec, occasionec, eta aztura gaixtoec. Aldebatetic desiratcen çuen bide onean iartceahartara bulcatcen çuten bere ama fainduaren nigarrec, concientciaren autsiquieoc, eta iaincoaren manamenduec. Eta bertceric, trabatcen eta guibelatcen çuten, leheneco vfaratceoc, eta guztiz ere emazten balacuec, hitec, ederrec eta placerrec. *Tenaciter colligabar à fortuna. Emaztec cedueaten bortitzi qui lothua. Dixeram da mihi castitatem & continentiam sed noli modo. Timebam enim, ne me cito excederes & sanares à morbo concupiscentie, malebat expleri quam exingui.* Emaztetaric apartatceahain ceitçan gaitz eta gaitzi, ecen bere othoitza

Lib. 8. conf. cap. 1.

8. conf. cap. 7.

ere, herçaz gueroco, ethorquieuneco eguiten baitcituen. Ceren vel dur cen, ençun ceçan bere hala iaincoac, eta bere placerac, goçatu nahizco desira handi batequin, bere goçozan cerabilçanac, guibela ciatçon. Eguiteco huneran cebillanean, eraiten cioen iaincoari *Modo, ecce modo, sicut paululum.* Haiauna vtztaçu appurbat, iguricaçu bertce appurbat, ez lehia, ez khecha, ez berantets, fari naiz çurequin. Hunela erraiten çuen, hunela luçatcen çuen. Eta luçamendu hautan cebillala, dembora handia iragan ceican; Ordea guero ere, hura azco goiz bihurtu cen; etcen azquen ponturaino egotu. Aitcitic, aldebatetic eta bertceric bere contuac eguinec; erran cioen, deliberamendu handi batequin, bere adisquide bati. *Ego iam me abrui, ab illa nostra spe, & ideo seruire statui, ex hac hora, in loco hoc aggredior.* Nitçaz denaz beçan batean, ni campoan naiz munduco eguitecoetaric, vanaloretaric eta esperantça guztietaric: nic hautsi dut munduarequin; eguindut harequicoaz, eta deliberatu dut iaincoaren cerbitçatcera. Eta orai bereon, presenteon hastennaiz: ezta ia guehtago, gueroco gueroric, luçamenduric, eta ez eppetan ibiltceric. Eta hala, erran beçala, eguin ere çuen. Anhitz luçamendu erabili çuen, baiña azquenean guztiac, eta asco goiz vici cituen. Baiña gueçtugu hala eguiten, egunetic egunera gabiltça,

8. conf. cap. 6.

Kheja.

8. conf. cap. 6.



bethi prometa ; bethi gogo har ; eta behin ere ez ethen , behin ere ez delibera , eta ez compili : bethi nahi , bethi nagui , nahicunde hutsetan , desircundetan , dembora guztia gal , eta hala gaudecilla , heriotceac atrapa , atcemari eta har .

Icussico duçu iende handi batçuen etcheetan , Hercules sendo famatu hura pintatua , maquilla borra bat , edo maillu handi bat , escuan duella , baitirudi eçen hartçaz , etchean sartcendiren guztiey , buruac hautsi behar derauztela . Ordea nola Hercules hura , harrizçurez edo cobrez eguina baita , edo pintura bat baiten ezpaita , gueldi dago kheinatceaequitendu eta ez bertceric . Hala dira bada , guerotie guerora dabilçenac ere , kheinatcen dira , eta eztute aurtiquitcen : destatceñ dira , eta eztute defarratcen . Erraitendute ; eguinendut , eta eztute behin ere eguiten . Hala dauçela dembora guztia iragaiten çaye , eta berac ere iragaiten , finatcen eta accatcen dira



Nola eztugun gueroco segurantçaric.

CAP. IV.

BAdaquigu ; orai darabillagun bicitecea , biciteç gaixtoa dela : eta gutças ongui içaitecotz , biciteç gaixto haur vteci behar dugula . Ordea pontua da , ea noiz vteico dugun . Eta çuc dioçun ; Guero Baiña nic diot ecen ez guero , baiña , orai . Daculagun ea ceinec dioen hobequi , ceinec duen arraçoña . Eta eracusteco ecen nic dudala , eta çu çoacilla , hutz eguina eta bide errealitic eta çabaletic aldaratua eta errebeltatua . Erradaçu behin , equiteco hunetan saithu baiño lehen . Çue baitioçu ecen , guero onduco çarela , guero behar diren descarguac , eta eguin bideac eguinen ditutçula . Non duçu Guero horren segurantça ? Eztaquigu , erran comuna den beçala , eztela heriotcea beçain gauça seguric , eta orena noiz içanen den beçain guti guerthuric ?

Çure biciteç hunec haindu cimendu hacoa eta eria , ecen ongui mainçatcera , ecin baiterraquegu , bihar eguinendugu , hunelaco , edo halaco gauça . Baiña erran behar dugu iondone in sua lacuec dioen beçala . *Si Dominus voluerit* , epistol. & *si vixerimus , faciemus hoc aut illud* . Balcap. 4.



din laincoac nahibadu, baldin bici bagara e
guinen dugu haur edo hura. Hargatic errai-
tendu San Matheo Evangelistac. *Vigilate in-
que, quia nescitis diem neque horam.* Caudate
prestic eta iratçarritic. Ceren eztaquique egu-
na eta ez oreña, eta badio Spiritu Sainduac
ere, anhitz galdu dela, bere buruati ethorquir-
çunaz, sobera prometatuz. *Repromisso ne-
quissima multos perdidit.*

Ecclef.
29.

Gure lehenbicio aitaren beccatua dela
causa, haren gatic, haren cariaz, guztioç gau-
de preso guztioç gaude mundu hunetaco gar-
cel hunetan, eriotçera condenatuac.

Baiña iragaitçaz beçala, gure heriotçera
condenaturic, egoiteco pontu haur vkhi de-
çadan Badirudi ecen gure lehenbicioo aita-
ren beccatua gatic, ez hanc berac, eta ez guc
ere, ezquendueyela hil behar. Ceren sa-
garbat, edo halaco bertce fruitu bat iançuen.
Badafagar baten iatea gatic, guison baten, a-
re bere ondoco guztiequin, heriotçera con-
denatçea, badirudi iusticia berriarena, sobe-
rania eta arraçoñaren contra dela. Eguia da,
hala dirudi. Ordea ezta hala, iduria du, eta
eztiçana. Aitçitic sagar baten iatea gatic, ce-
ren hain gauça ttipian eta errachean manua
hautsi çuen, aldez hargatic çuen gaztigu gue-
hiago merçeci. Batçuec bere laçotafunez, ce-
ren ezpaitira guiristino sinac, barur eguna
mengoa gabe hautsten dute: batatequin eta

Errag.

bertcearequin solhasean daudecilla, meça en-
çun gabe, besta eguncan vztien dute: hitz
guztiçaz, ez eta bai, asco dan leccuan, a negu
eta iuramentu eguiten dute, eta guero errai-
ten dute. Baldinba ez ahalnaiz haren gatic,
huncin gauça appurra gatic, eta huncin errax-
qui eguin dudana gatic ifernuraco? Bada
erran nahi deratçur ecen ceren horrein gauça
errachean, appurtean eta ttipian ceure lacho-
tasuna eta laincoaren manuz contu guti
eguitea eracutsi duçun, aldez are hori gatic
ifernuraco çarela.

Baldin laincoac manatu bacinitu, egun
guztiçaz barur cindecilla; çur baten edo har-
ri baten gainean, oheran farthu gabe etcin
cindecilla. Cilicio bat, cerdazco guerrico
bat, lartu arras behi ere erabil ceneçala: edo
finean, hunelaco bertce manamendu gaitz
bat, eman baleratçu, badirudi etçatequeyela
miretsteço, ez complitçea; eta ez complitu
agatic ere içan cenduqueyela cerbait defen-
çusa eta estacuru. Baiña gauça ttipian eta er-
tachean, sagar baten debecuan, cer defençu-
sa, cer estacuru ahal duqueçu?

Adanec anhitz labore eta abantail errecibitu
çuen laincoa ganic, eta guero hequen guztien
buruan, çuhaitz bat seiñalatu baitçioen erra-
tentioçla bertce guztietaric bai, baiña haren
fruitutic etceçala ian. Manamendu eriaça; de-
becu ttipia ibeni ceraucan; eta guztiarequin



EZTUGULA GUEROCO

ere, etçuen beguiratu, etçuen complitu, haur
si çuen, iançuen, arraçoinez beraz, eriazta fun
hura gatic, beta gatic ere, condenatu çuen be
re ondoco guzticquin heriotcera: ceren on
dococ ere, haren naturaleça hartu bairçue
ren. Gauça, debecua, ttiplada, baiña desobe
diencia handia. Eta hala iustuqui dago, gure
contra sententia emana: iustuqui gaude, he
riotcera, condenatuac: eta eslaquigu noizco
Beraz baldin gueure buruoz contu onic, eman
nabi badugu, condenaturic dagoen bategi
beçala, behar dugu, egon, bici, eta, goernatu

Garcelean dagoenac, iaquiten duencan
condenatu dela biciaren galtcera, norcerre
nendu nola tristecen den? cein gogoetatse
iartcen den? Haslenda hats beherapen eguit
ren, alde batera eta bertcera içultcen. E
icussiric eztuela erremedioric, eztuela ef
capateric; hart ceintu lehenez bertce gogoe
ta molde batçuc. Munduaz eta munducoe
etsicen du, eztu hetçaz conturic eguiten. Be
re concienciac, bere arimac derauca eguite
co. Bere beccatuac pensatecintu, ahalic eta
hobequiena cofessat ceintu; batari eta bert
ceari batcamendu escateççaye. Finean aha
beçanbat, bere conciencia descargaturic, eta
garbituric, heriotceari iguriquitcendio.

Bada garcelean condenaturic dagoen haur
beçala, hala prestaturic; hare dituengogoe
requin, behar dugu gure ere, egon, bici eta ibili

SEGURANTÇARIC

19

hura biharamuneco beçala, gu ere, ez iaquin
noizco, venturaz gaureo, iaingoaz beraz, iaing
coac sententia emanic condenatuac gaudenaz
gueroztic.

Sar balitça iusticiac hamar guiçon garcelean
barrena vrccabera condenaturic: eta handic
athera balitça galtcera egun bat, eta bihar
edo bertce egun batez bertcebat, edo pia,
Othe ligateque nehor ere, hequen artean,
bicitce luçaren esperantça luenic? Edo ce
ren eztuten lehena atheratcen, asquenai
çanen dela segur licenic? Estut vzte. Baba
mundu haur ezta bertce gauçaric, gure heri
otcera condenaturic gaudenon garcela bat
baicen. Eta garcela hunetarie atheratcen gal
tu iaingoaren iusticiac, egun bat, bihar bertce
bat: bata lehen, bertcea guero, eztaqui ne
horc noiz, ezta segurantçaric. Beraz gauden
erne, gauden prestic segurantçaric eztenaz
gueroztic.

S. I.

COmunzqui ahotan babillan solhafa da:
Eztugu gueroco segurantçaric, bethi ga
ra periletan. Eta hala da eguia. Ceren gutien
vzte dugunean, gueure gogarenic gaudenean
eta aircinera ere hanbitz gauçaren eguiteco
gogo hartcen dugunean, atrapatcen baicaitu
heriot ceac.

C. vi



Nescit homo finem suum, sed sicut pisces capiuntur hamo & aves laqueo. comprehenduntur sic capiuntur homines tempore malo. Eztaquiguiconac bere finaren berriac, baiña nola amuac atcemaiten baititu arrainac, eta hegazitnac segadac; hala guiconac ere atcemaitentutu bere heriotceac. Arraiña alba denean, bazcari dat checanean, eta bere vstez hobequienic dagoenean, atrapatcen du arrantçaleac; eta bai hegazitna ere ihizariac. Hala atrapatcen du bada beccatorea ere, heriotceac bere beccatuey bere gogarenic datchetenean, goçoquienic ala çayenean, eta gutien vste duenean.

Midicuen errana da, pifuna batec, sendoen denean, duela eriteco perillie guhiena. Eta hala noiz eta vste baituçu, heriotcea çure ganic dagoela vrrunenic, orduan ohi dago comunqui hurbilenic. Cortac pagatu dituçunean; erche berriac eguin duçunean; ymeac ezcondu dituçunean. Finean ceure eguicoey garaituric, baqueon batean iartcera, eta cerbait sofegu eta plazer ceure buruari emaitera prestatcen çarenean, han da bere hala heriotcea.

Ezcara deus ere, beiraquiaren pare gara eta are beiraquia baiño perilos eta hautscorrago. *Aug. ser. 1. de. Eztugu beiraquiac beçanbat indar eta sopper verbis. tu ere Quid fragilius vase vitreo? & tamen Dom. ser. vatur & durat per secula. Etsi casus vitreo tom. 10 vase timetur, senectus ei & febris no timetur, dno*

San Agustinec. Cerda beirazco vntcia baiño gauça samurra gorie eta hauts corragoric? Eta alabaiña ailtchatcen eta beguirateen denean, irauten du mendez mende. Ceren erort cearen peril badu ere ez ordea ezta succarraten edo çahastecaren perillie. Beraz beiraquia baiño perilos ago gara eta ezteus ago. Ceren behaztoparie, erortie, edo eitalunie, ez guertthatu agatic ere, eta çoure buruac abalic eta hobequiena errecaitatu eta beguiratu agatic ere, adinac berac eramaiten baitaitu.

Bethi goaci, ezcara behin ere batcen.

Quasi aqua dilabimur. Ucaten pare gara: vna beçala limburtcen gara. *Corporanostra rapiuntur, fluminum more.* Çure gorputz: e v-lattera beçala dohaci. *In idem flumen bis non descendimus: manet idem fluminis nomen aqua transmissa est.* Ezcara behinere vrbatetan bietan sartcen (dio Senecac) vraren icena bethi da bat, ez ordea vna. Ceren nola bethi baitoha, eta bethi aldatuaz, ezta behin ere lehena. Ez eta bada çure, nola bethiere baitoaci, eta bethi aldatuaz, eta mudatuaz, ezcara behin ere lehena. Eta ezperet beha eçaçu, nola pifuna bat gaztetic çahartcera; eta are batçutan vrtheie vrthera ere, aldatcen eta ezeztatcen den idurian ere, lehena ezitruediela iartcen den, cein different eguiten den.

Vita nostra na viganti similis est, is namq; qui na vigat, stat, jacet, vadit quia impulsu na vis du-

2. Reg.

2.

Senec. epif. 58

Senec.

ibidem

Grego.

epif. 26.

tom. 2.



itur. Gure bicite aitsafoz dohanabeçala da (dño San Gregorioc) itsafoz dohana , iatean edatean , lo datçinean , eta are iarriric dagocnean ere , bado ha , ezta orduan ere baratcen. Ceren vntciac , nahi ezpadu ere berequin baitatama. Hala garamatça bada gu ere guente adinac eta demborac berequin : ezta paufatceric , ezta guelditceric eta ez tricatceric.

Galdeguiten deratçutenean , cenbat vrthe ditutçen , eta ihar deñen duçunean , hogoy edo hogoy eta hamar ditutçula , ceren ceure conuan hala baitutçu , badirudi eztugula ongulihardeñen. Ceren San Agustinec dioen beçala . *Animi nostri venium , ut eant , non enim venium ut fient nobiscum.* Gure vrtheac ethortcen dirioateco , eta ez gurequin egoiteco ; iragan dira , beraz ecin derraquegu baitugula. Eta hala baldin vrthe hequen buruan , iarbagaiteci hetçaz , cer eguin diren gogoetan , eztugudeus edirenen. Aitecic icussico dugu , sentitugabe , ioan çaiçzigula , eta nola eztaqui gubaçahartu garela. *Tempora labuntur , rarisquifenescimus annis.* Demborac badohaci , eta vrthe ichil batçuez , hotfic eta habarrotfic eguitugabe çahartcen gara.

Erraitenda , hunelaco bici içatu cen hirur hogovrthez , baiña hobequi erran liteque. Ceren forteen garenean , hasten gara hiltcen , orduan abiatcen gara , eta ezcara behin ere baratcen. Le

August. in psal. 65.

Ovid. lib. 6. Fallo.

August. in psal. 127tom

heni hiltcen da haurtafuna : haurtafunaren ondoan hiltcen da , morrointafuna : morrointafunaren ondoan hiltcen da g:ztetafuna : g:ztetafunaren ondoan hiltcen da çahartafuna : çahartafunaren ondoan hiltcenda sentontafuna. Adin guziac elcarri darratça : iragai-tea eta hiltcea guzia da bat : bata bertcearen ondoan dohaci , halaco moldez , ecen azquen adina dathorreneco , accabatu baitirate leheneco guziac. Ceren San Gregorioc dioen beçala . *Ipsè enim quotidianus defectus , quid aliud est , quam quedam prolixitas mortis ?* Eganetic egunera haitce eta flacatce hura , cerda , luçaro hiltce bat baicen ? Cucia irachequiric dagoenean bici da , eta orduan hiltcenda , ceren orduan ahitcen baita. Erratceaz bicitecnda , eta erratceaz hiltcen da. Hala bada gu ere , biciteaz hiltcen gara , eta hiltceaz bicitec. Ceren bicitec garenean hiltcen baicara. Eta cenbatenaz eta guehiago biçitec baicara , hanbatenaz heriotceco portura hurbiltcen ago gara. Hala erraten du Senecoc . *Quotidiè morimur , quotidie enim demitur aliqua pars vite.* Egunoto hiltcen gura , ceren egun oro gure biciteari cenbait pochin eta parte gutitcen eta edequitcen baitgaica. Eta are hazten eta handitcen garenean ere , gure biciatpitcen eta labutteen da. Behi doha , eta behin ioanez guero ; ezta ioan dinaren bihurtceric , eta ez ethorquiçunaren segurantçatic.

Greg. tom 27 super Evang.

Senec. epif. 2

Pogin.



ERraiten obi dugu. Venturaz egun hillen gara, venturaz bihar, eztugu oren baten segurantçariç : beraz lehen baino lehen, behar dugu bide onean iari, enganatuac gueitha ezcaitecin Hunela erraiten dugu, eta erraitea ongui eguiten dugu; ordea obiatceat bethi ere gueroco vitzten dugu : herioteca çahartcear cotçat, egõzten eta orderatcen dugu. Ecin sinhetz deçaquegu, adinac berac accaba arteiño, accabatuco garela. Erran bai nahi ducun beçanbat : venturaz bihar hillen, venturaz gaur, venturaz ez çahartuco. Ordea çahartuco baiquina beçala gueure gauça guztiaç eguin Gueure nahiarequin batean, gueure gogoac hanbat segurantça emaiten deracu; non çahartu huzsezco ponturaino, ez carela hillen iduricen bait çaicu.

Gen. 3.

Erran cerauenean deabruiac gure lehenbico aita amey. *Nequaquam moriemini.* Etçarete hillen, sinhetçi çuten bere hala, eta sinhetçi ere colpe batez osloqui, dudatu gabe. Eta dembora hartan etcen hain miresteco, hala sinhestea. Ceren nola baitciren munduco lehenbicozoac, etçiaquiten oraino heriotcearen berrinac, etçuten nehor hiltcen celiacçu, eta halatan erraxqui enganatu cituen. Hala bada nahi guinituzque gu ere enganatu moldè berean nahi ler auquegu guri ere, ezca

rela hillen, sinhets araci. Ordea nola guorai bertcearen baithan ieussiz, eta gueure baithan ere çaharceaz eta flentceaz frogatus, baiçaquigu seguriçi eta guerthiqui, hil behar dugula, eztugula itçueneric, eta ez nehoizco segurantçariç; ecin engina gaitçaque gu, gure lehenbico aita ama hec beçain erraxqui. Gurequitotçat, guri ezcarela hillen sinhets aracitcco, edo sinhesten baiquendu beçala, eraguitcco, bertce bide bat hartcen du, bertce ioco thailubat iocarten do, bertce mañaz eta traçaz vfatcen du. Ez osloqui, ez colpe batez, baiña appurbana eta eguineric egunera luçtuz atrapatcen gaitu. Sinhets aracitcen deracu, ezcarela egun hillen, ezcarela bihar hillen, eta bihar beçain eppe luçerice ez, eta ez bihar artçaino bicitcco esperantça eztuenic : eta halatan eta handic, noia ezpatugu vste egun hillen garela eta ez bihar ere, bicitcen gara, segur baiquina beçala, edo seculan, hillen ezcarela, baiquinaiqui beçala.

§. 3.

EZtaquigu noiz hillen garen, eztaquigu noiz içanen den gure azquen eguna : ezta beraz arraçoïn, iaquin deçagun, noiz içanen ezten ere. Ordea badirudi ecen, noiz içanen den ezpadaquigu ere, badaquigula noiz içanen ezten. Ceren erraiten dugu ecen.



guero bertce vrthean onduco garella; orduan
hunelaco eta halaco descargu eguinen ditu-
gula, beraz badaquigu eztela an arteraino iça-
nen, bitartean iguriquico çaicula, edo behint-
çat erraiten eta eguiten bedere badugu, bai-
quini qui beçala.

Guc nahi guenduque eguin gueure bicite-
ceaz, eta biciteco demboraz, oihal puse-
batez eguiten duguna. Oihalaren parte bat
neuricen eta ordenatcen dugu capataco, ber-
ce parte bat, iacataco, eta gaireracoa beha-
diren, bertce soñecoen eguiteco. Hala bada
oihalaren beçala, gueure bicitecearen ere iau-
iabe eta nabusi baiquina beçala, ordenatcen
dugu bicitecearen parte bat, eta parteric hobe-
rena eta ga'ena gaztetafuna, munduarentçat
etaguero gaireracoa gaixtoena, ça'harafuna
laincoarentçat. *Quod in manu fortune positum
non disponis, quod in tua dimittis*, dio Seneca
Ethoriquico guaçac, fortunaren esuan
eta venturan daudecinac, nahidituçu, or-
danic goernatu: traçatu eta destatu: eta or-
sentecoac ceure esuan dituçunac, vtzen di-
tuçu gaitcera: duçun z eztuçu conruric
guiten, eta eztuçunaz, eguin gogo duçu mi-
cuillu. Orai laincoac emaiten derauzqui-
çun biciteca, ofafun, indarra, antoea eta or-
hafunac nahidi utçu, laincoaren beraren con-
tr çabiltçala bigatu eta galdu, eta guero
raino eman ezterauzquitçunac, eta ventu-

Senecac
de bre-
vitate
vitæ
cap. 9.

emanen ere ezterauz quitçun c dioçu ecen,
baten cerbitçuan empegatuco dituçula. Ie-
cussaçu ceure itfutafuna, desgouernua eta
gaitceco bidea.

Ninivitec penitencia eguiteco berrogoy
egunen eppea, espatioa eta segurantça çutela-
ric, hartara behatu gabe eta azquen egunaren
beguira egon gabe, berehala, lehenbico
egunean, hafi ciren penitencia eguiten eta bere
falren erre mediatec; eta handic eta hala-
tan salbatu ciren. Cergatic badaguc ere, ez-
tugu hala eguinen? Cergatic vci behar dugu
gueroco, ez berrogoy egunen baiña baten
ere, segurantçaric eztugunaz gueroztic?

Noeren demboran, iaten, edaten, iocaten,
daiçatcen, ezcontcen, sal-erofi eguiten, eta
ethoriquicunerat anhitç guaçaren ordenat-
cen, pensatcen, eta traçatcen, hari circla,
hartu eta hondatu cituen vrac. Hala da bada
peril guertha daquigun guri ere, guerotie
guerora çabiltçanoy. Ceren hec cein guti-
çuren, are guc baitugu, hec baiño segurantça
gutiago; eta aicinerat hobequi behatcen ez-
padugu, gaitceco eta fin gaitç eguiteco, idu-
ti, arau eta molde guehi ago.



GUERO VENTURAN

Nola gueroo venturaven, venturan venturaturic, ga'teen garen.

C A P. V.

Nola gure laungoicoa baira hain on, b'hotz bera, misericordios, picienciatsu eta ethorcor; erraitenduçu. Anbitzi iguriqui dio eta iguriquitçen dio çahartu hütsezco ponturaino, naturale çac bere, bere ahla eguin arteino; beraz eztut oraino cer lehaturic, ceren venturaz, hala eguinendu enequin ere, venturaz dioçu. Eta estaquçu venturac, venturaren iocoac, eta tornuac dituela?

Hirur ventura molde, hirur ventura fuerre edireiten ditut pontu hunen gainean. Lehenbicoa da, beccatu eguiteric eta inhitz perletaric beguiratcen eta guibelatcen gaituena. Handi erraitendugu, eztut beccaturic eguin nahi, ceren venturaz hetan nengoela, neure azquen eguinc atapa nintçaque. Eztut ebatti nahi, ceren venturaz iusticiac arce-man nintçaque, vrcca edo açota. Eztut iocatu nahi, ceren iocoa ezta errenta, venturaz gal neçaque. Eztut ezcuetan dudanz gabatu nahi. Ceren venturaz guero, nahi dudanean.

VENTURATUR C, GALTÇEN GARELA 69

eznuque. Hala erran ceraneçan Virginia çuhurtec, Virginia erguel olio esque ethorriciteneç. *Ne forte non sufficit & nobis.* Ez teratçuegu eman nahi, ceren venturaz guero, ezquenduque guetereçat asqui. Hala Dathan eta Abiron bere lagun batçuequin lurrac iretçi cituenean ere; eguin çuten iguru hartan citueneç, handic ihes, erraiten çarela. *Ne forte & nos deglutias.* Goacin hemendic, ce en baldin hunen bagueneunde, venturaz beriteç hanc beçala, irets guinçaque gu ere lurrac. Haur da ventura ona, etho guinçoneco ventura gaixtotic eta peiletic beguiratcen gaituena.

Bi garrena da halaber, ventura ona, beccatu eguin ondoco, eguinen erremediatu nahiz dabillanarena Iccusnic galduac goacilla, laincoaren manamenduac hautsi ditugula; Erraiten dugu. Eguinac eguin, ez guchiago. Aitcinera nobequi nahidut gouernatu: laincoari cin çnez, bihozeçco vniquimendu batequin nahinagaica barceanendu escatu. Ceren venturaz halatan barceatuco deraut, halatan iganendu niçaz misericordia. Minçateç molde huneç vlatu çuen Daniel Prophecac ere, errancioencan Nabucodonosor erregueari Erregue aparta çaitte ceure leheneco bide gaixtoetaric, eta eguicel erremusina, çaren beharren alderacoteçat bihotz bera eta misericordioz. *Et forsitan Deus ignoscet de-*

Mat. 25.

Num. 16

Dan. 4



licis tuis. Eta venturaz halatan laincoac barcatuco deranz quitçu ceure becc tuac. H la Ninive hiri h ndi hirtaco erregueac ere, ençun çuenean h sferre cela haren eta harenen contra laincoa, manatuçuen hiri gustia, iarcedilla debocinotan eta penitenci tam, gustiac barur citecilla, eta are abre mutuey ere; etcequiela eman intera eta ez ed itera, erraiten çuela. *Quis scit si convertatur, & ignoscatur?*

Ionx 3. *Deus, & revertatur à furore ira sua, & non peribimus?* Note daqui, mehatchatu bagaitu ere gueure laincoac, eta erran badu ere hasferre dela gure contra, ez gure vrriquimendua eta penitencia iccusfiric, itçulico denz bertce adera, ematuco çaincanz bere colera, eta vtico gaituenz gatzigatu gabe? Erran baillu beçala. Arraçoinequin da, gure laincoa, gure contra hasferre, arraçoinequin mehatchacen gaitu, eta erraiten deracu gatzigatu nahi çuituela. Baiña guztiarequin ere debocinotan iar gaitecin, lehen guxtatafunen begitla, orai ontafunean emplega gitecin, eta venturaz alatan bihotça hautico çaica, vrricalduco gatçaitça, eta barcatuco deracatu. Hala errancioen vtici maestruac ere, ionx 2. *mentatus es babilonean, Ionas Prophetari. Quia tu sopore deprimeris? Surge & in voca Deum tuum si forte recogitet de nobis, & non perream?* Cer hatiaz guçona? Cer aratçalo? Eztacuasac ithotcera goacilla? Haic hortie, iar çdi

oracinotan, eguioc heure laincoari othoitç; eta venturaz halatan escapatuco gaituc. Hala Patriarca Iacobec ere, bere anayarequin gaizqui cenean, igorri cerautçan bere anaya hari aitçinetic presentac, erraiten çuela. *Forssitan propitiabitur mihi.* Venturaz hunela-Genes. 32. tan present hauquin batean barcaccatuco deraut, venturaz hunelatan adisquidetuco gara. Haurda bigarien ventura ona, ontafunean emplegatcen dena, falta eguinac erremediatur nahi dituenarena.

Baiña bada bertce bat, hirurgaren bat; venturaz gaixtoac, luçamendua bilhaltcen dituen, guibelamendutan dabillana, eta perillie baiten ezten leccuan ere, segurantçac ediren nahi dituen. Erraiten çaitçu çahartcen hafi çarela, bi illetan iarri çarela, beguiac lambotcen hafi çaitçuitçula, bidearen bi herenac itagan ditutçula, eta baldin horrela çaudela, ceure azquen egunac edireiten bagaitu, ez venturaz baiña seguraz condenatuco çarela. Ordea çuc eztuçun hunelacoric sinherfi nahi, eta ez ençun ere. Ait citic ceure nahi arequin batean venturaz eztella halacoric içanen iduricen çaitçu. Eta erran behar bidean. Venturaz hala içanenda. Venturaz condenatuco naiz, erraiten duçu, venturaz eznaiz condenatuco, venturaz ezta halacoric içanen.



GUERO VENTURA

§. I.

L Ehenbieico gueçurra, lchenbieico emazeac erran çuen. Galdeguin ceraucanean deabruc Enari, ea cergatic etçuen iaten parabisueren erdian cegoen çehitz eder haten frütu eder hartaric? Ihardetsi çuen.

Genef. *Ne forte moriamur.* Ezut iaten, çeren erran baiterant laincoac, baldin iaten badut, venturaz hillen naicela. Eta ala baiña laincoac etçioen, hal coric erran; etçioen venturatic aippatu Garbiqui eta seguçqui erran etçoen, iaten çuen egun batean hillen cela; erran nahida, mortal eguinen cela, h'iquiçun iguinen cela. *In quocumque enim die comederis ex eo morte morieris.* Venturaz hura Buac berat berietu eta iratchequi ceraucan, eta berreturata eta iratchetura hartçaz, bere burua eta guztioe ere galdu guiniruen.

Emazte ezcondu batec, bere senharra berterequin, eta ezcondu gibeac ere, behar eztenarequin, beccatu eguitera, deliberatcen dutenean, ezcondua oihiteen da bertsenharraz, eta bai ezcondu gabea ere, içorratceaz, eta ethor ahal diquidicayon dehorteez eta calteaz. Ordea hargatic venturaten dira bata eta berceat ere erraiten dutela, venturaz senharra ezin jaquinatu venturaz eznaiz içorratuco. Ohoñari etcebaflera dohanean, gogoatcen çaica, eferu

VENTURATURIC, GALT CEN GARELA. 73

iratchequi badiatçote, gutenean bereac emanen derautçatela, açotea içanen duela. Baiña hanc ere site conso atcendu bere burua, erraiten duela. Venturaz ez naute atrapatuco, venturaz eznaute sentituco. Hala bada gue ere, guerotie guerora gabiltçanoc, consolatecintugu gueure buruoc, eta erraiten dugu. Venturaz huncraño iguriqui derautanac, iguriquico deraut orai ere. Venturaz orai ezpadut ere içanendut aicinerat; onçgui eguiteco gogo. Eztira oraiño dembora guztiaç iragan.

Bada hemen ventura franco, eta ez esperançea eçealic. Cerda hauç? Non da centçua? Non da accordua? Cer eguin da adimendua? Ceure salbamendua, hanbat dihoatçun gauça, seculacotçat onçgui edo gaizqui içaitca; ibendeçaçula venturan? Eztuçü penlatcen; ventura horrec, venturaz, ventura gaixtoa emanen deratçula? Eta norc bere duen guztiaçen venturateca, erhoqueria handia dela?

Venturaz hunen gaiñcan edetçqui erraitendu san Chriçostomo. *Sed multis, inquis, Chr. Deus dedit privilegium, ut in ultima sancta Hom. confiterentur. Quid igitur, nunquid & tibi dabit? Forasse dabit, inquis. Cur dicis for-* tom. 4.

tasse? Coningit aliquoties Cogita quod de anima tua deliberas, proinde etiam de contrario cogita? & dic Quid autem si non det? Quid autem, si des? Inquis. Dat qui-

D



GUEROCO VENTURAN

dem ipse, verum hoc illo certius & nullius. Errai-
tenduçu eta erranenduçu. Iaincoac anbitzi
emanen deraue priuilegio haur, gaztean
gaixto ičanagatic, iguriquitcen baiteraue,
caharditezqueyen arteiño, eta orduan behar
den bidean, penitencia eguinic, salbatcen
baitira. Cer bada çuri halaco priuilegioric,
edo garaciatic emanen othe deratçu? Erra-
nenduçu, venturaz bai. Cergatic dioçu, ven-
turaz bai? Ceren batçutan guerhatcen bai-
ta. Eguçu gogoeta, ceure arimaz dioatçula,
eta pensaçaçü, contrara ere guertha dite-
queyela. Eta erraçü. Cer ičanenda iguriquit-
cen ezpaderaut? Erranenduçu oraiño. Eta
cer ičanenda iguriquitcen baderaut? Iguri-
qui ahal diaçaçü. Ordea hobeaço, eta segur-
ago da iguriquico ezpaileratçu beçala, bicie-
cea eta gouernatcea. Hunen arauaz erraiten-
du San Agustinec ere; *Si enim fori asse Deus non
perdet nec malos, sine dubio non perdet bonos? Cui
ergo non ulegimus, ubi duditaçio nulla est?* Bal-
din Iaincoac venturaz galduco ezpaditu gaix-
toac, segurda eta duda gabe da, eztituala
galduco onac. Cergatic bada ezrugu bat eta
dudatic eztruena hautatuco? Cergatic ez car-
uenturac vteric, segurean iocatuco? Nola
erraiten baitugu; venturaz iguriquico dera-
çula Iaincoac, derragun (guertha ditequeyen
gauça baita) venturaz ezteracula iguriquico
eta gouerna gaitecin, iguriquico ez paileratçu

Aug. in
Pl. 77.

VENTURATURIO, GALTEN GARELA. 78

beçala, eta halatan eta ez venturan baiña segur-
rean ičanen gira.

§ 2.

SEgur beçala daducat, ifernura loaiten di-
en guehienic, guero baten venturan iari-
nic, hartan fidaturic eta hartan enganaturic
loaiten ditela. Behintçat hala ioan cen Euan-
gelioco aberatz hura. Ceren nola san Lucas
Evangelistic erraiten duen beçala, aberats
hari vithe ona guerthatu baitceican, eta vil-
du baitçuen anbitz, iarri cen bere buruare-
quin gogoetan, erraiten çuela. *Quid faciam* Luc 11.
quia non habeo quo congregem fructus meos? Cer
eguinendut? Noraco dut hunenbat ogui ar-
no, bihi, fruitu eta onhasun? Eztut eduqui-
ceco leccuric ere. Baiña badaquit, cer egui-
nen dudan, erraiten dio berriz bere buruari:
Leheneco bihiteguiac, ardandeguiac, fotoac,
salac, eta gambarac handitucoitut, eduquit-
ceco leccu franco eguinen dut. Eta guero
sosegatuco naiz, ardura guztic vteric, pau-
satuqui, hatlaren gainean iarrico naiz; er-
raiten dudala neure baithan. Orai arseguin
har deçadan, in deçadan, edan deçadan, ce-
ren berdin eztut deusen escasic, eztut guero-
coren peritlic, badut ethorquicunecotçat be-
harden complimendu guztia. Bada contu
hautan, contyac ongui equin gabe, cebilla.



la, adituquen cerutic minçoa. *Stultie hac no-*
te repelen animam tuam à te, quæ autem para-
ti cibus erunt? Ha erhoa, centç ngabea, cet
mintçoi? Cer gogoeta darabillac? Eguin
ditchiteac, gaur escatuco çairçue heure ari-
maren, gaur gorputzetie atheatic, eraman-
nen derane. Eta guero orduan, vilduric da-
dutzcan on orieç norentçat içanen dira? Er-
hoa deiteen du aberats hura, eta arraçoine-
quin. Ceren cerda erhoqueria handiagotic,
gueroco demboraz, bertçeren escuan eta
venturan dagoenaz, bere escuan eta segur-
rean baillu beçala, ordenatcea biiño.

Gaitecin beraz bertçeren gaiñean centça
deçagun bertçeren periletic athera seguranta
ça, harteen dugula, spiritu sainduac emait
ten deracun conseillua. *Non tardes con verti ad*
Eccles. Dominum, & ne differas de die in diem, sabito
3. enim veniet ira illius, & in tempore vindictæ
disperdet te. Con verti çaiteci, beccaturic
iltqui çaiteci; eta ezteçaçula berant ezteçaçula
egunetic egunera luçat. Ceren gutien vster
duçunean, ahantçenie çaudenean, neurria
betheco da, lainçoa h fierretuco da: eta guero
mendecuzco egunean, heriotecco dembor-
ran, galduco, eta defegunin çartu. Baditudi
haur eman nahi çuela aditçera spiritu sain-
duac berac, errançunean. Ne dicas amico tuo
Prov. 3. vade & reverte re, & cras dabo tibi, cum statim
possis dare. Ezterroçula ceate adisquideanti

dohala eta dathorrela, bihar emanen dioçua
na: baldin baduçu emaitecoric, emoçu be-
rehala. Erran nahidu. Eguinen duçun onguia
eta ontasuna daguiçula fite, gueroco ventu-
ran vtci gabe, luçamendutan, eta ioan ethori-
ritan ibili gabe.

Egun batez galdeguin ceraucaten Alexan-
dro handiari, ea nolatan erdieçti eta irabaci
çuen hanbat victoria: hanbat on eta onthasun?
hanbat hiri eta errefuma? Eta ihar detçi çuen
laburçqui. *Nihil procrastinant.* Ez deus lu-
çatuz, ez deus biharamuneco vtciç. Ez çuela
egundaiño eganean, eguin abalçeçan gauça-
nic biharamuneco vtci; etçela egundaiño
guerocoan fidatu, eta halatan hain irabaci
handiac eguin cituela.

Ezçaitçilla beraz gu ere guerocoan fida-
çeren gueroco hartan, ventura bat ahal ba-
dateque ere, ez ordea segurantçatic; eta er-
hoqueria handia da segur beharduen gauça-
ren, venturan ibentçea: biharamuneco es-
perantçan eta perilean vtztea.

Nola den guero ago gaiz ago, beccaturic
ilquitcea.

C A P. VI.

A Nhitzetan ere escritura sainduan; com-
paratcen da beccatorea, ardi errebela-



tuarequin. Eta arraçoiñequin. Ceren anhit
gauçatan baitirudite elcar. Ardia bere lague
ney azquentcen çuenean, halaco moldez bi
de onetic, eta bere ardi lagunen alhapidetic
aldaratcen, eta hastanteen da, non guero ago
vrruntcen ago, galtcen ago eta errebelatcen
ago baita. Diru bat edo eihaztun bat galtcen
duçuncan; han berean galdu canduen leccu
an guelditcenda, eta bai edireiten ere, ezta
bera handic higuiteen. Baiña ardia orenetic
orenera, leccuz aldatcenda, oihanean bar
renago sartcen da, bethi eta galtcenago eta
errebelatcenago da. Hala bada beccatores
ere guero eta guero galtcenago, errebelat
cen ago, eta bere aztura gaixtoetan barren
sartcenago da. Hargatic erran çuen erregue
Danitec. *Erra vi sicut ovis que perit.* Errebelat
tu nintcen eta galdu, ardia beçala. Ceren
beccatu bat eguin çuenean, bere hala; bertce
bateran, behaztopatu, eta erori baitcen.

Ardia errebelatu berrian da erraçenic edi
reiteco, eta incontratecco, eta bai candela
ere, iraungui berrian, oraino hoztu gabea
denean, berrizlotcecco, eta iratchequitaco.
Hala da bada beccatores ere beccatu eguin
berrian, gaienic eta prestenic beccatuti il
quitcecco.

Sagarroya, bere eguitez ere, nequez erdit
cen da, baiña are, bere faltaz nequezago.
Ceren nola larruan baita latz, eta gartzain

carlo abeçala puntaz, eta arantcez bethea;
eta ymeac ere, bera beçala latçac, jeta aran
cerluac bairitu; yme hec, erdi beharduenean;
bere arantceez, eta carloez min eguiten di
ore, eta halatan minari errendaturic, erdit
cecco meneratcen de nean, barrenat sartceintu
eta han ahal beçanbat eduquitceintu. Eta
nola hala dadutçan bitartean ere, handitcen;
eta gogortcen baitira yme hec; eta alabaiña
erdi behar, edo hil: handic azquenean, harri
biten contra permaturic, lehen eguinen cen
baiño nequez ago, eta penaz ago erditcen da.
Bada haur beror obra onen equiteco, luç
mendutan dabillan, beccatores baithan ere
guerthateen da. Ceren nola convertitcea, eta
obra onen eguitca, erditcebat beçala baita;
halatan, cenbatenaz, eta guehiago baitago;
hanbatenaz obra on hetçaz, nequez ago erdit
cen da. Beraz hunelatan, lehen baiño lehen
ianen da hoberenic, eta erraxenic obra o
nen eguitca, eta beccatuetaric ilquitca.

Çenre lurrean, çare baimendua, eta licen
cia gabe, etche bat hallen deratçutenean, ce
ren baldin obraren accabatcera vtz bacinirça
peril bailluque, accometa liaçaguten çuen
dutelalur haten gaincan, hartaracotçat, ait
cinduric beçala, ordenatcen du legueac, e
gotz ahal deçaqueçula obra berria. Hala
eguin behar da bada beccatuetan, eta becca
tuzco obretan ere; berri direino egotci behar tor.

Pfalm.
118.

off. de
novi o
peris
nuntia
L. Præ



GUERO AÑO GAITZ AÑO DELA

dira-ceren bertcela n. hico du deabruac aco-
mstatu eta alegatu, obra çahartu dela, eta
haitan çunen duela.

§. I.

ERrazago bada ere on bahituaren atherat-
cea, eta coberatcea, salduaren baiño, e-
diretten da guztiarequin ere bere onac bahit-
cen beçala, saltcen ere dituenic. Eta haut
beror guerthatcen da animaco gaucetan ere
Veldur diela, bere concientiac alha caiz-
tela-beccatu bat edo bia baicen eztutela egui-
nen eraiten dutela; eta hequen ere vtzreco
gogorequin dabilçala, beccatuac eguiten
dituztenez, bahitcen dituzte bere animaco
Baiña veldurtafunje gabe, laincoz, concient-
ciac eta munduaren erraiteaz ere, contu-
ric eguin gabe, antficia bequi dabilçanec, salt-
cen dituzte. Bahibat tabernata arnoçun igort-
cen duçunean, gaztigatcen dioçu tabernati ari
eduqui deçala cenbait egunez bahi hura, eta
guero hequen buruan atheraco duçula. Baiña
çue nola atheraco duçun ecen barren ago far-
cen duçu: egunetic egunera bahiaren gainean,
arno guehiago hartenduçu, halaco moldez
ecen azquenean icuffitic bahiaren valioa
edon duçula, bahi guztia tabernan vtzten bai-
tuçu. Bada haur beror ceure arimaz ere egui-
ten duçu. Erraiten duçu, bahi bai, baiña neho-
latan ere ezteçaqueçula fal. Erraiten duçu be-
ccatu bat eginen duçula, eta ez guehiago. Or-

BECCATUTIC ILQUITCEA.

81

dea bat eguin, eta bat hari, hanbat iratchequit-
cen dioçu bere ondotic; halaco moldez, eta
fuertez a imaren gainean, beccatuaren çorra
berretcen, eta cangatcen duçu non azquenean;
bahi guztia, cein baita çure anima, tabernan;
deabruaren escuan, eta botherean gueldit-
cen baita, hartçaz norc bere gauçaz beçala;
nahi duenaren eguitico.

Beccatutic ilquitceco, luçamendutan dabil-
lanari, guerthatcen çaiça, sensuco eta intere-
feco diruaren irabacia pagatcen eztuenari,
guerthatcen çaicana. Halacoari vtthetic
vtthera, çorra handitcen, berretcen, eta are
balçin dembora luceaz badago, doblatcen
çaiça, eta orduan ezta erraxquiago pagatcen;
Ez eta beccatua ere exta, egonaren buruan
aisequi ago erremediatcen. Ceren bataz dea-
bruac, egunetic egunera çure arimaten
gainean, escu guehiago hartcen du: eta ber-
tic bertcea, ceren nola çu baitçoaz, beccatu
eguinaz, eta beccatutan egonaz, hala doha lain-
coa ere çure arimatic ihes eguinaz, eta vtzun-
duaz ceren cerori lehenic vtzunçen baitçara;
Eguçu contu eguçu gogoeta, eta cenbat
vtthe duen beccatutan çudela, eta beccatu
eguiten hari çarela: eta edirenen duçu ecen,
vtthe hetan guztietan, laincoa ganic vtzun-
cen eta apartatcen haitan çarela. Bada co-
munzqui ioaiteco beçanbat dembora, behar
ohida, bihurtceco ere. Beraz hunelatan çue
D v.



ere ioandiren hamar vitheotan, edo guchi-
gotan, harican baçara laincoa ganic vrrunt-
cen, beharco duçu : hurbilteco ere, hain
bertce dembora. Nolatan duçu bada vste,
hambat demboraz iraganduçun bidetic, hain
laburzqui, vithe batez edo, biaz, ceure çar-
hartcean, çahartcen baçara ere, bihurtuco
çarela ?

Eguia da ordea, halaco, faborea, garacia;
indara eta haicea eman ahal diaçαιο spiritu
sainduac çure gogoari, eta vorondateari, non
vrruntcea baino fitetz ago, eta dembora gu-
titz ago; eguin baiteçaqueçu hurbilteca.
Ordea eztaquiçu çure baithan hala guentha-
tuc denz : halaco faboreric, eta garaciaic
eguien çaitçuntz.

Maria Virginia, eta Ioseph Mariaren esposa
vrrundu ciren Ierusalemetic egun baten bi-
dea, han hey Iesus haurra vstecabea azquen-
duric. Eta guero bilha abiatu cirenean,
ediren çuten hirur garten egunean. Dembo-
ra guchi ago, behar icitu çuten edireiteco,
galceco baino. Hala dirudi bada halaber,
dembora guchi ago b. hirdela, beccatuen er-
remediatceco, eguiteco baino. Cere beccatu
eguiten hari çarenean, laincoaganic vrrunt-
cen çarenean, comunzqui garte çara, sendo,
eta indaitu baino guero laincoa gana bihur-
tu, eta hurbildu nahî duçunean, eri çara
flaco, eta çahar. Beraz orduan gaitz ago iça-

nen da hurbilteca, lehen vrruntcea baino. *psalm.*
Halatan erraiten du Propheta Davitec. *Qui* ^{72.}
elongant se à te p. ribunt. Çure ganic vrruntcen
direneç sin gaitz eguinen dute. Eta laincoac
berac ere mehatchaceintu halacoac, errai- *Olea 9*
ten duela, *væ eis qui recesserunt à me.* Beguita
beute eneganic vrrundu, eta apartatu direneç
çori gaitz hequençat.

9 2

Beccatuac ilhuntecen du adimendua, fiacat-
cen du memoria, eta gaixtatecen du vo-
rondatea cenbatenaz beccatu guchiago, eta
beccatutan ego, hanbatenaz, adimendua;
memoria; eta vorondetea eztheus ago. Han-
batenaz deabrua iaunago, eta nabusiago
Hanbatenaz laincoa ganic virunago, eta a-
partago. Eta hanbatenaz çure indarra, eta
ahala ere, etsaiat ihardesteçot ttipiago eta fla-
goago. Bada gauça hauc hunela direnaz
hueroztic, nolatan duçu çure vste, guero ho-
bequi onduco çarela, eta beccaturic ilquitco
çarela orai baino? vra ttipi deiño ecin iragan
deçaqueçu, cer eguinen duçu bada handi da-
dinean? Çuhaitz ttipiac, oraiño erroric eztu-
tenac, ecin atheradiaçaqueçu, cer eguinen-
duçu bada errozta, eta handi ditecinean?
Erran nehidut-orai beccatu guti duçunean;
eta guti horice ere berri direnean, ecin de-



libera deçaqueçu , halaric ere , horietanic il-
quitcera , cer içanen da bada guero , becca-
tuz beteric età hetan dembora luceaz gogor-
turic çaudenean ? Orai hamar beccatur equin
diharducaçu , guero çhurequin iharduqui
beharcoduçu : orai vñhe baten edo biaten
vñfantça gaixtoa duçu , guero hogoyena edo
berrogoyena içanen duçu. Beccatu eguiten
coropilloac dobl tceintuçu , gatheac berret-
centuçu , carga handitcen duçu. Cer erhoque-
ria da bada haurz vñte baituçu , ecé guero carga
handiarequin hobequi manaiatuço çarela
orai tripirarequin baiño ? Vñte baituçu ecé guero
hamar beccaturen barcamendua hobequi
erdietsico duçula , orai botzena baiño ? Vñte
baituçu guero eritasuna handi dadinean erre-
ago içanen dela fendatcen , eta erremediatcen
tripidenean baiño ? Ezaquiçu nola erraitcen
duen spiritu sainduac : *Languor prolixior graua
medicum , breuem langorem præcidit medicum*
Eritasun luceac , eta çaharac neccatcen du mi-
dicua , baiña laburrac , eta berriac , eguiten
guti emaitendio , hura laburzqui fendat cende-

Inuita. Egula haureman çeraucan aditcea , aingui-
Arteni. ru batec lehenago mendietan eta ermitetan
apud bicitcen çiren saindu hetaric bati. Haur-
Suri. çuen aingairu hare guizon baten iduria , eta
rom. 4. ioancen mendietaco saindu hetaric baten ga-
pag. na , eta escutic harruric eraman çuen oihamen
147. batrena , eta han eracutic çeraucan guizon

bat ; haricela egur eguiten. Eta çama bat
eguinic , lothu çuenean , haticen enseiatcen ,
eta iasan ahalceçaqueyens Baiña hain eguin-
çuen handi , ecen ecin iasanez vñci baitçuen.
Vñci çuenean , haticen berriz bigaricentan ,
egur eguiten , eta bere leheneco çamaren
handitcen. Handituçuenean , haur çuen , eta
haticen lehen b çala enseiatcen eta iasan ahal-
ceçaqueyens , Baiña are orduan gutiago , ce-
ren lehend nic handituago baitçuen. Ordea
guztiarequin ere , haticen hirur çuenean
ere ilehiatcen , egur eguiten eta bere lehen-
eco çamaren , lehen beçal handitcen , vñte
ecen halatan arinduco ceican , eta errazqui
ago iasanen eta eramanen çuen. Saindubunec
haur iccusi çuenean , galdeguincioen aingui-
ruari. Cer eroqueria da haur , vñte baitu gui-
çon hñec , berretuz , carga arinduco çaiça-
la ? Eta handituz , erraxqui ago iasanen eta
eramanen duela ? Orduan ihardetsicioen aingui-
ruaric. Horrela doe bada munduco erho-
queria ere , vñte baitute beccatorec beccatu
anbitz equin , carga pisuarequin hobequi iai-
quico direla arinarquin b iño. Erraiten bai-
tute : Orai herabedut : Orai escuen aitean da-
rabilçadan beccaturac , ecin vtzditçaqueç :
oraiño dembora appur batez hautan egon be-
hardut , berteric ere , cenb it , iratçequit-
cen derravedala Baiña guero guztiaç vñciçoi-
tur , guztietaric ilquico naiz. Itfutafunaren



itsua, ethorqueriaren erboa, vste baituçu eeen guero, hemendic vthe baten, edo biaren buruan, or ibaiño beccatu guchiao duçuan, hosiñan barenago çaudenean; eta orai baiño flacoago çatenean, aisequiago, eta erraxqui ago ilquitco çatela. Itqui bequçu erhorqueria hori burutic, egotz etçaçu ceure gogotic, eta sinhets eçaçu, guero ago gaitz ago içanendela. Eta Ouidioc dioen beçala *Qui non est hodie, cras minus apus erit.* Egun gai eztena, bihar gutiago içanenda.

Ovid lib 1. de re medio amoris.

Nola gueroic guerora ibilicaz, cobrateten den vsantça gaixtoa.

CAP. VII.

ERraiten du spiritu sainduac. *Adolescenti juxta viam suam, etiam cum sennerit non recedet ab ea.* Nor nola gouernatce baita gaitzan, hala comuzqui eguiten ohi da, çahartecan ere. Orduan harteen duen bidea, plegua, eta vsantça, eduquitcen du guerorat erei ezta handic higitteen, ezta handic aldaratcen hari itchetquitcen çatela dembora luceaz bide bat eduquiduen vñri, ezta erraz, bertetararat irioitea, eta eraguiteac. Ezta erraz bide haren, eta handic iragaitez, hartu

duen vsantçaren, abiaduraren eta lasterraren gal aracitcea. Ez eta beraz, ezta erraz içanen, dembora luceaz coberatu den vsantça gaixtoaren ere vtztea eta aldatcea. Camaria gazte deiño heztenda. Haragui beri deiño, gaiticen da. Çuhitça tñpi deiño bilandacenda: Finean gauça guztieç lehenbician harteen dute bere plegua eta ortchoia, eta behin hartuz guero nequeç utzten dute. Gogortuz guero gaitz da bilhucateca. *Quo semel est imbuta recens, Servabit odorem testudinis.* Eltceçduçato eduquitcen du, berrian harteen duen vsaiña eta cutfua. Dio oracioc.

Orat. ep. 2.

Licurgoc eracusteco Lacedemoniacoey, plutar. cein indar handia çuen vsantçac, hartu cituen bi çacur gazte, bi or cume amabatenac, eta fabel aldi batetacoac: eta hetaric bata, vsatu çuen bethi ere, etchean barrena, cucinaco, eta succaldeco. eltceplateren artean: eta berritz bertceca haci çuen campoan ibitico orequin batean. Eta guero handitu citenean eraman cituen biac treilla batetan Lacedemoniaco iende hequen aiteinera eta han lachatu eta largatu cituen eta largateatquin batean, egotei cerautzen bere aiteinera. eibi bat eta haragui puscabat. Eta ibician usatua, abitu, cen bere hala eibiaren ondotic, eta berriz bertceca, cucinan hacia, lathu ceican haragui puscari. Eta guero er-



ren cerauen. Icusillaque iaunac cer eguitem
duen vfangac, cein indar handia duen har
cuntçac, lehenbico seguien çac, eta obi
cunde c: Nol or hautaric bata, bere h
cuntçaren arauaz, lothu çaicar haraguar
eta beriz beitea, iarraiqui çaicar ibiciat

Ecl. 7. *Filij tibi sunt, crudi illos, & curua illos a p
ritia eorum.* Dio Salomonec. Semeac dituzç
nean, escola itçatçu hautaric; vzeur itçatçu
eduqui ttipi direino azpitic. Ceren behin har
dituz guero, ezitutçu, hobequiago, man
coituco, escuperaco, eta ez plegatuco.

S. I.

D Embora luceaz beccatutan egoiteaz et
vfatceaz, berice calteric ethor ezpal
di ere, pleguaten eta aztura gaixtoaren har
cea baicen ere, hura bera behar liçateque
co, beccatutan pausatetic beguiratce
eta lehen baiño lehen bide onean iben ar
ceco. Ceren hain du indar handia vfang
ecen erraten baitu San Chriftostomec
*manna cœlesti cibo allerentur Iudei Cepas. &
lia requirebant, adeo consuetudo valet, tantum
que habet roboris.* Iuduec Mena ceritçan
hari on, ezti, goço hartaric franco çutelaric
guztiarequin ere, vfangac haindu indar har
dia, ecen hanc errequerituc, Egiptoco tipu
baratçurietara, bihurtu nahi baitçuten.

Chrif.
adver-
sus vi-
tupera-
tores
vitæ
Monas-
ticæcap
3. tom.
7.

handic erraiten du San Augustinec. *Peccata August.
quamvis magna. & horrenda, cum in consuetu- in En-
dinem venerint, aut parva aut nulla esse cre- chrid.
duntur, usque adeo, ut non solum non occultanda cap. 8.
verum etiam jam prædicanda ac diffamanda tom. 3.
videantur.* Beccatuac handi eta çici garric çan
agatic ere, ttipi eta ez deus idutitçen çaitça,
hetan usatu duenari: hain ez deus ecen guero,
handic harat, nahi ago baititu, estali baiño,
aguertu, campatu, eta famatu.

Erregue dauiti eman ceratçatenean Saulen 2. Reg
harmac baitic, ecin hobeagoac eta halacoac 5.
guziarequin ere, probetchu baiño, calte gue-
hi ago eguitem cioten, trabatçen çuten. Ceren
nola anarteraiño coan behi arçain ibili bait-
cen, ezpaitçen oraiño harmetan vfatua.

Eta hala vti cituen, erraiten çuela *Non
possum incedere quia usum non habeo.* Harma
bauquin ni ecin higuai naiteque, ceren eznaiz
vfatua. Indaitçue Habaila batçue, cenbait
harrirequin, eta hetan vfatua bainaiz, atfe-
guin har eçaque, ecen nic eguinendut. herçaz
neure eguibidea. Eta hala eguin ere çuen.
Ceren lehenbico aurthiqui çuen harria fin-
catu cerauçan bere etçaiari belarraren erdian,
landatu cerauçan copetan, eta egotci çuen
ventçuturic lurrera ordeç guero handic dem-
bora gutiren barranean, hain soldadutu cen
eta harmetan vlatu, trebatu, eta angatçutu,
ecen egun batez harmatic gabe, Saulen ih. fi.



choala, hartu baitquen, Goliat handi haren
ezpata, erraiten çuela, ecen etcela munduan
harentçat halacoric, eta ez haren nahiago çue
nic. Cer erran nahidu hunec? Lehen Saulen
harmac, ttipia eta atinac baitciren, handi
eta pisuz vteicituen, eta orai Gigant handi ba
tenac iduricengaitça ttipi eta arin? Bai. Ce
renlehen etcen vfatua, etcen harmetara egia
na baiña guero eguin cen, vfatu cen, en
seiatu cen, trebatu cen, eta enseiatceac, vfat
ceac, eta trebatceac, lehen gaitz cena, erra
tu ceraucan. Ceren vfatuari travailluac et
etçaitça hain travaillu iduricen, ezritu h
sentitcen: Eta ez sentitceco, escuetaco la
rúa ere loditcen, gogortcen eta khailluce
çaica. Halacoari, eta haiñari, etçaitça h
fite escuac mascurtcen, iccorcinirac eguiten
eta ez haraguiac ethentcen, eta ez minbera

Crysoft cen. Ceren San Crisostomoc dioen beçal
Hom 3 *Consuetudinis enim vis, & in bonis, & in malis*
de pce *magna.* Gauça handia ça vstantça, hala ont
nitentia *nola* gaixtoan. Eta badio San Geronimoc et
tom. 3. *Asperam nobis & in sua rem virtutum viam.*
hieroni *mia facit consuetudo. que si in alteram partem*
ad Ce. *transferatur in venit semina iustitia le vis.* Be
lantiam *catuaren vstantça gaixtendu verthutearen bide*
Ordea baldin vstantça hura itçul bad di ber
ce aldera, gaixtaratafunetic ontasunera, edit
nenda, verthutearen bide hura bera, erra
atseguin, eta placent. Esquiribateen hal

çarenean, ecin bigui ditçatqueçu ethiac, lota
huac beçala daude. Ceren ezpaitira vfatuae.
Baiña guero, eta guero vfatcen eta trebatcen
dira, hain trebatcen; Ecen azquenean,
bertce alderat beha çaudela ere, hitzen erdiac
esquiribatcen baititurçu. Hala iccussico duçu
dendarì baten ethean ere, officialeac abi du
ra handia daramala, pontuac huffu, eta laster
emaitein tuela: Baiña aprendiça bakhan, ba
ratz, eta pontuac contatuz beçala hari dela;
Ceren ezpaita aprendiça, Officialea beçala
vfatua, ohitua, eta trebatua. Halatan errai
tendu Aristotelec. *Ex actu multoties iterato, fit*
habitus. Ez behingoaz, baiña maiz, eta an
hiteetan vfatceaz, eguiten da trebetasuna, eta
aztura: Eta behin aztura hartuz guero, treba
tuz guero, anhitz gaitça eguiten da, gogoa pen
satequetan, eta vorondatea ere hutateque
tan ibili gabe. Hala erraiten du San Chrysof
moc. *Consuetudo est, que postea, etiam absque*
electione fit Anhitz etan, hartan guri pensatu
ric, ceinatcen çara. Hanhitz etan, cer mintço
çaren eztaquçila, arneguac, eta iuramentu
ac eguiteintuçu. Anhitz etan, bertce alderat
beha çaudela, ethia soinu eguiteco erabil
teintuçu, eta hauc guzioc dira, vstantçaren
iocoac, trebetasunaren colpeac, eta azturaren
tornuac

Garcelean çarcen çaituz tenean, sarthu berri
hartan, vsna onduçu, quiratfa ditcen duçu,
erraiac nahasteti çaitzquitçu, sentico ç a.

Augusta
lib. 2.
Ethico.

Chrysof
Hom.
10, tom.
3.



92 GUEROTIC GUERORA COBERATCEN

Baiña barren hartano ohituz guero , sudurrac, qhiratz hartgaz , cenbait demboraz , bethenc erabiliz guero , fortcen çara , ez anfiatcen çara , eder-esten duçu.

Vfatçaitte goicean goiz iaiquitcen , eta oren hartan irat çarrico çara Vfat çaitte anhitz iaten eta edaten , eta berhi hala nahico duçu. Ate abre mutuec ere eztute , bere leheneco vfatua , edo etsi garibat-bedere içan gabe , lehen içan diren ofatuetarie , aicinat , iragan nahic Hain du indar handia vfantçac , ecen erraiten baitu San Augustinec.

August. 3. Fort. drsp. 2. tom. 6.

Ipsa quoque mutata consuetudinis, etiam quæ adiuuat utilitate, non vitam perturbat. Anhitzetan ere, daquigularic hobeliçate queyela darabilagun vfantçaien vntea , eta hautstea , eztugu guztiarequin ere vtzten , eta ez hautsten , ceren aldatce hura hautsteo , eta vtzteo berritasun hura, gaitz baitçaitu. Cer nahic çuehi ago. Bada erra

Comm. sup. 3. Phisic.

iten duenic , eta eguia i haurretic poçoin iaten vfatcen dena , azquenean poçoinçez haz dite queyela , eta mantena.

¶ 2.

BAda baldin hunen gauça bortiç , eta indartsua bada vfantça ; Cer eguinen du bethiere , gazteic çahartceraino beccatutan vfatu denac ? Nola vtico du çahartcean , gaztean coberatu duen vfantça ? Veldur naiz vtz

ezteçan. Ceren San Crisostomoc dioen beçala. *Annosa passio medicamento momentaneo non curatur.* Arraçadura vrthatua, nario çahartua , çauri gaizeoatua , ezta pontu bateraco midicuntçaz sendatcen , ezta behingo vifitaz erremediatcen , eta ez hain fite leheneco estatera , estatua eta egoitçura bihurtcen. Ceren nola eritasun handic , sendatuz guero ere , vtzten ohi baitu bere ondotic , cenbait heruru gaixto , cenbait cutsu , nario eta arraçadura hala vtzendu dembora luceaz beccatutan egoitce ere bere ondotic , cenbait ondo gaixto. *Si mutare potest Ætiops plebem suam & perdit varietates suas, & vos poteritis hinc facere cum didiceritis malum.* Dio Ieremias Prophetac. M. hiru herriico maitu beltçac bere larubeltça , eta Tigre arrac ere, bere nabardurac , colore picardatnac , alda , vtz , eta mudadiçanean , aldatuco , vtico , eta mudatucoitu presuna gaixtoa ere , bere vfantçazco gaixtaqueriac , eta beccatuc

Chrif. 32. tom. 2.

Ierem. 13.

Halatan iccoffico duçu , gazte demboran beccatu batetan vfatu duenari çahartcean ere , eta deus ecin daidiqueyenean ere , gogoç bedere , eta beccatu hartçaz minçatçaz , atseguin harttea bedere , badatchecala. Ceren San Agustinec dioen beçala. *Non quiescit turpe desiderium, quam vis frigiditas neget effectum,* Çahar gaixtoac , çahaitu agatic , badu gogoç , indarta çaica salta. Ahoai , doi

Aug de vitaere. 10. merica adfororem cap 28. tom. 10.



GUEROTIC GUERORA COBER AT CEN

idequitçenduç; eta guziarequin ere arn
 gu, eta iuramentu eguiten haric ra Gorputza
 ecin iasan deç queçu, eta ala baiña amurufiat
 minço çara. Finean lehen certan seguitu ba
 ituçu, nartan guero ere, ametsetan, eta eldate
 niotan ere edireiten çara. Eta çer eguiten
 du haur? Vfantçac, azturac, gizean hala,
 han, eta hetan seguitu, eta vfatu baituçu eta
 vfança hura heçurretan barrera sarthu baituç
 itça. Era nola çahirtu agatic, heçurrac guel
 diru baitçaiçquitçus; Hala guelditu çaiçquitç
 vfança, aztura eta handie fortçea duen, mu
 guidac, abiadurac, eta inclinacino gaixto
 guziac ere. Halaçan emaitendu lob guigun
 çaindu hare. *Offi ius implibuntur vitiis adu
 lescentie eius, & cum eo in pulvere dormient.*
 Gaixtoaren heçurrac bethico dira gazte den
 boraco beccatuez, eta harequin batean lurtean
 ere loh cartuco dira, ezpate behin ere vtico
 Ceren San Gregorioc dioen b çala. *Tenent
 illum prava consuetudines, quem semel ceperunt
 atque quotidie duriores existunt, & cum eo in
 pulvere dormient quia non nisi cum eius vita fi
 nuntur* Vfantçazco beccatuac iarraiquitçen
 ohiçaiça nehorri heriotçeraiño, eta lurtean
 barrera sar arteiño, ezpate hareaiño vtzçen
 eta ez comuzqui han ere.

Iob. 10

Greg. lib. 15. Moral. cap. 15.

ita Hetica daritçan eritafunbat, cein eguiten
 baira, succara dembora luceaz, eta appur
 bana heçurretan barrera sartceaz: eta erita
 fun hanc ez paitu erremedioçic, miracuilluz
 edo baicen, eta içaitecotz ere choil luçario:
 hala da dembora luceaz, gogoan, eta bihotçean
 zean barrera, sarturic dagoen aztura gaiztoaz
 ere. Hura da Hetica gaixto serthua, atherat
 cen, eta erremediatcen gaitça. Eta halacoa
 gatic erraitendu San Augustinec Thomben
 barrera sarthua, eta echortçia dagoela: eta
 gaitçeco harri-estalquia, iaiquitera eta hats
 hartcera, vtzçen eztuena, vfança gaixtoa de
 la. *Moles illa imposita sepulchro, ipsa est vi
 dua consuetudinis, qua premitur anima, nec
 respirare, nec resurgere permittitur.*

Toil.

August. Serm. 44. de verbis

nomini

tom.

Haur beror emançuen aditcera gure salbat
 çailleac berac, Lazaro, Iaur egunetaco hil
 quiraçtua, anhitz hats b herapen, eta senti
 mendu eguinic, pitztu çuenean. Bertçe guz
 tiac erraxqui eta aise cegoela pitztu cituen,
 baiña Lazaro, iduriz nequez. Aditcera emi
 teagatic, cein gaitz den dembora luceaz bec
 carutan vfatua, vsteldua, eta quiraçtua dagoen
 beccatorearen fendatcea, eta erremediatcea.
 Halacoa, hartara heltçedena, Lazaro qui
 raçtua beçala da, laincoaren bethere handiaz
 baicen, ecin erremedia-diteçueyena.

Arraçoin hautçear guztioz emaitend; adit
 cera, nola luçamendutan, guerotie guerora



ibitceaz, hartzen den vřantęa gaixtoa: eta vřantęa hura, olia oihalean beęala, sartzen den gogoan eta bihotzean berrera. Eta nola den enganamendu handia, eta gure galgarria erraitea, guero onduconaz, guero bidonean iarriconaz. Ceren guero haren ondoan desiratuco duęu, bertce guero luceagobat. Eta halatan guerotico guerora ęabiltęala xřantęarequin batean; comun qui guertatzen dena, heriotceac atrapatutic, fin gaitu eguinen duęu.

Nola vřantęa gaixtoac gogorcen, eta ez anřiatzen duen beccatorea.

CAP. VIII.

GAuęa gaixtoa, eta perilosa da; orainocoan erran den beęala, beccatutan egoiteaz eta seguitceaz; coberatzen den vřantęa. Baina atada gaixtoago eta perilosos ago, vřnt, a haren ondooco ondorea; haci hartaric sortzen den bihia, hanc emaiten duen fruitua; cein baita beccatutan islutceaz, gogortceaz, ez anřiatceaz eta ęhalquea, ohorea, eta prestutun guztia galdutic, doillorqueriaz preęatceaz lořtatceaz eta sendagailla eguites.

In circuitu impii ambulat. Dio erregue Davitet. Inguřuca, edo ingarunean dabilte gaixtoac. Badabilteęa, ordea inguruca, probetchu gabe, bethiere leccu berera bihurtzen direla. Hala dabillanac, egaiten duen irabaci gurtia da, lurraren aurizquitceaz, ęapatceaz eta gogortceaz. Eta cenbatenaz eta guelhiago baitabilla, hanbatenaz ęapatzen ago, eta gogortcen ago du. Hala dada beccatoreac ere beccatutan ibiltceaz eta vřatceaz gogortcen du bere concientcia, maillu colpecc ingudea gogortcen duten beęala.

Emaiten du aditcera eřcritura řainduac, bitinac beęala direla gaixtoac, eta azqueneco egunean, ezquerreco aldean, ibenico dituela laincoac. *Stanes hados a sinistris.* Bitina. Matth. ahuntz vmea, garte deřño, on da iateco, fa-23. murda, vřterda, řasoalda: ordea giltcen du adinac. Guero eta guero doha, gaixtatuz, ęalduaz eta gogortuz. *Ætas ex hodo asperum facit hircum.* Plant. lib. 1. Epigr.

Beccatoreac lehenbician beccatu guti duenean, badirudi ecen oraiño, cerbait valio duela, řamurduen parteric, vřter duen aurquientęaric, endrecera onic eta gogoric bait duela. Eta hala ordu n, predicaric; conseillu onez, eřtasunez, bere lagunac hiltcen ęaitęala icustceaz, igortciric; eta hunelaco bertce perill mueta batęuez, iccaratzen da, minberatzen da, senticortcen, da eta bere



burnari alhaturic, ethor quiçunz gogoeta
iartcenda. Baiña beccatuz berhez guero, ple-
guz hutuz guero, vfatuz guero, eta vfanca
çaharuz guero, gaixtatcenda, ez ansiatcenda,
eta aldez ainguru gaixtoen berdin, deabruen
paretsu eguiten da.

Vide
Sonct.

Nola Ainguruac bere adimenduz erdiets
Thom. ahaleçen guztiaç, ezguc beç la appurbana;
1. p. q. eta pensatuz, baiña colpe batez eta offoqui
4. art. 2. erdietsi baitçuen, lehenbician hartu çuen
bidea daduca eta eduquicodu secularçat.
Behin maccurtuz guero alde batera ecin
chuchen ditçque beicera eta ez guibelat bi-
hur. Eta hala guerthateen çaiçu guiere hilt-

Dama- cen garenean. Ceren san Damascenoc dioen
cen. lib. beçala. *Hoc est hominibus mors, quod Angelis*
2. orth. *casus.* Ainguruean beccatuac eguin çuen,
fidei & eguitendu gure baithan ere heriotçac. Heç
refert. a
S. Th. beccatu eguinez guero, etçuten erremedio-
ubi su- ric, ez eta guc ere, beccatutan hillez guero.
pra. Bada ainguru gaixtoen egoitçara, hurbilt-
cen garagu ere, beccatu eguin hutsez, be-
ccatutan gogortcera itsutçera eta ez ansiatce-
ra ethortcen garenean. Ainguru gaixtoa be-
hingoaz galdu eta gogortucen bethierecote
hala bada gu ere, ez behingoaz baiña bai an-

S. Th.
1. lib. 2.
q. 88.

hitz etan eta anhitz beccatu eguinez eta he-
tan vfatuz gaitcen eta gogortcen gara.
Eta halaco beccatuac gogortuz guerozcoa
art. 8. erraiten da spiritu sainduaren contraco beç-

catua dela. Ceren hartaraz guero maliciazcoa
baita. Eta nola flaco afunez eguiten den bec-
catua, erraiten baita, aitaren contra dela; eta
iaquin gabez eta ignoranciaz eguiten dena
semearen contra dela: hala maliciaz eguiten
dena ere erraiten da spiritu sainduaren con-
tra dela. Cein baita hain perilosa, non galde-
guiten baitu San Thomasec. *An sit remissibile.*
Ea barccaquiçun denz? barcca ahla ditequy-
enz? Eta inhardestendu lehenbicioric; be-
hingat mer ecitceaz denaz beçnbatean, ez-
tuela bardcamenduric mereci, ceren mali-
ciazcoa baita. Bigarrena ihardesten du, ma-
liciazcoa denaz gueroz, eztela bere eguitez-
barccatecoeratic. Ceren nola baitira erita-
sun batçue, hain handiac, gorputz guxria
flacatua, vençutua, eta ecindua ibencen du-
tenac, eta eriarri hain iautcen çaiçanac, non
bere içanez, eta eguitez ezpaitute erreme-
dioric, ezpaitira sendaquiçun: Hala ostina-
tuaren, gogortuaren, itsutuaren, eta ez an-
satuaren beccatua, eta eritasuna ere hain da
handia, nonbrenez ezpaita sendaquiçun, eta
ez barccaquiçun. Ceren sendateco, eta bar-
carceco behar diren erremedioac, herac beç-
te faltaz, eta bere maliciaz, bere placerera
eta iaquiara, vtzten baititu, probetçatu ga-
be iragaitera, eta gaitçera. Eta halaran hala-
co beccatua gatic, cein baita spiritu saindu-
aren contraco, erraiten du San Matheoc

Vide S.
Thom.
22. q. 4.
art. 2.
sequen-
tibus &
q. 14.
art. 3



Non remittetur in hoc seculo, neque in futuro. Eztela barcatuco mundu hunetan eta ez bertcean ere.

Eguia da ordea nola laincoaren misericordia baita guztien gaineco, guerthatecenda, halaco beccatuetaric ere cenbaiten barcatcera. Ordea san Thomasec dioen beçala, ez maiz, gutitan, eta miracuilluz beçala. *Pater misericordiam Dei aliquando tales quasi miraculose sanantur.* Eta erraiten denean, eztela halaco beccatua barcatuco : adiccen da, ezte la barcatuco, ez ceren laincoac ecin barccadeçaqueyen, edo eztuen cenbait barccat cenbaita ceren batatz, gutitan barccatcen baita : eta bertceaz, ceren gaitz baita : eta finean ceren nola maliciazcoa baita eta ez hacotaz bernezcoa, ezpaitu halacoac bere eguitez hatacamenduric mereci.

S. Tho. ubi supra.

S. I.

G Aldeguiten dute Theologoac ea cer araragonez, edo cergatic, deiccen diren beccatore bacque, bertceen artetic ofintuac, gorgotuac, isfutuac eta laincoac berac ere vtiac : Eta laincoaren aldetic denaz beragan batean, ezta erraz iaquiten, ezta errararagoinaren eta diferenciaren emaiten etedireiten. Ceren laincoac hala beccatutan gorgotuey, nola gaineraco bertce beccatoric

guztiey emaiten deraue, mundu hunetan direino saiatceco, eta beccatuetaric ilquitceco, asco duten beçain bertce garacia, laguntça, eta fabore : Haren aldetic bada behardena ; ezta handic deufen faltatic, eta ez escasico. Harec iguzquiac beçala eguitendu, oney, eta goixtoey, guztiey arguiccen deraue. *Solem suum oriri facit super bonos & malos.* Eta londone Pauloc dioen beçala. laincoac nahi du guztiey salua ditegin. *Qui vult omnes homines salvo fieri* Eta halaber guztien athey dagote, guztieran deiccendu, idequi baliagote nabiz. *Ego sto ad ostium & pulso*

Ordea guztiarequin ere nola anhitz lecucutan, erraiten baitu scitura t induac, beccatore batene, bertceen artetic, direla, gorgotuac, isfutuac, eta laincoac ere vtiac, eta are laincoac berac isfuten, eta gogotticen dituela : badirudi behar ligatequeyela laincoaren aldetic ere bilhatu, eta eman cenbait causa, arragoin, eta diferencia. Eta edireiteco, iaquin beardugue ecen, iccusten duenean gure laincoac, nola gauden beccatutan sarthuac, anhitz enseiu, eta pensu eguiten duela, gure beccatu hetaric atherazceco. Anhitz mañaz, eta traçaz vsatcen duela, gure bide onean ibenceco. Nola gueure vorundat ea gueure escuco baitugu : nola nahi badugu baitetz, eta nahi ezpadugu ecetz erraiteco libre baicara : gure vorundate libre

Mat. 5.
2. ad Thim.
2.
Apoç.
3.
Ego indu rabo cor.
Phar.
Exo. 4.
Quem vult indu rat.
Rom 9.
Exceca cor po puli hujus
Isa. 6.



hunen araubaz, deufetan ere bortchatu gabe, deitzen, etathiratcen gaitu laincoac bere gana. Eta comunzqui lehenbico aldian, ezcaitu guztiz ocentqui, eta bortirzqui deitzen londone Paulo bat, deitu çuen beçala. Baiña deitzen gaitu appur bana, emequi, ezti-qui, maiñaz, concientcia alhatuz, eritafinac emanaz, bere predicarien erranez, eta anhitz bertce moldez. Eta hunela lehenbico deitzen, eta thiratcen gaituenean ihardesten badiogu, hurbiltcen bagatçaitça, guero bi garrenean, biciquiçago, eta fendoquiçago deitzen, eta thiratcen gaitu: eta hala, hala hirur garrenean eta aitecinat ere. Halaco moldez, non asquenean osloqui, eta complituqui, campotic, eta barrenetic deituric, eta laboraturic, bere garacian, eta adisquidetaçunean, beccatu guztic barccaturic ibentcen baicaitu. Ordea lehenbico deitce, thiratce, eta fabore ezti comun hetçaz conaturic eguiten eztugunean, hetçaz probetchatcen ezcarenean, hec errecibitcen eztitugunean, bihurtcen bada ere, oraifio berriz, leheneco fabore comun hetara beretara, eta oraifio orduan ere deitzen bagaitu ere, asco den beçain bertce: eta aitecinerat ere prestic badago ere, molde berean, lehen beçala deitceco, eta laboratceco: ez ordea orduan, ezta comunzqui aitecinago iragaiten. Erran nahi dut, lehen beçala bai, baiña ez caituera or-

duan, lehen baiño bortizquiçago, eta fendoquiçago deitzen, eta fauoratcen. Eta haur guere faltaz. Hila erraiten du ene escola nabasi batec. *Obstinati exsecrati ob suam culpam Cumel. Vix, aut nunquã utuntur bene prioribus auxiliis, atque ita non accipiunt posteriora illa auxilia, quæ reliquis peccatoribus sæpe donantur.* Ezteranzquigu emaiten fabore bere gainçoez, abantaillezcoac, eta emendailluzcoac. Ceren ezpaititugu errecibitcen comunac eta arduracoac. Edequitcen derauzquigu bi garrenac, ceren gainzqui vstcen baitugu lehenbicoac. Ceren baldin gauça tristian, eta apparcean leyal dena, araçoin bada, handigoan ere emplega dadin. *Quia in pauca fuisti fidelis supra multa te constituam.* Badirudi bertce aldera, leyal eztenari, emanen ceicana ere edequi behar gaicala. Ongui da, eta merceia da aitecineco fabore tritpez conaturic eguiten eztenari, eztaquitçan eman handiac. Gureac dira faltac. Ceren San Augustinec dioen beçala. *Nunquam prius Deus deserit hominem, nisi prius ab homine deseratur.* Eztu behin ere laincoac vtzen guiçona, baldin guiçonac lehenic, vtz ezpadeça laincoa. Fabore comunac arduracoac, eta asco diren beçain bertcecoac, emaiten derauzte gogortuey, eta ofinatuey ere, ez ordea bere gainçoezcoac, eta avantaillezcoac. Eta agueri da ezetz. Ceren nola hanhitz baitoha garaciatic garaciara, lagunt-

Mat. 25.

Aug. sermo- 88. de tempo- re tomo 10.



Can-
tic. 5.

çatic larguntçara , eta faboretic faboare , fa-
bore bere gainezcoac , arduracoac baiño han-
di agoac dituzterac , bere hala lehenbico
vtquitcean senticortcen dira , bide onean iat-
cen dira. *Ad cuius tactum , commota sunt vis-
cera eius.* Edo behingat badute bere baitan
barrena. atsecabe bat , concientciaren alha dora
eta minbera dura handibat . hain handia , non
eciñ ongui bere beccatuetan ia baititazque
eta ez sofega . Baiña fabore bere gainez cortic,
comunac eta arduracoac baiño handiagoric
içaiten ez tutenec , ez tute concientciaren
halaco alhadura handie eta veldurafunic
içaiten. Aitçitic sofegatuqui , presuna fegu-
ratuac beçala daude , eta hala egoitea da he-
quen loria Hala erraiten du halacoez mint-
ço dela spiritu sainduac *Latantur cum malife-
cerint & exultant in rebus pessimis.* Gaizque-
guitcan, eta eguin ondoan , guztietan atseguin
hartcen dute , hartan loriaçcen dira. *Impius
cum in profundum malorum venerit, contemnit.*
Gaiztoac beccatuen holinean saltuz guero
eta hetan Luçaro vsatuz guero , ez tu antia-
ric, ez taduca conturic, gainetacoac, sentitu ga-
be eguiteintu Era bad, o lobec ere. *Bibant ini-
quitatem sicut aquam.* Presuna egarrirac vr-
hoça beçala , edaten dituzte beccatuzc Erran
nahi du : erraxqui eta hartan atseguin hart-
cen dutela. Halacoeç , nola laincoarquin
etsai baitira , eta etsai ere barrena , ezterauzte

Prov. 2.

Prov.
18.

Job. 15.

emaiten , bere adifquidey , edo gutiago etsai
direney emaiten derauzten erretasun irat-
çarpentafun , barreneco berorafun eta bertce
fabore handi ichil batçuc. Eta heç ez emanez
guero , berac bere faltaz itfuteen , gogortcen,
eta ez ansiatcen dira. Hala erraiten du San
Agustinec Pharaonez mintço dela. *Quid est
quod dixit ego indurabor Pharaonis, nisi cum
abfuerit gratia mea, obduret illum nequitia sua?*
laincoac beccato earen vtz ea , itfutcea , eta
gogortcea , ezta ez laincoac berac itfutafun qui est
haren eta gogorthafun ren emaita eta ibent-
cea. Baiña hura da , laincoac ez arguitcea , ez
beratcea , fabore bici handie bere gainezco
hequen , beccatorec berac hala caufatutic,
ez emaita : eta handie itfuteera eta gogort-
cera vtztea Hunela aditu behar da , eta haur-
da , laincoaren aldetic eman abalditequeyen
arraçoña , cergatic erraiten den , beccatore
batçuc , bertcen artetic , direla itfutuae eta
gogortuac , eta laincoac itfuteen eta gogort-
cen dituela. Erran nahidu , bigarren fabore
handiac bere faltaz ezterauztela emaiten eta
itfu eta gogor ditecin permitcen duela;

Igil.

August.
sermon.
88 de
tempo-
primus
de Pha-
rar. tom
10.

g. 2. 3. 2. no. 1. 2. 3. 4.

CErgatic erraiten den beccatore batçuc ;
bertcen artetic direla itfutuae , gogor-
tuac eta laincoac ere vtçiac , bada gure alde



tic ere arraoin bat , are claragoa eta aditceco
eraçagoa , cein baita vsantça , seguintça ,
dembora luceaz beccatutan egoitea. Handic,
hala egoitetic , ifutcen eta gogortcen da
beccatorea. Handic on afunera baiño , gair-
tata funera eroriagoa , ifuriagoa , eta eman-
goa guelditcen da. Handic erroac eguiteintu.
Finean handic , beccatua beretacotcen , eta
natural beçala errendatcen du , jan eta edan
gabe baiño guehiago , beccaturic eguin gabe
ere cein dagoqueyela , iduritcen baitçaiça.

Eguiten duçu eguin beccatu bat eta beccatu
hartçaz orhoitcen çara arratsean , albatcen
çaitçu ceure concientcia. Eguiten duçu bi-
har bertcebat , eta orduan ere orhoitcen ç-
ra. Ordea egun baiño , biar gutiago , orhoit-
cen çara. Lehenbician senticor , eta guero eta
guero gutiago. Lehenbiciric beccatu egui-
ten duçuenan , veldur çara , bi gatrenean ere
bai , ordea lehenbicioan baiño gutiago. Eta
hanbat vsatcen duçu beccatu eguitca , hanbat
seguitcen duçu , non alde guztiz veldurra
galteen baituçu ; vsatari beçala , hetan la-
quetcen baitçaitçu : eta handic harat batere
ezpaitcendu baiño gueiago , ezpaituçu con-
turic eguiten. Beccatubat baitcen eztuena
min-bera da , senticor da , veldur da , cein
sofega diteque , baiña ehun dituenac , becca-
tua beccatuari iratchequitie , beccatuz be-
theric dagoenac , eztu antsiaric , eztu sentic-

cen , eztaduca conturic. Ceren vsantçare-
quin batean , ifutua , gogortua , ezansiatua,
eta erroac eguinic , beccatutan barrera sar-
thua baitago.

Guiçon batec , bere herritic campora in-
diataracedo bertce leccu vrrun battetara pat-
titen denean , eta oraiño bere herrico aguer-
rian , comarquetan eta terminoetan denean ,
maiz behatcen du guibelat , bere herrico
mendietarat. Baiña aiteina iraganez guero ,
bere herria eta herrico lurrac viflatic galduz
guero , itçultcen da bertce alderat ; ioan be-
har duen , eta dohan leccu hartarat : eta han
aldiz , bere beguiac , eta gogoa ere ibentcen-
tu. Bada haur beror guertatcen çaiça ; lehen
iustu içanic , cenbait demboraz beccaturic
gabe egonic , beccatu eguitera partice neta
abiatcen denari ere. Abiatu berri hartan ,
maiz behatcen du guibelat , vteiduen bicitce
presturat : eta hartçaz orhoituric , eguiten du
cenbait hats-beherapen , errecibitcen du be-
re baithan , cenbait tristura. Baiña beccatu-
tan aiteina iraganez guero , leheneco aztura
ona eta verthuteac , begui viflatic galduz
guero , gogotic vteiz guero , ibentcen du al-
diz bere gogoa , eta bihorz guztia , escuen
artean darabiltçan beccatuetan eta placere-
tan. Eta handic harat , eztu leheneco herriaz
eta bicitceaz conturic eguiten , vrrundu da ;
presentecoac darama guztia



§. 3.

Beccatu bat eguiten dugunean eritcen da arima:bia eguiten diturçunean eritcen ago da: eta anhitz eguinez vsantça coberatcen dugur nean, eta vsantça coberaturic, vsaturic beçala, hetan laquetcen çai çunean, are eritcen ago da, orduan hurrantcen da aima. Eta halacoac, ez conseillu onez, ez predicatien erranez, ez bere liguac hilteen çaiçala icustez, eta ez hunelaco bertce gauçaz, ezta conturic eguiten, eta ez probetçhuric atheratcen, calteric baicen.

Halacoari çuerthatcen çaiça laincoarequin, eri bati midicuarequin eguiten çaiçana. Midicuac emaiten dio eriarri, edari bat, purga bat, bere eguitez ona, eta eritasunari dagocana. Ordea purga ona içan agatic, eritasuna hain da handia eta bortitza, eria hain dago ahitua eta vsfeldua, ecen ezpaitio purgaç batero onic eguiten, gaitic baicen. Midicuac eta midicinac ez tute faltanic. Norc du bada falta? Barreneco eritasunac, barreneco, vsfeltasunac. Bada molde hunetan berean, gure laungoicoac ere, ceruco midicuac, emaitenderautça beccatore eriarri, edariac, midicinac, auisunac, conseilluac, eta anhitz erremedio. Baiña guztiarequin ere ezta sendatcen. Aitcitic orduan eritcen ago,

orduan hurrantcen ago da. Eta norc du falta? Ez midicuaç, ez laincoac. Norc bada? Eriac berac, beccatoreac: aldegutziz galdua, narriatua, araçatua, eta erroac egunic, beccatuz eta aztura guztoz bethea baitago. Iuzquitc beratcen du ezcoac, eta gogortcen lurra. Eta certaric heldu da haut? Ez iguzquia beraganic. Ceren haro biac orobat berotceintu. Baiña helduda ezcoaren eta lurraren arteco differentiatc eta naturalçatic. Iondone Petric, eta Iudafec biac eguin çuten beccacu, eta biac deiru cituen laincoac, bieu eman cerauen anhitz midicina eta erremedio. Eta guztiarequin ere sendatu cen bata, eta ez bertcea. Sendatucen Iondone Petri laincoaren garaciaz, eta guel ditucen sendatu gabe Judaz, bere faltaz eta maliciacz.

Laincoac beguira çaitçala, beccatuaz ez sentitcera ethortceitc ceren halacoey erraiten derane laincoac berac. *In peccato vestro* Joan. 8. *moriemini*. Ceuen beccatuan hillen çaitete, ceten hartan gogortuac eta ez anfiatuc bitçaudete. *Cor durum male habebit in novissimo*. Eccl. 5. Bihotz gogorra gaizqui içanen da bere azquen finean.

Baldin, viz biçeneça harti handi bat escuetaric, norat othe lihoaque, goiti ala beheiti? Segur da beheiti lihoaqueyela. Bada ari ma galdua hanbat vrthez, harria beçala bec-



catutan vrthatua dagoena eta egon dena, noraco da bere azquen finean, aincoac bere egutic vtz deçanean? Ezta cer galdeguinic Erhoqueria handia da, harría beheiti beçala, beccatutan dagoena ere, ez teta ifernura erorico vste içaitea. Ceren harría cein pifudon, are beccatua b ita pifudago.

Bada çuc iragan diren vrthe guztiotan, behin ere ongi confess tu gabe, beccatutan gogorturic eta ez ansiaturic çaudecinorrec, certan baratu vste duçu? Nolatan duçu esperançça salbatceco? Ezta çuçu mundu hunetaco aldía dagueñuean, ifernua çuretçat da goel? Çu beçalacoez erraiten da. *Descenderunt in profundum quasi lapis.* Erori çiren harría beçala, hondariera.

Beraz hunelatan, ezta guerotie guerorazibili behar. Ezta dembora luceaz beccatutan egon behar. Ceren egoite hura da gure galduria. Handie forcen da vsantça: vsantçatic ederestea eder-estetie; ez ansiatcea: ez ansiatcerie ez sentitceaez sentitcerie, ifertceae, gogortceae, eta azquenean, abalquea galduric hartçaz preçatceae, loriatceae, eta fenda gaila eriztea. Eta handie harat, harataraz guero, eztaquicula hartçaz conturic, gaizqui da hurranda, hillaren pare eguiten da.

Nola guerotie guerorazabilçala bethaditequeyen beccatuén neurria, eta offi conua.

CAP. I X.

ERraiten du S:lomonec, laincoare. Sap. **IIII** quin mintço dela *Omnia in mensura & numero & pondere disposuisti.* Iau-na, çure gouernua eta ordenamendua, hain da handia, eta hain aicina heltcen era, hedatcen da, non munduco gauça guztiaç contuan, pifuan eta neurrian eguiten baititutçu. *Pondus & statera iudicia Domini.* Pifua eta balantça dira iauraren juniamenduaç eta sentenciaç. Ezta gutitcerie, eta ez berretcerie: ezta soberaniarie, eta ez escalarie: eta ignorantciarie eta ez eznuen vstierie. Guztiaç dacutqui, guztiaç d:quizqui eta guztiaç berac bere escuz, bere ordenamenduaren atauaz, behar beçala qui datceintu. Hain chehero, bat banaca, bere gainqui, eta bereciqui, daqui laincoac, gauça guztien berri, non gure buruco illeac ere, contatuac baitadutça, eta ezpaitçaicu bitere, haren iaquin gabe gaitcen eta ez erortcen. Are badaqui cenbat parabisuraco diren, eta bai cenbat ifernuraco diren ere. Eta harc berac da.

Ecclesi. II.

Genesi.

Luc. 16. & 21.



qui eta ez bertce. Bada guztien contua, eta contu segura eta g'erthua. Hala erraiten du San Thomasec. *Numerus predestinatorum in superna felicitate locandus, est certus & soli Deo cognitus.*

San Th. Bib. Top. q. 2. art. 7.

Beccatuac, eta beccatuzco obrac, baititugu guentre gueureac, eta guerocegginac. Halaco moldez, ceen erraiten baitu laincoac berac Ofeas Propbeta bai han. *Perditio tua ex te Israhel, tanimodò in me, auxilium tuum Israhel, guirifino agure gaitcea ceure ganie erremediatea duçu eneganic. Beccatua çurea da, barcamendua da enea.*

Ofeas 13.

Ordea guztiarequin ere badaqui laincoac gure beccatu guztien bertia eta contua; badaqui cenbat eguinen ditugun, eta bai cenbateraino iguriquico çaitcunere. Hala erraiten du San Agustinec. *Sed hoc magis sentire nos con venit, tandiù unumquemque Dei patientia sustentari, quandiù nondum peccatorum suorum minimum finemque compleverit; quo completo cum illico percussus, nec illi ullam veniam jam reseruari. Iaquí deçagun gauçabat, sentitceoa, iguriquitcen dioela bat bederai laincoaren patientciac, bere beccatuen neurria betharteino, contua compli arteino: eta hura complituz guero, ezte laguehiago iguriquitceric, eta ez barcamendu erdiefteric. Badaqui laincoac contua, cenbat beccatu eguinen ditugun, eta bai cein handiac, eta nolac*

Angust. liber de vita Obris tiana, tom. 9.

coac ere. Eta vtzten gaitu contu haren complicera, neurriaren bethatcera eta mucurucera Deliberatua daduca anarteraino iguriquitceco. Permittendu ehun edo bergehun beccatu eguin ditçagun, edo gutiago edo guehiago, berac daqui cenbat; chodea ibenia daduca; eta ezta nahi hartaric aicinago iragan gaitecin *Circumdedit illud terminis meis, & posui vest m & ostia; & dixi usque huc & nias, & hic confringes tumentes fluctus tuos.* Inguratu nuen itsafoa neure muguez eta mugarriez, ibeni nerautçan aho satralla: eta erran nioen, huneraino, costaraino ethorrico çara, eta ez aicinago, hemen guel dituco çara, hemen hauticoituçu, ceure vhin c eta hola hantu vrguilluac. Itsafoac hasterre denean, bere gaitz aldiac dituenean, badi rudi iretçi behar duela mundua. Quidan halaco moldez itaquitcen du, non baidin bidaric ez palu, manstua ez palego, lur guztia estal bailleçaque. Ordea Jeremias Propbeta dioen begala. *Posui arenam terminum mari, & conceptum sempiternum, quod non præteribit, commo uebuntur & non poterunt, & intumescent fluctus ejus & non transibunt illud.* Ba cu itsafoac bere chodea, bere marra, bere mugarria eta cedarti iaquina, cein baita costa, eta costago sablea, hareta eta legarra. Han hautstenda, han baratcen da, han gaitzago eta vrguilluago bada ere, ematcen eta tosegatcen da.

Job 38.

Jer. 5.



Badaitfasoni, beçala ibeniderauca Iainco
guiconari ere, bere arauaz bere cedarría, fei
ñalatu dio noreraño hel, bere chedea, bere
mugarria, eta marra. Eta nahiago badu ere
eztiteque marra bartaric aiteciu ago iragan
Enfeia ahal diteque, defira ahal deçque
bainá alferric. Ceren guiconac libertatea na
hi badu ongui eta nahi badu gaizqui eguiteco
içan agatic ere, ezta ez handie seguiteen, bi
beccatuac librequi eta bere nahiz eguiten di
tucla, bainá ez nahiduen beçanbat beccatu
eguideçaqueyela, eta ez libertate hari nahi
duen beçanbat, irauñ araci ahal diaçayola
Ceren libertate haren gañico eta nabuñ
Iaincoa. Hare libertate hari eta haren ire up
nari, gutien vste duenean, boracharic eguit
gabe, vtz araci diaçayo, hers eta traha :
raman bide gaixtoa. Asqui estendu edo
bera estendu, bere batez aiteinago. Eta ha
iculficoituçu iende thailu batçue, neurri
berharceaz, contu guti eguñic abiadura ha
di barequin, becc tu guchiago eguñic abi
cen, eta erdutcen direla : eta hain cinez,
deliberatuqui, non idaritzen batçaye, ce
dia han ditela, eta denfec ere, hara helte
ecin guibela ditçaqueyela. Odea iculf
dituçu halaber, noiz eta gogoa cinecen
hart n ibenia baitaducate, eta lasterenic
ito aci, ordnan beréan, edo eritasunez, ce
incontruz, edo estropuz, edo heriotceac at

patuz, bere beccatu eguiteco gogoarequin, bi
datz erditan guelditcen direla. Hala guertha
tu ceican erregue Pharaoni: Israeleco semeen
contra, egun daiño bainó delibera médu handia
go arequin cihoanean, erraiten çuela. *Persi: quar
comprehendam, dividam spolia, implebitur
anima mea, evaginabo gladium meum, interficiet
eo; manus mea.* Erdietficoitut, atrapatu
coitut aspertuco natçaye, guztiaç ezpataren
ahotic irag neintut. Bada ordnan ber an
hunela mintço cenean, eta cihoanen, neur
ria betheceican, contua oflatu, eta compliru
ceican, eta veruna beçala itfas, ondarrera e
ronitic bere egunac accabatu ceitean.

§. 1.

ITsafoco vnticac, barcca handiaç, anbitz
daduca, carga hadia iafaiten du Erditaraiño
betheagatic, itfas gañean dago. Hirur laurde
nac bethe agatic ere badabilla, oraiño ague
rida. Guztia betha dadinean, hondatcen,
eta ondoratcen da, ordnan estalcen da. Ce
ren ezta, soberanic gainez eraguñ eztiça
yonie, ezta, bere neurria bainó guchiago da
ducayonic. Bada haur beror gnerthitcen ç
irçu, ceure beccatuen cargarequin, çuri ere.
Eguiten dituçu hogoy beccatu mortal, eta
oraiño bici çara iguñitcen deraçu iainco
ac. Eguiten dituçu berrogoy, eta oraiño



ere vtzen çaitu Eguiten ditutçu hirurhogoy
eta guziarequin ere badu paciencia , pa
cen derauzquitçu. Eguiten ditutçu lauretan
hogoy , eta orduan bethatçen di neurria ,
duan mucarutcen da , orduan gainéz eguini
vntcia ondara beçala , çu ere , infernuç
ra erotcen çara.

Ordea ez ut ez , hunetan erran nahi , igu
quitcen dela bethi laincoac , lauretan hogoy
beccatu eguin arteiño : ez ut erran nahi ,
latan arteiño neurria bethatcen , eta
orduan ere , bethatcen dela. Aitçitic no
asco baita becc tu mortal bit infernura io
teco , venturaz badat cen bait , beccatu bit
ragatic infernuan dagoenic , becc tu batez
uria bethi duenic. O oin batçue , an
ohoinqueriaren buruan vccatcentuzte ,
baitiz bertce batçue , berehala lehenbicio
dita atrapatuac. Hala gertatcen çaye
beccatu anhitzequin edo gutirequin infernu
ioaiten diteneç ere. Batçueç iguriquit
derauç laincoa luçaro , eta bertce batçueç
h nbat. Eta cergatic ez ? Den becc
mortalic trapienaren ere eguitera , veld
garen amore c gatic , harçaz neurria beth
ditequeyenaz gueroztic. Eta hola erraiten
dudanean lauretan hogoy garren beccatu
neurria bethatcen dela , orobat detraquet , le
henbicioaz , bi garrenaz edo hirur garrenaz
betha ditequeyela. Ceren nic comparacione

huretari , erian nahi dudanada , badala becc
atueta neurrib t , badala ezaitcinago itaga
iteco marra bat , eta contubar. Eta lehen
bicio beccatuaren eguitera ere bai , baiña
guztiz ere handic harat , hurrentcoaren egu
tera , behar dugula içan veldur çeren harçaz
lehenaz eguin eztena , neurria betha baitite
que.

Eta hunetariç athera ahaldeçaquegu , eta
iccas anhitz gauça. Lehenbicioa , cinç
garçaitçala , çu , eta ni ere ço : dun gueure laun
goicoari. Çeren venturaz anhitz baitago
orai infernuan , guc oraiñoçan eguin dugun
baino beccatu gutiagorequin ; eta guc gueu
reac oraiño , guehi ago balira ere , laincoare
quin batean , erremedia baititçaquegu. Ha
laber , bi garrenaz , iccaç ahaldeçaquegu hune
tariç , bethi ere behar dugula içan veldur , eta
herabe beccatu eguitera , çeren ezpaitaquiçu
ceñez cerratcen den contua , lehenbicio
eguiten dugunaz ala bi garrenaz. Eta guztien
buruan iccas ahal deçaquegu , eta athera hune
tariç , erhoqueria handia dela , guc gueure
buruan daramaguna , eta erraiten duguna ;
beccatu en vtzen , eta obia onen eguiten gue
ro haitco garela. Çeren pensatu behar guendu
que , b dela beccatueta neurribat , contu
laquinbat , eta guc deftatcen , eta ordenatcen
dugun guero hartara heldu gabe , contu hura
compliditequeyela , eta neurria betha.



§. 2.

Aristo.
2, ex
aoima
cap. 4.
text 41.

ERraiten du Aristotelec, eta hari jarraiquite cen çaitça bertce philosopho guztiaç ere. *Omnia viventia, qua dicuntur natura constaritia, habent certum limitem suae quantitatis.* Bicitcen diren gaüça guztieç, badute bere neurria bere handita ionean, eta bai ttipitafunean ere. Guïçona ecin dateque, cigarra becain ttipi, eta ez cigarra ere, guïçona becain handi. Eta nola bicitcen diren gaüça guztieç baitute bere handitafunean, eta ttipitafunean bere pontua eta neurria, hala date iraupenean ere bere dembora. Dembora batetaraño s irauñ ahaldeçaquete, eta ez guehiago, handie harat guztiaç dohaci, behitituaç, abituaz, eta bere indarrean flacatuaz. Animalia batçueç, guehi ego irauten dute, bertce batçueç baiño, eta bai çuhaitzec ere. Ordea guztieç dute bere dembora iaquinbat, eta neuribat. Hala dute bada beccatutec, eta beccatoreec ere bere areuas bere neurria, eta contua cenbatetaraño hel, eta bai dembora ere, noiz arteraño irauñ. Eta dembora hura complituz guero neurria bethez guero, eztu laincoac guehiago iguriquitcen. Hala emaiten du aditcera efcitura

Esdra.
4. cap.
4.

Sainduac, erraiten duenean. *Vade & interroga mulierem pregnantem, si quando imple verit noe*

ven menses suos, adhuc poterit matrix eius retinere partum in semetipsa: Coaz, eta galdeguioga emazte igorrari, ea bederatci hilla betheaç, bethea guero, eduqui ahaldeçaqueyens haurra fabelean s ihardetlico deratçu, ezcetz. Ez eta beraz laincoac ere, beccatuen neurriat bethez guero, ecin daducayo, bere iusticiaren arauaz, bere colera aguertu gabe. Eta erraiten badu ere Esaias Prophetac. *Expecta Dominus ut misereatur nostri.* Iguriquitcen du laincoac guçaz misericordia igaiteco: aditcenda, iguriquitcen duela, baldin neurria bethe eçpada, dembora complitu eçpada. Hala erran eta eguin ere çuen laincoac berac Noeten demboran, vholde handi harç, mundua hondatu çuenean. *Impleta est terra iniquitate & ego disperdam eos cum terra.* Bethe da lurragaixta queñiaz, mucurutu da maliciaz, ezta beraz cer guehiago iguriquitce, ditçagun guztiaç lurrarequin batean, gal eta honda, eta hala hondatu cituen.

Isai. 38

Gen. 6.

Eta lurrarequin barean erraitendu *Disperdamus eos cum terra.* Ceten lurra guelditu bicitcen ere, Ordea Glossac dioen beçala. *Per salcedinem aquarum, ipsa terra peiorata est.* Vholde harçaz guero lutra ere meh tua, eta flacatua guelditu cen. Pontu hunetara ezta gaizqui heldu, Sãn Matheo Evangelistac *ibentcen duen comparacino bat, celi-*

Glof.
lyrana.
cap. 6.
Genef.

Mat. 13



betçaz frogatcen baita, beccatuetan beçala,
obra onetan ere, neurria betha arteiño, eta
çorhi arteiño, iguriquitzen duela laincoac. Eta
da comparacinoa. Guizon batec erein çuen
bere landan haci ona, ogui bihi garbia baita
guero cenbait nahastecaric egotci çuen gaine-
tic haci gaixtoa. Eta demboiarequin batec
haci ciren, haci biac, ona eta gaixtoa ague-
cen. Aguertu cirenean erran cioten, bete
muthilec nabusiari *Vis imus & colligimus cal-*
launae, çue haci ona eta garbia erein cen duen
ceure landan eta alhorrean, baiña badacua
agu, on arequin batean, forthu dela gaix-
toa ere. Nahi duçu bada goacin eta gaix-
tura, athera deçagun, vildeçagun? *Non.* Et
ihardesten deraue, eztut nahi? *Sinite utraque*
creffere usque ad messem. Igaricaçue apparbat
çaudete oraiño, luça eçaçue yztaraiño, vta
quitçue haci biac, ona eta gaixto: hazteran
handitcera, eta çorhitcera: eta guero orduan
ebaquico dirutçue guztiaç. Eta onac ongui
vilduric, eta çamaturic ailtchatuco, eta gaix-
toac ere elccatganaric, sara egotcico dirut-
çue. Etçuen nahi çorhi arteiño, bere safoi-
ra eta mugara hel arteiño, nehorc vtguic-
çan, ez eta çorhituz guero ere gueldi cietcin.

Hala eguitendu bada gure laincoac ere, haki
onequin nola gaixtoequin. Iguriquitcen de-
raue guztiey çorhi arteiño, bere mugara, sa-
foiñera, eta neurria hel arteiño. Eta guero
orduan

orduan, onac bere loriaco altchatceintu, eta
gaixtoac seculaco penetara egotzteintu, Fru-
tuac vtzten dituçü ontcera, vmotcera, eta
bere safoinera heltcera: Hala vtzten ditu bada
laincoac ere onac ontafunean, eta gaixcoac
gaixtata funean çorhitcera, eta neurriaren
berhatcera.

§. 3:

G Ure Iaungoicoac iccussiric, iarriceit-
çala gaixtaqueriari iendec, erran çuen
binoz min handi batequin. *Tactus dolore* Gen. 6.
cordis intrinsecus. Ceren berac nahi etçue-
na, munduco beccatuec, erraguiten baitce-
raucaten. *Deibo hominem quem creavi à fa-*
cie terra. Neure eguin nuen guizona, neur de-
seguinen dut, Khenduco dut lurraren gainetic.
Eta hunetatcotçat, deitu çuen, Noe ceritçan
guizon bat, cein, berç cortci garren, etcha-
tier guztia, guethatu baitcen on eta iustu,
eta hari erran cioen. *Repleta est terra iniquitate.*
Berhe da mundua beccatuz eta maliciaz, gai-
ñez eguin hurrandu gaixtaqueriaz. Eta hala
deliberatu dut guztien, vholde batez dese-
guitera eta hondacera. Ordea eman nahi de-
rauet asti, eppe, termino eta espatio bicit-
ceco, eta penitencia eguiteco, ehun eta ho-
goy vrthe. Eta bitarte hunetan çue, erraiten-
dio Noheri, bertceen quitfatceco, eta ceute et-

F



checoen salbatceco, eta halaber aniamalitu
fuerte guztieraric haciaren eta arraçaren guel-
ditceco, eguinen diçua vntci bat, barceca
handi bat, erran den gauçaco asco handi dace-
queyen beçalacoa. Eta hala eguin ere çuen.
Eta hartan farthu cirenac biciric salbatu, eta
escapatu ciren eta ez bertceric.

Orai hemen behar da consideratu pontu-
bat. Vntciaren eraguteracoan. Erran cere-
uen laincoac, iguriquico cerauela ehun eta
hogoy vrthez. Baiña baldin contua ongui
atheraten badugu, edirenen dugu, eccera-
uela iguiqui ehunez baicen. Ceren agueri da
ecen, vntciaren edo barccaren eguitceco ma-
nua içan çuenean, bortz-etan ehun vrthe ci-
tuela Noec, eta guero seyetan ehunetara heldu
cenean, ethorri cela vholdea. Cer erran nahidu
bada hunc? Prometa iguriquico cerauela ehun
eta hogoy vrthez, eta ez iguriqui ehunez baicen?
Non dira gaineracoac? Cer murrizte da haur?

Chrif. Cergatic eztu bere promesa osloqui comple-
Hom. 25 c. n. lha desten du San Crisostomoc. *Antiquam*
in cap. *implerentur anni promissi, uniuersale intraduxit*
7. Gen. *excidium, & hoc fuit sacre misericordie maxi-*
tom. 1. *um iudicium. Nam quoniam vici incurabili-*
ter illos peccare, & non solum nihil ex indicibili
longanimitate sua proficere, sed & incurabile
re ulcera, propterea succidit tempus, ut ne ma-
jori scilicet pena se obnoxios facerent. E-
guia da prometatu cituen vrtheac complira

gabe, igorri çuen laincoac vholdea. Eta haur
içatu cen misericordia sacratuaren seiñale
handibat. Ceren nola iccussi baitçuen, egun-
oto beccatu eguiten hari cirela, eta aicinea-
rat ere hala harico cirela, eta iguriquitçeez,
dembora guehiago emaitceaz, probetchu bai-
ño calte guehiago helduceyela, beccatuen
çauriac gordintcenago, eta gaizcoatcenago
cirela, hobenduriago eguiten cirela, vrrical-
durtic, pena gutiago, ethorcequien amoreac
gatic, gutitu cerauen dembora, eta laburtu
hogoy vrteez, eman cerauen eppea eta prome-
sa. Hunela ihardesten du San Crisostomoc.
Eta arraçoain ona da haur. Baiña ez ni narra-
yon, gauçaren frogatceco. Hartaracotzat
edireiten da bertcebat San Geronimo baithan
eta ene vstez ez gaixtoa. Eta da arraçoina:
Prometatu cerauen, iguriquico cerauela
ehun eta hogoy vrthez, ez ordea iguriqui
ehunez baicen. Ceren ehun eta hogoy vrthez
eguin behartcituzten beccatuac, edo eguin
behar etcituztenac, ehunez eguin baitcituz-
tehar etcituztenac, ehunez eguin baitçuten. Eta no-
ten, ehunez neurria bethe guero, ezpaitcen cer gue-
hiago iguriquiric: halatan, nola berac lehia-
tu baitçuten beccatu eguitera, eta neurriaren
bethatcera, deliberatu çuen laincoac ere hey
bicieren laburtcera, eta hogoy vrtheien
demboraren guticera eta eppaitera.

Hunetatic athera ahal deçaquegu, behar
F ij

Vide
Hieron
de ques
Hebrai
cis su-
per huc
locum

guendu queyela, guehiago bicitcea gatic bedere, beccatu eguitetic guibelatu, eta hartan neurria bethatetic escufatu. Halatan erraiten deraue Ieremias Prophetac Iuduey. *Quare faciis malum grande hoc contra animas vestras, ut inireat ex vobis vir & mulier?* Ceuen buruon etsaiac, laincoa gatic eguin nahi ezpaduce ere, cergatic ceuen probetchua gatic, eta guehiago bicitcea gatic bedere, etzazete beccatu eguitetic beguiratcen? Etzazcusaque, beccatu eguiteaz, eta hequen contuaren compliteaz, bicia laburtcen duqueyela? Eta halatan bertcela hillen cineten baiño lehen, hiltcen çatetela? Ceren contua complituz guero, ezpaita guehiago bicitceric.

Prometatu cerauen gure laungoicoac Abrahami eta haren ondocoey, emanen cerauela Iudeaco errefuma on hura. Ordea etzerauen prometatu eta berehala eman. Eta cergaticez? Ihardestendu laincoac berac. *Ne enim completa sunt iniquitates Amorrhæorum.* Etzerauet emaiten berehala, ceren ezpaitira oraino betha, eta complitu Amorreoen beccatuac, ceinec baitaducate herri hura. Hec neurria betha dezatenean, eta contua compli; orduan edequico derauet hey, eta emanen Abrahami eta haren ondocoey.

Etçuen iduriz hala eguin Sodomaco equin eta Gomorraco equin; hec erran eta berehala

la. Guehiago iguriqui gabe, cerutic subatigoritic erre cituen. Ceren ia orducotçat; neurria betha baitguten. Eta hunen gainean erraiten du San Aguilinac. *Quo exemplo manifeste instrumur, singulos secundum peccatorum suorum plenitudinem consumari, & tandem ut convertantur suslineri, quoadiū cumulum suorum, non habuerint, delictorum, consumatum.* Exemplo hunec çaz emaiten çaticu adicera, eta eracusten elargui, bat bederati, bere beccatuac betha dituenen, bethatcen çatçala bere egunac ere: dembora hartaraino iguriquitcen çatçala, eta ez guehiago.

Eta baldin orainocoan erran ditugun gauça hauc guztioç eguiac badira, nola baitira eguiac. baldin laincoac deliberatua badaducan iguriquitceco neurria betha arteino, eta ez guehiago. Certan pensatcen othe duçuguc, orainocoan ere buruan ille duçun baiño beccatu guehiago eguin duçunorrec? Cer daquieu hurren lehenbicio eguinen duçunaz, çuc ceure neurria bethatcen duçunz? Contua complitecen duçunz? Cer daqui u lehenbicio eguinen duçun beccatuaten beguira dagoenz laincoa, çure egunen accabateco, eta mundutic atherateco? Considerateco, eta bethi ere gogoan eduquitceco, pontua da haur. Baiña çuc pontu hunez eta bertce hunelacoç ere, contu guti eguinic, ceure guero hartara laster eguiten-

Vide Aug. de vita Christiana tom. 9.





duçu ; eta bethiere guero onduco çarela ; eta çure neurria eztela oraiño betheco , erraitca-
duçu.

Ordea cer içanen da , çure guero hura hel-
du gabe , çure beccatuen contua bere contura
hel badadi ? eta çure bicia ere accaba bada-
di ?

Consideracino haur beror , bertteric gabe
asco behar liçateque , ez guehiago guerotie
guerora ibiltceco ; edo bai behintçat becca-
tu baten eguitera çohacinean , haren eguit-
tie ixiltceco eta guibelateco. Ceren pensa-
tu behar cenduque eeen , eguitera çoaen
beccatu hura , dela venturaz ; çure azquen
beccatua , eta hartçaz çue ceure neurria be-
thateen dugula , eeren etçara segur.

Anhitz beccatu egulu duçu oraiño eean
eta guziarequin ere , vitzten çaitu oraiño
laincoac , iguriquitcen deratçu. Beraz es-
perantça ahaldunqueçu , eztugula oraiño neur-
ria bethie. Ordea betha deçaqueçu , lehenbi-
cico eguinen duçunaz ; beraz haren eguit-
tic , behar duçu beguiratu.

Eta hala diuen iraganac iragan , hec ahalic
eta hobequiena erremiaditçagun , eta aic-
cinerat guehiago eguitetic ahalez beguira
gaitecin. Bethiere pontu haur , neurriaren
bethateco peril haur , gogoan eduquitcen
dugula. Eta bicitcen çarela , ez beccatuz era
gaixtaqueriaz , baiña ontafunez eta obra

onez , neurria betheric , azquenean cerruco
loria erdiets deçaquegun begala.

*Anhi. x. Valio dula Iaincoaren misericordiac :
eta nola bchar den hartan fidatu.*

CAP. X.

ERraitendu San Thomasec. *Fiducia* s. Tho.
est spes roborata, ex aliqua firma opi- 1. p. qu.
nione. Fidancia da esperantça bit 129. art.
portitçatu , indarçatua , eta vitez 6. in
ongoi finçatua eta segurazua. Duçunean 8. ad 3.
adisquide bat aberatça , botherotçua , eta ceu-
re eguitico guztietan bethiere fin eta leyal
frogatua : halacoaren hitça dirutçat hartcen
duçu , escaintçea , emirea beçanbat çaitçu :
haren promesetan Kheinueta eta are aye-
ruetan ere , fidancia handia daduçau. Be-
raz hanelatan arraçoinequin eduquico dugu
guc ere fidancia handia , eta esperantça be-
roa , gueure laincoac baithan , eta haren mise-
ricordian. Ceren haren baithan edirenen di-
tugu are ago , abantailatuqui fidateco , eta es-
perantça içaiteco , ahal diratezqueyen segu-
rantça guztiaç.

Lehenbicoric , hura da guce adisquide ;
eta hain adisquide , non ceruti lurrera iaure



Arice; lurtean guregat'ic, bere etsai guini-
tuefaric, bere bicia liberalqui eta volondiet-
qui eman baitçuen. Hala emaitendu iondore
Pauloc *Commendat Deus charitatem suam in
nobis, quoniam cum adhuc peccatores essemus
Christus pro nobis mortuus est.*

Halaber hura da aberats eta botheretfu.
Ceren certa eta lurra, ceruco, eta lurteco
gauça guziieguiñ be cac, berac eguinac, eta
bere escuto baititu. *Domini est terra & pleni-
tudo ejus.* Eguin biteci, erraitatequin, eguin
cituen, eta desequinbiteci, erraitatequin,
desequin ditçaque. *Ipsè dixit & facta sunt.*

Acto 7. Ezta ibiliceric eta ez higitceric, ezta iraiter-
ic eta ez hartceric, haren nehia eta voron-
datea gabe. *In ipso enim vivimus, movemur
& sumus.*

Eccles. Bada finctafunaz, bere hitçaren leyal, eta
iabe igaiterz, ezta cer erranic. *Respicite filii
nationes hominum, & scitote quia nullus spera-
vit in Domino, & confusus est. Quis enim per-
mansit in mandatis ejus & derelictus est? Aut
quis invocabit eum, & dispexit illum?* Behac-
çaque munduco ienhercino guzietaara, eta edi-
renen duque, ezte la egun daiño, iarnz baithan
fidatu denie galdu, eta ez bere beharreen, be-
harden bidean, hura behartu duenic, bere
behar duena gabe, gualdiru. Halatan errait-
tendu eriegue Davitec. *Facta super Dominum
curam tuam, & ipse te enutriet.* Nahi badugu.

Psal. 54.

gutçaz ongui dohan, eta ongui iltqui dadin,
ibeintçatçu ceure esperantça, fidantcia, eta
ardura guztiaçaincoia baithan, haren gai-
ñera egotz itçatçu. Ceren munduco idutiz
erremedioric ez tuten eguitecoy ere hare edi-
renen dersue eta emanen buru. Badirudi ecen
honen aditcera emaittea gatic anhitz etan-ere
vzren gaituela gueure laungoicoac, Herflu-
retan iaitcera, eguitecoan fartcera; eta ce-
rutic baitcen, erremedioric ecin duquegun
beçalaco pontura, ethortcera: lurraz, eta
lurteco habe, iabe, eta fabore guztiez etu-
turic, cerura eta cerucoetata, fidantcia han-
direquin latter daguigun amoreac gatic. Hala
erraiten du San Chisostomoc. *Quando res
in maximam incidit inopiam; tunc tu maxime
speras; tunc enim Deus maximam suam ostendit
potentiam: non à primordio, sed quando res
fuerit plane desperata.* Eguitecoac eguiteco,
tan direnean, galdu ordean dabilçanean-
orduan educaçu çuc egun daiño baiño espe-
rantça guehiago. Ceren orduan, eracutlico-
du laincoac, bere bothere handia: ez eguite-
coaren hastean, baiña-bai premiaric handie-
nean, eta nehondic erremedioric ezte la, di-
rudienean. Ceren orduan da laincoaren fa-
borearen eta laguntçaren fasoña eta punta-
da. Beraz orduan behar duçu çuc laincoia
baithan, eta haren misericordian, fidatu, eta
esperantçatu.

Chif.
hom. 17
tom. 1.



Eta hala eguiten duçun demboran, ezta ez iaincoac saltatcen. Aitcitic bere ontasunaren, misericordiaren, eta botherearen eracusteagatic, orduan laster eguiten du, orduan beltcen çaitçu, orduan çue pensatu ere etcenduqueyen bidetic, erremedio igortcen deratçu. Inquin deçaçun, bertce erremedio guztia ahitu direnean, harenac hasten direla. Inquin deçaçun bertce guztieç deus ecin eguinez vtiç çaituztenean, hanc badaidiqueyela, eta orduan laboratcen çaituela.

Hala laboratu çuen Jonas Propheta hirur egunez, eta guez baleac fabelean biciric erabili çuenean. Hala laboratu eta beguiratu cituen Israëleco semeac ere itfas-bazterrean. Erregue Pharaonec alde guztietaric inguratuaç, eta ecin ihetic ceidiqueten beçala, vstee hartuac eta atrapatuac cedutçanean.

Hala laboratu çuen Susanna Legue çabarreco emazte prestu hura ere, bere senharraz bertce requin içaçuela, falsoqui accusaturic, bazariz iocaterca, ceramatenean. Finean hala laboratu çuen Daniel Propheta ere, lehoinean artetic eta botheretic ofloric eta salboric aheran çuenean.

Norc errançaqueyen guison bat hirur egunez eta guez balearen fabelean ibiliz guero, biciric lehorera ilquitco cela? Norc linhetic çuqueyen Israëleco semeac, itfas bazterrean, bain herflura handian içan. cirna, Pharaon

nen escuetaric itçurico cirela? Eta Pharaon bera bere bothere guztia requin ithoric han guelditaco cela? Norc pensatu çuqueyen Susanna guito çat, condenaturic, plaçara galtecco atheraz guero, hanbat obhorerequin etcherat bihurtuço cela, eta haren accusaçailleac, eta condenaçailleac, haren leçuan conde natuac, eta iustiatuac icanen cirela? Finean noti gogora citçalacion Daniel beçalacoa, lehoingose-minduec bere menean, eta atçaparen artean eduquiz guero, defeguin gabe, eta iretti gabe vtiço çutela? Hanc dira iaincoaren miraculluac, iaincoac berac eguin ahaleitçaqueyenac, eta ez bertceç. Eta eguin cituen iende hequen laboretan: Ceren hec herflura hetan cienean, bere esperantça guztia, fidancia handirequin, iaincoac baithan ibeni baitçaten. Hala ibeni gabez, Israëleco seme Egiptotic itçqui cirenetaric, et ciren Iosue, eta Caleph baicen, herri prometatuan sarthu. Ceren guztien artetic, hec bieç bai, baiña ezpaitçuen bertceç, iaincoaren promesetan, eta erranetan, behartcen esperantça, sinhestea, eta fidancia eduqui.

§. I.

A Biatu cen egun batez Iordone Petri, itfaz gañean, Iesu Cristo bere nabusia gana. Eta abiatu cen bere hala oiñez, vnt-



ciric, eta cheluparic edo batelic gabe, leihorean iñan bailliz begala, fidantcia handi batequin, espeantça segur batequin, bere lainco nabusia gana, c choanaz guetoz tic, haren fiboreatequin bate n, itfasoac iafanen guela, etcela ihoco, eta ez hondatuco. Eta eteen ez eng natu. Ceren fidantcia har irauñ ce-raucan bitartean iafan çuen itfasoac, eteen on-dora, leihorean begain segurqui, eta gogortqui, ficateen çuuen oiñac. Baiña guero haicebat iaiquie, itfasoà handitcen, eta haf-fereteen hafi cenean, hafi cen halaber Iondore Petri ere, icicen, iccaiatcen, dudatcen, ef-perantçaren, eta fidantciaren gaitcen. Eta nola baitçhoan dudatuaz, eta fidantciaren galduaz, hala oiho n, itfasoan barrera ere sartuaz, estaliar, eta hondatuaz: halaco moldez, ecen azquenean, guztiz honda etee-din, bere nabusiac ezcuà goiti eduquitceco, eman behar içatu baitceaucan, erraiten cio-ela. *Modica fidei quare dubitasti?* Ha fede appurretacoa, fidantcia gutitacoa, cergatic dudatu duc? Cergatic egiz leheneco go-goan, eta sinhestean fin egotu? Fidantcia iñan çuen bitartean, ongui ioan ceican, or-tuan iafan çuen itfasoac. Baiña fidantcia hura saltatu ceicanean, saltatu ceic n itfasoan ere, iafateco eta sostengateco indara, eta botherea. Halatan erraiten du erregue Da-uitic, *Qui confidunt in Domino sicut mons sion.*

Math.
14.

Ianna baihan fidatcen direnac, Siongo oiha-na, eta mendia begala iñanen dira: hura be-gain fermo, finico, segur, eta boaitz. Beraz huncelatan anhitz valiodu esperantçac, indar handia du fidantciac h in handia ecen baitirudi, asco iñanen dela fidantcia hura bera; bat bederaren, eguitecot n denean, eta guztiz ere bere azquen finean gaixtoago bada ere, salbatceco, eta bide onean ibentceco. Ez horrelacoric Hala idurigatic, ezta h-la, ezta fidantcia bera asco iñanen. Ceren egua-da, anhitz valio du fidantciac, indar han-dia du esperantçac. Oidea aditcen dela ne-urriz, soberania gabe. Ceren soberania guz-tiac dira gaizto, hunen ondoco capitulan a-guerico den begala.

*Iaincoaren misericordian fidaturic ez teta peni-
tencia eguita guero co vici behar.*

C A P. II.

ERraiten du San Agustinec; Iaincoa-
ren misericordian, sobera fidatcen Vide
Aug. de
vera &
falsa
penit.
cap. 4.
tom. 4.
direnez, mintço dela, erraiten du-
tela halacoc. Misericordios da Iain-
co bimotoz-bera, amorioz, eta ontafunez
bathea; beraz eztugu cer lehiaturic obra onen
eguitea. Ceren berdin ezta deusen perillc,



orobat dabilhar, oro bat da guero. Ahald-
quegu esperantça, fidantçia, eta segurança
bicirce lucea emanen deracula: eta noiz nait-
den, çahartean, eta are hiltçeracoan oro-
gueure beccatu guziac barçatuco derac-
quigula. Ceren hain gauça onac misericor-
diçfac, bihotz-berac, eta, amoltsuac, ezli-
quitque bertçela eguiten, ezliaquitque neho-
ri gaiztic emaiten.

Gure gatic cerutic lurrera iausti cen; gure
gatic bicia eman çuen, gorputzeco odol guzi-
isui çuen: eta odol hartçaz, bere aitaren, eta
gure ateco trabua, eta etsaigoa khenduric,
beccatuaren çorra osloqui iusticiaren arauar
pagaturic, eta çathibuta functic ere atheratic
libertatean ibeni guinituen. Eta laincoac
hunelaco gaugeric eguin baiño lehen, legue
çahartean ere, gaixtoac berac condenatcen
ciren eta ez bertçeric. Beraz orai ez tira gaix-
to guziac ere condenatcen, edo gaixtoac er-
razqui ontcen dira. Ceren bertçela cer diffe-
rentçia ligateque leheneco demboratic hune-
rara? Edo cer probetchu guenduque guc;
laincoaren mundu hunet:n ibiltiaz, era pe-
natuaz? Eta laincoac berac erran baçuen ere.

Mat 8. *Nuli sunt vocati, pauci vero el. eli* Anhitç
20. ditrela deituac, baiña gutiac hautatuac: har-
gatic eztugu guc guinistinoç, cer icituric.
Ceren guinistonoric baiçen ezta salbatcen, eta
gutiac dira guinistinoac, guinistino eztirenen.

aldean. Eta hala erraiten denean anhitç dire-
la deitu c, eta gutiac hautatuac, aditcen da
lentilac, Mairuac, Turcoac, Iuduac Luterac-
eta munduco bertçe guziac ditrela deituac:
Baiña gutiac, guinistinoac berac hautatuac,
eta ez bertçeric.

Hunela dio san Augustinac, erraiten dutela
lende fuerte batçuec. Baiña partçeric guehi-
enean erraiten dute gaizqui, eta gaixtoqui.
Minçatce molde haur, gure etsai gaixtoaren
buruan pensatua da, eta handic iltçua. Ce-
ren orai, laungoicoac herioç: cea errecibituz
guero, erraz ago bada ere salb tcea, eta be-
ccaturatic iltçuitçea lehen baiño. Ordea orai
ere iltçui behar da, ezta erraztasun haren espe-
rantçan beccatutan egoa behar.

Nola etsai gaixtoac, gure laincoari berari,
temploaren gañera tentatçera eraman cuene-
an, erran baitçioen. *Mitte te deosum*. Egotz Mach.
ceçala handic beheara bere burua; Ceren ber- 4.
din ainguiruec iñanen çutela, min hartçeric
beguiratuco çutela. Hala erraiten deratçu
çari ere orai. Egotz açu ceure burua go-
goan dara billaçun beccatu horretan, obra
eçaçu, ceure desira compli eçaçu, etçaitçala;
deusec ere guibela. Ceren berdin nola la-
incoa baira hain on, eta misericord os, etçait-
çu vrriquituco, etçaitçu calçeric ethorrico.
Cure gatic bicia eman çuenac, hanbat pena
eta traballu iragan çuenac; eztu ez, hec guz-



tiac, alfer guentha ditecin, nahico, et gaiti
gaitera vteico. Egotz egaçu beraz ceñu
burua, eguigu beccatu, fida gaiteci, et gaiti
deufen veldur.

Haur da deabruaren hitzuntça, haren ef-
colan iracurtua, han ereña, eta handie bane-
tua. Iaincoaren misericordiatie, ontasune-
tic, eta passione sainduaren meritutic, eta
valiosasunetic, nahi duçu hartu occasio,
eta aufartcia, beccatu eguiteco, eta beccatu-
tan egoiteco. Hainda ifultafun, eta ifultafun
handia, eta iende galduen contua. Haur
ecen gute falbat gaillea arrencuratu ezpaten
ere, bere heriotee penatuaz, eta defohortee
coaz, arrencuratu, eta fenticoitu bai cen bide
gabe hantçaz, erraiten çuela. *Supra dorsum
meum fabricaverunt peccatores, prolonga verum
iniquitatem suam* Ene forbalden gaiten e-
guin çuten egur beccatoreec, han bere gaita
queria, hedatu, luçatu, eta çabaldu çuten.
Erran nahi du Gaitroec bere gaitaquerien
eguiteco, eta hetan luçato egoiteco, hart cen
dituzte cimendutçat, eta occasinotçat, nie
neure forbalden gaiten, erreçibitu niren
açoteac, colpeac, penac, eta oiñhaceac. Eta
hetan fidaturic, hetan esperantçaturic
eta contu eguic, berdin nie hequen gaiti
pagatu nuela, aufartacen dira beccatu egui-
tera, eta beccatutan egoitera, erraiten dutela.
Misericordios da Iaincoa, maite gaitu, on-

Psa. 118

derizeu, bereac bere odolaz erofiac gaitu,
men menera gaitecinean, eztiagaigu falta:
beraz hardeçaquegu escu, eta licentcia cen-
bait beccaturen eguiteco. Erran beharda
misericordios deia Iaincoa, huneçaco ahapal-
diac, hunein ifultafun pairatcen dituenan.

S. I.

SAN Bassilio bertee hitzuntça batez ufat-
cendu, gauç huneçaz mintço denean, Bassilic.
e. caiten duela. *Nam & ule miseri ordiam cum* Hom.
iusti lo exhibet, qd in pondere, num. ro & mens. ra super
admittitur cuiusque merita & appendit. Ezta psal. 32
dilla nehor Iaincoaren misericordian sobera
fida. Ceten nola laungoicoac gure obra guz-
tiac, contuan, pisuan, eta neurrian, contstcen
pisatcen, eta neurt cen baititu: hala bere mi-
sericordiaz ere, contuz, pisuz, eta neurritz,
iusticiaren aranz ufatcen du. *Mel in venisti co-
m. de quod suff. it tibi, ne forte satiarus evomas*
illud. Dio Spiritu Sainduac. Ediren duçu
ezti, ianeçaçu bada neurritz, asco duçun be-
cain bertee, eta ez gueiti ago asse-eguric, ok-
ha eztagnicun, ahotie bihar ezteçaçun.
Iuzticia minda, eta garratz, eta misericor-
dia goço eta ezti. Ordea ezti hautaic, ezti
igan agatic, ezta sobera ian behar, eta mise-
ricordiaten ezti afunesn fidaturic, beccaturic
eguic behar. Ceten hala eguitea ezti sobera.

Pro. 25



ateada.

Eccles.

*Ne dicas miseratio Dei magna est, multitudo
nis peccatorum meorum miserebitur: misericor-
dia enim & ira cito ab illo proximant.* Ezte-
raçula misericordios dela laincoa, eta ceñte
beccatu guztiaç barreatuco derauz quitçula.
Ceren Misericordia, eta iusticia hurbil dagotç
laincoari, eta elecçari, eta iusticiaç beccato-
retari dadoca beguia. Misericordiaren ezte-
funtari behatçen dioçun beçala, behatu behat
dioçu iusticiaren garratzatunari ere. Ceren
laincoa hain da iusticiari nola misericordia.
Misericordia, eta iusticia berdin dira pisan
berdin dira balantçan.

S. Tho.
22 q 21
art. 2.

Equa da San Thom see dioen beçala. *Magni-
ficatum est Deo misereri & parcere quam puni-
re, propter eius bonitatem infinitam, illud enim
suum se Deo conuenit, hoc autem secundum
nostra peccata.* Placent ago, eta laquet ago
çaiç laincoari misericordia, iusticia baiño, eta
bai barreatçea ere, garratçea baiño. Eta
halatan vsatçen du anhitç etan ere bere mis-
ericordiaz, çue moreçi gaberie, bere ontasun
gatic bera gatic; baiña ez. iusticiaz, ezru be-
hin ere vsatçen, çue lehenie çueure beccato-
çatçen b-hartu çabe. Ordeç içaitçaz denat
beçan batean, bada laincoa baihan hanbat
iusticia nola misericordia: Nola aguerico ba-
ita, bertçe munduan, hemengo dembora mi-
sericordiazco haur iragan dadinean. Hargar-

tic erraiten du Propheta Dauitec. *Misericor-
diam & iustitiam cantabo tibi Domine.* Iau-
na, misericordia, eta iusticia cantaruco de-
rauzquitçut, biac berdin, hain ongui bata,
nola bertçea.

Misericordiaz foilçui, eta barreatçie, iusti-
ciaz conturie eguin çabe, mintço denaz, ez-
taçui çer mintço den, ezta halacoaç iusticia-
ren handitafuna çeçusten. Eta çeçusaç nola
estuen çeçusten Çue dioçu misericordios
dela laincoa, eta ongui dioçu. Baiña çue
laincoa misericordios dela dioçunorre, ad-
tu behar diturçu appoibit iusticiaren tornuaç
eta çolpeaç ere, hec aditurie fidantçia etioaç
vz ditçatean amoreaç gatic.

§ 2.

Iusticiaren lehenie çico çolpeaç, eta çasarra
içan çen, goitian, çeruco Ainguruetan
Luciterren, eta haren lagunen çaiçean. Ce-
ruco Aingururic ederrera, abantallatuena,
eta laincoaren adizç uiderie han l ena, egotç
çuen iusticiaç, vrguillotafuneco beccatu ba-
ten gatic, secula singabecotçat, infernuco
peneçtara. Eta Ainguru guztien lehenia, ait-
çindaria, eta aguintaria, eguin çen Deabru,
eta Deabru guztien buruçaçui, quidoìn,
eta capitain. Çen ederrera, eguin çen, itusie-
nie: bere çogarena çaiçquenie. Onhetçiena,



Isa. 14.

140 EZTELA IAINCOAREN MISERIC.

gaitecienic; eta gorena, beherenic. Halaber
fuertez non Esaiasz Prophetac bain jaufapen
hadiaz miserlic, galdeguten barto luctu
berari *Quomodo ce. idisti Luc fer qui mande orbi*
baris? Nela etori cinen Lucifer? No
etori cinen atigama, goicean poiz, oillan
tean soucen, eta iiquiten obi cinena? Hain
gora centundecina? Handia eta ici garrria iqu
ten; Ceren iusticiac eguin çuen colpe hura
Baiña eguin çuen lurrean ere bertee bat,
ez bere atauaz arsegainagoa, baldin erreme
dioric ordenatu ez palugaica, cein baira Ad
nen beccuari eman ceican gatzigua. Ce
ruan Luciferrec beiac bedere eguin çuen be
catu; eta ezta mietziteco, nor bere beccatu
gatic, penatcea. Baiña lurrean bertee cen
beccatua gatic, Adanena gatic, haren ondo
co guztiaç, are southu baiño lehen, bere ama
ren sabelean pitzen diren pontuan, di en
beccatore, eta hobenduri: eta hanbat vrthe
ren buruan eztaquin, çhantz laincoari, be
catu hura, note ezta miserlic? Cer abal
dateque iusticiabortitz agoric?

Misericordios da laincoa, eta bere miseri
cordia guztiarequin, behadagoca ifernuan
dagoen bati: iccusten du, eta iccussio du,
nola milla vrthez, eta hamar millaz penatcen
den. Eta guztiarequin ere, hala iccussi ag
ric ere, han bere leccuan vrzten du. Etçaiç
bat ere bihotic hautsten: etçaiç bat ere hala

dagoen on-beharra vrtealtcen Aitcicicac: çuin
hartcen du, çeren hala penatcen den, eta na
hi du pena dacin, eta are hndic ilquitceco,
esperanti çaric gabe pena dadin. Gogortafuna
ren handia. Iusticiaren bortitça. Çue dio
çu misericordios dela laincoa. Baiña hune
tan bodiudi, iusticiatiago dela; eta iusticiac
garait cen duela misericordia. Eta atraçoi
nequin dirudi hala.

Ceren ezpaita bertee munduan içanen gaix
toentçat misericordiaric.

Misericordios da laincoa, baiña etran be
har da iusticiati ere badela. Ceren munduari
barceatcera, cein deufec ere belacatu çuen,
eta ez amoratu, bere semearen heriotceac bai
cen.

Misericordios da laincoa, eta guztiarequin
ere Noeren demboran, çortçi presunç bertee
guztiac, vholde batez hondatu, eta acca
batu cituen. Halaber Sodoma, eta Gomorra
inguruneço bertee hiri batçuequin; Su bat
cerutic igorriric, erre cituen, Halaber Datan,
eta Abiron, lurrac bere lagunequin iretçi ci
tuen. Eta orduan hec guztiaç ifernura ciren.
Eta orai ere ifernuratcen dira çuinçino ezti
tenc. Eta veldur naiz çuinçino etaric ere,
guchienc, bide hura bera hartcen duten.

Eta erraiten denean, anhiç direla deituac, eta
guztiac hautatuac, çuinçino ez ere orobat adit
cen den. Ceren non da çuinçinoç, çuinçino



stino beçala biciten denic? Behar den bidan laincoa laudatcen, eta cerbitatcen denic? Haren manamendu sainduac b-guira-cen dituenic? Edo bere nabicunde gaixto baten complicetic, laincoatic guibelatcen denic? Otheda munduan bat ere halacoric?

Bai bada cenbait, ceren eliza ecin dateque gabe. Ordea guti. Eta halatan escripta sainduan comparatcen dira guiristino onac, harri preciatuequin, aditcera emateagatic, harri preciatu beçala, guiristino on ere guti dela, batac beçain bertceac, direla gaitz edureiten. Eta nola bertce harrietaric baita, preciatuetaric baino francoz hala dela halaber condenatuetaric ere falbatuetaric baino guehiago. Solomonec dioen beçala *Stultorum infinitus est numerus* Erhoen cõtua infinitu da, infinituquin ahitz cõdenatce da.

Bada baldin anhitz condenatcen bada, guiristino etaric ere, cergatic çu ere, guiristino içan agatic ere, etçara veldur içanen, condenatuetaric bat guertha çaitecin? Oraincoan, anhitz egotei du laincoac ifernura, cergatic bada etfatu çu ere egoteico. Baldin egotei dituen hec beçala biciten baçara? Vste duçu çuretçat legue berribat iarrico dela? Vste duçu, laincoa han goitian, çu gabe, ecin iragan ditequeyela? Edo çu ez haratceat beré loriatc galduco duela? Cer buruce, cer privilegio edo abantail duçu çuc orai, ifernuan daudenec, bere demboran çuten baino

guehiago, baldin hec beçala biciten baçara, ez hec beçala haratceco, edo handic escapatceco? Eta baldin laincoaré misericordiá fidateç baçara, eztuçu vste orai ifernuan diren hec ere, bere demboran fidatcen direla? Iaquicu ecen misericordiac iustuey loria beçala, iusticiac ere gaixtoey ifernua emaiten deravela.

§ 3.

Ceren laincoa den bihotz bera, eta misericordios, ezta ez hunetaric hartu behar occasinoric eta ez escudatciaric beccatu guehiago eguireco Ceren haur liçateque, cõtra-poçoinaren, poçoin egaitza: laincoaren misericordiaz, eta ontasunaz contrara vfatcea: eta bai misericordiaric ezten leccuan ere, oiñen permarceco, perilean iartcea. Badira bisera batçuc, begui ordethaillu batçuc, ceñec gauçac diren baino handiago, iduri aracitcen baitituzte. Eta guertha ditequeyen casua da halaco biserequin çubit batetaric iragaiten çarela, çubia den baino handiago idurituric, eta çubitic ezten leccuan oiñac emanic, etor baitcendezque çubi azpico hoñinera, eta han itho, eta honda. Bala ceruco loriara iragaitco çubia, misericordia da: eta baldin misericordiaren çubi hunetaric, iragan nahi baduçu çuc, aufartqui egui, fidatuqui egui, espetançça erho baten biserac iauntciric, eta idu-



ituric ecen ceren çaren guistino, eta lainco
ere den misericordios, haugatic bera gatic
ere, salbatuco çarela, engana ahul cindezque
eta misericordiaten çubitic ezten leccuan. Et
perantçaren oñiac ibetic, iusticiaren holi
nean erot ahul cindezque Ceren I inco
aren misericordia infinituqui handia iç an ag
tic, ezta ez aditcen, eta ez handie seçuitcen
handitafun hanc çuri, beccatu eguiteco ocau
noric, eman behar deratçula. *Non sic est Deus
misericors, ut sit injustus.* Dio San Augu
nec. Ezt: Iaincoa halaco moldez misericor
dios non iusticiari bide gaberie eguin di çon.

Aug in
psal. 39.

Aug in
psal. 58.

Babio halaber San Agustinec *Puniamus nos
tra peccata si querimus misericordiam Dei Non
pot. st Deus misereri omnium operantium iniqui
tatem, quasi blandien peccatis & non erradi
cans peccata.* Gatziga dirçagun çuere becc
atuac, daguigun hetçaz penitencia, baldin
nahi badogu, erdiethi laincoaren misericor
dia. Ceren Iaincoac ecin barccadiçagao becc
toreari, beccatutan dagoeiño, hetan atseguin
harteen dueiño, heratic aparta çera delibera
arteiño. Ezta Iaincoaren misericordia hain
aitcina helteen, eta ez hedatcen. Eta ez he
datce haur, gauçaren ecinçugunetic helduda,
eta ez misericordiaten eçastafunetic. Ezta
erraiten misericordios dela Iaincoa, ceren
beccatutan dabillinari, hala dabillaino, eta
ilbitceç gogo dueiño, lausengatcen, eta
barccatcen

barccatcen dioen Baiña erraiten da miseri
cordios dela, ceren bere beccatuac behar den
bidean vtiric, beharden bidean ethorcen
çaicari, eta bere ahala eguiten duenari;
ezpaitio faltatcen, eta ez barccamenduric
vtatcen. Eta asco da haur eta hunela eguitea
misericordios içaiteco.

Encuten duçunean, bihotz bera eta miseri
cordios dela Iaincoa, atseguin hartcen du
çu; eta ençun agatic, gaitz, gogor, eta iusti
ciati ere badela, eztuçu conturic eguiten.
Bada escritura sainduan, Iaincoac prometat
cen dituen labore handi, ezti, goço, miseri
cordiazco hec, iustuentçat, ongui, atez;
eta prestuqui, bicitcen direnentçat dira: eta
mehatchuac, Kheñadurac, iusticiaren çar
ratzafuna eta gatziguac gaixtoentçat, çu
re eta çu beçalacoentçac; Çer ethoqueria da
bada haur, çurecat diren mehatchuez, eta
gatziguez eztaguigun conturic, eta çureçat
eztiren misericordiazco solhazez har deçag
un atseguin? Misericordia iustuey, çu ez
beçalacoey dagote. Eztuçu çuc, beccatutan
çaudeiño, hartan parteric, eta ez iccusqui
çunic: eztuçu orduan Iaincoa misericordios
dela, ençunagatic, çer bozturic. Ceren
orduan, iusticia bai, baiña misericordia, ez
ta çurequin mintço, ezta orduan çure. Aparta
çate beccatutic, eta içanen da çure: aparta
çate beccatutic eta içanen duçu parte. Bai-



ña anarteraño , bitartean , iusticia educaçu ceuretçat , eta vrtzaçu misericordia , bere beccatuetaric apartat cen direntçat. Ceren bertcela debecuan nahi ditçu escuac farthu , bertceren çuçena nahiduçu ceuretu eta goratu.

§. 4.

ERranen duçu , bethi dela on esperantça bethi behar dela eduqui fidantçia. Eta onguï dioçu, eguï da, hala da. Ordea noiz, eta nola bethi? Beccatu eguinez guero, baiña ez eguiteracoan.

Ezta laincoaren misericordian fidaturic beccaturic eguïn behar. Susanna emazte saindu harc nahiago çuen , iende gaixto batçuen escuetan erori , laincoaren misericordiaren menea baiño. *Melius est mihi incidere in manus hominum absque peccato, quam peccare in conspectu Domini.* Baiña erregue Dauitec. Nahiago çuen, iende quin baiño, laincoarequin iharduqui, nahiago cituen bere ongaitzac harequin iragan. *Melius est ut incidam in manus Domini, quam in manus hominum.* Eta bieç, hala Dauitec nola Susanna ç, ceramaten contu ona. Ceren Susanna cen beccatu eguïn gabea, eta Dauit beccatu eguïna. Eta beccatu eguinez guero, laincoarequin beharda iharduqui, hara laster, han fida, haren

daniel.
33.2. Reg
24.

misericiordiatie beharda erremedio. Nolz Cesarrec condenatua, apellatu baitcen Cesar bera gana, Cesar haslerretua ganic, Cesar ez haslerretua gana: hala beccatoreac ere behar du apellatu, laincoa ganic, laincoa gana: lainco iusticiazcoa ganic, lainco misericordiazcoa gana. Beccatu eguinez guero, ezta bertce bideric, ezta bertce erremedio-ric. Ordea nehor beccatu eguïn gabea denean, nola baitcen Susanna, hobe da eguitecoen alde hunetaric eguitea, hobe da guïçonequin iharduquitcea eta hetari ethor ahal daquidicaion calteari iguriquitcea, ecen ez laincoa baithan, eta haren misericordian fidaturic, beccatu eguitea.

Baiña guc contrara eguiten dugu. Cer içanen baita ere ethorquicunaz, guero laincoaren misericordiara ihes eguïnen badugu ere. Orat escuen gaiñean presentean eztugu; beccaturic ez eguitea gatic, placeric vtoi nahi, eta ez penaric hartu: nahiago gaitçaitça ethorquicunequo peñil handiari, eta gaitz bortitçari iari, presenteco travaillu appurari baiño. Eta cerc eguiten du haur? Fidatceac, contu eguiteac, berdin guero lainco misericordiosac guziac barreatuco deranzquigula, eta erremediatuco. Contuaren gaixtoa, fidantçiarenerhoa.

Fidatcen çara, beccatu eguinez guerozco calteac erremediatuco dituela laincoat, eta



erçara fidatcen, eta ez orhoitcen, erremedia ahal ditçaqueyela halaber, beccaturic ez eguitca gatic, ethor ahal daquidizquetçun atsecabeac eta eguitemcoac. Behar ezteanean fidatcen çara, eta ez behar denean. Behar ezteanean idurritcen çaitçu laincoaren misericordia handi, eta ez behar denean. Hamarecuturen behar çarenean, edo bertce premia bat eta escastafun bat duçunean, etçara fidatcen, eztuçu esperantçatic, prestuqui biciciten çarelaric, eta beccaturic eguin gabe egoiten çarelaric, ceure premia eta escastafuna estal ahal diaçaiçula laincoac. Eta hala ceure esperantça gabearequin eguiten duçu beccatu, ebatsten duçu, eguiten duçu ohoiqueria bat. Eta eguiten duçu ohoiqueria hura esperantçaz, guero berdin lainco misericordiosfac barecatuco deratçula hartaco beccatura. Itsurafunaren handia. Orai laincoarequin adisquide çarenean, beccaturic gabe çaudenean, eztuçu esperantçatic laincoatçuregatic deus daidiqueyela, çure premia estal deçaqueyela; eta guero etsai çarenean eta beccatuz bethea çaudenean, ducu fidancia, guziac barecatuoric, bere garacia etloria, hain gauça handiac, valiosfac, eta erdiesteco gaitzac, emanen derauzquitçula. Gauça erracean etçara fidatcen eta bai gaitcean. Beccatu eguiten duenarentçat datuçaçu laincoa, handi, çabal, franco, libe-

ral; eta beccaturic eguin gabe, prestuqui biciciten denarentçat, estimatcen duçu de la hertsu, mehar, escas eta avaricios. Guztietan çabileçta eta gabilçta nahasiac, errebelatua e etahuts eguinac.

D. 5.

EZ huts eguitemco, behar beçala esperantça, eta fidancia içaiteco, cer eguin behar da: Ihardensten du erregue Dauitec. *Sacrificate sacrificium iustitia & sperate in Domino.* Erran nahi du. Eguitçue ongui, ahalez obra onetan emplega çaitetzte, eta guero orduan duçuen launa baithan esperantça. Ceren bertcelaco esperantçac deus guti valio du.

Egun batez ethorri ceitçan fray Gil saindnari cardenal batçu visitacera. Eta bere visita accabaturic partitceracoan, erran cioten, arren ceguiola laincoari hetçaz othoiz. Ihardetsu cerauen fray Gilec. Aitcitic launac quec eguioçue nitçaz. Ceren nic baiño quec sinheste eta esperantça guehiago duçue. Ordean, nolatan ahal dateque hori horrela, diotlate cardenalec?

Ceren gugabilçta munduan barrenata fattuac, abertstafunez betheac, atsequinez; eta placerez gainez eguinac, eta çu penitencietan, obra onetan, munduco eguitemcoetan campoan, eta guztiarequin ere diogu



sinheste , eta esperantça guehiago dugula çue
baino ? Bai , ihardesten deraue . Ceren çuec
bicitcen çaret en beçala , bicitcen çaretela-
ric ere , alegueraqui , deusen veldur gabe ,
salbatceco esperantça , eta esportçu handi
batequin çabiltçate . Baiña ni veldur naicela ;
icçara diraquidala , çeren beccatore baiñaiz
Beraz hunelatan , çuec nic baino esperantça ;
eta sinheste guehiago duçue .

Icçuffico duçu , iende thaillu batçuec , ma-
liciaric , eta enganamentaric baicen ezire-
nec , den sainduenac baino , buruac gogo-
ago dituztela , eta salbatceco esperantça gue-
hiago dutela : halaco moldeç , ecen ethort-
cen çarenean halacoquin minçatcera , erra-
nen baiteratçute , ezteçquetela bere espe-
rantça , çurearequin truca : extraducetela ne-
hor ere bere buruac baino sainduago , eta ez
prestu ago : nor nahi den beçain ongui Iain-
coari gomendatcen çaitçala . Eta birartean
becharretaraino beccatutan barrera sartuac
egon . Itçufatunaren handia ; beabruaren en-
gamendua . Uste baitute , eta vste baituçu,
beccatutan çaudelaric ; parabisua emanen
çaitçula , misericordia eguinen çaitçula ;
Hori da , Iaincoaz , eta Iaincoaren misericor-
diaz , escarni atsea : horida esperantça , espe-
rantça ç bea , fidantcia erhoa , gainçz eguina ;
soberaniazcoa . Eta ezta ez hori fidantcia ere
Baiña hori da , ausartcia , presuncionea , na-

hikerhoa , eta misericordia heltcen den bai-
ño aicçinago , çure desfiraren hedatcea . Are
guehiago , hori da spiritu sainduaren contra
diren beccatuetaric bat . Eta hala misericor-
diaren esperantçan , beccatu eguiten duenac ;
eztu misericordiaric mereci . Ceren halacoa ,
misericordiareren beraren contra baitabilla .
Hala emaiten du aditcera San Basilioc , pe-
nitenciã mintço dela . *Qui spe pœnitentiæ male*
agit, modum habet maleficientiæ, & pœnitentiæ
privatus est. Penitenciareren esperantçan beccatu
eguiten duenac , eztu bide ona hartcen , eztu
benitenciaric valiadaquion mereci . Eta mol-
de berean erran ahal diteque , misericordia-
ren esperantçan beccatu eguiten duenaz ere ,
eztu hare ere misericordiaric mereci .

Nahi badugu vrrical gaquitçan gueure
Iaincoari , ençun gaitçan , lagun daquigun ,
eta eduqui deçan gutçaz misericordia , en-
feia gaitecin gu ere gueure aldetic , gueure
eguin bidearen eguitera , beccatuetaric apar-
tatcera , eta manamendu sainduen beguirat-
cera . Ceren halatan bai , baiña bertçela , bert-
celaco esperantça guztiaç , ezтира esperant-
ça , alfer dira , erhoquerira dira .

Beraz hunelatan , eztugu misericordiareren
esperantçan beccaturic eguin behar , eta ez
fidantcia hartan penitencia eguitea , eta az-
tura gaixtoen utztea , gueroco luçatu behar .
Aicçitcen çeren Iaincoa den hain on , bihotz

Basil.
Tom.
25. de
Pœni-
tencia.



bera eta misericordios. Ceren hain maite gaituen: ceren beccatu eguin, eta bere hala ezcaituen gatzigatcen, ceren iguriquitcen deracun; eta finean ceren hanbat ongui eta ontasun eguiten deracun, hargatic bera gatic ere, hartatic occasino harturic, behar guenduque, are bercela eguinen guenduen baiño hobequiago, haren vorondatearen eguitera enfiatu: eta cerere beccatu, eta gaixtaqueria orainocoan erabili baitugu, hec guztia vtciric, prestutasun batan iartcera deliberratu: eta halaco moldez, thailuz eta fuerrez aincinerat governatu, non azquen finean, Iaincoaren misericordiarequin batean erdieta deçagun gureteat ordenaturic, eta prestaturic dagoen bozcarioa, cein baita cerucoloria.

Nola guerotic guerora ibilceaz, gaitcen dagun dembora.

CAP. XII.

Guerotic guerora çabiltça; vrthe hunetan gaixto içanic, dathorqueyenean onduco, eta prestutuco çarela dioçu. Bada biz hala, çue dioçun beçala, eta gogoan darabillaçun beçala, guertha daquiçun, eta ve

the hunetan gaixto içanic, çue guero horretan, ethorquicunean prestu çaitecin. Hori horrela baliz ere, non da bataz, vrthe hunetan eguin ahal cenduqueyen irabacia, eta aincinamendua? Ceren guirifino onec vrthe batez anhitz obra on eguiten dute, eta bai meritu ere erdiesten; Guirifino onac vrthe bathez aincinatcen dira, baiña çu nola aincinatuco çaren ecen guibelatcen çara, anhitz beccatu, eta gaixtaqueria eguiten duçula; eta berriz bertcea, non da halaber bitartean, vrthe hunetan, çue Guero horretara hel aterrainocoan, gaitcen duçun dembora? *Fili conferua tempus. Ene seme, beguira eçaçu dembora; Dio spiritu sainduac. Aincinean duçüno, çaquitça. Ceren behin ioanez guero, ezta bihurtteric, eta ez erdiesteric. Fronte capillata est, at post occasio calva. Occasinoa copetan belarrean, aincin aldean, illetfü da, eta cherlotsu, baiña gathaitean, garteran, guibel aldean, motz, foil, garbal, carfoil, eta ille gabe. Aincinean badu, nondic lot, baiña ez guibelean. Beraz aincinean duçüño, probetcha çaquitça. Ceren guibeleraz guero, eztu escu-toquiric, eta ez lotceco guirthaiñic. Bada occasinoa beçala da, dembora ere. Beraz hunelatan *Quodcumque Eccl. 9. potest facere manus tua instanter operare. Quia nec opus, nec ratio, nec sapientia erit apud infiros que tu properas.* Orai dembora aincinean du*

Eccl. 4.

Anson. Gerlot.

Eccl. 9.



guño, eguicu ahal daguicuna : eta orai etc. *Instante*, site presentcon. Ceren iaquin beharduçu ecen eztela guero, çuc ioan beharduçun leccu hartan, arraçoïn alegatceric, eta ez iaquintafunaz probechatceric içanen. *Viten* baduçu, nola eztaquicula, orai escuen artean duçun dembora iragaitera; eguin dagaldu da, ezta guehiago bihurtceric. *Hargatic* erraiten du iondone Pauloc, *Dum tempus habemus operemur bonum*. Dembora daguicun ongui.

Ad Galat. 6.

Tempus est numerus motus, secundū prius & posterius Aristot. 4. Phisico

Senec. lib. 6. naturalis questio. 5. Tho. 1. p. q. 66. art. 4. & 5.

Erran beça Aristotelec nahi duena demboraz. Baiña gure contuco. Dembora da lehen, orai eta guero, gaucen ibiltcea, iragaitea eta iragaiterequin batean, higartcea eta accabateca. Dembora bethi doha. *Neque quod futurum est mem, neque quod fuit*. Dio gureac. Iona ioan, ethorquizuna ethorquicun, presentecoa da gure, eta ez bertceric. Eta presentecoa haur, hayn da guti ecen erraiten baitu san Thomasec. *De tempore nihil est accipere in actu, nisi nunc*. Demboratic ez-tugu deus ere, orai bat baicen, iraute appurra, pontutsu bat, eta ez guehiago. Eguinda ordea, nola pontutsu hunec, orai hunec iuntatcen, eta iosten beçala baititu eleccarquin iragana, eta ethorquicuna, ioste hunec orhoitcen gaitu iraganaz, eta ethorquicunaz & 5. ere, esperantça emaiten. Eta halatan oho-

itec hunequin, eta esperantça hunequin batean, iragana, eta ethorquicuna, presentecorequin lothuric, eta bat egunic, etçaicu presentecoa hain labor iduritcen. Ceren guztiac elccarrequin beçala, eta bat baillira beçala hartcen baititugu. Hala erraiten du senecac. *Longam illi facit vitam, omnium temporum in unum collatio*.

Senec. de brevitate vitæ c. 13.

Ordea den beçala, eta behar den beçala demboraren hartcera, edirenen dugu, deus guti dela, mehar dela, eta labor. Presentecoa goça deçaquegu, ethorquicu necoa desira, eta iragana lauda edo auhen eta deithora. Iraganac eztu erremedioric, hura ioan da: ethorquicunecoa eztaquigu emanen çaicun: presentecoa hain da guti, labor eta ez deus, ecen orai ere, bigarren hitça hazi dudaneco, iragan baitateque lehenbiceicoa, eta lehenbiceicaren dembora.

Içatu da erran duenic dembora eztela deus; hartçaz orhoitçapenic edo pensatceric ezte-nean. Eta halatan lo datçanari, etçaicala orduco dembora, deus iduritcen; eztuela sentitcen, ez pailliz beçala iragaiten çaicala. Ceren orduan ezpaitu hartan pensatcen, eta ez gogoric eduquitcen.

Urarequin nahi nuque, comparatu demborara. Ceren demborac, eta vrac eleccarren idurica handi baitute. Ura berhi doha, bata bertceari darraica. Iragana aicuna da, et-



horquicunecoa guibela dago, eta aiticinecoac aiticinean guti irauten du. Eztu nehorc iragan den vretic hartzen, eta ez ethortceco dagoenetice ere: aiticinecotic, iragaitean, presentean denean behar da atrapatu. Hala da bada, eta hala eguin behar da demboraz ere, presentecoari lot çaquitça, hari probercha çaquitça. Ceren bertela, haice ona denean, vela eguin gabe, guelditcen den vntcia beçala, gueldi ahal cindezque çu ere.

§. I.

D Emboratic gauça appurra, orai haur dugu, eta ez bertceric. Ordea, norc erranen du cenbat valio duen orai hunec? Iraute, iraupe, eta bitarre ttipi, appur labur hunec? Hanbat valio du, non baldin orai ifernuan dagoen bati, eman balequio hautacera, ea cein luqueyen nahiago bere escuco, ala mundu haur guztior, bere on guztiequin, ala oren baten dembora, eta bitartea? Segur da ez oren baten dembora, baiña are, beguien goiti ailtchatceco azco luqueyen bitartea ere, lehen hauta leçaqueyela, nahiago luqueyela, eta bai hobeago ere, mundu guztia baiño.

Ceren dembora appur hura, den appurrena ere, ongui emplegatcen luela, asco bailluque an arteraiñoico falta guztien erremediace.

ceco, eta ceruco loriaren erdiestece.

Erraiten da, gauça bat preciatua dela, hartaric pusca ttipiac, bertcetaric handia baiño. guchiago valio duenean, eta halatan erraiten da gauça preciatua dela vrtrea. Beraz cinenez da gauça preciatua, eta valioffa dembora, ceren den gutiena bihortceco vrriquimendu batequin, asco baira, salbamenduaren eguiteco. Eta ezperc galdeguiocu, bere ezquen orenean, hain laburzqui, parabisua irabaci çuen ohoiñari, ea cer iduri çaicari demboraz? Ea gauça estimatececo, eta eceretan eduquitcecoa denz? Eta hanc frogatuac beçala, erranen deratçu, baietz, eceretan eduquitcecoa dela, valioffa dela, eztuela munduan bere pareric.

Hain da gauça handia, eta aberatsa, orai escuen artean dugun demboraren orai haur, ceen Purgatorioetaco, penac, mundu hune-taco pena guztiac elccarri iratchequiric baiño, handiagoac direlaric, guztiarequin ere erraiten baitu doctot batec. *Plus valet hic in*

patientia diei unus, quam in Purgatorio annus. Lodulphus ex Saxoniz, 1. p. cap. 20.

Guehiago valio du eta guchiago eguiten du, orai hemen egun batez obra onetan emplegatceac guero purgatorioetan vrtthe batez penatcen egoiteac baiño. Oraico egunac valioico du orduco vrtthea. Hala emaité du aditcera Ezequiel Prophetac. *Diem pro anno dedi* Ezequi. 4.



nahidu eman deratçut , emaiten eta deratçut anhitz egun , hain aberatsic , valiosic , eta precio handitacoric , non hetaric batec valio baitu , eta valioco baitu vrthebat. Ceren guero vrthe batez eguin ditequeyena , eta eguinen dena , eguin baititeque orai egun batez. Eta arraçoña , Ceren guero içanen eztena , ori baita merecitceco , eta ontasunean airtceateco ahala , indarra , eta libertatea. Eta halaber ceren bi pena fuerte baitira , bata da ; *Pena inflicta*. Bert-ccc emaiten deracuna , bertcetarie heldu çaicuna , nola baita purgatorioetaco pena , eritasun batetacoa .

Vide
Dioni
charitu-
fia. de
judicio
animæ
cap. 15.

Bertcea da , *pæna assumpta* , gueroç gueurere vorondatez hartcen duguna , nola baita eguitendugun penitencia , barurtcea oracinoetan egoitea , erromerian ibiltcea. Eta pena hare , gueroç gueure vorondatez hartcen dugunac , eramaiten dio airtcean alde , bertcepenari , bertcec emaiten deracunari , patientequierrecibitua içan agatic ere. Ceren purgatorioetan dagoenac nahilque handie libratu , eta bai eriac ere fendatu .

Baiña orai gueroç gueure vorondatez eguiten dugun penitencia , eta hartcen dugun pena , alde guztiz da vorondatezcoa , valiofia ; eta laincoari eder çaicana. Eta halatan hurenec eramaiten deraue purgatorioetaco penari , eta eritasunecoari ere , vrreac , bertcediru guzticy eramaiten derauen abantaila

Ceren laincoac behatcen badu ere iragaiten dugun penara , ordea are ago behatcendu , hartaco vorondatera. Beraz orai , pena , orai barur , cilicioa har. Ceren oraico pena ttipiac , gueroç librequi , gueure vorondatez hartcen dugunac , guei ago valioco du , purgatorio. etaco , edo eritasuneco pena handiac baiño. Eta hala badirudi ecen purgatorioetan daudenec , ez tuteladeusez ere hanbat damu , eta atsecabe içanen , nola demboraren galduaz , gaizqui empletatuaz eta bere buruen , bere vorondatez appurbat bedere ez penatuaz. Arraçoñequin erraiten du San Christostomoc. *Neque intelligis omnia potius esse amittenda quam tempus , aurum amittis , potest recuperari , amissum tempus difficulter.*

Eztu çu aditcen , bertce gauça guztia lehen vteci behar ditela , galtcera dembora baiño. Ceren vrrea , eta cilharra cobera ditezque galdu agatic , baiña ez demboraz

§. 2.

Nihil pretiosius tempore & heu nihil eo vitiosius invenitur. Dio San Bernardoc. Ezta munduan gauça preciatuagoric dembora last baiño , ordea ai , ezta egungo egunean gauça eztheusagoric edireiten. Eztugu deusez ere , hain contu guti , eguiten , nola demboraz.

Quem mihi dabis qui aliquod pretium temporis

Chriſt
hom.
57. in
cap 9.
Ioan
tom. 3.

Bernard
ad sco



ponat qui diem estimet? Nor emanen derautacu; galdeguiten du senecat, demborari precio dioenic? Eguna mereci beçala estimatcen due- nic? Fitfaren berdin, ez deusen pare dadu- cagu dembora. Badirudi trabatcen gaitu- elan hitzetan ere, ezpaguendu, nahi guendu- queyela: eziaquinez certan iragan, gabiltçala, Oren batean garenean, bi garrenean baguina desiraten dugula. Erran behar da aberatz garel, munduan den gauçatic aberatsena, eta valiossena, hain francoqui derabillagu- nean. Bada ala çuc etanic ere, demboraren galtce hunetçaz, probetchatu gabe iragaitera vtzteaz, contu heitfia, eman beharco baitiogu laincoari.

Hirur moldez, erran ahal diteque galtcen dela dembora. Lehen bicicoa, beccatu eguiteaz, eta beccatutan egoiteaz. Beccatu eguiten hari çarela, eta eguinez guero, heran çau- dela, iragaiten çaitçun dembora, emaçü galdutçat. Dembora harc eztu deus valio çuretçat. Aitecitic hartan ceure arima, eta atimaco on guziac eta comunzqui gorputz- cecoac ere galtceintuçu, vra behera beçala, egorteintuçu. Dembora hura da demboratic galduena, eta galgariena.

Bi garrena, galtcen da dembora, gogoeta etho, vano deus valio ez tuten batçuetan e- goiteaz. Cerori baccarric, alfer aise, egui- teorice gage, ongui iana eta hobequi edana

çaudenean, eta guztitz ere ohean loz afferic, arduraric gabe, çantçanean, eguiten duçu, ceure baithan barrena, milla pensu eta gogo- eta, milla dorre eta gaztelu. Eguiten çara Aita Saindu, eguiten, çara Erregue aberatsten çara, eguiten duçu anhitz valentia. Ethort- cen çaitçu ioco eder bat, irabazten duçu. Fi- nean erabiltceintuçu ceure gogoan, hala ba- liran nahi cenduqueyen gauça batçuc. Eta se- culan hala içanen ezpadira ere, eta ezitrela içanen badaquiçu ere, guziarequin ere, hala pensatceaz beraz ere, gogoeta etho heran egoiteaz, atsequin hartcen duçu. Eta bitar- tean eztuçu confideratcen, çuc handic athe- ratcen duçun probetchua demboraren galtcea dela, eta ez bertceric.

Hirur garrena galtcen da dembora gorpuz- aren placeretan ibiltceaz. Erraiten duçu, deça- gun dembora iragan, gaitecin ioca, gaitecin çantça eta doña. Eta etçaitçu gogoratcen, bi- tarteon dembora galtcen duçula. Bada errai- ten du San Bernardoc. *Omne tempus in quo de* Bernar: in med. cap. 6.
Deo non cogitas, hoc te computes perdidisse. Iana- coa baithan pensatecen eztuçula, iragan çait- çun dembora guziac, eguiçu contu galdu du- çula. Hala erraiten du San Geronimoc ere, *Omne tempus in quo meliorasse non senseris asti- ma perdidisse.* Hobetu çarenz sentitu gabe eta çebait ontafun eguin gabe iragaiten çaitçun dembora, estima eçaçu galdu duçula. Ezta azco

Bernar: in med. cap. 6.

Hieron. ad Eust.



gaizquiric ez eguitea, ezta asco ez gaixtatzea
baña ondu behar da, eta ongui eguin behar
ez aincinatzea; guibelatzea da, Ceren bitar-
tean bertze calteric ezpada ere, dembora gal-
cen, eta probetchatu gabe iragaiten baita.

Contu eguiçu ecen orai ditutçula berrogoy
vrthe, Eta eguiçu halaber contu, eta gogoa
cenbat ongui eta obra on eguin diruçun, ber-
rogoy vrthehorietan, eta edirenen duçu, bal-
din cin cinçez, fintqui, eta debotqui manaiata
eta emplegatu bacina, berrogoy vrthe hori-
etan eguin dirutçun onguia, ontasunac eta
obra on guztiac, eguin cinituzqueyela vrthe
batez, Beraz Hunelatan galditutçu bertze
vrthe guztiac, berrogoyetaric, hogoy eta he-
meretciac. Cer contu emanen duçu bada vrthe
galdu hetçaz? Hitz alfer guztiez eman be-
har da contu, cer ičanenda bada hanbat dem-
bora galduz, eta alfer iraganez? Arracoiñe-
quin erraiten du Ieremias Prophetac. *Vox
adversum me tempus.* Deitu çuen ene contra
dembora. Demborac berac, gue gaitcen du-
gunac, accusatcen gaitu, hura bera iaizquitcen
da gure contra.

Tren. i.

Senec.

Epil. i.

*Omnia mi Lucile aliena sunt, tempus autem
nostrum est,* dio Senecac. Bertze gauça guztiac,
bertzerenac dira baña ez dembora, hura ge-
rea da.

Orai escuen artean dugun dembora, pro-
statcen deiacu gueure laungoicoac, vrzten de-

racu gueure escuco. Eta nahi du probetcha
gaquitzan, obra onetan emplega deçagun,
eta hala emplegaturic ere escatuco çaicu
contu; baldin meça ençun badugu ea on-
gui, eta haitan pensatcen dugula ençun
dugunz. Baldin barurtu bagara, oracinotan
egon bagara, Probearierremusina eman ba-
diogu (hauc obra onac baitira) hautçaz gaz-
tiaz escatuco çaicu contu, ea edergaillu, mun-
dua gatic, ala laincoa gatic eta intencione
onez vanaloriac gabe eguin ditugunz Hala
eraiten du Propheta Dauidac laincoaren partez *pl. 74.*
*mintço dela. Cum accepero tempus ego iustitias
iudicabo.* Dembora neure gana deça danean,
heriotceco orenean, hain herstqui escatuco
naiz contu, non obra onac ere, ea ongui iustu-
qui, eta behar begala eguinac direnz exami-
natuco era iuzgatuco bairitut. Obra onac ere
baldin ongui, eta intencione onez eguinac
ezpadaira, gaixtotçat emanic condemnatucoitu
laincoac.

§. 3.

Baldin presenteco dembora haur, orai es-
cuen artean duguna, emplegatcen ezpa-
dugu ongui, peril da edequi daquigun ethor-
quigunecoa. Eta ala baña haur da gure etho-
queria edo itsurafuna, vste baitugu, gueure
lehenecoa gaizqui emplegatu guztiarequin
ere, aincinerat ere, orobat emanen çaicula



dembora. Baldin mercatari batec, eman baliago bere femeari diru sumabat bere escuco, manaia leçan, emplega leçan, tratuan, eta mercatalgoan erabil leçan. Eta halatan tratua iccassinic, berac bere buruz, cerbait irabaz leçan. Ordea baldin feme harc, bere aitaren eman hec guztiaç, iocoan, ian edanean, eta arloterian gasta balitça, arraçoinequin liçateque feme hura veldur, ezliaçon bere airac, aitecinarat, guehiago eman eta ez fida, eta are lehen emanac ere edequi liaçon Hala bada, arraçoinequin içanen gara gu ere veldur, edequi diaçagun gueure laungoicoac ethorquicuneco dembora, iragana hain gaizqui empletatu dugunaz gueroztic. Hala Noeten demboran, ehun, eta hogoy vithe biciteco prometatur guero, edequi cerauzten azqueneco hogoyac, ceren leheneco ehunac, gaizqui empletatu baitçituzten. Haur emaiten du aditcera erregue Dauitec ere erraiten du enean. *Viri sanguinum & dolosi, non dimidiabunt dies suos.* Guicçon gaixto odol isurle; guerlati, maliciati, eta enganatic, ezituzte bere egunac erdizatuco, eztira halacoac bertecela, bicico cirenaren, erdia bicico.

Barçuec bere gazte demboran, odola bero dütencan, bicitcen dira, laincoric, berioteric, edo contu errendatceric, ezpailliz beçala, libertate handian, milla beccatu, malicia, eta enganamendu eguiten dutela: gor-

putçari, ahal beçanbat plazer emaiten ditotela. Baiña guero çahartcean, odola hotzten hasten çayenean, hasten dira halaber ethorquicunaz orhoitcen, hil behar dutela, eta hil ondoan contu errendatu behar dutela, ohartcen, eta pensatcen. Eta handic harat, hala bere buruey ohartuz guero, itçultcen dute plama, eta orria bertce aldera: eta lehen gaixto beçain eguiten dira guero on eta prestu. Halacoec, *dimidiant dies suos*, bste egunac erdizatceintuzte, bi erdi eguiteintuzte. Ceren erdi bata, gaztetafuna gaizqui empletatu baitçuten ere, bertce erdia, çahartcea, ongui acabatu baitçuten. Eta haur da azquenecotz ongui erdizatcea, gaixtoa vçiric, onaren hartcea, iondone Paulo batec beçala eguitca.

Baiña berriz bertce batçuec gaztean dira on, prestu, eta debocinotsu, eta çahartcean gaixto, eta maliciatsu. Hastean on, eta accabatcean gaixto, ludas içan cen beçala. Halacoec, *dimidiant dies suos*, erdizatceintuzte bere egunac, bi erdi eguiteintuzte. Ceren çahartcean gaixto badira ere, gaztean on içan baitçiren. Ordea hura da gaizqui, eta gaixtoqui egunen erdizatcea, ceren onetic gaixtora aldatcen baitira. Eta hanbatic hanbatean gaixto ago, eta perilos ago da, çahartcean gaixto içaitea, gaztean baiño.

Baiña finean berriz bertce batçuec, *Non*



dimidiant dies suos. Eztituzte nehoiz ere edizcatcen bere egunac. Ceren hala gahartcean nola gaztean, arront baitira bat, bethiere baitira maliciaz, eta gaixtaqueriaz orobat. Eta halaco hec iccusten dutenean bere egunac laburtu hurran çaitzela, heriotcera hurbiltcen direla, contu eman behar dutela. Orduan, pagatçaille gaixtoec eguiten dutena, escatoco dira eppe eta luçamendu guehiago. *In die rediionis postulebit tempus.* Ordea nola iraganaz contu charra eman baituquere, eztira ençunac içanen : etçaye hequen promesey sinheric emanen, ezta hequen erranetan nehor guehiago fidatuco. Hala erran çuen Ainguruac ere, gaincoaz cin eguinic, ercela içanen guehiago demboraric, accabatuco cicla gueroco guero guztiac. *Fura vit per vi ventem in secula, quia non erit tempus.*

Apoc.
10.

Greg.
hom. 12.
super
Evang.
& liber
4. dial.
cap. 38.

Eguin ahal deçaquegu nahi beçanbat, edo ahal beçanbat enfeiu, eta itçul-inguru, baiña azquenean ere, eçin ilhesic daidiquegun demborara, eta pontura herstu, eta vildu belatoco dugu. Hala contatcen du San Gregorioc, ecen Chrysaotio ceritçan guiçon gaixto battec, bere azquen orenera cenean, munduan eguin ahal citçan orhoitz guztiac eguin agatic, ecin erdietsi çuela bihatamuneco luçamendua. *Cæpit magnis vocibus clamare inducias, que manè inducias, vel usque manè: sed cum clamaret, in istis suis vocibus de habitaculo, sue*

carnis evulsus est. Herstu cenean, nahiçunqueyen appur bat luçatu, nahiçunqueyen biharamun arterainoco dembora irabaci: anhitz hitz eder ahotic athera çuen anhitz orhoitz era oihu eguin çuen: anhitcetan, egun baten tregoaren eppearen, eta espatioaren escatu cen. Baiña guzciac alferric. Oihuz, eta orhoitcez cegoela, bere egunac accabatu ceitzcan, arimac eguin ceraucan, eta seculacotz condenatu cen.

S. 4.

BEraz hunelatan, bat ere sentimenduric badugu, eztugu guerotie guerora ibili behar: Eztugu aiticinerat guehiago demboraric galdu behar. Aiticie lehen galdu duguna, behar dugu orai coberatu, eta erremediatu. Ordea nola edo cer moldez erremedia ahal diteque eta cobera? Ceren ioana, ioanda, ezta haren bihurtteric, eta ez escuetaratteric. Ihardesten du San Gregorioc hitz gutiz, eta laburzqui. *Tempus redimimus, quando ante actam vitam, quam lasci viçdo perdidimus, sendo reparamus.* Dembora iragana rescatacen, eta gueure tacotcen dugu noiz, eta bicitce gaixto iragana irriz, eta placerez galdu guenduena, nigarez, eta desplacerez cobertacen, eta erreparatcen baitugu. Erran nahi du. Dembora iragana, gaizqui empegatu

Greg.
lib.
Moral.
cap. 28.



S. Th.
in ad-
ditio
q. 15. ar.
1 ad 4.

guendüena, escuetarie ioan ceicuna, erciete-
sten dugu, orduco placeren ordain, orai de-
placer dobleac hartcen ditugunean, orduan
eguin behar guinituen onguiac, eta orai eguin
behar ditugunac, orai eguiten ditugunean.
Haur da San Thomasec ere satisfacionear
mintzo dela erraiten duena. *Quã vi. homo non
possit tempus præteritum recuperare. potest tamen
recõpensare, illud quod in præterito fecisse debuit.*
Guizonac dembora iragana ecin cobera da-
deçaque ere, eta ez bihur, ordea erremedia de-
çaque, iraganeco falta, iraganean eguin behar
çuen onguia, eguiten duela ethorquiçunean.
Baldin iraganean meça bat ençun behar bacen-
duen, eta ez hura ençun, cofessa hartaco becca-
tua, eta guero ethorqui çur ean dobla, eçun
bia. Baldin iraganean egun batez barurtu behar
bacenduen, eta ez barutu: lehenic cofessa har-
taco beccatua, eta guero ethorqui çunean do-
bla, barur bi egunez. Halatan dembora iragan
gaizqui emplegatua, eguin ahal ditequeyen
moldean rescaratcen, coberatcen, eta erre-
mediatcen da. Bi orenen bidea iragaiteco du-
çunean, eta oren hetarie bata, alferquerian,
ian edanean, eta arloterian iragan dugunean,
cer erremedio çeure bidearen mugaz, eta il-
hundu gabe erdieste co? Guerthatu çaitçun
faltaren esalceco? Cer? guelditcen çaitçun
oren hartan, hain cinez, eta laster abiatcen
çata, non bi orenen bidea, batez eguiten bai-
tuça

tuça, eta halatan erremediatcen eta esaltcen
ceure lehenco falta, eta alferqueria. Bada
molde hunetan berean guc ere gueure dem-
bora, huneraiñocoan alferquerian eta gaix-
taquerian gaizqui emplegatu duguna, orai
ontafunean doblatuz eta laster egunez behar
dugu coberatu, eta erdietsi. Hala erraiten
da, ardiac ere, arratz aldean fitetz ago ianez
bere goiceco guti iana, erdiesten duela. Ha-
latan mahastiaren iabeac ere, arratz aldean
trabaillatcen hafi cireney eman cerauen
hanbat jotnal, eta alacairu, nola goicetic
trabaillatu cireney. Ceren arratz aldean
hafi cirenac, hain cinez eta gogotic hariçan
ciren, non hec dembora gutiz, bertcec anhitz
ez beçanbat eguin baitçuten.

Bada haur beror eguin behar dugu guc ere
orai arrats aldean, çabartceon, gueure egu-
non accabatceon. Orai baitacusagu ecen ia
adinaren arauaz, heriotceco portura hurbilt-
cen garela, hemengoaz, eguin hurian du-
gula. Orai bada orai behar dugu permatu;
orai behar derauegu, escuey eraguin. Orai
nori berea errenda, orai etsaigoatic iltqui.
Orai ethorqui çunean pensa. Orai cin cinez,
bihorcezco vrriqui mendu batequin, eta gue-
hiago ez eguiteco vorondatearequin, aicci-
netic concientcia ongui iratioric, eta exami-
nataric, osoqui, eta eguiatzqui cofessa: co-
fflatu ondoan, leheneco occasinoetarie



aparta, ez guchiago hetara, eta ez bertce hialaco etara itçul. Halatan dembora iragana, hain gauça handia, eta valioſſa, guerotie guerora ibilteceaz galdu duguna, erremedia abal ditequeyen moldean, erremediato, cobe ratuco, eta erdietſico dugu.

Gaztetic çahartcera penitencia luçatcen duenaz.

C A P. XIII.

Ecclef.
12.

ERraitendu ſpiritu ſainduac. *Memento creatoris tui in diebus iuventutis tuæ, antequam veniat tempus afflictionis tuæ, & appropinquent anni de quibus dicas, non mihi placent.* Orhoit çaiteci ceure laungoicoaz ceure gazte demboran, çahartceco pene etara baiño lehen, eta hurbildu gabe vithe hec, ceinen gatic datocinean, erranen baituçu, eztira ene gogarako Gazte çareño, abala, eta indarra duçnino, travailla çaito, orduan eſuey eraguiçu. Ceren çahattuz guero, çabatceac berac emanen deratçu eguitecoric aſco.

Hanbatic hanbatean, eder ago çaitça laincoari gaztetafuneco obra onac, çahattafunecoac baiño. Ceren gaztetafunecoac berac eguitez hobe ago, eta eder ago baitira. Ma-

natcen çuen laincoac legue çahartean, fruitu guztietaric primicia eman çiaçotela, guztietaric parte bat, eta parteric hoberena, principalena, eta eſtimatu ena, nola comunç qui ohi baita lehenbicoa, offerenda çiaçotela. Manateen çuen halaber laincoac berac, vſoetaric, ez vſo handiac, baiña vſa cumeac eccarçiatçotela. Gazteac nahi cituen, eta ez çaharrac. Ceren vſoac cenbatenaz gazte ago, hanbatenaz dira hobe ago, goço ago, eta çaporetſu ago. Hala dira bada halaber gaztetafuneco obra onac ere, çaharta funecoac baiño gai ago, eta valioſ ago. Eta halatan da gure laincoa ere hetaric guticioſ ago, deſiroſ ago, eta çale ago. Hala erraiten du Miqueas Prophetaren çazpigarren capituluan. *Præcocaſ ficuſ deſideravit anima mea.* Goiz ontcen diren ficoac, deſiraten cituen ene arimac, Preſuna gazteen lehenbicoa obra on hec nahi nituzque, hetaric naiz çale, eta gura, hec çazquit on goço, eta ezti.

Hargatic da Theologoen errana, guiçona adimendura helcen den beçain ſarri, pontu berean, obligatua dela, bihotçaren laincoac gana ailtçatcera, haven manamenduen complicecco gogo hartcera, eta arraçoïn naturalaren arauaz bedere bicitcera.

Pintat çaille batec eguin baleça imagina eder bat alde guztiz complicitua, eta abantail-



latua : imagina harc ; baldin eçagutçaric balu , nori lehenic behatu behar othe leratucaio ? Segur da pintatçailleari berari , bere eguilleari . Beraz hunelatan guiçonac ere , laincoac berac bere imaginara , eta idorira ; hain ederqui eguina denaz gueroz , adimendura heltcen den beçain fite , bere eguilleari berari , iduria eman dioenari , behar dio behatu , haren cerbitçuan behar du bere ahala empletatu . Hunen arauaz erraiten du Ion-

- done Pauloc . *Laborantem agricolam oportet primum , de fructibus accipere* . Arraçoin da , travaillatcen den laborariac , berac lehenic bere fruituetaric dasta deçan . Etaiondone Pauloc berac dioen beçala . *Dei agricultura estis* . Quec çarete , eta gu gara ;
2. ad Thimo .
2.
3. I. Cor .
3.
- laincoaren laboraritafuna : gu gara , laincoaren lur-landua , appaindua eta travaillatua . Arraçoin içanen da beraz kalaber , laincoac berac , laborari onac beçala , bere travaillua , lehenic goça deçan : eta adimendura edo endelegamendura heltcen garen pontu beretic , gure obren primicia : eta lehena dasta deçan .

Baiña ai . ai . ai , eta millaran ai . Non da bere lehen fruitutic , bere obren hastetic ; laincoari dasta aracitcen deraucanic ? Non da guiristino goiz-tiarric ? Goiz ontcen denic ? Gazte danic laincoa cerbitçatcen duenic ? *Va mihi quia factus sum sicut qui col-*

ligit , in autumnno racemos vindimie , non est hortus ad comedendum . Ai ene vrricalquiçuna (dio Midueas Prophetac) ceren ni eguin naiz vdaren finean , bertceren bil ondoan mahats hondar-mondarren , bilha dabilana beçala . Hoberenac bertceac eramaintu . Ezterautate morcoxta bat ere , eta ez bicor bat ; ahoan eman ahal ditequeyenic vti . Bada haar beror erran ahaldeçaque gure laungoicoac ere . Ceren gute gaztetafuna bertceac ioaiten du , Lehenbicico obrac bertceac biltceintu . Deus guelditcen baçaica ere ; bil ondoac , ondarrac , çahartcecoac , guelditcen çaitça . Eta gaixtoeneco contuan , ailquitça hec ere , edo hec bedere gueldi .

9. 1.

B Adirudi ecen defohore eta laido çayela oraico prefuna gaztey prestuqui biciteca , eta beccaturic eguin gabe egoitea . Bere eguin bidea , laincoari çor dioten cerbitçua , gueroco , çahartceco ordenatcen dute , erraiten dutela . Berdin oraio ezta hiltceco petilic , sendo naiz , gazte naiz , eta gazteac gazte antçu , gazte beçala behar du bici eta goietnatu . Cer lerraque munduac berac ere ; baldin orai danic parti banenguio ? Hor helduda çahartafuna , dembora pausatua , ymoa , erho querien vztecoa . Orduan bai ,

Michel
7.



orduan onduco naiz : orduan munduari gur-
bela emanen diot , eta debocinoan sarthuco
naiz. Baiña an arteraiñocoan deçadan atse-
guin har, deçadan mundua cerbitça : naquion
goça : naquion behin , berriz bihurtceco deli-
raric eztuqedan beçala , asse , eta asper.
Haur da oraico prefuna gazten delibera-
mendua , haur da hequen gogoa : eta haur da
adinean beçala , gairacoan ere gazte iça-
tea , eta azquen finean , sin gaitz eguiteco pe-
rilean iartea.

Baldin bacina esperantçetan ; hemendic
vithe baten buruan erdiesteço iaun handi
baten ganic , cenbait cargu edo errenta , ez-
liçateque erhoqueria handia , bitartean , an
arteraiñoco demboran, iaun haren contra ibilt-
cea ? Bada are da handi agoa çuc eguiten
duçun erhoqueria. Ceren çuc nahi duçu
hemendic vithe baten buruan , edo guehi-
agoren , ceure çahartcean ondu , çuc nahi du-
çu orduan laincoarequin adisquidetu , eta
haren ganic anhitz fauore , eta garacia er-
dietsi : eta ala baiña bitartean , an arterai-
ñoco dembora guztian , ceure gazterasu-
nean laincoaren contra çabiltea , hare-
quin etsai çara , eta etsai beçala anhitz
bide gabe eguiten diogula , bicitcen çara. Ha-
cer bidea , eta moldea , cer lausengua eta bala-
cua , haren ganic çahartcean , endreçu içait-
co , nahi duçunaren erdiesteço.

Çahartcean anhitz valioco duenac , gazte-
tic behar du eçagun eta agueri. Fruituric iça-
nen duen çuhaitçac , aitecetic behardu lo-
ratu. Doçtor handi içanen denac haur-
retic behardu escolatu. Gaztean harraric
vtquita eztuena , çahartcean nola capitain-
duco da ? *Quæ in iuventute non congregas- Eccles.*
ii , quomodo in senectute invenie , Gaz. 25.
tean vildu eztuçuna , nola edirenen duçu
çahartcean ? Gaztean luçaro gaixto içatu de-
na , nola colpe batez , eta laburzqui on-
duco da Çahartcean ? Ceren bertceac bertce
direla (lehen erran den beçala) gazteco
vñantçac , iarraiquitcen ohi çaitça nehori , çah-
artcean ere : eta are orduan cargatcen ago ,
iauntcen ago , eta lehjatcen ago çaitça. Bada
badirudi ecen Deabrua ere , orduan permat-
cen ago dela. Hala emaiten du aditcera ion-
done ioannes Euançelistac , erraiten due-
nean, aditu çuela ceratic mintço bat , cioela
*Væ terre & mari , quia descendit ad vos diabo- Apo-
lus , habens iram magnam , sciens quia modicam cal. 12.
tempus habet.* Beguiraut çuc lutra , eta itlasoa ,
gaitzqui doha çuetçaz : ceren iautsi da Deabrua
çuetara colera handian , iaquinic ecen , dem-
bora gutiduela. Gaztiac tentaceintu Dea-
bruc , baiña cintquienic ; eta fintquienic ;
çaharrac. Ceren nola hec , lucenaz ere , ecin
anhitz iraun baitçequete , dembora guti
baitute , accabatu hurran baitçaye : eta ac-



cabatce hartan, baitago seculacotz ongui edo gaizqui içaiteco pontua, eta gora bebera: halatan Deabruac ere accabatce hartan; escuey eraguiten deraue: orduan bere artea; antçea, maiña, eta ahal guztia emplegatcen du: orduan çacucoac atheratceintu, daquizquien iocoac, iotateintu: eta iccuffiric bembora guti duela, tentateco, guti hari ahal daguien guztia, valia aracitcen derauca. Beraz huncelatan, peril handian iarri nahi du; çahartceraiño beccatutan egon gogo duenac. Ceren aragoiñ haur ere eman deçadan; cer içanerda, anhitzi guertatcen çaicana, çahattu vstea, çahattu gabe, bere adinic hobereanean hil badadi? Eta hala hil ezpadadi ere, cer ahal daidique, çahartcean, adin flaco hartan? Eta orduco ongui eguitea, cer valia ahal daquidicayo? Ici garida san Basilio pontu hunen çaiñean erraiten duena. *Temperantia in senecta non est temperantia, sed potius incontinentia quoad impotencia.* Çahartasuneco pairua eta pairateca, ecina da, eta ez pairua eta ez pairateca: indarraren escastea da, abalaren faltateca, ecin eguinc egõitea: borchaz guelditcea: adinac vkho eguitea: eguin nabiaten ecin eguina: beccatuac berac aitecintea: ez gue beccatuen, baiña beccatuec guti vtztea. Eritasunean guti iatea, ezta guti iate: orduco barutcea ezta barurte; ceren baliz appetituric, bada vorondate. Ha-

Basil.
oratio.
4. de
pœnit.

la da bada comunzqui çahartceco pairamen-
dua, beguira mendua, beccatuetaric eta bar-
rurteca ere: ecinezcoa da, eta ez voronda-
tezcoa. Hunen auaaz erraiten du san Cri-
stostomoc ere. *Qui modestus est in senectute, cum* Chryl.
atate plurimum iubetur, non magnam suam modest- Hom. 50
tie mercedem arbitror habiturum. Eztut vste in cap.
presuna çaharrac, probetchu anhitz içanen due- 24 Mac.
la, bere çahartcean onhest, modest, paufatu, Tom. 2.
eta sofegatu içaitiaz: ceren adina bera har-
tara laguntcen baitçaiça, adinac berac har-
tatcen baitu, nahi ago badu ere ecin baitai-
dique bertcela. Cer esquer vste duçu içanen
duela, edo irabaci eguinen duela çahar
ecinduac etsaiari bidera harmaturic ez ilquit-
ceaz? Atratsean etcherat goiz viltceaz, eta
bihurteaz? Amorantiara gaztean beçala ez
loaitiaz? Dantçan eta iaucian ez ibiltceaz? pon-
tu hunen çaiñean ere, bertce guztietan beçala
ederqui erraiten du san Agustinec. *Sed quidam* August.
sunt fratres mei, qui in iuventute sua luxuriose ad fra-
vivere volunt, et si ad senectutem per venerint tres me-
gloriantur dicentes se continentes esse: tunc rem ser-
enim eligunt servire castitati, quando libido mon. 6.
co servos habere contemnit Nunquid tales con- Tom. 5.
continentes dicendi sunt? Absit Tales enim præ-
mium non habebunt, quia laboris certamen non
habuerunt. Batçuec nahi dute, bere gazte dem-
boran bici bere gogara, anhitz beccatu, eta
desfordenu, guztiz ere emaztequin eguiten



Autela. Eta guero baldin çaharteen badiraj
loriatcen dira , erraiten dutela. Gu iende cas-
toac , onhestac , garbiac , paufatuac , eta be-
guira tuac gara : eztugu laincoari esquer
defonhez queriaric accometatcen, eta ez emaz-
teetaco beccatunic eguiten. Ordea nolatan
eztuçue eguiten? Ecin baitai diquegue. Beraz
ecinari esquer , eta ez çuen vorondateari.

Orai vste duçue çuec ecen iende garbiac,
onhestac eta castoac çaretela , eta castitate
horren gatic , laincoaren aitcinean pagamen-
du handia içanen duçuela Baiña enganar-
cen çarete. Ceren pagamendua içanen due-
nac , vteci behar du beccatua , beccatu ahal
daidiqueyen demboran , eta hartu verthurea
orduan berean. Ceren San Crisostomoc di-

Chryf.
t. 10 in
cap. 3.
Math.
tom. 2.

oen beçala. *Neque enim omnis prorsus etas om-
nibus vitiis est opportuna.* Ez in ez adin guz-
tiac beccatu fuerte guztietaco on eta ez gai-
Eztagoca çahartafunari amurusia , eta ez co-
munzqui gatzetafunari auaricia. Baditulle
gauça guztieç, bere safoiñac , trempeac eta de-
borac. Bada eraiteco dembora , eta bai viltce-
coa ere. Eta erho handia da , vilda behar den
demboran eta mugan , ereitera dohana. Gaz-
tean behar da ercin eta travaillatu , eta çahart-
cean , vildu , goçatu , eta paufatu. Fin gaitz-
eguinten duechoria , baldin gazte danic ezpa-
daguic casia , dio errefranac. Çue nahi baduçu
gaztean alfer egon , eta guero çahartcean tra-

baillatu eta obra onen eguiten hasi , hori da
ordenantçaren hauslea , safoiñic , ez beguirat-
cea , vildu behar denean ereitea , eta paufatu
behar denean travailluari lotcea. Ordenantça
hobe beguiratcen dute erleec bere arteana

Et le gazteac gazte direiño campoan dabil-
ça , travaillatcen dira. Baiña çahartuz guero
etchean daude , cotaeuan daude , eztira bere
placera baicen , handic ilquitcen , han pau-
fatcen dute. Ceren çahartcea hartaco , paufat-
ceco , ordenatua da.

¶ 3.

E Guia da , Iaincoac prometatcen dio , bere
beccatuen barcea mendua noiz nahiden
çahartcean ere penitencia eguiten duenari. Ez
ordea eztio nehori , penitencia eguiteco biha-
ra munic prometatcen , eta ez hartaco segurat-
çaric emaiten. Hala erraiten du San Agustinec:
Indulgentiam peccatorum promisit Deus, sed August.
crastinum diem quo pœniteas non promisit. Ca- de verbi
hartcean penitencia eguiten baduçu on da. Or- Domini
dea pontua da , ea çahartuco çarenz: eta çahart- sermon.
cen baçara ere, ea çahartce hartan penitencia- 6. tom
ric eguinten duçunz. Ea leheneco adin sen- 10.
doan hasi eztuçuna , guero adin flacoan ,
accabatuco duçunz.

Ea egun daiño baiño ongui nahi ago , adi-
naren arauaz hobequi behar ago , eta placereç

H vj



ere eman agoa çarenean, ceure burua penatu
co du çunz. Eta orduan leheneco aztura çah
har gaixtoac, vteiric, aztura berri on batçue
hartuco ditu çunz. Eztaquit, nie duda egui
ten dut. Eta norce eztu duda eguinen? Ceren
Sendoac iasaiten eztuena, flacoac nola mana
iatuco du? Baldin bacinitu bi abre, eta bi
carga, ezliçateque erhoqueria, cargaric pifue
na abreic flacoenari emaita? Hala egui
ten du bada, penitenciareren carga çahartcerat
egozten duenac. Gaztetafuna sendo da in
dartsu da ongui eguiteco, travaillatceco;
eta laincoaren cerbitçuan emplegatceco gai
da. Baiña çahartcea flaco da, on behar da
berac du bere buruarequin, eta bere buruaren
sostengatecen eguitecoric asco; Çaharra ecin
barur diteque, belhaurico oracinotan ecin
dagoque: erromerian ecin dabilçue. Finean
çaharrac, bere çahartafuneco eritafunequin
eta arraçadurequin, penitenciazco obratic
ecin daidique. Nola içanen da bada orduan,
bere eguin bidearen eguiteco on, eta gai?

Guti da çahartcean, gaztean baiño çalhui
ago, arin ago, eta iauzalari handi ago.

Elefantac (animalia handibat baita) bere
gazte demboran belhaunac, eta gainheraco
bertce iunturac çalhuitu, erraxqui doblatcen,
eta plegatecentu: baiña çahartcean gogortcen
eta ofatcen çaitça, halaco moldez, non bal
dia orduan eror, edo etçan badadi, ecin iat

qui baitireque. Eta halatan hattaraz guero, be
re naturaleçac berac hala erauticic çuhaitzen
contra, hec sostengu harturic, çutic dagoela,
bere loa ere eguiten du. Bada Elefant çaharra
ren, eta gaztearen artean edueiten den, diffe
rentcia, edireiten da, presuna çaharraren eta
gaztearen artean ere, gaztea çalhui, eta mana
lucor beçain, da çaharra gogor eta çurrun.

§. 3.

Baiña hunelaco differentiaric ezpaliz ere
ezta çaharteco beguira egon behar. Ceren
çahar arteraiñooco dembora hartan ere, gazte
çarenean ere beçala, anhitz ongui eta ontafun
eguiten deratçu ceure laungoicoac, hazten, man
tenatcen, eta bicitie eduquitcen çaitu. Ezliça
teque bada arraçoïn, çue ere bitarte hartan,
ceure gazte demboran, ontafunac erreci
bitcen ditutçunean; esquerrac errenda ciniat
çon, cerbitça ceneçan lauda, eta ohora cene
çan. Curi laincoac bethi eguiten deratçu
ongui, cergatic bada çue ere eztiço bethiere
eçagutça eguinen, eta esquer emanen Çure
alderacotçat frantco da eta liberal laincoac;
nolatan bada çara çu, hain escas eta hertsi;
ceure gazetafuna, adinic hoberena, sobera
etfiric, gaixtoena, hondarra, çahartcea eman
nabi baitioçu Gainac picaiñac, eta hautuac
bertceren, hondarrac, eta arbuyoac lainco
aren. *Non enim tantum minimum infundo, sed*



peffimum. Dio Senecac. Gauça hondartza guero, gutitcen da, eta gaixtatcen. Hondaraguti da, eta guti hura ere gaixto. Florea iina, hoberena gazteta funa, eramaiten du etfal gaixtoac; eta guero nahiduçu contenta dadin laincoa çahiaz, eta çahartceco hondarraz. Arrencuratcen cen laincoa, ceren aniamalia itluac, mainguac, eriac, eta hebañac offerendatcen cerantçaten: Beraz arraçoñtequin errencuratuco da çutçaz ere, Ceren çahartçea baita itfu, eri, maingu, hebain, eta çuc hura offerendatu nahi baitioçu.

Malach.
2.

Çahartcean begui etaco vista laburtcen da; beharrietan gorrenia eguiten da: Belhaunetan heçneria iartcen da, indarra gutcen da appetitua galtcen da: loa ioaiten da: iccata ethortcen da: larrua cimurcen da: illea vrdintcen da, burua carfoiltcen da: hatfakharatsten da. Finean prefuna çaharra, hotz beratcen min beratcen, iduricortcen, haserrecortcen, eta alde guztiz on behartcen eta vrricalquiçun eguiten da: hain vrricalquiçun, non baldin nehon ere gorputçac nartioric, arraçaduraric, edo falra esta liric baldin bada, orduan guztiaç aguertuco baitira.

Certatuco du beraz laincoac halacoa? munduac eta munducoec beretçat.on eztaducate, na, bere artean icussi nahi eztutena, eta compainieta nçere narda çayena, nahi duçu çuc hardeçan laincoac bere bestale, maira deçan,

beçarca de çan? bere compainian eta lorlan errecibi de çan? Hoberena behar duenari, eta onic baitcen bartcen eztuenari, nahi cenerau çayo çuc gaixtoena bulccatu?

Eta gaixto hura, çahar itfu, maingu, hebain eri hura har baleça ere lainco misericordiofac ez ligateque ez guztiarequin ere halacoa, eguiteco gabe. Ceren non da beccatua gatic eguin behar den descargua. eta pagamendua? Nolatan çahartcean hain dembora laburcean eta adin flacoan eta eibalean pagatuco eta satisfatuco du, hanbat beccaturen çorra eta obligacinoa? Hargatic erraiten du San Agustinec *Qui sero pœnit non evadet ignem purgatorij.*

August.
de vera
& falsa
pœnit.
cap. 18.
tom. 4.

Veranduraino penitencia ric eguiten eztuenac, çahartcerañño laincoa gana itçultcen eztenac perildu hoberenaz ere, Purgatorio etan luçaro egon beharce duen, hata gabe escapatuco ezten, lehenbicio vrthean çamarric edo atropa forraturic beharce ezten.

Clima.
scala 8.
in fine.

Ceren Climaco sainduac dioen beçala Valentia handia da egunean eguneco descarguaric eguitea. Eta badio San Matheoc ere. *Sufficit dici malitia sua.* Egunac berac du bere buruarequin equitecoric asco.

Math.
6.

Nola nahi tutçu bada çuc, hanbat egunetaco, eta demborataco, gaztetafun guztico, beccatuac, çorrac era eguitecoac elcargana vildu eta guztiaç çahar demboraco beguitatu, eta eduqui? Eztacusaçu çahartceco manaiua,



manaiu appurra dela ? Eta adin harc bere dem-
borean eguiten dituen falten ere erremediatce
eguitecoric asco içanen duela ?

Beraz hunelatan, gazte da nic behar da
laincoac cerbitçatu penitenciatan emlegatu,
beccatu etaric apartatu, eta ez guetotic gue-
rora, gatzetic çahartceca, luçatu.

*Cahartcean ere penitenciaric eguiten
eztuenaz.*

C A P X I V .

Reg. 13.

ERraiten du esericura sainduac. *Filius
unius anni erat Saul, cum regnare
cepisset, duobus autem annis regnavit
super Hierusalem.* Vrthe batetaco
haurra cen Saul, erreguetu cenean, eta bi vr-
thez içan cen erregue Ierusalemere gañean.

Ordea nolatan ahal dateque haur hu-
nela ? Ceren segur da vrthe bat baiño guehi
ago çuela Saulc erreguetu cenean, eta hala-
ber bi vrthe baiño guehi ago egon cela bere
erreguetafunean. Egula da, hala da. Ordea
nola hastean baitcen malicia gabe, vrthe ba-
tetaco haurraren pare, eta egoitça hartan, ira-
un baitçuen, bi vrthez, eta ez guehi ago : eta
laincoaren alderatcotçat, ezpaitira contutan

hartcen, ontafunean emlegatcen diren vrthe-
acbaicen, halatan erraiten da, vrthe batetaco
haurra cela Saul, erregue farthu cenean, eta
bi vrthez egon cela barren hartan, eta ez
guehiago. Ceren ezpaitcen, bi vrhez baicen,
beccaturic eguin gabe egotu.

Erraiten du Senecac *Quidam tunc vi vere in-
cipiunt cum desinendum est si hoc iudicas mirum,* Senec
epil. 23.
*adiciam quod magis admireris: quidam ante vi-
vere dixerunt quam inciperent.* Iende batçuc
hasten dira bicitcen, bicitcetic guelditu behar
denean: eta baldin hunetçaz miretsten badu-
gu, erranen deratçat are miretfico ago duçu-
na: bertce batçuc bicitcen hasi baiño lehen,
guelditcen dira bicitcetic. Ceren obra onen
eguiten hasi baiño lehen accabatcen baitçaye
bere bicia. *Quid est autem turpius quam senex
vivere incipiens?* Dio Halaber Senecac. Cer
da gauça itfusi agoric, bicitcen hasten den
çaharra baiño. Lehen beharda lehen hasi, le-
hen beharda iccassi. Eta nola çaharra ecin
has baitititeque bicitcen, segur da obrez mint-
ço dela Seneca leccu hunetan, eta ez adinaz.

Itfusi da çahartceariño, laincoaren cer-
bitçatcen ez haztea, itfusiago orduan ere ez
hastea, eta guztie taco itfusiena eta gaixtoena,
orduan gaixtaqueriari berriro lotcea, eta ma-
lician barren ago saretea. Batçuc çahartce-
an hasten dira prestutcen, eta verthuteari
jarraitquitcen: eta hobeda orduan ere, ez

Senec.
epil. 13.



nehoiz baiño ordea hura da , bidea iraganic; etchean egonbehar luqueyenean, abiatcea : handitu eguiric aprehendizcoan iartcea : vrdinduric escolara ioaitca. Età hauc guztioç diru itfusi fafoñetic campoan , eta muga gaitcean.

Gazte demboran ibili cinen , gazte antçu; arintqui debocino gutirequin, bethi prometatcen cenduela , eta gogoan eratbitcen, çahartcean miracullu eguinen cen duela, orduan fainduruco cinela. Bada orai çahartu çaru, ceure promesen eta hitz handien epean , eta mugan çara. Baiña çue orai ere itçurpideac bil hatceintçu, luça menduac edireiteintçu, eta azquen adinean çarela guti consideratuc, lehenbicicoan baitcina beçala gouernatcen çara. Etçuen hala eguiten Senecac Ientil bacen ere , erraiten çuenean. *Ante senectutem curavi ut bene viverem in senectute ut bene morerer.* Çahartceco airtcinean enfeiatu nintcen ongui bicitcera, eta çahartcean ongui hiltcera. Gaztean bicitceaz eduqui nuen çontu; eta çahartcean hiltceaz , çahartuz guero, vti behar da bicitcea , eta bicitceco gogoa , heriotcearequin behar da iharduqui, eta hartaco bere ahal guztiaç prestatu.

Senec. Epist. 6.

§. I:

CAhartcea, sentontcea, vrthe anhitceç bicitcea , bere eguitez on da laincoaren

donua , eta dohaiña da. Ceren iondone Pauloc dioen beçala. *Licet is qui foris est, noster Icor. 4. homo corrumpatur, is autem qui intus est renouabitur de die in diem.* Çare gorputz haur, arimaren campoco, eta gaineco estalqui haur, çahartceaz higatcen, eta defeguiten bada ere, ordea barrena, arima hobetcen eta erraberitcen da. Prefuna çaharrac nola ia beçac frogatuz, eta esperentiaç ere baitaqui munduco echoquerien ; eta ioan ethorrien berri, ordu du, gaztetafuneco maiñen, eta tornuen vizteco, eta bere buruari accordatceco, eta ohartceco. Baiña gaztea perilos da. Eta halatan erregue Dauitec erraiten cioen laincoari. *Ne re voces me in dimidio dierum meorum.* Eznaçagula dey nente egunen erdian. *101.* Vizna çagu çahartcera, vmotcera, vrdintcera, eta azquen adinera heltcera. Çahartafuna bertce anhitz gauçataco ere bai, baiña guztien gainetic emaiten da, gaztetafuneco faltcen erremediatceco. Eta hartaracotzat, hartaraz guero leheneco odol beroa hotzten da, fofegua ethortcen da, eta bat ere adimenduric duena, ethorquigunean pensatcen iartcen da. Den prefunatic laçoena eta antficabenac ere arratsean etheco atheac hersteintu: portaleen mugan hicietan munduac laster eguitendu : ardiac ilhuntceracoan fitetzago iatendu : Cisneac hiltceracoan bere cantuac tredoblatcen du. Hala daguitela conseillat-

Psal. 101.



Hebr. 10. Biblioteca

ceintu iondone Pauloc presuna çaharrac.
Tanto magis quanto videritis appropinquantem diem. Cenbatenaz eta iccusten baituque ce-
 nen azquen eguna hurbiltcen ago çaitçuela ;
 hanbatenaz laster ago abia , hanbatenaz per-
 mago eta lehi ago çaitçete. Beguiratuque
 orduan çabartetic , naguitetic , eta ez anfiat-
 cetic Ceren orduan da mena , orduan da mi-
 na orduan da azquen adina , eta peril guztien
 gaineco perila. Eta nola hanbatic hanbatean ,
 eder ago baiçaitça laincoari , gartzetafuneco
 cerbitçuaç , eta obra onac , çahartafunecoac
 baiño : hala bertee aldera , çaitça halaber it-
 suliago ; eta gaitçiago , çahartafuneco faltac
 eta huts eguinac , gartzetafunecoac baiño.
 Ceren çahartafunecoac ezpaitira , iaquin ga-
 bez ignorantçiaz edo esperientcia faltaz egui-
 nac , baiña bai maliciaz , gaixtaqueriaz eta go-
 goan deliberaturic beguiac itsuturic , beçala
 acometa tuac , eta obra tuac.

Eccles. 25.

Ezta pontu hunetara gaixqui heldu Spiritu
 sainduac dioena. *Tres species odit anima mea
 & aggra or valde anima illorum : pauperem
 superbum , & diuitem mendacem , & senem
 fatuum & insensatum.* Hirur beccatu , edo
 beccatore fuerte gaitz esteintut , eta çaitçquit
 bertee guztien gainetic itsusi , probe v. guillaça ;
 aberatz gueçur tia , eta çahar erho centçu ga-
 bea , edo çahar amurusa.

Consideratecoac dira hüz hauc iaquin de-

çigun ea cergatic darizten laincoac hain gaitz
 hirur beccatu fuerte haut : probearen vrguilla-
 tafunari , aberatsaren gueçurari , eta çaharra-
 ren , erhorafunari. Baldinba bada hauc baiño
 beccatu handiagoric. Lehenbicoric , probea
 vrguilla içaitea , badirudi eztela beccatu han-
 di , lehen dirudi erhoqueria eta adimendu falta.
 Ceren probea cer vrguillutcen du : Halaber
 aberatça ere gueçurti içaitea , badirudi becca-
 tu arina dela , behintçat anhitz da handi ago-
 ric. Bada guizon çaharra ere vanaloriatcea ,
 eta gazte demboraco cenbait erhoqueri . atara
 bilhurtcea , guizonari guertha daquidicaiona
 da , anhitz da beccatu handi agoric. Cergatic
 bada , hauc hunela direlaric , erairen du guz-
 tiarequin ere Spiritu sainduac , hirur beccatu
 hauc çaitçala gaitçenic , eta itsusi enic ? Ezta
 gaitz ihardesten.

Baldin hirur beccatu fuerte hauc considera
 baitçagu gainguroqui , açaletic eta campotic ;
 bada hauc baiño handi agoric , eta laincoz ere
 gaitz etsi agoric. Ordea baldin har badeçagu
 barrera , mania , Spiritu sainduac hunetan
 erran nahi duena. Edirenen dugu , maliciaz ;
 premia gabe , golotoniaz , bere placerera ,
 causaric , occasinoric , eta tentamenduric gabe
 eguiten diren beccatuac , direla gaixtoenac ,
 eta halacoac dira hirur beccatu fuerte hauc cei-
 netçaz mintço baicara presenteton.

Probea gueçurti içaitea , ezta hain miretste.



co, ceren beharrac anhitz gauça ereguin de-
 çaque. Aberatfa ere vrguillu guerttharcea, com-
 munda, arduraco gauça da ceren nola nehoren
 men gabe. berac baitu bere dina eta behar-
 duena, har vrguilluten du, harc handitcen, eta
 hantcen du. Badá prefuna gazte bat bere or-
 bretan eta ioan ethorrietan arin, eta erho igai-
 tea, ezta ongui, baiña badirudi, appubat
 bedere, adinac defencufatcen duela. Baiña
 probeac cer occasino du vrguillutceco Aber-
 ratfac guegurti igaiteco? Eta prefuna çabarrac
 gazte demboraco tornuetara eta erhoquerie-
 tara bihurtceco? Beccatu hauc eta guziiz ere
 çaharta funecoec, eztute defencufari ezta
 estacururic, eta ez ederztatceco bideric eta
 halatan çaitça hain gaitci eta itsuli laincoail

§. 2.

EGun batez permititu çuê laincoac defeguin
 ceçatê bere etfaiec, Ierufalemeco hiri edet
 famatu hura, vticerauê, harçaz nahi çutê gu-
 tia, ceçuitela. Eta nola laincoac ezpaitu, behin
 ere nehore bide gabequi gaztigatcê, emaiten du
 arraçoña. Ieremias prophetac, ea çergatic la-
 coac hiri hura hala defeguitera eta bilhacateca
 vtci çuê, erraitê duela. *Sordesejus inpedibus eius,
 nec recordata est finis sui.* Bere liquits queriac eta
 licuntafunac cituen oiñetan, eta bere finaz ere
 etcen orhoitu. Erran baillu beçala. Oiñac cituc
 lohiaz tatuaç, eta liquitsac, haur de caufa, eta
 arracoña ceren hiri hura hala galdu cen. Badá
 gauça comuna da, eta arduracoa, oiñac liquit

Ierem.
I.

igaitca, ceren lurrean baitabilçca. Cer antfia cen
 beraz har gatic? Baldin beguitarteçca, bifaiç içan
 balu liquitz, badirudi arraçoña içan çuqueyela
 eguin çuenaren eguiteaz, baiña oiñac gatic cer
 antfia cen? Eta ala baiña har gatic, oiñetaco li-
 quitz queriac gatic, erraiten da galdu cela ceren
 nola çahartcea baita, azquen adina, eta bicit-
 cearen bazterra eta hondarra: hala dira oiñac
 ere gorputzaren fina accabantça. Eta halatan
 oiñetan liquitz igaitcaç, erran nahi çuen, çah-
 artcean cela liquitz eta gaixto, eta etcela bere
 finaz ere orhoitu, eta halatan galdu cela. Cerê
 çahartcean gaixto dena, eta orduan bere falba-
 menduaz orhoicen eztena gaitz da galdu gabe,
 efcapatca. Erraiten du San Cipri. *Sicut in lig-* Ciprian
ni ipsa reproba arbor comparat que post flores, de 12.
fructus optimos cultori suo non exhibet. sic & in abusio-
hominibus ipse reprobus est quem flos iu venturis 2.
deserit, & tamen in sui corporis senectute, bonorū
operum fructus proferre, parvi pendit. Nola
 çuhaitça, baita, çuhaitz alferra, fauna, idor-
 ra eta agotta, holtoaren eta loicaren ondoan
 fruituric iaçaiten eztuena: hala da guiçona ere
 guiçon alferra eta guti valioa, bere gatzetafu-
 neco lorea eta verdeta funa iraganez guero;
 obra onen fruituric gabe dago ena. Guiçonac
 nehoiç ere igaitecotz, behar luque hogoy vi the-
 tan içan laster eta arin: hogoy eta hamarretan
 indar eta sendo, berrogoy etan centçu eta adi-
 mendu berrogoy eta hamarretan diru eta ha-
 cienda; eta hirur hogoy etan debocino, eta



concientcea. Adin hartan , hirur hogoy vrthetaz guero concientciaric eztuenaz, bere appetitu defordenatueticaric guibelatcen eztenaz ezta guicula conturic. Eta are guti ago , orduan berriro gaixtaqueria pensatcen , eta eguiten hasten denaz : hartçaz etli eçaçu , hura emaçugaldutçat.

Haiñac , eta halacoac mehatchatceinru Jerem. Ieremias Prophetac , hitz estali batçuen
6. azpian , erraiten duela. *Vae nobis ; quia declinavit dies , quia longiores facta sunt umbrae vesperi.* Ai gure vrricalquicunac , galdugara , eguin du gureac. Ceren accabatu hurran da eguna behehitu da iguzquia , eta itçala ere luçtu ago da arratz aldean. Ceteran nahidu mintçatce molde hunec ? Baldinba iguzquia , bethiere agueri den beçala , luce ego eguin behardu itçala arratz aldean egu-erdian baiño. Ceren egu-erdian gaidic behera , artez , eta arratz , aldean saihetsetic , foslay emaiten baitu. Ordea guztiarequin ere , ceren haur hunela guertatcen den , erraiten çaicu beguira dugula , galduac goacilla. Nola aditcen da bada haur ? Aditcen da , galduac goacilla , ez ceren iccusten dugun iguzqui hunec , eguiten duen , arratz aldean , itçala handi ago ; eta luce ago , baiña ceren gure arratz aldean , çahartcean , adina irauliaz , eta behehituaz dohanean , eta dihoacunean , mendecatceco

decatecco , enganatecco , eta are bicitceco nahia , eta desira ere , berretcen ago , eta luçatcen ago çaicun , ceren çahar ago , eta gaixto ago eguiten garen hargatic erraiten du galduac goacilla.

Badaquigu parabifuraco denac , ez tuela behar beccaturic , eta ez beccaturen notharic , eta ez cimurduravic. *Non habentem maculam aut rugam.* Badaquigu vti behar direla aztura gaixtoac aincetic. Eta çuc gazte cirenean , erraiten tenduen , etcela orduan leccuric , baiña çahartcean , guztiaç falta gabe vticic cinituela. Bada orai han çara ; bazterrean çara , çahartu çara , eta ala baiña egun daiño baiño barren ago sartcen çara ; lehen beçain gaixto , edo gaixto ago çara. Cereguin gogo duçu bada ? Certan pensatcen duçu ? Ceren beguira çaude ? Çahartcearen : han çara Epearen ? complitu da. Complicaçu bada çuc ere , ceure hitça , eta promesa , çahar cindecineco , emaçan cenduenan. Erranen duçu , badut oraiño bertce epebat ere : eztira oraiño dembota guztiaç iragan. Eguiada , erran nuen , çahartcean orduco nintcela , orduco cen lehen epea. Baiña hardeçaquet bi garren bat ere. Ceren oraiño , çahar naicena gatic , bici naiteque guchi ago ere. Bada azquen vrthean , hiltceraco aincinean falta gabe , falta guztiaç erremediatucoitut. Orduan neure hitçac eduqui-

Ephé. 9.



coitu; promes guztiac complitu coitut. An arteraino ezta lleccuric, ezta cer mintçaturic |

Haur da presuna galduen contua, eta hurrean, hurian, hunen ondoco, eta hurraneço capituluan, aguerico den beçala, sin gaita eguitemo, seiñale guerthua.

Heriotceco oneraino beccatutan egon gogo duenaz.

C A P. XVII:

Senec. Ep. 27.

ERraitendu Senecac. *Moviantur ante te vitia.* Hil biteci çu baiño lehen, çure faltac, eta beccatuac: hec lehenic, çu guero. Eztitçatçula heriotceraino, ceurequin eduqui. Ceren hartarraz guero, periletan iar cindezque, cerori hil agatic, hec biciric gueldi litecin. Çaharceraino, beccatutan dabaillana, ezta peril gabe, cer içanen dabada; are aitecin ago, heriotceco oneraino, bethi barren ago fartcen dela, bethi hala dabillanaz, eta ibili gogo duenaz?

Eznuque erran nahi, cein peril handiac diren heriotceco oren hartan. Ceren ezpaneracayo nehori, icitceco, eta esperantçaren gaitceco, occasinoric eman nahi. Ordea cein na-

goque erran ere gabe. Ceren orduco espe rantçac anhitç gaitcen baitu. Eta baita çufat ecen, nic orai, hemen eman ahal deçaquedan icialdurac, eta yeldurtasunac baiño, orduco perilaren berriric, iaquin gabeac, calte guchi ago eguin deçaqueyela.

Baiña eguitemo hunetan farrthu baiño lehen, nahi nuque iaquin ceneçan gauçabat, eta da. Nola eguiazco penitencia baita, laincoaren donua, dohaiña, eta emaitça, laincoac berac plazer duenean eman deçaqueyena: hala egui azco penitencia hura, noiz nahi den dela, heriotceco azquen orenean bada ere, salbatceco alco sendo, eta botheretsu dela. Eta halatan salbatucen ohoiña, bere azquen orenean, an arteraino, beccatutan egona, etaibilia. Oraño bideazcoac gara, eta hunela gareiño iragan gairezque aitecinat, eta bai guibelat ere bihur; badaidiquegu ongui, eta bai gaizqui ere. Ceren vorondatea libre, eta gneure escuco baitugu.

Halatan erraiten du san Agustinec. *De nullo desperandum est, quandiu patientia Dei, ad penitentiam adducit, nec de hac vita rapit impium.* Ezta nehortçaz ere etsitu bebar, ezta nehor ere galdutçat eduqui hehar laincoaren pacienciac penitencia eguitera iguriquitcen dioeiño, mundu hunetan vzteten dueiño. Halaber erraiten du san Agustinec berac. *Pœnitentia aboleri peccata, indubitanter credimus, etiam si in ultimo vite*

Aug. serm 11 de Verbis Dñi tom. 10

Aug. de Eccles. dogmatibus. cap. 80. Tom. 3.



Spiritus admissorum pœniteat. Segur daducago, duda gabe linhesten dugu, azquen harçatam aurtiquitecan ere; penitenciac barccatca dituela beccatuac. Eta laincoac berac erab na da Ezechiel Propheta baithan. *Impietas impii non nocebit ei, in quacumque die conuersus fuerit ab impietate sua.* Eztio beccatocetia beccaturic ilquitcen den egunetic harat, bere beccatuac calteric eguinen. Conuertit beredi, onera bihur bedi nahiz dela arimac eguiteracoan, biz hatz baccotchean dagocentia eta orduan ere ençuna içanen da. Biciac erarueiño, hatfa sabelean deiño, arima goputcetic iltqui arteiño, baldin oraiño amemendua on badu, memorian, eta accordu badago, nahasten ezpada, baduque bere beccatuaz, beharden vriquimendua, damua, eta dolorea. Eta hanbatenarequin eztu bitartecer etfuric, eztu cer esperantça galduric ceren ezpaita oraiño orduan, erremedioan campoan.

Beccatuez barccamendu ardiesteco, eguine behar da penitencia: eta penitencia eguine co, asco da pontu bat, buru-itçulce baten begui herts-idequi baten bitartea. Ceren eguiazco penitencia, eta bertceric ecin da diqueyenean, salbatceco asco dena, bihotz ezco vriquimendua da, falta eguine barreanean, laincoa gatic, damu eta içaitea.

Erraiten denean eguin behar dela penitencia, eta bertcela ecin falba ditequeyela; eta ez additcen, bada eta ezpada behar dela cofessatu, barecamendu escatu, barurtu, oraciotan egon, erromerian ibili, eta hanelaco bertce obra penatuetan penatu. Ceren eguia da, gauça hauc guztioe penitenciac dira, eta penitenciazco obrac: ordea dira camipocoac, eta eguine abal aitez queyenean, cenbait bedere eguin behar direnac. Baiña baldin ecin eguin badi tezque, ecin cofessa bada di, ez mintça, eta ez deusetan ere manaia: asco da orduan barren ona, vorondatea, bihotz ezco damua, dolua, eta dolorea. Cein baita eguiazco penitencia, eta casu hartan, bertceric ecin daidi queyenean, salbatceco asco dena.

Erremedio haur dute itçasoan edo handic campoan cofessatu gabe hiltcen direnac: barreneco penitencia, bihotzezo damua, eta dolorea, contricionea. Ez tute bertceric, Baiña haur dute asco, baldin behar den bidean, içaite ten badute.

Eta barreneco penitencia haur, bihotz ezco damu, eta dolore haur (cein latinez deitzen baita *contritio*, à *verbo contero*, erran nahi baitu, chehatcea, çathitcea, potrosatcea. Ceren beccatuz gogortu cen bihotza damuaz, doloreaz, eta vriquiaz, chehatcen, beratcen, eta çathitcen baita) baduque nehorc laburtz-



Bafil. orat. 4. de pœnic.

Agust. in Enchyrid. cap. 6.

Tom. 3.

Iajoac.

Aug. ferm. 67 de temp. rom. 10.

Vide S. Tom. 1. 2. q. 113. ori. 7. in corp

qui ; dembora gutiz, pontu batez. Ceren san Basilioc dioen beçala. *Non enim temporis quantitate, sed animi proposito pœnitentia iudicatur.* Penitenciareren indarra, eta valioa, vorondatearen deliberamenduan dago, eta ez dembora ren lucetasunean. Hala dio san Agustinec ere. *In actione autem pœnitentia, non tam consideranda est mensura temporis, quam doloris.* Penitencia eguitean, ezta hain consideratu behar demboraren neurria, nola dolorearena. *Vtriquimendu eguiazoac, bihotceç conuertitceac, dolore sinac, eta beroac, guehi ago daidiqua dembora gutiz, dolore lachoac, eta hotçat anhitz ez baiño.* Doleoa beharda neurtu, eta consideratu, eta ez dembora haur beror emaiten du oraiño aditcera san Agustinec, erraiten duenean. *Pœnitentia vero non annorum numero censetur, sed amaritudine animi.* Penitencia ezta ez vitheen contuaz eguiazo, eta valios eguiten, baiña bai bihotçaren barreneco doloreaz, vrriquiaz, eta atsecabeaz.

Nola beccatuaren arimatic quentceco, eta atheratceco, bi gauça behar baitira, bara laincoaren aldetje, haren garacia, eta saborea, eta bertceca gurefic, gure nahia, eta vorondatearen gauça hauc gustioc, are gure alderic behardirenac ere, principalqui laincoac eguiten baititu ; halatan laincoac bere garacia ren emaittea, eta gure garacia haren errecibitceco, eta harequin batean beccatuaren quentceco,

co, prestatcea ere ; eguin ditezque laburz qui ; heriotceco azquen articuluan. Ceren beccatuaren eguiteco asco da pontu bat, gogo aren egotzte bat, vorondatearen deliberatce bat, eta consentitce bat : asco içanen da beraz habet beccatu haren beraren erremediatceco ere, pontu bat, gogo aren bertce aldera itçultce bat, vorondateac cintqui, eta fintqui laincoatic, beccatu aren vtzte bat, eta gaitceste bat. Ceren are misericordios ago da laincoatic, iusticiati baiño, barecatcera prest ago gatzit gacera baiño. Beraz hunelatan heriotceco pontuan ere, azquen orenean ere, eguin diteque laincoaren fauorearequin batean, eguiazo penitencia, eta erdiets beccatuen barcamendua. Haur da eguia, eta eguia hunetan ezta dudatic.

§. 11

BAi ordea bada duda, eta duda ere handia, ea azquen oren hartan eguiazo penitenciaric, beharden vrriquimenduric içanen duenz beccatoreac. Aithortcen deratçut, baduqueyela orduan ere : Ordea pontu da, ea içanen duens. Eta ezta munduan, heriotceco oreneraiño beccatutan dagoenaren salbamenduaz, dudatcen eztuenic ; nic, segurancçatic emaiten duenic. Aircititc escritura saildua, eta elizaço doctor



guztiac hain herstuqui eta ici garriqui mintzo
dina, orduco penitenciaz, non baitirudi ecen
hequen erranen arauaz, hartaraz guero, ezte-
lat bat ere salbatcen.

Mat. 14. Erraiten du San Matheo Evangelistac. *Oratio
ut non fiat fuga vestra in hyeme vel sabbato.*
Eguique orhoiz, ezadilla çuen ihesa guertha
neguan edo larumbatean, cein baitcen orduan
besta. Ceren nola negua baita limburi, leun
istilsu, eta lohitsu, ezta bidean ibiltceco on.
Eta besta egunean ere debeçu cen, etcen fori
eta ez cilhegui bide luceric iragaitea, vrron
ioaitea. Bada heriotceco orena da negua, eta
bezta.

Negu, ceren, guztia baita trabuz, traillaiz
eta eguitecoz bethea. Besta, ceren orduan be-
har baita pausatü, eta astelegunetaco trailla-
luez, an arterainoco obra onez goçatu. Beraz
hunelatan lehen behar da etsai gaixtoaren es-
cuetaric ihes eguin eta es capatu, eta ez anarte-
raino egon, eta luçatu.

Atropa berriac bazcocotçat eraguin nahi di-
tuenac, aiticinetic behar du prestatcen hafi,
aitcinetic behar du oihala eccarri, neurria hat-
tu eta iosfera eman. Eshoqueria handia liçate
goiz bereraino, dendaria deitu gabe eta bert-
ce gauçac chuchendu gabe egoirea. Bada
are da eshoqueria handi agoa heriotceco ore-
neraino, arimaren bezitceaz conturic ez
eguitea, eta vste içaitea ecen herstura hartan

hain dembora laburrean prestatuco, eta appain
duco dela. Halatan Alexando handiac egotci
çuen soldadu bat bere compainiatic. Ceren
etsalarequin batceracoan, combat emaitera-
coan hafi baitcen harmen garbitcen, eta pre-
statcen.

Dembora hertzia, eta eguitecotfua da, he-
riotceco dembora: gaitz da orduan eguiaczo
penitenciareren eguitea, eta içaitea, guztiz ere
lehen debocinoan vfatü eztenarentçat, edo
an arteraino bethi gaixto içatu denarentçat.

Eta nola den gaitz, anhitz araçoinez frog-
ahal diteque. Lehenbicicoa. Orduan mundu-
co eguiticoc, çor-hartcecoec, hartu-emanec
feme alabec, sehiec, ondocoec, eta gustien
gaitetic, eritasunac berac, orduco oinface
min hec, trabu handia ibenico deratçute, na-
haffico, desmordituco, ceri lot eztaquiçala,
ceure buruaz, eta eguin bidez ahantçiric,
ibenico çaituzte.

Succar handi batequin, saiherseco punta
batequin, edo bertce eritasun bortitz barequin
dolorez çarenean, dolore hare berac, are es-
capatcen çarenean ere emaiten deratçu egui-
tecotic asco, ezteratçu bertcetän pensateco
ere, asiric vtzten.

Cer içanen da bada, dolore guztien gaitie-
co doloreac, arimaren gorputz eric aberatce-
co asco denac, heriotcecoac har çaitçanean?
Cer valentia eguin vste duçu çue orduan



Eguiazco penitencia, cein baira, gauça; handia, eguitecotsua, eta ofafuna duenari ere, lanic eta ekhairic asco emaiten dioena, nahi duçu que, den demboraric herstueneco, gaitz eneco, eri çareneco, eta are, herriotcearen azquen oreneco, laçatu.

Horretan emaiten duçu, aditcera, eztingula nehoiz ere penitenciaric eguin nahi. Ceren ofafunarequin çaudenean, ahala duçunean, ezpaituçu eguiten.

Hugo de la *dum potes, manifeste ostendis, quod non vis.* Hargatic erraiten du San Agustinec ere. *4. c. 5. Festinare debet ad Deum convertendo dum potest unusquisque ne si dum potest, noluerit, omnino cum voluerit non possit.* Bat bederac behar du cõvertitu eta eguin laster laincoa gana, ahala duenean.

Augustin. *17. ad fratres in eremotom. 10.* Ceren ahala duenean, nahia eztuenac, venturaz guero, nahia duenean, ezta ahala içanen: Behintçat iarcen bedere bada, ez içaiteco perilean.

Beraz hunelatan lehen behar da prestatu.

Ceren gaitz içanen da, heriotceco orenean, eritafunez, eta oiñhacez cargetua çaudenean, penitencia eguitea, behar den sintafunarequin, eta berotafunarequin laincoari gomendatcea. Ceren ordnan, bertceac bertceditela, eritafunac berac, emanen baiteratçu, eguitecotic asco.

ARe guehi ago, gaitz içanen da heriotceco orenean, beharden bidean, penitencia eguitea. Ceren penitenciac, eta edo cein bertce obra on batec ere, eguiazco, eta valios içaitecotz, behar du, gogotic, amorioz, vorondate onez eta librequi eguina içan eta ez bortchaz, ez ecin bertcez, edo veldurrez. Eta azquen oreneco penitencia harc, badirudi, bortchazcoa, ecin bertcezcoa, edo veldurrezcoa dela, eta ez behar begalacoa, eta ez behar beçain librea eta vorondatezcoa.

Halatan erraiten du San Agustinec. *Penitentia que ab infirmo petitur, infirma est, penitentia que a moriente tan u petitur, timeo ne ipsa moriatur.* Eriaren penitencia, penitencia erida, veldur naiz hil dadin, hiltceracoan baicenz eguiten eztena. Lehen behar da lehen eguin.

Quoniam non est in morte qui memor sit tui. 6.

Ceren Propheta Dauitec dioen beçala. Ezta nehor heriotcean laincoaz orhoitcen. Oidea cer eretan nahi du, mingatçe, molde hunec, ezta nehor heriotcean, laincoaz orhoitcen? Ceren gu orduco esperantçac bici gatu: eta sperança çarequin eztugu an asteraiño-coan gaitxa queriaric baicenz eguiten: Ez care epe hartaraiño laincoaz ere orhoitcen.

Augustin. *17. de tem. tom. 10.*

psalm.



Baiña orduan diren gaixto enac ere, hasten dira, bere concientien iratitocen eta iraultocen, batari eta bertceari barcamendu escatocen, eta bertce eguiteco guztia vt ciric, ahalez laincoa bera baitan pensatcen.

Nolatan ahal dateque beraz eguia, erregue Dauitec dioena, eztela nehor heriotcean laincoaz orhoitcen? Ezta gaitz ihardesten. Ceren bataz, lehen erran den beçala, orduan, eritasunac berac, bere gorputceco gaitçac, emaiten baitio bat bederari, eguitecoric asco: eta berriz bertcea ceren peril baita, orduco orhoitcea, orhoitcen bada ere, ez orhoitcea beçala, veldurezcoa, edo borchazcoa içanen den, eta ez bear beçalacoa. Ceren San Agustinec dioen beçala. *Quia etiam hac animadversione percussitur peccator, ut moriens obliuiscatur sui, qui dum viueret oblitus est Dei.* Bici deño laincoaz ahantciric egon denac, mereci du, berari ere hitceracoan, ahantz dauion bere burua, eta orhoitcen bada ere, orhoitce hura, eztaquilon deus valia. Eta iduri erabadu etçaicala deus valiatcen, Ceren comunz qui halacoa, eritasunetic escapatcen denean, leheneco beccatuetara bihurtcen ohi da.

Halacoaz eta halacoez mintgo dela, erraiten *psal 65: du Erregue Dauitec. In multitudine virtutis tuæ mentientur tibi inimici tui.* Ceure verthutearen multçatafunean, gueçur eguinen deratçute ceure etçaiac. Cer erran nahi du mingatce mole-

Augu
ferm.
10 de
sanct
s. 10.

de hunc? comparacino batez edo biaz adituco duçue. Bi aitonen Semec, edo çaldunec elcaren artean etsaigoa dutenean, eta elccar diçaidaturic, defaçiaturic, combatera eta gudura deituric, colpeca hasten direnean, comunz qui sendo enac, edo antçafuenac garaitcen du bertcea, bere meneratcen du, azpiratcen durrera egozten du, ezpataz iragañera darama. Orduan lurrean datçanac, herçtura handian baitago, erraiten dio bere etsaiari. Ha iauna othoi bareca iaça daçu, bicia indaçu.

Eçatgutcen due orainocooan, çure alderacotçat, saltatu dudala, gaixqui eguin dudala, baiña prometatcen deratçut ecen, hemendic aicina çure cerbitçari içanen naicela. Hunela mingatcen çaica, hunela othoitz eguiten dio. Eta othoitz hauc gogoan harturic, bihotça hautsten çaica, vt ricalcen çaica, barceatcen dio, vtçten du iaiquitcera. Ordea iaiqui den beçain site bere eman duen promesaz, eta eguin çaican garaciaz contu gati eguinic, bere leheneco tornura, eta etsaigoara bihurtcen da. Halacoari bere etsaiaren indarrac, bothe reac, eta garaitiac gueçurra erran araci derauca eta prometa araci complitcen eztuena. *In multitudine virtutis tuæ mentientur tibi inimici tui.*

Hala eriec ere bere eritasunetan, eta mari nel tormentatuec bere tormentetan, anhitz promez eder eguiten dute, saindutceco gogo hartcen dute, debocino bat eracultendute.

digida
turic.



Ordea nola hura guztia veldurrez eguiten baitute, eritasuna eta tormenta iragan diranean, iragan dateque hequen debocinoa eta, ere handic harat lehen begain gaixto, edo gaixto ago eguiten dita. Halacoey eritasunaren eta tormentaren indarrac guezurra erran araci derate, eta prometa araci complitcen eztutena.

ff de eo qui me-
rus lau-
fa l. qui
in car-
cere.

Garcelean dagoenac eguiten duen ordenu-
ac eta testamentac, ezuela deus valio, dio le-
gueac. Ez eta beraz eztu deus valioco, erit-
tasunaren, eta heriotcearen gatcelean eta her-
sturan, dagoenac eguiten duen promesac eta
penitenciac ere. Ceren hec guztiee dirudite,
dircla, borchaz eguinac, eta ez amorioz, eta
ez vorondatez.

2: Ma-
chab.

ERraiten du escriptura sainduac. Antioce
erregue gaixto hanc, heriotceco orenen
cenean, vniquimendu handi bat eracurri que-
la anhitz promes eder eguin quecla, hanbat
ecen baitcirudien, bere hitz etan saindu bat
cela, eta saindu bat becala mintzo cela, er-
raiten quecla bertce anhitz gauçaren artean.
Iustum est subditum esse Deo, & mortalem non
paria Deo sentire. Juitu da eta ar ago in, lainco-
ari errendaturic egoitea, eta guizonac lainco-
coaren berdin, bere buruaren ez eduquitcea.

Eta guztiarequin ere, hunela mintzo bace-
ere, erraiten du escriptura sainduac berac, lecu-

bercan. *Orabat autem hic scelestus Dominum à*
quo non esset misericordiam consecutus. Gaixto
hura othoiteez cegocan laincoari, baiña al-
feric, etquen barccamendu erdiestece perilic.
Ceren othoitz hec, eta laincoaz othoitee hec
bortchac, heriotcearen veldurrac etaguiten
baitceratgan. Pontu hunen gaincan erraiten
du Soto doctor handi hanc. *Antiochus propte-*
rea non est venia consecutus, quod penitentiam
non habuit. sed ob id nobis exemplo propositus est,
ut admoneamur dolorem peccatorum qui ex cru-
ciatibus mortis enascitur fallacem esse sapissime.

Erquen erregue Antioce barccamendu-
tic erdietsi, ceren ezpaitquen behar cen bi-
dean penitenciaric eguin. Ordea hanc bere
azquen finean, eguin quen enseiua, eta peni-
tencia itchurapena, ibentcen çaiçu gueure be-
guion aircinean exmplotçat eta mirail beça-
la: laquin deçagun, eritasunaren eta heriot-
cearen oñhacetic eta hersturetaric sortcen
den penitencia, maiz dela alfer, faun, falso
guezurti, eta guti valio. Iccusten duçunean,
bere mende guztian gaixto icatu den bat, eritu
denean, eta ia hiltcera, etitu duenean, hasten
dela batari eta beittceari barccamendu escat-
cen beharrey bere haciendarç partitç, eta hats-
behera pen handi bat çuequin, baguiac cerura i-
raulitic, laincoari gomendatcen, ezteça çula ez
bargatic pensa, segur duela hala coac bere salba-
medua. Aircinetic, aircinetic eritu baiño lehen

Soto in
4. sent.
dist. 15.
q. 3. ar.
6.



eta heriotceco hersturan iarri baiño lehen, behar da, beccatua vtci, eta debocinoā hartu. Ceren bertcela erituz guerozco debocinoan ezta cer fidaturic ezta segurantgaric. Eritafuneco debocinoā, comunzqui, heriotcearen veldur tafunetic helduda, eta ez laincoa ganaco amoriotic. Eritu ezpacina, lehen beçala, ceure leheneco beccatuen chisteran, etçantçan eta toquian egonen cinen.

Gistera

Baldin aitecetic, eritu baiño lehen, beccatua vtzten baduçu, intencione ona hartcen baduçu, eta ahaletz ceure leheneco falten, erremediatcen, hari çarela ceure azquen eritafunac atrapatcen baçaitu, iaquiçu ecen orduan, munduco beccatoreric handiena içan baçara ere, salbatceco bidean çarela, eta salbatceco esperantça, handi bat ahal duque çula.

Baiña bertcela, laincoac beguirā çaitçala; beccatutan eta beccatu eguiteco gogoan, eta vorondatean çaudela, ceure azquen eritafunac edireitetic. Ceren baldin hala edireiten baçaitu, peril da, çeure eritafunac hartaco cofestatceac, vrriquimenduac, debocinoac, eta eguiten ditutçun bertce enseiu guttuez ere, deus guti valioco duten, indar guti içanen duten.

August. de vera & falsa poenit. Hom. 41

Eznaiz neure burutic mintço. Hala erraiten du San Agustinec. *Agens poenitentiam & reconciliatus cum sanus est & postea bene vivens securus hinc exit. Agens poenitentiam ad ultimum*

*& reconciliatus, si securus hinc exit, ego non sum securus Unde sum securus dico, & do securitatem. Unle non sum securus, poenitentiam dare possum, securitatem dare non possum. Nunquid dico damnabitur? Non dico. Sed dico etiam liberabitur? Non. Sed quid dicis mihi? Nescio, non presumo, non promitio, nescio. Ofalana duela, bere beccatuen cofessa, eta penitencia eguiten duena, eta guero handi harat, ongui bitcen. dena ongui, eta segur ilquitcen da hemendic. Baiña bere azquen fineraio, eta azquen erita funeraio gauça hauquen eguitera iguriquitcen duena, eznaiz segur, ongui, eta segur ilquitcen denz. Segur naicenean erraiten dut segur naicela, eta eznaicenean, eznaicela. Ahalderraquet, orduan ere badaidiqueyela penitencia, ez ordea eman segurantgaric Eztut erraiten condenatuco dela, eta ez salbatuco dela ere. Eznaiz fida, eznaiz segur, eztaquit Hunela dio san Agustinec. Eta erraiten du oraiño guchi ago ere. *Vis de dubio liberare? Vis quod incertum est vade res. Age poenitentia cum sanus es. Si sic agis securus es. Quia existi poenitia eo tempore quo peccare potuisti. Si autem vis agere poenitentiam tunc quando peccare non potes, peccata te dimisse unon tu illa. Nahi duçu duda taric ilquit? Nahi duçu segurean iocatu? Eguiçu penitencia ferido çareio, beccatu ere ahal daidiquio. Ceren bertcela, baldin çuc eguin nahi baduçu peni-**



tencia eri çarenean, hiltceracoan, beccaturic ere ecin daidiqueçun demboran: eztiturça orduan çuc vtzten beccatuac, baiña beccaturic çu vtzten çaituzte.

Cer esquer edo mere cimendu, vste duçu, içanen duçula, ia ecin guehi ago daidiqueçun, eta hiltcera etsitu duçunean tratu gaixroen vtzteaz, eta batari, eta bertceari, ceure onen hutzteaz, eta partitceaz? Ceren berdin ecin eramam cinitçaqueyen ceurequin Baldin obra on horieç eguin bacinitu, ofafuna cendunean, eta ceure burua, hala oneco, nola gaixtoco, ceure esfueco cendunean, badirudi indar guehiago içanen çutela, valios ago içanen çirela, segurantzça handi bat emanen ceratçutela, eta çutçaz ongui ioanen cela. Baiña ceure azquen finean, ia ecin guehiago irain deça quçula iccuffiric, eta etsituric eguiten duçun obra onean, eta penitencian, ezta çer sobera fidaturic. Ceren peril baira, ezten orduco obra on hurá, eta penitencia behar begain fin, eta eguiazco içaren.

Eztagoela beraz nehor penitenciaric eguin gabe, eta beccatuac vtei gabe beccaturic ecin daidiqueyen dembora raino, ezta goela hortcharen beguira: begui bere eguin bidea lerebrequi, eta vorondatez: begui mugaz, eta goiz Ceren san Agustinec dioen beçala. *Aug. de vera & falsa poenit.* *Mul. tos solet serotina penitentiã decipere. Anhitz ere ganarten ohi du arratz aldeco vrriquimen-*

duac, penitencia beran corrac.

Badira çuhaitz batçuc, vdaren finean, falsoñetic campoan hasten baitira loratcen, edo bir-loratcen. Baiña lore hetaric guti lotcen, eta eratchequitcen ohi da: hequen fruitutic guti vmotcen, eta ontcen da: note nola eztaquiela, ibartcen, eta iraunguitcen ohi dira. Hala dira bada, bere adinaren finean, erirasunean, eta hiltceracoan, desira onez bethatcen hasten direnac ere. Orduco desira on hec, nahicunde hec, neguco lorea dira; dembora gaixcecoac, falsoñetic campocoac, eratchequi gabe, fruituric eccari gabe, desicundetan ihartcen, eta iraunguitcen direnac.

S. 4.

ERregue Pharaonec Israeleco semen ondotic, hequen hil nahiz, çihoanean, iccuffiric ecen vrac hartcera ceramala, erran çuen. *Fugiamus Israël, Dominus enim pugnat pro eis contra nos.* Dagnigun ihez, bihurtirecin guibelat, eztaidiquegu nahi dugunic: Ceren laincoa bere alde dute iende hauc. Abiatu cen bada guibelat, eman cioen ihesfari, baiña alferric, probetchu gutitan, berant orhoitu cen: hura laster, baiña vra laster ago, han bere lagun guztiequin itho, eta hondatu cen. Hala guer-

Exod. 14.



thatcen çaye bada comunzqui , beriotceco orenean, bere gaixta querietaric, guibelat bihurtu, eraihes eguin nahi duteney ere. Abiatcen dira, eguiten dute cenbait enfeiu, baiña ez asco, flaco diraz, eta halatan atcemaiten, eta atrapatcen dira.

2. Reg. 2.
Loab, eta abner, bi capitain hec, guerla handia erabili çuten elccarren artean. Eta azque-
nean, iccussiric Abnerrec, gaizqui ciohacola, vençutu hurran cela erran cioen loab bere contrasta i. *Nam usque ad inter nacionem murtuus deser viet?* Cer da haur loab capitán fama tua? Cer eguin gogo duçu? Accabatu nahi othe gaituçu? Asco eguin duçu, garaitia baduçu vtzcuçu bicia. Orduan ihardetsi cioen loabec. *Vivit Dominus, si locutus fuisses mane recessisset populus.* Promes emaiten deratçut ecen, baldin goicean mintçaru bacina, iendea barraiatuco cela, eta ençuna içanen cinela. Erran baillio beçala. Eta nola? egun guztian, orai arteiño, ene contra ibili çara. hartan ceure ahal guztiaz permatu, eta emplegatu çara, eta guero orai, artatfeon, atrapatu çaraneon, guehi ago ecin daidiçunean, nahi duçu baquetu, eta adisquidetu? Bada ez, ez verandu duçu, alfer mintço çara, orai ene aldiã da, lehen çurea cen beçala. Huna non duçun clarqui pintaturic, beccatore bati, bere mende guztian, beccatutan, laincoaren contra, guerlan ibiliric, heriotceco ote

nean, ia atrapatu dunean, laincoarequin guerthatcen çaicana. Halacoari, eta halacoey erranen deraue laincoac, Abimelec erregueari, eta harequin ciren laguney, Ifac Patriarca erran cerauena. *Quid venisti ad me hominem, quem odisti, & expulisti a vobis?* Certara ethor. 26.
n çarete orai ene gana, lehen gaitz etfia, alfer-etfia, eta ceuen ganic egotcia, erabili duçuen, guizon baten gana? Erranen deraue halaber halacoey, Evangelioçobortz virgina erquelhey erran cerauena. *Amen dico vobis nescio vos.* Coazte hortic, etçaituztet eçagurcen. 25.
Clausula est janua. Heri da aitheã, ezta idequit-ceric, verandu duçue. Erranen deraue halacoey. Cuec ahala cendutenean, etcenduten ontasunic eguin nahi, cergatic bada orai, ahalic eztuçunean, eguin behar derat, uetnic çuey? Finean erranen deraue. Non dira oraiñoçoan cerbiçatu dituguen launac, eta nabuñac? Errabili dituguen beccatuac, eta gaixtaqueriac? *Surgant & opitulentur vobis.* Deut. 32.
Coazte hetara, eta hec lagun bequizquitçue, eta vtz naçaçue ni orai ere, oraiñoçoan vtci nauçuen beçala. Cuec lehen eguiten cenduten: nitçaz irri, eta escarnio, hala bada aldiz, nic ere orai eguinen dut çuetçaz. *Ego quoque in interi:u vestro ridebo*
Hunela erranen deraue, herriotceco oreneraiño, beccatutan ibiliric, oren hartan bere beccatuac erremediatu nahi dituzteney, Eta



arraçoinequin erranen deraue hunela. Ceren orduan bortchaz , eta ecin bercez hartaraten baitira , eta borchazco ongui etguiteac , deus guti valio baitu.

Halacoecnahi dute bici direño , Deabruaren cerbitçuan egon , eta guero hiltceracoan lalncoa gana aldatu. Ordea hura da , leguearen contra. Ceren erraiten du legueac. Cuhaitz bat , bere dembora guztian , ondoz , eta erroz , çure baratcean , edo lurreen egon dena , azquenean bertceren baratcera edo lurrera maccurtuagatic : eta ebaquitcen dute- nean , bertceren lur hartara , erori agatic ; çure içanen dela , eta ez eroniric datçaneco , lurraren iabearen. Hala comunzqui içanen da bada halaber , bici deño Deabruaren cerbitçuan erroac eguinic egon dena ere , hiltcen denean ; Deabruaren , eta ez orduan lalncoa gana maccurtuagatic , lalncoaren.

Etia nola çuhaitça gutic dagoenean , maccurtua dagoen aldera , erortcen ohi baita comunzqui ebaquitcen denean : hala çu ere bici çareño , norat baitçaude maccurtua , harat erorico çara hiltcen çarenean. Ezteçaçula pensa , eztaquiçula iduri , baldin bici çareino , sendo , eta ofafunarequin çabilteaiñ , ezquererit maccurtua , eta alderditua bacaude , eritafunean , eta heriotcean , efcuñerat iarrico , eta chutchenduco çarela Bicitceari darraica heriotcea , nola bici hala hil.

lege. Si
plures
in ff
novo
lib. 5.

Vr guztiaç il quitcen dira itafotic. Ordea guztiarequin ere vr hetaric batçuc dira gaci , eta bertceac gueça : batçuc gogor , bertceac , bera. Eta arraçoña. Ceren nolaco baita lurra ceinetaric iragaiten baitu vra , halaco guerthatcen baita vra ere. Vrac lurraren goçoa , eta çapporea hartcen du. Vra , lurrac ontcen , edo gaixtatcen du. Hala bada heriotcea ere , nola bicitcetic iragaiten baita , bicitceac ontcen edo gaixtatcen du. Nolaco baita cheiten den ehuna , eta oiñhala , halaco içanen da oiñharen albenia , eta bazterra ere. Beraz hunelatan , nolaco baita bicitcea ; halaco içanen da halaber , bicitcearen baztera , eta acabatcea ere , cein baita herriotcea. Ongui bici , ongui hil , gaizqui bici , gaizqui hil.

§ 57

Guertha diteque lalncoaren senbait fequeretuz , eta ordenamendu estaliz , ongui , eta prestuqui bici içatudena gaizqui hiltcera , azquenean behaztopatcera , eta galtcera ; vntci an arteraiño ongui ibiliric portuan fartcean , galtcen dena beçala. Nola halaber bere mendeen gaizqui bici içatu dena , azquen finea beçala , Baina hunelacoric oraiñoçoan gutitan guerthatu da , eta venturaz ez secular guchiago eguinen. Comunzqui ongui bicitc



dena, onguihiltcen da: eta gaizqui bicitecena, dena, gaizqui hiltcen da. Haur da bide çabala, erreala, plauna, eta segura. Bertce guztiaçara bidexac, bide chidorrac, hertsiaç, meharac, malccorrac, eta perilez betheac. *Mali mori times, & male vivere non times. Non potest male mori qui bene vixerit.* Gaizqui hiltcearen çara veldur, eta ez gaizqui bicitecearen. Bada ecin hilditeque gaizqui, onguï biciçatu dena. Eta iaquiteco, duda guti dela, eguitceco hunetan, bada seiñale bat handia. Ceren bat bederac sendo ceïño certan baitceducan gozgoa, hartan oi daduca, eta hartçaz mingacencen ohi da eritasunean, eta hiltceacoan ere hartan edireiten da ametsetan, eta eldarnioetan ere: ascobaita aditcera emaitceco, bicitecen beçala hiltcen ere dela. *Quæ semina veritatis homo, hæc & metit.* Dio londone Pauloc. Guçonac cer ere ereiten baitu, hura viltcen eridu. Eta galdeguiten du S. Martheo Euangelistac, ezetzco contuan beçala. *Nunquid cogunt de spinis ubas, aut de tribulis ficus?* Othe da nehor, elhorri arantçé taric mahars, eoda sappar-lahar etaric fico viltcen duenic? Othe deiño gaixtaqueria banatcen, eta ereiten ibiltcednac, eta guero bere azquen finean, saineatatec beçala, hil vste duenac, elhorri arantçé querietaric ontafun vildu nahidu: ccin datequeyen gauça desiratcen du.

Bere mende guztian errebelatu a ibiliric, heriotceco orenean, ilhuntcen hasteracoan, bide onera, eta arthecera bihurtaco dela vste duenachuts eguiten du. Lehen behar da lehen. Ceren heriotceco, oren hura, oren ilhuna, nahasia, eta tormentatsua da. Ezta tormenta capitainic hanbat eguitceco emaiten duenic. Orduan, lehen erraz cena ere gaitz bihurtcen da. Vntcia itfas çabalean, dembora ederrarequin aise erabiltcen da, alde batera, eta bertcera errazqui lemaz itçultcen eta gobernaten da Baiña bazterreraz guero, costaloz guero, ezta gouernatceric, eta ez nahi beçala manaiatceric. Dembora clar deiño, adinonean, eta ofasunarequin, untcia itfas çabalean, dembora eder arequin beçala, ceure gogara, çabilt çaiño, escuey eraguieçu, orduan perma çaiteci. Ceren dembora gaitçac, eritasunaten oinhacac, eta heriotcearen tormentac hartuz guero, costaraz guero, bicitecearen bazterrera heriotceac vquituz guero, eguin da, miracuillu içanen da falbatcea.

Vtçaçu beraz burutic, buruan darabillaçun ethoqueria hori, egunetic egunera, heriotcearaiño lucatuz eta eppe hartuz, orduan eremediatuco çarelaco esparantçarequin, an arteraiño beccatutan egoite hori. Ceren badaquiçu tormenta handiarequin, costan ioitera, dohan vntci çargatua, eztela peril gabe, ai-citic galdutçat daducaçu halaco vntcia,



Hala educaçu bada halaber, çuc ere galdutçat ceure burua, beccatuz betheric, eta cargaturic, heriotcearen costla ioiten duçunean: bethi ere guero onduco çarela erraiten duçula: eta beccatu eguitemo gogoan, eta vorondatean çaudela, ceure azquen eritasunac ediren çaitçan artean. Ceren hartaraz guero, gutiac dira ongüi libratcen direnac, galdu gauç escapatcen direnac?

Beraz hunelatan, orai baituçu ofasuna, indar, antce, adimendu, eta ceure burua, ceure escuco: orai ezpaitçara oraiño eri, eta ez heriotceco hersturan iari: orai baitçara libre; eta nahi baduçu ongui, eta gaizqui ere, daidiqueçun demboran. Orai bada orai, men menan iari gabe, succarrac nahasi gabe, eta eritasuna iaundu gabe, eguitçatçu, guero eguin gogo ditutçun onguiac, eta descarguac. Eta orai diot. Ceren nola orai eguiten duçun guztia, eritu gabe, heriotceco hersturan iari gabe, eta nehore bortchatu gabe, librequi, eta vorondatez eguiten baituçu: hura içanen da gauça handia, estimatua indartfua, botheretfua, valioffa, laincoari eder içanen çaicana, eta merecient azquen finean ceruco loriaten erdiesteco.



Erremusina edo limosna eguiteaz, eta handic sortcen den probetçhuaz.

C A P. X V I.

ERraiten du spiritu sainduac. *Ignem Eccl. 3: ardentem extinguit aqua, & elemosyna resistit peccatis.* Vrac iraunguitcen du sua; eta erremusinac eguiten deraue beccatuey contra. Vrac sua beçala, erremusinac iraunguitcen du beccatua. Halaber erraiten du san Matheoc. *Beati Matthæ 5: misericordes, quoniam ipsi misericordiam consequentur.* Dohatsu dira misericordiosac, ceren hec erdietsico dute misericordia. Hunen arauas erraiten du erregue Dauitec ere. *Beatus qui Psa. 140: intelligit super egenum & pauperem, in die mala liberabit eum Dominus.* Dohatsu da, beharraren, eta probearen gainean empletatcen dena. Ceren hura, egun gaiztean, heriotceco orenean, beguiratuco; eta libratuco du laincoac? Eta badio oraiño spiritu sainduac. *Eccl. 29: Conclude elemosynam in corde pauperis, & hac pro te exorabit, ab omni malo.* Gordeçacu erremusina probearen golcoan, eta harc eguinen dio laincoari othoitz, gaitz gustietaric, beguira çaitçala. Finean hanbat gauça errai:



tenda erremusinaz, non baitirudicen, bat be-
deraren salbatceco, eta arimaren segurace-
ço, asco içanen dela, bertce gauçaric gabe, bi-
hotz bera, eta erremusinaç lari içaitea. Ceren
handia baita erremusinatzen indarra, eta bo-
therea.

Glosa
yrana
in ca.
29. Ec-
cles.
Eguia da hala da, handia da, eta Glosa
dioen beçala, san Agustin ganic arheraric
Sola misericordia comes est defunctorum. Mife-
ricordia bera da, eta ez bertceric, defunçtuac
compainiatzen dituen, arima ioaney la-
guntçen çayena, erremusinaç eduquitzen du
bechiere on.

Vide
S. T. 22.
qu. 154.
ar. 2.
ad 7.
Ordea eztuçu ez pensatu behar, erremusi-
nac berac, sacramentu batec beçala. *Ex opera*
operato, bere indarrez eta botherez, beccatua
iraunguitzen, eta barccatzen duela. Eztu be-
rac, hartaracotçat indarri asco.

Alde batetic duçun guztia probey eman
agatic, baldin bertceric, beccatutan baga-
de, eta hetan finatzen baçara, deus guti va-
liatuco çaitçu ceure erremusina, eta miseri-
cordios içaitea. Hala erraiten du iondone
3. Cor.
13.
Pauloc. *Et si distribuero, in cibos pauperum*
omnes facultates meas, & tradidero corpus
meum, ita ut ardeam charitatem autem non
habero, nihil mihi prodest. Dudan gutia
probey eman badiacet ere, eta neure bo-
rua erratcera vtz badeçat ere, etçaitçquit
hec guztiaç deus valiatuco, baldin caritatecic

ezpadut. Erran nahi du. Erremusinaç; eta
bertce obra misericordiaçcoac ere; deus
guti probetchatzen çaitçala, beccatutan
dagoenari.

Ordea guztiarequin ere anhitz, eta han-
diac dira, erremusinari emaiten çaitçan;
ohoreac, laudorioac; eta abantailac. Eta
arraçoiñequin, eta merecituric emaiten
çaitça. Ceren erremusinaç berac, indarri-
asco ezpadu ere, beccatutic atheratceco, bai
ordea badu athera aracitceco. Ceren badi-
rudi ecen laincoac bere ontasuna gatic, hart-
ceco duela occasino, misericordios denari;
ceren misericordios, den misericordia eguite-
co. Çure erremusinaç, çure bihorz-berac asu-
nac, beratzen, eta hautsten dio laincoari bi-
horza, eta emaiten occasino çure laborat-
ceco. Çu misericordios içaiteaz, gaitcen çä-
ra, disposicionean iartcen, eta prestatcen
laincoaganic misericordia erdiesteco, eta er-
recibirceco: eta laincoa ere hartçaz irat-
çaitcen, eta ernatcen beçala da, çuti ongui
eguiteco, eta bere garaciaren emaiteco. Hu-
netacotçat, eguia hunen frogatceco, anhitz
exemplo ediren ahal diteque, baiña nic oraï
presenteon, eztut bat baicen eccarrico. Bo-
nifacio martira dembora batez ibili cen
emazte eder noble aberatç batequin galdua;
eta haraguitçco beccatuan barrena farthua.
Eta baçuen Bonifacio harc, bertceric ere an-



hitz beccatu ; edale cen , iocari cen , arnegari cen , halacoac ohi diren beçala Gauça bat çuen ona. Bihotz - bera cen , erremusinalari cen. Alde batetic beccatu anhitz eguiten barçuen, bertetic probeac faboratcen cituen. Eta halatan bera ere laincoac faboratu çuen , bihotzean vtqutu çuen , inspiracino sainda batçuc , gogoeta on batçuc eman cerauçan. Eta guero hequin batean conuertitu cen , aincerat obra onetan emlegatu cen , eta azquenean martir hiltcen. Iccussaçu cer eguiten edo eraguiten duen erremusinac , misericordios , eta vrricalmendutsu içaiteac. Hain çaiça eder laincoari vrricalmendua , etabeharrari ongui eguita , non berari ere handie vrricalcen baitçaiça ongui eguille hura ; eta lehen edo guero eracusten baitio , eta emaiten bide onean iartceco bidea. Bonifaciõ eman , eta eracutsi cioen beçala.

Esportça gaitecin beraz , eta enseia misericordios , eta erremusinalari içaitera : Ceren anhitz baitira , eta handiac , handie , eta hartatic sortcen diren probetchuac , ontasunac , eta irabaciac.

Eleemo Etã bertce anhitcen artean hirur dira erremusina-
syna est sinaren probetchu principalac. Lehenbicicõa.
merito Eleemosyna est meritoria gloria & augmenti gra-
ria satis ria , si fiat ab homine existente in gratia & pro-
factoria ria , pter Deum. Beccaturic gabe dagoela , lainco-
& impe gatic eguiten den erremusinac , merccitcen du-
tratoria

ceruco loria , eta berretcen laincoaren gara-
cia. Bi garren probetchua da. *Eleemosyna est satisfactoria pro pœnis peccatorum dimissorum.* Erremusinac satisfatcen, eta pagatcen ditu, beccatu barccatuen pena temporalac , guziac edo parte bat, hemen edo purgatorioetan pagatu behar cirenac. Eta haur da escriptura sainduac erraiten duena. *Peccata tua Eleemosynis redime.* Hirugarrena. *Eleemosyna est imperatoria.* Erremusinac anhitz ontasun erdiestendu laincoa ganic. *Beati misericordes , quoniam ipsi misericordiam consequuntur.* Dohatsu dira Matth. 5. misericordiosac. Ceren hec erdiestico dute misericordia. Eta hala çure erremusinac berretcen du ceruco loria , eta handitcen laincoaren garacia : gutitcen du purgatorioeta co pena : eta erdiestendu laincoa ganic anhitz fabor , eta ontasun. Iaquin deçagun ecen erremusina-guilleari , bihotz bera , eta misericordios denari eguinen çaiçala misericordia. Eta cer ere emaiten baitiogu orai hemen probeari , edo bertce obra onetan emlegatcen baitugu , hura guero edirenen dugula bertce munduan , eta ez bercceric.

§. I.

IAquin decagun , eztiogula probeari liscararic edo erançuterie eguin behar , eta ez gaitz guitic erran. Baldin emaitceço gaitetan bagara ;



edo debocinoric badugu, eman diaçogun, eta gaineracoan vtz deçagun. Ceren probea, onguen dena ere, on beharda, eta vrricalquçun. Biluz da: orthuf da: ezualdat ceco athoriaric, eta ez etçateco oheric: eztaqui othuruntça on baten berriric. Asco du bere laceria, escasia, eta miseria. Beraz etçaica halacoari liscarric, erañuteric, edo mehatechuric eguin behar. Ceren hala eguiteaz, batean ezpada bertcean, periletan iar cindezque huts eguiteco: eta probearen, bere probetafunaren gairera, bere gogoan, eta bihotcean çautua, gaizcoatua eta tristerua igortceco. Eztut vste, galdeguinen deracula laincoac, ea probe onari, ala gaixtoari eman diogunz, eman diogunz baicen. Daguigun ongui, eta ezteçagula beha non.

Aberatsac beçala; probeac ere laincoac eguinac dira. Aberatsa hain biluz-gorri forthu cen, nola probea. Eta laincoac nahi içan balu, eguin çuqueyen probea aberats, eta bai aberatsa ere probe. Eta hala orai ere anhitce-tan hequen çorthea, eta fortuna trucatcendu, probeac aberatsfen, eta aberatsac probertcen baititu.

Probeac pairatuz, paciencia içanez, eta bere ongui eguilcz othoitz eguinez, behar du salbatu: eta bai aberatsac ere, bere onetatic probeari emanaz eta partituz. Eta ongui guchi

ago eguiten deracu probeac guri, escatceaz, eta gure ganic errebitceaz, guc hari emaitceaz eguiten diogun baiño. Ceren guc hari labore pochin bat, cornadu bat, edo lunelaco cenbait bertce gauça appur emaiten diogu, baiña guc handic ceruco loria irabatzten dugu.

Are guchi ago; probeari emaitceaz, gueure descargua eguiten dugu. Ceren laincoac orai guri emaiten derauzquigun onac, eta onhalunac, hetaric, gueure mainadaren mantenatceco, eta estatuaren eduquitceco behar duguna haitu, eta gaineracoac probe beharrenac.

Eztu ez laincoac vtci probeac mundu huetan haberic eta fostenguric gabe, aberatsfen gomendioan vtciu. Eta halatan emaiten derane aberatsfey betetçat behar duten baiño guchi ago, guchi agoco hura, probetara partideçaten amoreac gatic. Eta handic erraiten du San Chrisostomoc. *Nam si pauperes esset permissi etiam hoc a vitum gratia factum est, ut per elemosynam peccata possint abluere.* Permittiten du laincoac, munduan diren probeac, hey ongui eguinez, salba ditecin aberatsac. Eta laincoaren ontasuna eta liberaltasuna hain da handi non orai çuc diratçun on horic laincoarenac berarenac, eta laincoac emanac ditugularic, guztia requin ere, çuc horietaric probeari emait

Chr yf.
hom 77
in cap.
15 Joa.
tom. 3.



Prov. 19.

iten dioçunean , ceuretariç emaiten baitcinio becan bat , estimatcen bairu laincoac , Eta are handic bere burua çure alderacotçat çorduneracusten du : hain çordun ecen erraiten baitu spiritu sainduac. *Feneratur Domino qui misereatur pauperis.* Probeari emaiten dioenac , laincoari emaiten dio. Eta emaiten ere , nola ? *Feneratur.* Censuan interesean irabacian , obliga araciric beçala , principalia irabaciatequin bihurtuco dioela. Eta hemengo irabacia ttipi da , ezta seguraturic ehuneco bat ere , baiña laincoarena handi da , guchi ago da ehuneco ehun baiño.

Cer nahieçu guchi ago ? probeari emaiten dioçunean laincoaren icenean , berari emaiten baitcinio beçanbat estimatcen du laincoac hain ecertan eduzquitcen du.

Eta haur ezta miresteco , ceren orai hemen gure artean ere , icusten dugunean , ecen , guieçon batec , gure ahaide edo adisquide bati eguiten dioela , gure amoreac gatic , cenbait ongui dueere lehen bicico occasinoan , errentatcen derautçagu esquerrac guieçon hari , bitartean eztagu onic , an ateraiño gueure buruac çordun dadutçagu.

Cer eguinen deraue bada laincoac , haren amoreac gatic probeac laboratcen dituzteny cer esquer ? cer pagamendu emanen deraue ? londone Marthiecbere caparen erdia probeari eman cioenean , abiatu cen laincoac ,

hartan berean , capa hartçaz estaliric , erraiten çuela sendagaillaz beçala. *Martinus hac me veste contexit.* Iccusçaque , iccusçaque , cer valentia eguin duen Martinec , nola capa hunez eltali nauen , cer eman derautan.

Bada Martinec capa hura probeari eman cioen eta ez laincoari. Ordea guziarequin ere laincoac , ceren haren icenean eman cioen , erraiten du berari emancioela.

Halatan erranen deraue azquen iudicioco egunean ere , escuinecoey dohacilla seculaco loriara , ezquerecoey seculaco penetara. Ceren escuinecoec gofetu cenean eman baitcioten latera eta egarritu cenean edatera. Baiña ez ezquerecoec.

Eta iauna , galdeguinen diote orduan guztieç : noiz ediren cinitugun gucçu gosse edo egarri ? Ihardetsico deraue. Probeac athera ethorri ceizquitçunean. Orduan hequen lecuau , ni nintcen han.

Eta hala probea escatcen çaitçunean contueguieçu ecen probe hura dela lainco bera , ceren haren icenean escatcen çaitçu , haren icenean emaiten dioçu , eta laincoac ere berari emaiten baitcinio beçan bat estimatcen du. Hala erraiten du san Crisostomoc. *Nihil nempè in terefi si ve huic pauperi , si ve ipsi Christo dederis.*

Ezta antzia , ala probeari , ala Jesu Christo berari eman , ezta batec baiño bertceac guchi ago monta , eta ez yalio guztia da orabat,

Chryf. hom. 89. in capite 27. Mac. tom. 2.



Crysof
ubi su-
pra.

Eta are San Crisostomoc berac, aitecnetic auisaturic, ezta dilla nehor hargatic assalda, erraiten du *Nemo his verbis turbetur. Non est aequale, ipsum Dominum presentem alere, cuius presentia vellapideum ad se animum attraheret, & propter eius verba dumtaxat, pauperes, mendicos, agrotos alere atque curare.* Ezta berdin baiña aldez guehiago da eta meritu ago probeari laincoaten icenpan emaita, laincoari berari bere presunan baiño. Ceren presunac berac eta presunaren presentciac hobequi uquitcen du bat bedera, presuna haten beraren presentean ezteneco erranac, eta manuac baiño.

Eta hala, aldez guehi ago da ceren laincoac manatcen duen, probeari emaita laincoari berari emaita baiño.

§. 2.

BEraz hunelatan ezta probearen gabe egotzeric, eta ez athean oihuz eduquitceric ere. Ceren probearen oihuec, eta hanhitzetan ere berariac bere buruaten hebain, maingu, herbal eta eri eguiteac, gure bihotzaren gogortasuna eta horztasuna accusatcen dute.

Gu baguina emaitera prest, erne eta volondres, ezleque probeac halaco pensuric eguin eta ez arteric bilha. Baldin probea bada maliciati, bere beharrez eta gure faltaz da guehiago dugu, bere bicitcarean atheratenco.

hanbat enseiuren eguitera behartcen baitugu Hala erraiten du san Crisostomoc *Nam si simulat ex necessitate simulat & egestate propter se vitatem & in humanitatem tuam, que talibus personis supplicantibus ad misericordiam non flectitur.*

Probeari emanen dioçuna, guti edo anhitz, emoçu bere hala. Baldin doiez baçara, guti baduçu, emoçu guti: eta baldin aberatz baçara gainez eguina baçaude, emoçu anhitz.

Ierusalemeco temploaren eguitean, eta eguinez guero ere, bacebillan obraren esquea: eta bacen athearen aldean erre cutchabat, erremusinarene eduquiteco vntei bat; hartan bat bederac debocino çuenaren emaiteco: Oraí ere gure clicetan, crucificaten aldean, dagoen baçala.

Bada temploco cutcha, vntei edo copa hartan, cein iuduec deitcen baitçuten, Gazophis lacium, aberatsfec emaiten çuten anhitz, batçac hamar bertceac hogoy, bat bederac bere içanaren abalaren eta debocinoaren arauaz. Eta hequin artean editencen emazte probeto bat eta hanc eman cituen bi cornadu.

Eta guero haten gainean erran çuen gure salbatçailleac, guehi ago eman çuela emazte probe hanc, aberatz guztiec baiño. Ceren emazte hanc beretçat behar çunetic eman baiçuen, baiña aberatsfey, emanac emanic ere, franco guelditu baitcey:n. Emaçu beraz duçu naren arauaz. Ceren hartçaz contentatcen da

Chryf
hom 57
ad po-
pulum
Anthi.
de ele-
mosy-
na &
miseri-
cordia.
tom 5.



Iaincoa baldin ezpaduçu emaitecoric, ençu damu, ceren eztuçun: eta damu harequin batean, ençu vorondate, baldin bacendu emaiteco.

Ceren Iaincoac behatzen badu ere emaitçara, ordea are ago vorondateera. Eztuenac vorondateaz complitcen du, baiña duenac, vorondatearequin batean behar du complitu, eta obratu.

Eta obratu ere nola? ez eder gailu, ez vanalotiaz, eta ez mundua gatic, baiña Iaincoa gatic.

Idilqui.
ena.

Eta halaric ere, sequeretuqui, ahalic eta ichilquiçna, eçuñac emaiten duena (Euangelioac dioen beçala) ezquerrac iaquiten ezuelan.

Eta are albaliz, eremusina errecibitcen duenac ere, ezluque iaquin behar, nondic heldu çaicen ontasun hura. Ceren halatan Iaincoac berac, azquen egunean guztiac, çure ohore handitan, mundu guztiaren aiticinean aguerituco eta campatucoitu.

Eta çuc ere orduan, orai duçun desira, nahi baitcen duque çure erremusnac, eta eguiten dituçun bertce obra onac, mundua iaquin litçan, complituco duçu.

Ceren orduan guztiac iaquinen eta aguerituco baitira.

Eta ezta ez asco, esque ethortcen çaitçun probeari emaitca eta ez bertceri.

Baiña Iaincoac emanic çuchi agoren ere ahala

duçunaz gueroz, behar duçu informatu, galderu, eta iaquin, ea nor den herrian probebarric gofez denic, fabel-vçcur dabillanic, ahalqueç escatcera ausarcen eztenic.

Eta guztien buruan eduqui behar duçu contu, ea badenz probe-eritc.

Ceren probetasuna eta eritasuna, bi eritasun dira.

Halacoac dira alde guztiz on behar, ondicozco, eta vrricalquiçun: Hequen laboratceca da meritu handia, eta ceruco lotiaren erdiçteco, eta are mundu hunetan dituçun onen ere seguraccco, berretceco eta emendatceco bide ona, çabala eta seçura.

9. 3.

B Atçuec vste dute, ecen probeari emaitcaz probetuco direla: eta halatan erraiten deraeça esque ethortcen çaitzeney, Euangelioac bortz Virginec bere laguncy beçala *Ne forte non sufficiat nobis & vobis ite potius ad vendentes.* Çoazte hortic, Iaincoa lagun daquicuela emaitca gutitçintu gauçac, extugu gueuereçat ere sobera.

Eztute consideratcen, probeari emaitcaz, ez probetcen, baiña aberatsten, ez gutitçenai baiña berretcen duela.

Mat. 15.



Hala emaiten du aditcera Spiritu sainduac
*Qui dat pauperi non indigebit, qui despicit
deprecantem sustinebit penuriam.*

Beharrari emaillea, ezta beharrean iarrico
emallez eztena, azquenean behar iganen da.

Prov. 11. Guehi ago dio Spiritu sainduac. *Alij di-
dunt propria & ditiores sunt, alij rapiunt aliena
& semper sunt in egestate.* Bat quec bere onac
partitcen eta emaiten dituzte, eta guztiare-
quin ere, bethi dira aberatz, eta berriz bertce
batquec, nola bereac emanen dituzten ecen
bertcerenac ebatsten dituzte, eta halaric ere
bethi dira errumez, noharroin, eta on-behar:
Baitirudi ecen hec hartuz probetcen, eta bert-
ceac emanez aberatsten direla.

Amac haurrari ditiharen emaittea beçala da
probeari emaittea ere. Ama haurrari ditihia-
ren emaitteaz, esnatcen da, ez emaitteaz an-
gutcen da. Halaber cicitea beçala da probeari
emaittea. *Euntes ibant & stebant mientes semi-
na sua, venientes autem venient cum exulta-
tione portantes manipulos suos.* Bihica eraiten
gutten, eta esumenca viltcen.

Pfal.
125.

Eraiten bihi baccotchac, eta viltcen
buru betheac, botean hirur laurac cituze-
tenac. Halaber badira vrputqueac, berariaz
eguinac, cimenduan ithurria baitute. Bada
gauça frogatua da, putçu hetaric vric ez athe-
ra agatic ere, ezte la, via handitcen ago
eta ez athera agatic ere, ongui atheratcera.

eztipitcen ago. Ceren atheratceden beçan bat;
fortcen baita. Hala dira bada beharrey email-
leac ere: emaiten duten beçanbat emaiten ça-
ye. Eta emaiten ezpadute, bihotz gogor badira
eztira hargatic aberatzten ago, probetcen
ago baicen. Ceren hasferretcen da laincoa
berac emanetatic, eman nahi eztio çunean.

Hala hasferretu een aberaz abaricofaren
contra. Ceren aberatz hartçaz erraiten badu
ere Euangelioac *Induebatur purpura & bysso,* Luc 16.
& epulabatur quotidie splendide. Beztitcen
cela ongui, eta othuruntç atcen hobequi; ecin
eran direque ordea, hargatic ioan cela;
isernura. Ceren ederqui beztituric ibiltcea,
eta mahai onaren ere eduqui tcea, badirudi ez-
tela beccatu-handi, behintçat munduac ezta-
duca hala. Bada Euangelioac eztu erraiten,
bertce saltaric çuela aberats harc.

Cergatic bada condenatu cen? Aditcen da,
condenatu cela. Ceren etchathera esque er-
horriceican probe gosse premian cegoenari,
ezpaitcioen bere mahay asletic, asletceconic
eman eta ez are elicatceconic ere.

Handic bere burua eta onac ere galdu cituen
Handic probetu cen, eta hain probetu non az-
quenean, bere miharen heçarceco eta frescat-
ceco, vr-cho-rt-a bat ere, ecin iganezco pro-
berafunera ethorri baitcen.

Nola eguiten, bai u galtçapen eta beherat-
çapen handia, probeari guibela emaiten dioç



enac: hala eguiten du goratçapen mira garria probe beharrari, bere beharraren estaltecco emaiten dioenac.

Eta goratçapen hura, eta handie heldu den irabacia galtcen du bihotz gogorrac, erremusina eguiteco gogoric eztuenac.

Eta eguiteco gogo duenac ere, baldin berac bere esenz bici deño, eguiten ezpadu; segur da irabaci haren parte handi bat, edo parteric guehiena galtcen duela, hunen ondoco capitulan aguerico den beçala.

Nola erremusinac, eta bertce obra on, vorondatez, coac ere, ceroric ceure escuz, edo bertcerenez, cerori bici çarela, ondocoetara uci gabe eguin behar dituçun.

CAP. XVII.

GAuçá segura da; eta bat ere dudoric eztuena, probetchu ago, eta meritu ago içanen duçula, orac cerortec, bici çarela, eta ofusuna duçula, ceure escuz probeari emaiten dioçunaz, ecen ez guero hiltceracoan orac natcen dioçunaz. Ordea çuc oraico eta gueroco, franco duçularic, orai ez bat ere, baiña guero bicias etsitu duçunenac, eguin gogob

tuçu liberaltasun handiac. Aberatz çara on handiac dituçu, eta baduçu bai vorondate, on horietaric probetara partitceco.

Ordea noiz? Guero, hiltceracoan. Bertatean erraiten duçu. Neure onac neure nahi ditut goçatu eta manaiatu, eztut oraño gaberu nahi: eztut ohera gabe biluci nahi. Baiña guero neure azquen ordenuan eta testamentean, manatuco dut neure ondoco, neure onequin utçico dudana, eguin ditçala ene descargu guziac. Eta are guehi ago auifatuco dut suma bat seiñalatuco baitiot, suma hura probetara parti beçala. Eta venturan purgatorio etaratcen banaiç ere (ceren gaixtoeneco contuan guztioç purgatorio etara vste dugu) bere hala handie atheratceco, hunenbat meça eman araci diatça dala, eta bertceric ere anhitç obra on ene icenean, ene onetatic daguiela.

Hunela dioçu eguinen duçula. Çure ongui guziac bertcec, çure ondoco, eta ceure ez bat ere.

Bada etçatequeyen hobe obra on horion guztion cerrorec bici cinela ceure escuz eguitca, eta horien bidez, purgatorio-etara ioan gabe egoitea, ecen ez guero haratcen çareneco etremedioen eguitca? Preso çareneco etremedioac bilhat ceintçu eta ez preso fartetic beguiratcecoac.

Are guehi ago, erremusinen eta bertce obra



onen ondocoetara utzteaz, emaiten duçu a-
dittera guibetic eta vrruititic nahi duçula
argui diaçaçuten. Cercenerraque, baldin
gau ilhuncan, paufu hertsi, gaitz perilos bate-
an iragan behar duenac, erran baliace bere mi-
thiley, daude la guibelat, eta guibetic eta
vrruititic daguiotela argui? Haladira bada be-
re erremusina eta bertce obra misericordiaz
coac bereec bere escuz eguin ahal ditçaque-
laric, bere ondotic, vrruititic, eta hillez
guero, bertcerē escuz, bertceri eraguiteco gogo
dutenac ere. Hura da, hurrān, hurrān erran eo-
muna den beçala. Ufoac ioan, fareac heda.

Eta badio San Basilioc ere. *Nemo post vitam
pioratis laudem, præmium ne capiet.* Eztu nec-
hore, hil ondoco erremusiaz, erremusi-
nalari içan delaco, laudotioric içanen. Ho-
bequi ceneidique, eta segurqui ago ioca cin-
dezque, baldin guero, bertceren escuz
eguin gogo duçuna, orai ceurez, ceure iccol-
ten duçula eguin baceneça. Ceren oraiño
San Basilioc dioen beçala. *Quis exitus tui tem-*

Basilioc.
orat. 14
de mor.
& Hom
7 in di-
vites tu-
auros.

*pus nuntiabit? Quis det mortis genere sponsor?
Quot vides repentinò, ac vi casive extingui, qui
præ doloris & spiritus angustia, ne vocem qui-
dem emittere potuerunt? Quot etiam febris à
sensu alios fecit? Quid igitur expectas tempus
in quo separationis tuæ compos non eris.*

Çuc bait oçu, ecen hiltceracoac, ceure
on guztiaç, edo parte bat, probey ordenatuco

derazteçula, orduan ongui handiac eguinen
ditutçula. Erradaçu, nondic iaquinen duçu
edo norc auifatuco çaitu, noiz edo cer moldez
hillen çaren? Nor duçu hartaco fiadore?
Cenbat iccusten ditugu vstecabean, laburzqui
colpez edo estropuz, mintçatu, ere gabe, fi-
natcen direla? Eta bai halaber succarrac na-
hafric, bere testamentac hasi, eta accabatu
gabe, guelditcen direla? Cergatic bada nahil-
duçu çuc ere, venturaz ceure adimen duan
egonen etçaren demboraco, eta astiric ere
içanen eztuçuneco, ceure eguitecoa eduqui
eta luçatu?

S. 32

GOacin aiccin ago. Oraiño orduan, hiltce-
raco aiccinan adimendu, memorio eta
asti bacendu ere erran necçaque çure orduco
erremusiac deus guti valio duela. Ceren
baitirudi ecen botchazcoa dela, eta ez vo-
rondatezcoa: guztiz ere, lehen ahal Ceney-
diqueylaric, berariaz, an arteraiño luçatu;
duganean. Ceren orai ceure onac eztitutçu
gutitu nahi, ecin delibera deçaqueçu hartara
bada badirudi ecen guero ere, hil vste ezpacédu
etceneçaqueyela delibera, eta ez hetaric eman.

Are guihi ago, çure orduco, azquen ore-
neco, onen emaitc eta errepãrtice hanc, badi-
rudi, deus guti valio duela çuretçat.



Ceren çure onetarie, eta çure icenean eguiten bada ere errepartite hura , ordea anbitz etan ere, ezpaituçu ceure eguiten. Herioa hurbiltcen çairçunean, nola athaca herfian, eta paufu gaitcean iragan behar baituçu: eta bitarteco doloreac ere handiac bairira, orduan ceure onez contu guti eguiten duçu: Ceren handi agoac ahantz aracitcen baiterauzquitçu. Orduan ceure ondocoey, eta han presentean edireiten direney cer ere nahi baitute, eta nola behar dela iccuffico baitute; hala daçuitela vitzten deraueçu. Hain nequez ata penaz vildu cinituen onac eta onhafunac; eta hain çuhurtqui eta maitequi beguiratcen cinituenac, guero: hain lachoqui, eta antficia bequi largatceintuçu: lehen cein herfi eta itchequin baitcine, guero hain franco eta liberal eguiten çara. Orduan norc cer erraiten baiteratçu hura laudatcen duçu: eta anhitz etan ere, cer erraiten duçun eztaquiçula, baitietz erraiten duçu. Neure mendea anhitz iccuffi dut halacoi. Eta hala badirudi ecen, orduâ eguitê duçu guztia bertceec eguiren duela, eta ez çuc. Iccuffiaçu bada ea cer probetçua eta merecimendu ahal duqueçun, bertceec eguiten duen onguiaz. Arraçoiñequin erraiten du Spiritu Sainduac. *Ante mortê benefac amico tuo*

Ecclesi. 14.

Et secundum vires tuas exporigens da pauperi. Herriotcera baiño lehen eguiçu ongui ceure adifquideari, eta duçun indarraren aruaz

heda iaçoçu ceure escua probeari.

Egunbatez eguin cioen othoitz santa Lucia bere amari, guero eguin gogo çuena, guero roco beguira egon gabe, egun beretic eguin ceçala, eritafunaren, eta heriotcearen, herfuran iarri gabe, sendo cela berac bere escuz bere onac probey particiat cela.

Baiña ihardetsi cioen amac, orai vlatcenden beçala.

Ene alaba iguricaçu oraiño appurbat, ni çahartu naiz, farrilennaiz, eta orduan guztia cerorri gueldituco baitçaiç quitçu, cerortec eguinen duçu placer duçuna. Errepueta haur bere amac eman cerauçanean, lehiatu ceican berriz alaba, erraiten cioela.

Non est admodum gratum, ô mater Deo minus, quod qui offert, idèd offert, quia illius usum Suri. r: 10. die 13. septem. in vita. Sta Lu. cis.

Ene ama maitea, badirudi ecen etçaicala laincoari eder eta ez plantent, presunac, berac ecin goça deçaqueyengauçaren emaita eta presentatcea.

Da dum sana es, ne si moriens dederis, in vita dedisse arguaris. Emaçu beraz, ama, sendo çarela eztiaguçuten erançute, edo erran eztiaçaçuten, hiltceracoan emaiten duçuna, bortchaz emaiten duçula. Arraçoin hauc aditu cituenean amac, eguinen alabac nahi çuen guztia: eta bere hala, guero roco beguira egon gabe, berac bere escuspartitu cituen bere onac probetara.



Orai hemen venturaz erranen du cenbaitce Beraz hunelatan, eriec bere eritalunetan, eta azquen ordenuetan eguiten dituzten legatee emaitce, ezquentce, erremusinec eta bertee obra misericordiazcoec eztute deus valio.

Bada ordea, orducoec ere valio dute. Orai dea lehenecoec guehi ago. Hala erraiten du Chryf. hom. 10 in cap. 31. ad Roma tom. 4. *Melius quidem fuerit, multumque afferens fiducia, dum adhuc vivis pertati egentium succurrere. Si vero istud nolueris vel moriendo generosum quid facias, id enim licet non mutum habeat dilectionis, aliqua tamen est dilectio.* Hobe ago, meritu ago eta bihoz

ezportça garri ago baçatequeyen ere, cerorrec ceure efcuz bici cinela eta sendo cinela probe aren laboratcea. O dea guztiarequin ere, lehen faltatu baduçu ere, ezteçaçula hiltceacoan bedere falta, eguçi orduan cenbait liberaltasun. Ceren orduan eguiten denat ere, ez anhitç, baiña cerbait valiocodu, Iaincoaz orhoitcen çarela aditcera emanen da Guehienic ofasuna duguño, eta gueure efcuz baiña guero ondoticere, eta bertceren efcuz ere daguigun ahal daguina. Munda haut bidazcoen ofatua da, iragaitçaz garen hemen

Gure seculaco ofatua, herria eta etcher bertce munduan da. Eta nehorc bere herria, eta bethiereco behar duen etchera igortcean ohidu aincinetic ahal da guiena, eta bai guero deus guelditcen baçaica, bera dohansan, Hala quin ere eramaiten.

Hala eguin behar dugu badaguc ere. Orai sendo gareño guehienic, baiña guero eritalunetan, eta hiltceacoan ere, eguin behar dugu ahal daguiguna. Igor deçagun aincinetic, eta daramagun gueurequin ere.

Baiña erremusinac, eta bertce obra on misericordiazcoac, eta vorondatezcoac vt ciric; ceren espaita heran hanbat peril, mintça gaitecin hureneco capituluan obra iusticiazcoec, eta obligacinoz-coec, eta dacusagun nola guztien gaitetic hequen gueure efcuz eguitera ondocoetara vti gabe, garen obligatu?

Nola obra obligacinozcoac, concientiaz çor dituzçanac ondocoetara vti gabe, cerorrec eguin behar dituzçun.

C A P. XVIII.

BAldin obra misericordiazcoac; nola baitira probeen laboratcea; bilucen beztitcea, gosse, eta egarri denari; iatera, eta edatera emaitcea, bat bederac berac bere efcuz, bici dela, irabaci handiric eguitechotz, eguin behar baditu: cenbatenaz berac bere efcuz. Ondocoetara vti gabe, eguin behar çoitu obra obligacinozcoac, iusticiazcoac,



eta concientciáz çor dituenac ? Nola baitira ebatien bihurttea , çorien pagatcea , erauci dituen falso testimonioen satisfatcea , eta erauguin dituen caltèn , eta gaixtaquerien erremediatcea ?

Baldin obra misericordiazcoac cerroreccuere escuz eguiten ezpadituçu , eta ez bereceri ere eraguiten , eguia da , eztuçu orduan merecimenduric içanen , baiña ez beccatu mortalic ere. Ceren obra misericordiazcoac , hargatic deitzen dira misericordiazcoac , eta ez iusticiazcoac , ceren cenbait behar orduan hestitan , eta premiaçotan baiçen , ezpaitara obligatu hequen eguitera. Baiña obra iusticiazcoetan , differentqui mintzatu behar dugu. Ceren hequen complitcera obligatugara beccatu mortalen penan.

Eta eztuçu ez pensatu behar , ondocoetara vtzteaz complitcen duçula. Ez eta ondocohey , certçaz paga esseituric , berecinic : eta seiñalaturic vtzten baderaneçu ere. Ceren nola erran comuna den beçala , orfoac ian baitçaque ardi contuetaric : hala çure ondocoac ere gueldi deçaque beretçat ; çuc bertcerentçat seiñalatuetaric. Eta certaco ibilli behar çara seiñalatce-quetan , eta bertceri cargu eman quetan ? Paga eçaçu cerorreccuere çor duçunaz gueroztic.

Erranen duçu , ez tut ordea certçaz pagaz

Baldin ezpaduçu , ecinac ez tu legueric. Orduan etçara obligatu pagatcera , pagatceco ahala duqueçun arteiño. Ez eta etçara obligatu pagatcera , baldin hartceco dunaç berac quitatcen baçaitu edo barccatcen baderatçu. Are guehi ago , hartceco dunaç , ez ecin bertceç edo bortçaz , baiña bere nahiz , eta vorondateç , iguriquitcen deratçu-nean , eta emaiten eppe , orduan luça deçaqueçu pagamendua eppe hartaraiño , baiña ez guehi ago. Paga ahal deçaqueçula , pagatu gabe , iabeaten vorondatearen contra , onaren edukitcea , beccatu da.

Eta haur hain ongui aditcen da çor iaquinaz , eta aithortuaz , nola gauça ebatiaz y eta ichilic eramanaz. Haiñ ongui pagatu behar da bata , nola bertcea.

Eta , ezta ez asco aithorrateen emaita , eta ez guero ceure ordenuan , eta hiltceracoan ; bihurtceco , eta pagatceco , gogo , eta vorondate içaitea ere. Baldin ahal badeçaçu , cerorreccubici çarela , eta ahalic , eta fitetz ena pagatu behar duçu ceure çorra , eta bai bihurtu ere gauça ebatlia , eta gaixqui eramana. Ezta asco ondocoey cargu vtztea. Hala emaitendu aditcera Doctor Navarroc. *Decedente è restitu-
via , cum possint , & non restituunt , sed le-
gant in testamento , non secure decedunt.* 17. num

Hiltceracoan , berec paga abaldeca , 69. quetelanic , pagatcen ez tutenec , baiña

Navar.
in Ma-
nualide
restitu-
tio. cap
17. num



bere testamenteretara , ordeneretara , eta ondocoetara vtzen dutenez, eztute ongui eguiten , eztira halacoac bere concientcietan mundu hunetarie segur partitcen , Guchi ago dio Doctor Nauarroc lecu berean.

Qui alienam iniuste retinet, & scit, illud se debere, si expectat donec condemnetur per iustitiam, peccat mortaliter. Cordun dela daquienac, eta iusticiaz condena deçaqueten arteiño, pagatu nahi eztuenac, beccatu mortal eguiten du.

Batçuec beccatu badaritçate ere, gauçabatsien pagatu gabe eduquitcea, ez ordea eztaritçate beccatu, çor iaquinari, eta aithortuari luçatcea.

Erraiten dute. Badaquit, eta badaqui çor dudala, aithortcen diot, eztiot vecatcen, eta badut pagatceco gogo, eta vorondate. Iduriccen çaitçu ecen baldin aithorra emaiten baduçu, eta pagatceco gogo baduçu hain bertcez complitcen duçula.

Baiña enganatcen çara. Ceren bataz gogo bera ezta asco, eta ez aithorra ere. Ceren çure gogoaz, eta aithorraz ere proberchu guti du hartceco duenac, pagamenduric ezteanean. Eta berriz bertcea, sendo dela pagamendua eguin ahal deçaqueyelaric, eri arteiño eguin nahi eztuenac, emaiten du aditcera, baldin eritasunic ezpaliz, eta eritasunac ondoreric ezpaliz, contu guti leidiqueyela. Eta

hala frogatcen da halacoetan: ceren eritasunetic escapatcen direnean, iduriccen çaye ecen aldihattaçotz, berriz eri arteiño segur direla, eta quito.

S. I.

NAhi duçu çuc, ecen çuc eguin behar cenduen descargua, eta eguin eztuçuna çure ondocoac eguin deçan. Bada vste duçu, çure dirua, edo hacienda, çuc ceure ondocoari, çure çorraren, eta obligacionearen pagatceco vtzen dioçuna, etçaicala çure ondoco hari ere, çuri beçain on, goço eta eder idurituco? Eztuçu vste? Eztuçu pensatcen, çuc beçala, hart ere bere demboran goçatu nahico duela? Eta erranen ere bai bere baithan? Niri neure aiticineacoac vti de-rautan hacienda haus, nabasqui, gaizqui, eta bide gabequi beretacotua çuen, eta guztia-requin ere etçuen satisfatu, eta ez bihurtu-bethi berequin eduqui çuen. Bada ez naiz ni; hura baiño obligatu ago. Eguia da, hart, nola haren ondoco bainaiz, manatcen nau bihurdeçadala: hala bada manatucodut nic ere neure ondoco. Baiña bitartean ene aiticineacoac beçala, goçatu nahi dut nic ere, eta eduqui neure demboran. Iccuçaçu nola batac bertcea gana vtciz, ezten des carguric eguiten; Eta nola halaber handic, eta halatan



çuc ceure burna galtcen duçun , eta ceure ondoco ere galtceco periletan ibentcen duçun. Ceren peril baira , çuc baiño guçhiago eztuen hartere descarguric eguinen. Ha cenbat Meça , cenbat arima cari , cenbat descargu dagoen eguin gabe , batrac bertcea gana vtciz , eta guztieç vt-

Petrus ciz.

D. ep. Ezta pontu hunetara gaizqui heldu Pierres
5. cap. Damiano daritçan Doçtor batec contat-
8. & re- cen duena. Dio Doçtor hunec ecen behin gu-
fertur a çon saindu batec icuñi çuela bere espiri-
S. An- tuan , ametsetan beçala , ifernuco suaren er-
tonino dian escalera bat : eta escalera haren le-
2. p. sum hen pauuan , eta maillean cegoela Conde
cap. 1. bat , iaun handi bat. Eta guero icuñi ci-
S. 5. tuela halaber çazpi Conde , ethorqui be-
recoac , bara bertcearen ondoan , escalera
hartan berean ceudecilla. Ceren bara bert-
cearen heredero , ondoco , eta elcarren onen
primu , eta iabe içan baitciren. Eta lehen bi-
cicoac gaizqui : eta bide gabequi beretacotu
çuena , eta satisfatu gabe vtcì : hala bigar-
renac , hirur garrenac , eta çaspi garrenac
ere vtcì baitçuen ezpaitçuen batec ere de-
carguric eguin : eta halatan guztiaç bata
bertceari cerraic çala condenatu ciren. Ha-
la gouerthatcen da bada egungo egunean ere
iende batçuen artean. Eguiten diturçu o-
hoiñqueriac , goraturic , eta borchaturic da-

durçurçu bertceren onac : eta çuc , edo eztu-
çu casuric eguiten , edo vtzentiditurçu
pagatu gabe ceure ondocoaren esperantçan ,
eta bai harc ere bertcerenean , eta hala hala
bertceac : ere eta handic , eta halatan , batac
bertcea gana vtciz , eta guztieç vtciz , vtzen
dira descarguac eguin gabe. Etçuen hala
eguiten Zaqueo aberats harc erraiten çue-
nean. *Ecce dimidium bonorum meorum do- Luc 15.
pauperibus, & si aliquem defraudavi reddo
quadruplum.* Neure onen erdiac emaiten
deçautet probey , eta baldin nehor enga-
natu badut , bihurtcen dut laur doble.
Eztu erraiten , dabo , emanen dut , ezta gue-
roco mintço , presentean erraiten du , do ;
emaiten dut. Eta baldin deus gaizqui era-
maitera guerthatu baçait , hura ere neure
escuz , bici naicela , eritu baiño lehen ;
neure ordeneretara , eta ondocoetara vt-
ci gabe , reddo , neure bihurtcen dut Ha-
la vorondatezco obrac nola obligacinoz-
coac berac bere escuz eguiten cituen.
Eta hala eguin beharditu , norc ere
nahi baitu merecimendu handiric erdiet-
si , eta bere concientcia segurqui segur-
ratu.

Iracurtu içatu dut , ecen behin guçon
batec cituela hirur aztore onac , eta fama-
tuac. Eta bere azquen finean , hetatic bata vt-
ci çuela çorbat baitçuen haren pagatceco



bigarrena, seme bat baitçuen, harendaco: eta hiturgarrena, arima-cari, meçatan empegatceco. Eta guero handie fite, aztore hetaric barta, ioan baitcen airaturic, eta ez guehiago bihurtu: erran çuen semeac, ioancen aztore huracela, haren aitac arima-cari vteç çuena. Etçuen erran, berarentçat vteç çuena cela. Etçaitecilla ceure ondocoaren esperançan, eta hanc eguinen duen descarguan fida. Ceren baldin cerotec bici çarela, ceure arimaz orai contuic eguinen ezpaducu, eta ceure egunduçun falta, ceure erremediatcen ezpaducu, ezteçaçula pensa, eztaquiçula iduri, guero çure ondotic çure ondocoac, çuc cerotrec baiño hobequi eguinen duela.

Guztioc nahi dugu salbatu, guztioç nahi dugu ioan parabisfura, eta guztioç dugu esperançça, bainan esperançça vanoa, alferra, eta iduriz probetçhu gutitacoa du, descargua eguiteco dituelaric, eta berac eguin ahal ditça queyellaric, eguin gabe, ondocoetara vtzen dituenac.

Bat dugunean, bia nahiditugu, bia ditugunean, hürur. Ongui edo gaizqui, çucen edo maccur, placer çaicu hartcea, eta berretcea, baiña gaitz, eta gaitçi gutitcea, eta bihurtcea: hartan min hartcen da.

Bada min hartuco bada ere, bihurtu behar da satisfatu behar da. Eta hobe da batequin çoacin parabisfura, hamarequin ifernura baiño.

Eta hobe da halaber vtzdiacoçun ceure vmeari edo ondocoariguti, eta on, ecen ez anhitz, eta gaixto. Gutie hec, ongui irabaci hec, descarguac eguinic, eta nori berea errendaturic gueldituco çaitçan appur hec, sumatuco dira, berretuco dira, gurenduco dira: baiña bertce guztieç fin gaitz eguinen dute: hetaric, hitur garren belhaunecoec guti gogatuco dute.

Iccuçaçun bada, eguiçu gogoeta, ea, çorric, edo bertceren onic, gaizqui eramanic, badu çunz: eta hec obligacinozcoac baitira, eta ez vorondatezcoac, hec guztien gainetic, cerotrec bici çarela, ceure escuz, bertceren pefçuiçan, eta esperançan vteç gabe, pagaitçatçu, iraunguitçatçu. Ceren halatan ceure vme c, primuac, eta oñdocoac peril handi batetaric atheracoitutçu: eta cerori ere, aicnetic descarguac eguinic, aifia handi batcan, eta salbamenduco bidean, orai danic çararico çara.





Cenbat calte eguiten duen iuramentuac , eta iuramentu eguiteco vsantçat , eta nola bearden lehen baino lehen vsantçat buratuçi.

C A P. X I X.

NOla gure lehenbiceo aita harc, gure natura leça haur, bere beccatuz nariatu, ataçatu, eta eritorquitu baitçuen, handic gara hain arrencuratfu, infirnatfu, eta on behar. Handic gara, ontafunera baino gaiztatafunera, eroria goac, ifuri agoac, eta eman agoac. Handic dugu adimenduan itfutafuna vorondatean malicia, eta memorian flacotafuna. Handic helduda halaber, gueçur erraitea, elccarren ez sinhestea, eta fidantcia gabe, be-thi gogan behartfu ibiltcea. Cein baira calte handia, elccarren artean bici behar dute-mentçat: hain handia, non gogan behartfu, iduricoitfu, eta fidantcia gabe bicitcea, ezpaita bicitee. Bada calte handi hunen erremediateco, ediren çuen laincoac bide-bar, cein baira iuramentua. Iccusten duçue-nean, etçaituztela sinhetfinahi, eta premia

dela sinhets çaitçaten, daguiçun orduan iuramentu daguiçun cin, eccardeçaçun ceure erranaren leccuco, laincoa, gueçurric ecin derra queyena, eta gauça guztien berri daquiçena.

Eta halaran leccuco harequin batean, eman diaçaçuten ceure erranean fede, eta sinheste. Hunetacotçat erran çuen laincoac berac. *Dominum Deum tuum timebis, & per nomen eius jurabis.* Içanen çara ceure laincoaren veldur, eta eguinen duçu, haren icenaz iuramentu. Deut. 6.

Eztaçu eguinen iuramenturic lainco falsoez, ceren hartan bide gabe eguincinaçalo eguiçaco laincoari, hari dagotan ohorearen, bertceri emaitiaz. Ceren nola iuramentu eguiten duçuean, eccartcen baituçu laincoa, ceure erranaren leccuco. Ceren hura da iuramentu eguitea. *Furare est Deum in testem adducere.* Eta hartan emaiten baituçu a litcera. Lainco hura dela eguiatia, eta gauça guztien berri daquiçena, cein baita ohore handia laincoarentçat, ezta araçoin emandaquion halaco ohoreric bertceri. Eta hala iuramenturic eguitecotz, eguiçaco laincoaz, eguin behar da, eta ez bertcela, eta ez bertceez.

Eguia da eguin diteque iuramentu, Ceruaz, lurraz, Sainduetz, eta bertce creaturez ere: Vide. 83.
Th 2.2.
q. 89. ar.
6. ad 1.



ez ordea hey laincoari dagocan ohoretie emaiten çayela, halaco agurric eguiten çayela, baiña laincoaren creatura beçala, eta laincoac hetan parte duen beçala: halatan eguin diteque hetçaz iuramentu, eta ez bertcela.

Ordea badirudi ecen orai legue berrión, ecin eguin ditequeyela, neholatan ere, eta nehortçaz ere iuramenturic. Ceren laincoac berac erraiten du *Ego autem dico vobis non jurare omnino*. Erran beçate bertcèc nahi dutena, baiña nic dioisuet çuey eztaguicuela neholatan ere iuramenturic, Hunen arauaz erraiten du iondone lacue Apostoluac ere. *Ante omnia autem fratres mei, nolite jurare, neque per*

Mat. 7.

Jacob 7

cælum, neque per terram, nec aliud quodcunque iuramentum. Sit autem sermo vester, est, est non, non. Guztien gainetic gomendatcen deratçuet neure anaia maiteac, eztaguicuen, batere iuramenturic, ez ceruaz, ez lurráz, eta ez bertceç: baiña biz çuen hitzcuntça, solhafa, eta mintçaia: ez, ez, bai, bai. Beraz hunelatan, badirudi, ezte la bat ere eta neholatan ere iuramenturic eguin behar. Eguia da, hala dirudi, eta hala da. Ezta bat ere iuramenturic eguin behar, premiaric eztenean, eta eguia bertcela frogá, ahal ditequeyenean. Baiña premia denean, eta eguiaren frogatceco, bertce bideric eztenean, eguin diteque, eta eguin behar da iuramentu. Ceren iuramentua bere

ethorquiz, naturaz, eta içanez laincoaren ohoratceco: eta bere finez, eta intencionez, eguiaren valia aracitceco, eta haucien, eta differentcien irauguitceco, eta ebaratquitceco ordenatua da. Halatan erraiten du erregue Davitec. *Laudabuntur omnes qui jurant in eo.* Laudatua içanen dira laincoaz iuramentu eguiten dutenac. Eta badio iondone Pauloc ere. *Homines per maiorem sui iurant, et omnis controversie eorum finis, ad confirmationem, est iuramentum.* Guiconec, berac baiño handi agoaz eguiten date iuramentu, eta hequen differentcia guztien fina, eta accabateca, iuramentua da. Ceren iuramentura emanez guero, cin eraguinez gero, ecin dateque, guchi ago haucitic.

Eta hala gauça ona, faindua, eta laincoac berac ordenatua da iuramentua. Ordea hartatic, eguin diteque bai iuramentuan beçatu. Ceren gauça ona, eta faindua da gorputz fainduaren errecibiteca ere, ordea aditcen da, ongui, eta fainduqui errecibitcendean, eta ez bertcela. Hala da bada gauça faindua, eta ona, iuramentua ere, ongui eguiten denean.



§. I.

Iuramentuac ongui, çuentqui, eta behar den bidean eguina içaiteco. Behar ditur hirur gauça hirur lagun, eta sostengu. Eguia, premia, eta çucena. Hala erraiten du Ieremias Profeta: *Jurabis vivit Dominus in veritate, & in iudicio, & iustitia.* Lehenbicitric, iuramentua behar da eguin, eguiaz, eta seguitqui eguiaz, eta ez dudan. Ceren bertcela eguiten den iuramentua, den gauçatic eztheusenaren gainean içan agatic ere, beccatu mortal içanen da.

Gueçurrez iuramentu baten eguitea, munduac hala ezpadaduca ere, beccatu handiago da, lagunaren onaren ebailea baiño, eta bai edo cein emazterequin parte içaittea baiño ere, ceren iuramentua, laincoa bera bere presunan viquitcen du, baiña bertce beccatu hauc, eztiote hain arras emaiten, etçaitça hala hurbiltcen Iben baleça Erregue batec leguea, eztiocela nehorc ere biciaten penan, nehoi behar ondoric emanen, eta guztiarequin ere, guertha balequio cenbaiti emaitera: Halaçac bide gabe eguin liaçαιο Erreguen. Ceren haren legue, eta manamendu

hautsi baitu. Biina ate ago eguin liaçαιο, baldin Erregue berari, bere presunan eman baliçao. Hala da bada gueçurrez iuramentu eguitea: hartan laincoa bera bere presunan viquitcen da. Ceren laincoa icendatu qui, gueçurraren aithor, eta leccuco eccartcen baita: cein baita beccatu handia, eta itlosa.

Beraz huncelatan iuramentu eguiten duçunean, lehenbicitric gauça, behar duçu eguin, ez gueçurrez, eta ez dudan ere, baiña vitez bedere eguiaz, eta eguiaren gainean.

Bi garrena, eguiaz, eta eguiaren gainean ere, ezta ez bere hala vanoan, premia gabe, eta aiccin guibel behatu gabe, eguin behar iuramentua. Vlatu behar da iuramentuaz, purgaz beçala. Purga ecin bertceç, eti çarenean, premia duçunean hartcen duçu; eta orduan ere ahalic eta gutiena, eta berantena: eta baldin gabe, iragan alba cindeci, ezluque hanc bere pareric, are hura hobe ago. Hala eguin behar da bada iuramentua ere, eçin bertceç, premiaç, eçure ohoreaz dihoarçunean, eta iusticiac hartara çuentqui behartcen, eta errequeritcen çaituenean. Ceren bertceç, baldin, ez eta bai aico den leccuan, eguiten baduçu iuramentu, eguiaren gainean içan agatic ere beccatu venial bedere eguinen duçu. Ezta editeiten eguin çuela



Ita S. rtho. 2. 89. art. ad 1.
 egundaino iondone Pauloc iuramenturic esquiribuz baicen. Ceren esquiribatcen ten gauça hobequi pensatcen, eta confideratcen baita, bere hala solhasean erraiten dena baino: eta bai halaber, halatan huts ere guti ago eguiten. Vstez bedere eguiaz, eta premiaz behar duçu eguin iuramentua.

Hirur garrera: ezta ez asco; eguiaz, eta premiaz ere iuramentuaren eguitea; baiña eguin behar da gauça onaren, eta iustuarren gainean, eta ez gaizqui eguiteco contuan. Eguiten duçunean iuramentu hautsi behar dioçula prefuna bari burua, edo bertce gaizqui bat eguin behar dioçula; beccatu eguiten duçu halaco iuramentuaren eguiteaz, eta are beccatu ago harren compliteaz. Eta baldin yste baduçu edo sinhesten baduçu, obligatu çarela complitea, hirur garren batez cagatcen çara.

Halaber eguiten duçunean iuramentu; cenbait ongulien ez eguiteco, probeari ez deus emaiteco, nehoi ez deus prestateco, edo eliçaz obligatu çarenean baicen; ez barurtceco, beccatu eguiten duçu, halaco iuramentuen eguiteaz, venial bedere; eta etçara obligatu hequen complitea, eta hobe ez complitea.

Halaber eguiten baitituçu bertce iuramentu

batçue, deus valio eztuten gauça batçuen gainean ez paita hequen hauzteaz calteric eta ez compliteaz p obechuric, nola baita, maharian iartcean, etçarela lehenic iarrico, etchean sartcean, etçarela aitcinean sarthuco: edatean eztuçula lehenic edanen.

Hunelaco iuramentu hauquen eguiteaz, ezta beccaturic behintçat mortalic, ez eta, ez compliteaz ere Iondone Petri erran baitcioen cin ez iuramentu eguine beçala, bere nabuñari; *Non la vabis mihi pedes in aeternum*. Ezterauz quidatçu secular çue niri oinac garbituco vti c rautçan, guztiarequin ere garbitcera, eta etçuen hartan beccaturic eguin. Ceren hanelaco iuramentu hautan, emaiten da aditcera çueure aldetic denaz beçin batean correfiaz, hala nahiguen duçneyela. Ordea vtz dirçaquegu çueure buruac, beccaturic eguin gabe vençutcera, iondone Petric vti çuen beçala.

Eta ceren iuramentu batçue baitira presenteco gaucez, bertce batçue ethorquicunecoez guztietan behar da eguia. Eta ethorquicunecoac, behar dira eguin, gauça onaz, malicitic gabe, enganamenduric gabe eta compliteco vorondatearequin, baldin compliteaz cenbait calte, nehoic lehen yste etçuenic, fortcen eta aguertcen ez pada: nola aguertu baitcen, erodesec eguinçuen iuramentuan.

Joan 13



Herodesec, venturaz gogoan gaitcic etcedu-
cala, prometatu cioen, iuramentu eguinic
nescatcha dantçari bati emanen cioela, esca
cedin guztia.

Eta oraiño orduan, on cen iuramentua Or-
dea guero escatu ceicanean iondone Ioannes
Baptistaren buruaren, galdu çuen iuramen-
tuac indarra etcen complitu behar.

Halaber badira bertee iuramentu, batçue
mehatchuzcoac, eta bai maradicinozcoac ere
aita amec bere vmey eta nabusiec ere bete
fehicy, eguiten derantçatenac. Hec guz-
tiac dira beccatu. Eta anhitz etan ere mehac-
chuzcoec, complitceco vorondateric gabe,
eguiten badiruzte ere, eta maradicio-
neac ere ez hitcez baiçen, çeren expallu-
quete nahi halacoric, guztiz ere hequen
vmey guertha lequien.

Ordea guztiarequin ere guztiaç dira bec-
catu. Çeren bataz, berceac bertee direla,
handic iccasten dute vmec ere maradicino
egosten eta burho eguiten: eta berriz bertee
çeren burhasoen maradicioneac anhitz etan
helcen çairte vmey, eta guelditcen dira
maradicatuac, Noeren ilhoba Chanaan ma-
radicatu, guelditu cen beçala.

Iuramentua den gauçatic gaixto ena; gal-
gariena eta perilosena, da vsantça Pre-
mia gabe eguiaz ala gueçurrez mintço den ba-
batu gabe maquillaren permatceco eta por-
doimartceco vrrats guztiaz, escuan beçala
iuramentuaren ere ahoan; hitz guztiaz min-
çatceco, erabilitcea. Ez eta bai asco, den lec-
cuan erraiteaz eta ençuteaz: bai laincoaren
pafionea: ez laincoaren odola, nor ezta iccra
tuc? Nori erçaitça buruco illeac larziuco.
Behintçat badio Spiritu sainduac. *Loquela mul-
tum iurans horripilationem capiti statuet & ir-
reverentia ipsius obduratio aurium.* Iuramentu
anhitz eguiteac, bethi burhoz minçatceac;
larzteintu buruco illeac, eta iende prestuec,
halacoric ez ençutea gatic, beharriacherstein-
tuzte burua bertee aldera itcultcen date.

Iuramentu anhitz eguitea, bethi burhoz
arneçuz eta maradicinoz egoitea eta minçat-
cea ifernuco vsantça da, eta hitz cuntça ifer-
nuan vsarçen dena.

Eta nolabat bedera bere hitzcuntçan baita
eçagun nongo den: Francelez mintço dena
franciaco dela: eta españolez mintço dena
españiaco: hala da bada halaber bat bede-
ra bere arneçuetan eta iuramentuetan eçagun

Eccles.
27.



Mat. 16

nongo den , ifernuco dela. Eta nola iondone Petri bere nabusiáz vccatu çuenean, erran baitcioten. *Tu ex illis es, nam loquela tua te manifestum facit* Eztuçu cer vccaturic, çu hetaric çara Jesu Christoren dicipuluetaric çara çure mintçaiari eçagun çara: Hala erran ahal daquidi caio arnegariari eta iuramentu eguitero vsantça duenari ere. *Tu ex illis es.*

Çu ifernuco etaric çara ceure mintçatcean; arneguetan, burhoetan eta maradicionetan eçagun çara. Ceren hori da ifernuco erdara; lengoala eta hitz cuntça, han eta hangoen artean vsaten dena. Ifernuan daudenac, bango dolore handiac direla causa, hec ecin paratuz, bethi daude arneguz, iuramentuz, burhoz eta maradicinoz. Hala erraiten du iondone Joannes Evangelistac. *Blasphama verunt Deum celi præ doloribus & vulneribus.*

Apc. 8

Eta nola parabisuratcen direnac, vsaten baitira eta hasten orai danic, hemen lurrean guero ceruan eguinen duten officioaren eguiten eta iccasten, laincoaren laudatcen: hala ifernuraco direnac ere, hasten dira, orai beretic, ifernuco officioaren eguiten, arnegatcen eta maradicino egotzen.

Icussico duçu, burhasoec eta nabusi-erche-coandrec, bere seme alaba schiac eta etcheo familia guztia, hargatic veltçuri bat ere eguin gabe, eta hartan bat ere damuric hartcen dutela iduriric eguin gabe, nahi duten iu-

ramentu guztien eguitero vtzten dituztela: Hec eta halacoac dira Escriba Phariseoac beçala, ceñec consentitcen baitçuten, eguin diatoten Jesu Christo çure salbatçailleari eta haren icen sailduari, hequen etcheoec eta bertce guztiec hanbat irri, eta escarnio.

Fin gaitz eguin çuten hec, eta hala eguinen dute, hala diren bertce guztiec ere. Ceren ifernura ioaiteco seiñale handi etaric bat da; iuramentu eguitero vsantça içaita. Usantça hura dutenec, aguiari badute cenbait ahalque bertce beccatuen cofessatceco, baiña ez bat ere iuramentu eguin dutela erraiteco.

Halacoac cofessatcera ethorcen direnean eta galdeguiten çaynean, ea cer beccatu eguin duten, bere hala, senda gailaz beçala, eta ohore bailliz beçala iuramentuac ibenceintuzte braucan, lehenbicoic hastean. Ha laincoac çu vquitçatçu, çu erremedia içatçu halacoac, ceren bertcela-eguin du hequenac.

9. 3.

I Laincoaren beraren ohorea, eta haren icen saildu-arena hain dabilçea elecarganic burbil,ccen baldin laitcoaren ohoreaz ibentcen bada lehen bicoic manamendua, halaber hartan icen sailduari dagocanaz, mintçatcen baita bi garrena.

Handia da laincoaren icen sailduari eccari



behar çaikan ohorea, eguin behar çaikan agurra, eta eman behar çaikan laudoria. Beraz lurrelantan, handia içanen da halaber eta itzulia icen faindu haren, vanoqui, premia gabe, eta eguiaz ala gueçurrez mintço den conturic eguin gabe erabilteaz eguité den beccatua eta descortesia. Baldin iccus baceneça ecen guicçon batec, meça erraiteco Caliça aldaretic harturic hartan nori nahi den, agueri ditent arlote, errumes eta bertec iende fueite guztietey emayten derauëla cantoin guztietan edartera, cer othe cenerraque? Gutienan bacenerraque hura dela luthertafun handia, gauça itzulia eta eztaquiçula, cer gaztigu ordena halacoari.

Bada baldinba gauça handi-agoa, eta ohore guehiago mercei duena da, laincoaren icen faindua, Caliça baino.

Eta guztiarequin ere, eztaquiçu eran den moledean Caliça erabiltece duenari, cergaztigu ordena: cer ordenatuco dioçu bada laincoaren icen faindua, hain deblauqui, antficabequi eta contuguri eguiniç, erabiltecco vfan ça duenari?

Iuramentu eguita da, erraiten dugun gauçaren sinhetz aracitecco, laincoaren leccuco deitea, eccarcea, eta ibentçea.

Eta baldin erraiten ditutçun hirtz erregel guztietan, dey baceneça Erregue bat edo iaun handi bat leccuco, mercei bacenduque eman lia çaçuten edo cein gaztigu, ceren hau

ra bailligateque halaco presunez contu guti eguita.

Cer merceico duçu, eta cer gaztigu içanen da araçoin eman daquiçun, hartaco bereco; aipamen guztietaco, laincoa bera, Erregue guztien Erreguea, eta laun guztien launa, leccuco deitcen duçunean, nola deitcen baituçu iuramentu eguiten duçunean?

Ecín erran diteque, cein handia den hartan laincoari eguiten çaikan bide gabea: eta beccatoreac berac ere, bere buruari garratcen dioen dainua, eta caltea.

Hargatic erraiten du Spiritu faindoac. *Non assuescat juramento os tuum, multi enim casus in illo.* Beguirautçu ezta dilla çure ahoa iuramentura vtfat ceren anhitz casu, behatza topa eta peril da hartan.

Nola anhitz mintço denac, peril baitu batean ezpada bertecan, bere hitz etan hutf eguiteco, eta errebelatecco, hala iuramentu anhitz eguiten duenac ere, du peril cenbait iuramenturen gaizqui eguiteco. Hain peril cen iuramentu eguiteco vfantça duenac behatu gabe, eta conturic eduqui gabe, noiz mintço den eguiaz eta noiz gueçurrez, eta dangonean deliberatua, eta prestic, eguiaren gainean beçala, orobat gueçurraren gainean ere iuramentu eguiteco: Halacoac, hala iuramentu eguiten duen guztiaz, beccatu eguiten du eta ifernuco bidean bere burua ibentcen du,



Handic Salomonec , ciauquenac beçala ; cenbat ealte ceccarqueyen iuramentu eguiteco vsantçac, erran çuen. *Vir multum iurans replebitur iniquitate, & non discedet à domo eius plaga.* Iuramentu anhitz eguiten duena, beheco da beccatuz eta gaixtaqueriaz, eta ezta haren etchetie apartatuko plaga, han içanen da in contru gaitça, edirenen da behar eztena.

Eta hala baldin contua ongui eduquitzen badugu, edirenen dugu, ecen prefuna atnegariac are mundu hanetan ere anhitz in contru gaitz içaitè duela eta anegu hec direla causa, anhitz bertce beccatutà ere erotcen dela eta azquenean, alde guztiz fin gaitz eguiten duela.

§. 4.

Beccatu handia da, eta probetchu gabe-coa iuramentua, eta iuramentu eguiteco vsantça.

Oraino ebaitea edo emazte batequin patetigaitea, ezta hain miretsleco, ceren hetan bada cenbait probetchu edo plazer. Baiña iuramentuan ezta probetchuric, eta ez plazeric.

Halaber gauça defohorezcoa eta defohora garría da iuramentua. Ceren hitz guztiaz iuramenta eguiten duenac emaiten du aditcera, gueçurria dela, eta haren errancy leccucoric gabe, sinhesteric ecin eman daquidiqueyela. Nola baldin guizon bati, erraiten dituen

dituen hitz guztietan nehor contra balequio, eta erran ballacote, etçaitugu sinhesten, ecartçu cenbait leccuco, defohore eman baillia çaiote. Hala hitz guztiaz iuramentu eguiten duenac, eta iuramentuez bere erranac flogatu nahi dituenac ere, emaiten dió bere buruari defohore. Ceren iccullitic eztela bera sinhesterico, ecartcen baititu lecucoac, ecin baitira iuramentuc, hequin batean sinhetz deçaten amoreac gatic.

Iende prestuec damu baitcen dute, hequen hitz simpleari sinheste emaiten etçaicanean, eta iuramentu eguitera, nehorc behartcen dituenac. Eta baldin çu hala behartcen begaituzte ceute dugu falta, cerori çara causa. Hala erraiten du San Crisostomoc. *Tu horum causa*

es, qui tam promptè & facile iuras. Ceren hain prestuqui eta erraxqui eguiten baituçu iuramentu, halatan hain maiz haitara behartcen gaituzte *Quod si hoc non esset, sed omnibus esset manifestum quod non iures, crede mihi dicenti, quod vel solo nuntio plus crederetur tibi quam iis qui multa iuramenta deserant.* Múduac balecusa ez-

ta erraiten baiña bethi eguiaz mintço çarela, eta tama hartan bateneunde, sinhetz naçaçu, dió San Crisostomos, ecen orduan çure hitz simpleari eta baxhunari, eta ere kheinuari, eta aieruari ere, sinheste guehi ago eman lequidicaiola, hanhitz anegu eta jura-

Chris. hom. 9. in acta apost. Tom. 3. Chryl. ubi 5.



mentu eguiten duteney baiño. Baiña nola bai-
itçara gueçurti eta fama harran baitçau de, ha-
latan etçaituste sinhesten : eta halatan ceron-
rec ere , ceure gueçuriac sinhetz araci nahiz,
hanbat arnegu eta iuramentu eguiten duçu.

Baiña cenbatenez eta çut iuramentu guehi
ago, hanbatenez nic guti ago sinhetz. Ceren
gueçurraren erraitera herabe eztuenac , ezta
gueçurraren gainean iuramentu eguitera ere
herabe içanen. Eta behin gueçurrean frogatuz
guero , nola iende iuramentu suac maiz
frogatzen baitira , etçaye handic harat halaco-
ey, sinhesteric emaiten. Ceren haur da gueçur-
aren gatzigua, eguia erraité duenē ez tadin sin-
hetz. Eta ezta mercei ere sinhetz dadin. Ceren
erran cõmuna den beçala otharre bat eguiten
duenac eguin ditçaque ehun ere , gueçuribat
erraiten duenac baderraque guehi ago ere.

Iõdone Paulo Apostolua , munduac da-
quien beçain fintqui conuertitu bacen ere , eta
faindutafun handi batequin hasi predicatzen
guztiarequin ere , Ierusalemra cen lehenbiçe-
co aldian ihe si çihoazcon bere lagun Aposto-
loac , etceitçan fidatzen , ceren vste baitçuten
ecen lehena cela , eta lehen beçala , heçuen
contra cebillala.

Hala da bada gueçurtia , behin gueçurrean
frogatu dena eta bai edo cein bertce faltaran
eroti dena ere:

Etçaitca handic harat halacoari verandutalac

appur bat froga arteiño sinhesteric emaiten eta
ez eman behar ere.

Ez eta etçaitca absolbacinoric , eta barcca-
menduric eman behar , behin , baitan , eta
guehiagotan bere iuramentuen , eguiteco
vsantça gaixtoa vtico duela cofessorari pro-
meratuz guero , bat ere vtoi gabe , bere lehe-
neco vsantçarequin berriz cofessatcera bihurt-
cen denean.

Nola amorante arequin dago ena , edobert-
cereoan ebatfiric daducana ecin absolba bai-
titeque amorantea vtz arteiño edo bertcerena
ahal badeça , bihur arteiño : hala iuramentu
eguiteco vsantçat duena ere, ecin absolba dite-
que vsantça harequin dagoeiño , haren vtzter-
ra enseia ditequeyen arteiño. *Quia tunc est in
statu peccati.* Ceren orduan beccatuaren egoit-
çan estatuon eta toquian baitago.

Eta hala pensa beçate cofessorc cer hari di-
ren haloac belhau netara ethortcen çaitzencan ,
teren eztira eguiteco gabe.

Eta badirudi hoberena liçatequeyela, behin
eracuftea eta aditcera emaitca cein peril han-
dian dauden : eta guero appur bat absolbaci-
noaren luçatcea, eta erraitca dohacilla eta bi-
hur ditecilla handic amotz egunen buruan ;
eta bitartean enseia ditecilla bere vsantça gaix-
toaren vtztera. Eta guero bihurtcen direnean
edireiten bada bat ere vtoi dutela eta vtztera
enseiatcē direla orduan absolba, eta ez bertcela.



§. 5.

HA lainco handia helas, cer iñanen da bada nitçaz? Ene mihi guztia da iuramentu eguiteco vsantçan barrenna sarthua, guztia da hartara emana, eztaquit bertce la minçatcen. Cer eguinen dut bada? Nola erremediato co naiz? Adi eçaçu cer erraiten duen pontu hunen gainean San Crisostomoc. *Malam Jurandi consuetudinem ab ore nostro auferamus franñu imponamus lingua. Nullo hic sumptu opus est, nullus labor exigitur, non inaiçet magna temporis mora exercitatio, sufficit velle & motum factum est res enim hæc à consuetudine pendet.* Iuramentu eguiteco vsantça ahotic khendeçagun, mihia bridç deç agun: eta nahi badugu, bada idigu Ceren ezta hartaracotçat, bar ere gauric eguin behar ez travailluric hartu, eta ez dembor a nhitz emplegatu. Asco da nahia, eguin da hain bertceç, ceren eguiteco haur vsantçatic helduda. Usatu çara anhitç minçatcen, hitç guztiaz iuramentu eguiten, vsat çaitcedu çu, bada idiqueçu, eta baldin eguiten, ezpaduçu, seiñale da, eztaçu nahi. Erranen medio, Lehenbico erremedioa da, hartcegoicean gogo eta vorondate fin bat, delibereçmen du deliberatu bat, egun hartan iuramentu

turic ez eguiteco, mihi az contu eduquiteco: Eta baldin halaric ere guerthatcen baçaitçu, hutç eguitera eman ceure buruari cenbait pena bulharraçio, erran Jesus, edo eguin cenbait obra on. Eta orduan hala enfeiatcen çarenean, ceure nahi gaberic, vsantçac errequerituric, cenbait iuramenturen eguitera, mihia limbartcen baçaitçu eztaçu hartã beccaturic. Cerẽ hura guztia dateque vsantçarena eta ez vo õdatearena.

Bi garren erremedioa, iuramentu eguiteco vsantçaren vtztecco, da erraitca, iuramentuaren orde, iuramentuaren leccuan. Bai segur ezç segur hala da ezta hala: eguia erraiten deratçat, sinhetç naçaçu: eznaçaçula guehiagotara behar. Hunela minçatcen cen gure saltatçaillea. *Amen amen dico vobis.* Egui az egui az erraiten deratçuet Hunela mintça çaitce bada çu ere, eta çande iuramenturic eguin gabe. Eta baceneundeque, baldin iuramenturic eguiten eztaçu egunean, hamar ezcuturen irabazteco segurantça bacenda. Bada baldinba, çure arimac, hamar ezcutu baiño guehiago valio du.

Bihoa beraz vrrun, iuramentua eta iuramentu eguiteco vsantça, ifernuco hitçcuntça beccatu idorra, goço gabea arimaren galtceco baicen deuz valio eztaçena. Eta bethore egun beretic gueroco luçatu gabe, egui az minçateco, eta iuramentu guztiaz vtçuric, ez eta bai ez segur bai segur erraitceco vsantça eta az



tuna. Ceren, bertela mingatzen çaren bitar-
tean, iaquiçu ecen peril handian bici çarela
ifernuco bide çabala daramaçula, eta azquen
finean eguiteco handitan içanen çarela.

Cenbat calte eguiten duten colerac eta
ensaigoac, eta nola behar den, lehen baino
lehen etsai goatic campora.

C A P. X X.

cedear. **B**Ethi ere, lehenbicittitic hartu dugun
chedeari, ahal beçanbat, aurthi-
quitzen diogueta, hari irraitquitzen
gatçaigala, hartara destatzen eta
encaratçengarela edirenen dugu gure guero
hunc prefuna herratsuen, erriertatsuen, eta
hasserre corren artean ere, baduela bere ofatua
eta iarlecua. hetan ere, calte handiac eguiten
diruela. Ceren adisquide batequin hautsten
dugunean, baldin bere hala, ofatcera eta bat
eguitera enfeiatcen ezpaçara iaquiçu ecen;
guero eta guero gaitciago içanen çaiçula,
guibelatuco ago, vrrunduco ago eta ezhan-
fiatuco ago çarela, Halaco moldeç ecen
August. San Agustinec dioen beçala. *Sicut festuca erof-*
homil. *ci intrahem sic ira in veterata fit odium.* Landa-
rea çuhaitz beçala, hasserretasuna ere egui-

ten da gaitz erizcoa Hunen arauaz erraiten du
Senecac ere. *Optimum est primum irritamentum*
irae pratinus spernere ipsisque repugnare homini-
bus. Gauça ona da coleraren lehenbicico nar-
ritamenduari, muguidari eta abiadurari begui-
aren edquitcea, haci haren bocitceric, forçetic
era bihircetic beguiratcea. Hargatic erraiten
du londone Pauloc. *Sol non occidat super ira-*
cundiam vestram. Eztadilla iguzquia eror çuen
hasserretasunaren gaitçean. Erran nahidu.
Non duret usque ad occasum solis. Ezteçala
iraun iguzquia sar arteiño, etçoaztela, oherat,
mendecatceco desirarequin: accaba different-
ciac iguzquiz iguzqui. Ceren bertela su ttipia
handitcen den beçala, differentciac ere appur
bana handituco dira, eta behin handituz gueto
nequez ttipituco eta iraungico dira.

Nola gueure gogaraco gaucequin natural
qui borzten eta alegueratcen baicara, hala def-
gogaracoequin eta contracoequin tristecen
eta hasserretcen gara. Hain hasserretcen ecen
ecin baicarateque orduan behintçat haragui-
aren arauaz, coleratu gabe, senticortu gabe
eta mendecatceco desira gabe.

Nola ardia otsoaren iccisteaz latzten larrit-
cen, assaldatcen, icitcen eta iccaratcen baita:
hala eguiten gara gu ere etsaiarequin batceaz
eta incontratceaz.

Orduan haraguiaren arauaz ecin garate-
que, hasserretu gage, min hartu gabe, eta

Seneca
lib. i.
de ira
cap. 8.

Ephes. 4

Glos.
inter.



barrenean iraquitu gabe. Hunen arauaz erraiten du San Crisostomoc. *Caro quidem diligere inimicum non potest, quia dilectio, vel odium carnis, in sensu est, anime vero intellectu. Propterea anima quidem secundum rationem veritur, caro autem in vertibilis in passione tenetur.* Haraguiac ecin onhetz deçaque etsaia, eta ez sentitu gabe vtz, eguiten çaicán bide gabea eta defarraçoiña. Batordea arimac onhetz deçaque. Ceren arimac libertatea du, bere burua bere escuco du. Baiña haraguiac eztu libertateric eta ez bere burua bere escuco.

§. I.

NOla baitira bi gaitzerizco, bata naturala haraguiarena, eta bertcea librea vorondatearena, hala dira halaber, bi onherizte eta amorio, bata naturala haraguiarena, eta bertcea librea vorondatearena. Gure salbat çaillac içan çuen heriotcearen alderacotçat gaitzerizco naturala, naturalqui gaitz esten çuen heriotcea, haraguiaren arauaz ei çuen hil nabiz. Eta halatan eguin cioen othoitz bere aitari, erraiten cioela. *Pater si possibile est transeat à me calix iste.*

Aita baldin posible bada, iragan bedi erreganic Calixa hori: ezteçadala nic heriotceric errecibi. Ordea gaitzerizco naturala haraguiaren amorio librea:

Ceren librequi, bere nabiz, eta vorondatez hiltcen. Eta hunetan da agueri badiratequeyela elcarrequin gaitzerizco naturala, eta amorio librea. Baduquegu etsaiaren alderacotçat gaitzerizcoa, onherizcoarquin. Eta gaitzerizco librea, cein baita vorondatearena, da comunzqui beccatu, eta ez naturala, cein baita haraguiarena. Gaixto batec hilderatçu ceuse aita, cerorri ere eguin deratçu milla pensu, asmu salto, eta malicia: hequen arauaz ecin çareteque, gaitzerizco naturala gabe. Ordea gaitzerizco naturala hanc, ezteratçu amorio librea edequiten, eztu vorondate gaitzestera bortçatcen, eta ez gaizqui eguille hari barcatcetic, eta ongui eguitetic debeatcen, hargatic librea da çure vorondate.

Eta halatan anhicetan ere; eguiten diogu; gneure gaizqui eguilleari ongui. Eta halatan halaber etsaiaren onhesteco manamendua, eman cioen laincoac arimari, eta arimaren bothere libreak, vorondateari, eta ez haraguiari, eta ez haraguiaren appetuari. Eta hala bide gabe bat eguiten deratçutenean, ethortcen baitçaitçu alde batetic, mendecatceco; eta ordainaren bihurtceco mugida bat, guticia bat, eta desircunde handi bat. Eta berriz bertee aldetic, gauça ongui confideraturic, eta aitein guibel behaturic, guibelatcen baitçara, mendecatce hartaric: Orduan haragui



Chrif. Hom. 13. T. 2.

hasserretcen da , eta ez arima. Hala erraiten du san Chriostomoc. *Quando ergo homo irascitur , & non vult facere quod ira compellit , caro ejus irata est , animus autem non est iratus.*

Eta haur da arimaren , eta gorputz aren ; spirituaren , eta haraguiaren arteco guerla perilosa , eta victoria loriosa , batac , gaitz esten duena , bertceac onhesten baitu.

Haraguiaren gaitz erizeo naturala , haraguiaren lehenbicio mugida. *Primus motus* ; haraguiaren hasserretcera , eta mendecatcera laburzqui , eta consideracinoric gabe , oldartce , eta abiatce hura , bera soilqui , eta baccaric , ezta beccatu. Beccatu içaitecotz arraçoïñac behar du leccu eta parte , vorondateac behar du deliberatu , eta consentitu.

Areguehiago erran nahi deratçut , vorondatearen deliberamenduarequin , eta consentimenduarequin ere , hasserretcea , ezte la be-thi ere beccatu. Aitcitic hasserretceaz beçala , ez hasserretceaz ere eguin diteque beccatu. Nola arraçoïñaren contra , eta bide gabequi hasserretcea , eta mendecu bilha ibiltceca , baita beccatu ; hala halaber , hasserretu behar , denean , eta hasserretceco occasinoac denean , ez hasserretcea , da beccatu. Hala erraiten du san Crisostomoc. *Itaque non solum non peccant*

Chrif. Hom. 12. T. 2.

qui cum causa irascuntur , scia è contra , nisi irascantur peccant. Quoniam patientia irrationabilis , vitia s'minat

negligentiam nutrit , & non solum malos , sed etiam bonos invitat ad malum. Ez hasserretceac , sobera pacient içaiteac , faltèn dissimulatceac , ez icculsi iduri eguiteac , eta ez gatzigateac , emaiten du occasino-falta guhei ago eguiteco , eguinetan laquetceco , eta gaixtoen beçala , onen ere gaixta-queriara conuidatceto.

Hasserretu behar denean ez hasserretcea ; senticortu hehardenean ez senticortcea ; be-thibat , be-thi vli , lolo , malba , eta bate içaitea ; eztreustafunada , eta ez gaicon tafuna. *Sicut excessu iræ est malus & vitiosus , ita moderata iræ defectus à iusta reprehensione & peccati labe non est immunis.* Dio san Thomasec. Nola sobera hasserretcea baita beccatu , hala halaber guti egui , eguitea , ezta hoben gabe.

Arraçoïñearequin intencione onez , eta iusticiaren arauaz hasserretcea , eta hala hasserreturic , hala gatzigateco , desiraçaitea , gau-şa ona da , eta saïndua. Hain saïndua , ceen erraiten baitu san Basilioc.

Neque enim si contra iniquitiam desit indignatio , & ira , satis eam odio , quo decet , persequi poteris. Hasserretu gabe , appubat bedere coleran iari gabe , eta bers baïthan pitztu gabe , eztera gaixtaqueriac asco fintqui gatzigatcen , eta ez obra onac ere asco cintqui eguiten. *Neque damus aliter disciplinam filiis , nisi aliquantum irascendo* (dio

S. Tho. 2. 2. q. 158. ar. 8.

Ba fil. hom. 9. de ira.

Augu. de verb. Dom. Hom 16 Tom. 10



san Agustinec.) Eztu aitac bere semea, bere foseguan dagoela gatzigatcen, eztio beguia bihurritu gabe, cer eguin behar duen, eracusten. Beharda behar, behar denean Khar apurbat ailtcharu behar da, coleratu, eta hasferretu. Halatan du aitac escu, eta bothere, semeari gogorqui minçatceco, eta bai cargudunac ere, bere cargucoen contra, huts eguinac doh cinear iaquitceco, eta hasferretceco. Hala hasferretu ciren Moïsen, eta Matatias, Idoloac adoratcen cituztenen contra.

Exod. 31. 1. Mach. 2

Hala gure salbatfaillea ere etreçucitatu cenean minçatu ceyen gogo: qui bere discipulu batçuey, deitcen cituela adimendu gabeac, eta sinhets gogorrac.
O stulti & tardi corde ad credendum. Hala londone Pauloc ere mehatchatu cituen Galaciaco iendeac, erraiten cerauela. *O insensati Galathe qui vos fascinauit, non obedire veritatis?* Ha Galatar centçu gabeac, noie erhotu, eta liluratu çaituzte, eçpaitnçue orai, leben begala, eguia obeditcen, eta sinhesten? Hitz hauc d'fohorezcoac ciren Galatarrençat. Ordea cèren bihotz onez, eta intencione sainduz erranac baiciren, etcen bitartean beccaturic. Haurda san Agustinec ere erraiten duena. *Non irascitur fratri, qui peccato*

August. lib. rhe. 101 cap. 19. R. 5.

fratris irascitur. Ezta anaiaren contra hasferretcen, anaiac duen beccatuaren contra hasferretcen deña. Halacoac beccatua gaitz esten;

du, eta ez beccatorea. Eta hartan eguiten du midicu batec edo barber batec eziarequin eguiten duena. Barberac penatcen du, ebaquitcè du, odol husten du, etsai bat beçala erabiltcen du. Ordea ceren hura guztia eritafanaren contra eguiten baitu, eta ez eriaeren: ez intencione gaixtoz, baiña amorioz, eta sendatececo contuan, halatan harc eguiten duen guztia estimatcen da, eta harteen parte onera. Hala behar dira bada halaber arraçoinaren arauaz, intencione onarequin, faltan erremediatececo, eta beccatuen eritafunetic sendatececo vorondatearequin, eguiten diren liscarrac, ahacarrac, mehatchuac, eta erançuteac ere, estimatu, eta parte onera hartu.

¶ 2:

ORdea beguira beu bat bederac; beccatuen contra hasferretcen denean, sobera hasferretetic, amorioz, eta vorondate onez eguin behar duena, coleraz, eta mendecuz eguitetic. Ceren aita-amèc, predicaric, nabusec, eta bertceren escolatececo, eta governatceco cargu dutenec, eztute cargu hartan halaco moldeç quechatu, eta iraquitu behar, non gainez eguin deçaten, eta amorioa defa- quejatu.



morio, eta gaitcerizcoa bihurdaquien. Har-
gatic erraiten du Prophetac. *Irascimini &*
nolite peccare. Hasserre çaitzte, eta ezta-
guiquela beccaturic. Hasserre bai, ordea
neurritz, pacienciaren chedea, eta marra
iragan gabe: faltari bai, baiña faltaren
iabeari herratic, eta aihercunderic eduqui
gabe.

Gedea.

Ceure vmea edo cerbitçaria; corrigitu;
emendatu, eta centçatu nahi duçunean, an-
hitecan ere, cerori iartcen çara, cença be-
harrean ago. Ceren cençatce hartan ceure
vmeari eracustean, hain asserretcen cole-
ratcen, eta ceure cençatic, eta pacienciac
tic ilquitcen çara, non anhitz arnegu, eta
iuramentu eguinic, azquenean, çure vmea-
ren, eta cerbitçariaren falta baino, çure han-
diago guerthatcen baita, eta cerori erreme-
diatuçun ago, eta cença behar ago iartcen
baitçara.

Bada ez bertcela baina, arraçoinarean, eta
iusticiaren arauaz, eta noren contra hasse-
retcen baitçara, haten ontasuna gatic, eta fal-
tea, gauça ona da, eta saildua. Eta molde-
huneran hasserretcea, deitcenda. *Ira per ze-
lum.* Zelo onezco hira, amoriozco hasserrea,
ongui nahizcoa. Baiña bada bertce bat, vor-
rondate gaixtozcoa, mendecuzcoa, ez becca-
tuaren erremediaceo, baina beccatorcean

berari, gaitz eman nohizcoa: Cein deitzen bai-
ta. *Ira per vitium.* Viciozco hira, beccatuzco
hasserrea, arraçoinarean contracoa, intencione
gaixto taca, soberaniazcoa, gainez eguina.
Huneratic, hunela gainez eguitetic, sobera-
hasserretcetic, eta coleracetic, sortcen dira
calte handiac, liscarrac, hitz gaixtoac, iura-
mentuac, differentciac, hauciac, gaitcerizo-
ac, heriotceac, eta bere buruen, eta bertce-
ren galtceac, eta eguitcotan ibenteac.

Anhitz gauçac eguiten derauca guiristinoari
gaitz, eta calte; eta hetaric bat da, eta are bu-
ruçaguietatic, hira, colera, hasserretasuna;
mendecatceco desira defordenatua. Hunec
arima, eta gorputza çaurteintu, hunec biac
eritceintu, egunac laburteintu, eta muga
baino lehen, illeac ere vrdinteintu. Hala
emaiten du aditcera Spiritu sailduac. *Zelus Ecol 30.*
& iracundia minui dies, & ante tempus senec-
tam adducet cogitatus. Hunen arauaz, eta
ereduz erraiten du Senecac ere. *Vitanda Senec-*
est ira, non solum moderationis causa, sed si- ep. 18.
nitatis. Beguiratu behar da sobera hasse-
retcetic, alde eguin behar çaitca hirari,
beguia eduqui beharçaitca colerari: eta ez,
ez, prestuqui, eta onhetsqui biciteca ga-
tic bera gatic, baina bai gorputzeco ofa-
suna gatic ere. Ceren hasserreta-sunac, men-
decatu nahi ac, barreneco heguigoac, ira-
quidurac, hudigoac, gorrotuac, corromioac,



eta herraç, arimari, eta gorputzari eguiten deraue calte, biçy senti aracitcen deraue, biac eriteeintu.

Eta halatan presuna hirofac, erreac, eta haslerrecorrac, ez ohidu, begui orde anhiç higatcen, eta ez comunzqui bere vmèn vmeric ere, bere ingurunean iccusten. Ceren bere barreneco coleraren suac, eta iraquinac, eriai guziac erratcen, elccortcen, eta idortcen baiterantça. Eta hala iccuffico duçu, bere eguitez iauzcor, eta mendecos diren presunac, baldin bere hala bere desiren arauaz mendecatcen ezpadira, egosten, etadeseguiten direla. Eta baldin halaber mendecatcera, eta escuen odolztatcera guertha badaquie, guero ondotic doluruac, eta atsecabezta tuac dabilçala. Halaco suertez, ecen nola nahiden dela, nahiz mendecaturic, eta nahiz mendecatu gabe: nahiz bere gogoa histuric, eta nahiz histu gabe, ezta halacoentçat damuric, atsecaberic, eta assalduric baiçen.

Vide Crisost. 4. T. 3. *Eta ezpere behaiçoçu haslerretua dabilan bati, nola mintço den, nola ahotic habuina darion, beguietarie iharrac iauzten çaitçan, lurra ossico ioiten duen, ethortcen çaitçan arartecoz eztuen conturic eguiten: eztioen nehoi ere ohoreric eccartcen. Aitçitric erho batec beçala, aitcin guibel behatu gabe: ethorquicunaz conturic eguin gabe, guziac gueçurztatcen dituen, desohoratcen dituen*

bulecatcen dituen: hil nahi dituen. Beha iaçoçu bada halaco bati, eta centça çaitte haren baithan. Ceren iaquicun ecen ceroni ere haslerre çarenean, hala çarela, erho çarela, itçu çarela, hordi bat beçala irri çarri çarela.

§. 2.

PResunac, haslerre denean, badirudi, eztirudiela lehena. Hargatic auisatcen cituen Platonec bere discipuluac, har ceçatelá, haslerre çirenean mirail bat bere aitçinean, eta haitan iccus citçatela bere buruac. Eta erraiten du Senecac ere. *Quibusdam profuit aspexisse speculum, perturbavit eos tanta mutatio sui.* Bat çuey on eguin içan deraue, haslerre çirenean, bere buruen miraillean iccusteac. Ceren handa eçagun nola colerac bat bedera muthatcen, eta lehen cena eztirudiela ibentcen duen. Eta badio san Chrisostomoc ere. *Quod si iratus seipsum intueri possit, nulla alterius indigeret admonitione, nihil enim iratio turpius.* Baldin presuna haslerreac, haslerre denean, iccus albaleça bere burua, ezluque, ez berriz haslerretceco, bertce auisuren beharic: Ceren orduan hain da itçusi, non itçustasun hanc berac, beguira bailleçaque, aitçinerat guchiago haslerretçetic. Coleran dagocnac hanbat er-

Fulgens 1.7. cap. 2. sen. 1, 2. de ira cap. 36.

Chryf. Hom. 25. in cap. 3. Joan. Tom. 3.



era herrac, arimari, eta gorputzari eguiten deraue calte, biey senti aracitcen deraue, biac eritceintu.

Eta halatan presuna hirofac, erreac, eta haslerreccorac, ez ohidu, begui orde anhiuz bigatcen, eta ez comunzqui bere vmen vmeric ere, bere ingurunean iccusten. Ceren bere barreneco coleraren suac, eta iraquinac, erai guztiaac errateen, elcortcen, eta idortcen baizerantça. Eta hala iccusfico duçu, bere eguitez iauzcor, eta mendecos diren presunac, baldin bere hala bere desiren arauaz mendecatcen ezpadira, egosten, etadeseguiten direla. Eta baldin halaber mendecatcera, eta escuen odolztatcera guertha badaquie, guero ondotic dolurac, eta atsecabezta tuac dabilgala. Halaco suertez, ecen nola nahiden dela, nahiz mendecaturic, eta nahiz mendecatu gabe: nahiz bere gogoa historic, eta nahiz histu gabe, ezta halacoentçat damuric, atsecaberit, eta assalduric baicen.

Math. 5 quam mercedem habebitis , nonne publicani hoc faciunt . Adisquidearen onhestiaz , cer irabaci , cer esquer era merceinendu vztedo çue içanen duçuela ? lentilec , laincoric eçagutcen ezutenec eta iende gaixtoec ere , eguiten dute horri , hec ere onheteintuzte bere ongui eguilleac. *Diligite inimicos vestros.*

Etsaiac etsaiac onhetsi behar ditutçue , gaizqui eguiten deratçueçaney eguin behar deraueçu ongui. Eta cenbatenaz eta hec çueç gaizqui ago , hanbatenaz çuec hey ongui ago. *Vince in bono malum.* Onguiaz gaizquia garaitu behar da.

Ordea cergatic onhetsi behar dugu çueure etsaia ? Eguiten deracunari gaizqui cergatic eguin behar dioçu ongui ? Dugun iaquin , dugun bilha cenbait arraçoïn.

Lehenbicico arraçoïna , alde guztiz lehenbicicoa , ezetz , ecin derraquegun beçala. Oin esferetan lotcen gaituena , da , laincoaren manua eta vorondatea. *Ego autem dico vobis , diligite inimicos vestros.* Nahi duenac berra nahi duena baina nic erraiten deratçuet çueç , onhetz ditçatçuela ceuen etsaiac.

Cicero de nat. deorum.

Pythagoras Philosopho handi haren discipuluec , etçuten bertea manuric behar , eta er-

arraçoïnic , iaquitea baicen , hequen nabusiac erran çuela.

Nabusiac erran du , nabusiac manatu du , beçaz hala da eta hala eguin behar da. Haur cen hequen hitzçuntça. Bada guretçat , çue çueure etsaiaren onhesteco , ezta asco içanen , onhetz deçagula laincoac manatec duela , iaquitea

Presuna batec , bide gabe bat eguiten deratçuean , çueerthat cen da , emplegacen baitira bitarteco c eta arartecoac , ongunden eguiteco lehenbicoric ethortcen çaitçu , ceure lagun bat ceure adisquidequide bat , eta hanc erraiten deratçu.

Badaquit vrliac bide gabe eguin deratçula baina vrriquitan dago damu du , eçagutteen du bere falta , eta hala ene amoreac gatic barccatu behar dioçu adisquidetu behar çarete. Hanela erraiten deratçu ceure lagun adisquideaco. Baiña çue hari errazqui erraiten dioçu ezetz , eztaçula nahi , çeren ezpatçat çaitça ahalque , ezpaitaduçaçu ceure burua baino gachi agoren.

Çue lagun haren ondoan , hanc deus ecin eguin duenean , ethortcen çaitçu bertce atarteco bat , handi agoa eta ahalquefun agoa. Eta ez hain errazqui , nola lehenari , baina çeren colera handian baitçau de hari ere emaiten dioçu eça erraiten dioçu , eztaquçula othoigauç a hartçaz mintça , çeren sobera çaudela errea çauttua eta çuiharran vçuitua.



Azquenean empletatzen da errègue bera, eta hartzere hala hau ten çaitu beratçe çaitu, etçatçaitça ecetz erraitera aufatzen.

Bada baldin lurreco parte baten Erregue bati, egun baldin bada bihar içanen eztenari aufatzen ezpaçatçaitça, ecetz erraitera mundu guztico Erregueari, laincoari berari, nolatan aufartuco çatçaitça ecetz erraitera còratçera, eta manatzen çaituenean onhetz deçagula ceure etsala, eztuçula onhetçi nahi eta eztiogula barccatu nahi, erraitera?

§ 1.

ERranen duçu, comunzqui etsaigoan daudenebere etsaigoaren ederztatceco eta estaltceco erraiten dutena. Nic Barccateen diot, eztiot gaitçe desiratzen, eta ez ordenatzen. Aiteitçe nic neuçetçat nahi nuqueyen beçanbat ontasun, demola laincoac. Baina eznaçaica mintçatu nahi, eta ez tut nahi mintça daquidan.

Ezta bertçe gauçariç, harequin deus ez tudala nahi baicen. Hunela erraiten duçu bairia eztaquit, ongui erraiten duçunz. Ceren badirudi ezen hunela, elccarrequin mintçatzen eztiçenac eztiçela vorondate gaitço gabe.

Eçagun diya bere hitz etan eta solhasetan. Ceren ezterraçete elcarrez onguinçe, itçhura-penez edo baicen: obretan ere elccarren behartzen, eta meneratzen diçenac, elccarr

halez helteen çaitça.

Bada gogoaz eta vorondateaz denaz beçan. batean, berac ibenceintut leccuco, ceren berec daquite cervorondate duten elccarren aldera còççar. Eta baldin ongui pensatzen eta consideratzen badute, edirenen dute, badutela barren hartan, cenbait vher dura, cenbait herra eta gorrotu, eta ez dioten beçain bere gogoa eta bihotzac garbi eta clar.

Erremental deguian, harotçaren futegui-an, hauscoac haice emaitetçe guelditcen direnean, badirudi eztela suric. Ceren bere halatçaçac, ilhaunez estaltcen baitira. Ordea higitçatçu appurbat hauscoac, eta icussico duçu nola bere hala berriz, sua aguertcen den: Hala aguertcen da bada elccarrequin mintçatzen eztiçenac, arteco vorondate gaitçoaren sua ere, den occasinoric tripiçenac elccarren behartzen direnean.

Ordea vorondate gaitçoric eztenac, ez mintçatcea, bera, ez salutatcea, edo ez conuersatcea beccatu othe da?

Baldin comunzqui, guiristinoac guiristinoquin, ahaideac ahaidequin, eta herricoac herrico equin beçala bidean, incontratcean, deus galdeguiten deratçenac, edo bertçe çasuri çuerthatzen denac ihardesten badiçu, salutatcen baduçu, eta vorondate gaitçoric ez içan, berçe çaineracoan laburçqui vtiçi agatic adisquide mami batequin beçala,

Vide
Caie. in
summa
verbo
odium.



harequin ez ibili agatic: dadirudi ez tala orduan beccaturic: guztiz ere baldin vste badugu, maiz mintgatceic, eta elcarrequin seguitceic, ethor ditequeyela calte, nola ethoiteen baita batgutari. Ceren badira iende barcu hain occasinotfuac, arrunquide gaitzac, batcari onditozcoac, eta in contru gaixtotacoac, non hobe baita halacoey alde eguitea, eta hequen bidetarie eta incontrustarie ihes eguitea, eta aldaratcea, iguriquitcea baino.

Ordea ceien apaitaturic ibiltceac, elccarren incontinuetarie ihes eguiteac, eta edergaillu baicen elcarrequin ez mintgatceac, erran nahi baitu, badela bitartean, cen bait etsaigoa eta vorondate gaixto, erraire hura gatic, etsai fama gatic, eta hartan emaiten den escandalua gatic baldin erraire hura, etsai fama hura eta escandalua iraungitcen ezpadugu vorondate gaixtoric ez iñan agatic ere, etçara penil gabe ceure concientcian, ceren obligatu gara, eta obligatu gara, baldin bartenean guiristino bagara campoan ere guiristino garella era çustera eta aditcera emaitera Ezcara obligatu adisquidequin beçala, etsaiequin gueure sequeretuez, eta eguitecoer mintgatcera, hequin maiz ibilcera, eta ez hequen gana, adisquidetara beçala ioaitera. Alco da salutatcea, munduac etsai eduqui ezcaitça queyen beçala, bicitcea, vorondate gaixtoric ez eduquitcea, eta escandaluric ez emaitera

Gaineracoan norc bere eguitecoac eguin ditçala, eta behar duena, behar duenarequin solhalla dadilla

Eguia da ordea, saindu igaiteco, guiristino comuncy abantail eramaiteco, ezia asco salutatcea, vorondate gaixtoric ez eduquitcea, eta ez escandaluric ere ez emaitera: baina guzti equin behar da iñan orobat, guzti equin behar da iñan solhalturic amoltsu eta arronter.

Eta are guehi ago ezta asco gaizqui, eguiten deracunati gaizquiric ez eguitea, baina ongui eguin behar diogu. Ceren hura da saindutaçuna, perfettasuna, debocinoan complitu içaittea, eta laincoac caritateaz eta amoriaz eman deraçun manu aren complicea?

§. 2.

ERran dugu barccatu behar diogula gueu-
re etsaiari eta amorio eduqui, ceren hala manatcen baitu laincoac. Ordea noiz manatu othe çuen? Orcegun saindu arratsean, hil behar çuen bezperan, bere azquen finean, candela escuan harturic beçala cegoenean. Emaitera orhoitcen da, bere senharrac hilt ceracoan, errancioen azquen hitçaz, eta bai senxa ero, orduco bere aitaren conseilluaz.

Bada guro laungoicoac bere azquen finean, mundu hunetarie bertcera partitceracoan, erran cerauen bere discipuluey, eta hequin baitan guiti guztioy.



Ene discipuluac, ene guristino maiteac; badaçafaque, nola nagoen, nola herioteca hurbil du çaitan, çarri hil behar dudan, eta neure testamentaren eta azquen ordenaren eguiteco orduan dudan. Bada ene azquen ordenua, ene azquen vorondatea eta manua hautada. *Ut diligatis invicem* Elccar onhetz deçaquela etsaiari barcca diagoçuela.

Joan. 15

Hunetan içanen çarete seinale, hunetan içanen çarete eçagutuac, eneac, eta ene esco-lan, eta compainian haciac eta icçassiac çare-tela. *In hoc cognoscent omnes quod discipuli mei estis, si dilectionem habueritis ad invicem.*

Joan. 13

Badaquique, cenbat bide gabe, eguin cio-ten, Joseph Patriarcha handi hari bere anaieç: Nola gaitceçsi çuten eta saldu çuten.

Eta nola guero halaber demboraren buruan, guti vsteric, bere anaia sal duaren beharrera, eta menera ethorri ciren, herçtura, handian iari çiren: Kain handian.

Ecen guero bere aita Jacob hilceyenean; hafi baitçiren elccargana vilduric, elccarri er-raiten. Cer içanen da bada orai gutçaz? Hilda gure aita prestua, ona eta faindua: eta hura bici ceino ongui guinen, segor guinen, ceren haren amoreac gatic, gueure anaieç barccaten ceracun.

Baina orai, nor valiatico çaicu? Nor ga-tic valiatico deracu? Gogo eta handi çuten bere baithan. Eta gogoetac, gogoeta eraguis

ten ceravela, errancioten elccarri. Lehen gueure aitaren amoreac gatic barccatu ceracun gueure anaieç, bada orai ere, haren gatic bera gatic barccatu behar deracu. Eta hautaracotçat ioan behar gaçait-ça aitaren partez miñçatcera, eta erran behar diogu harquetz molde hunetan.

Pater tuus præcepit nobis antequam moreretur, ut hæc tibi verbis illius diceremus. Obsecro ut obli-viscaris sceleris fratrum tuorum, & peccati atque mali-tiæ quæ exierunt in te. nos quoque oramus, ut ser-vo Dei patri tuo, dimittas iniquitatem hanc.

Quibus auditis, flevit Joseph. Launa, erraitendio-te Josephi bere anaieç, badaquinçu çure eta gure aita prestua hil dela, eta hil ere ongui eta fainduqui bici beçala hil ere. Hiltceracoan çu-re galdeguin çuen, eta hats beherapen handi bat eguinic erran çuen. Non da Joseph ene seme maite hura? Erroçue haren iccus min handi batequin hiltcen naiçela, eta neure benedicio-ne a badio dala. Erroçue halaber, oraino coan seme onac beçala beçhene vorondatea eguin duela eta orai ere eguin behar duela. Eta ene vorondatea, ene azquen adioa eta othoitça dela, ezta din orhoit, çuec eguin cinioten bide gabeaz, eta maliciac, baina nahi deratçuen barccatu, eta halacoric iragan ezpailliz beçala, anaia taçun on bat eduqui, eta eracutçi. Haur gomendatcen diodala, eta ez bertçeric: haur dela ene azquen adioa, eta hanc ene amoreac ga-tic eguin behar duena. Hunela bere aitaren pat-

Geni
ulti,



tez bere anaiac Iosephi mingatu ceitçanean;
beguiac busti ceitçan, nigarra iauci ceican: eta
nola mendecatuco cen ecen, befarca bere ana-
iey lothu ceyen, erraiten ceranela. Aitac ma-
nateen nau barcca diaçoçuedala: bada halaco
aitaren manua, eta halaco punradan eta dem-
boran atimac eguiteracoan emana, norc eztu
complituco: complitu çuen, guztiey barcca-
tu cerauen.

Hala bada guri ere gueure laincoac, bere
azquen finean hiltceco dembora hurbildu ceit-
çanean, erran ceracun. Iende onac bada cusa-
çue nola nagoen neure azquen pontuaren bez-
peran nola bihar hil behar dudán: bada baldin
orainocoan bat ere ontasunic eguin baderat-
çuet baldin deufetan ere ene alderacotçat çor-
dun edireiten baditutçue ceuen baruoc, igau-
ça bat eguin behar duçue enegatic, eta harte-
çaz quitatcen çaituztet. Ha launa erraçü cer-
ceren bihotz gogorra eta eçagutçça gutitacoa
içanenda, çu beçalaco aitaren manua, eta
pontu horretan, emana complituco eztuena.
Cer? Ellear onhetz deçaçuela, etsaiari ene
amoreac gatic barcca diaçoçuela. Haur da ene
azquen vorondatea, eta guztien gaitieie
gomendateen deratçue dana.

Beraz ezta ezetz erraiteric, barccatu behar
diogu gueure etsaiari, eguin ongui, eta eduqui
amorio. Ceren hala manatu baicaitu gueure
laungoicoac, eta manatu ere, ez ez noiz na-

hiden, baiña bere azquen finean, bat bedera-
ri, den hitceit ttipiena ere, bihotcean barrera
farthu behar litçay caion demboran.

Bigarren arraçoina, cer gatic behar diogun
gueure etsaiari barccatuda ceren mendecat
beretçat beguiratcen baitu laincoac.

CAP. XXIII.

NEhore bide gabe bat eguiten derat-
çunean eztu nahi laincoac çuc or- Deus.
daiñic tabur diaçoçü. berac hartcen 32.
du bere gaitiera, mendecatcea eta
iusticia eguiten. *Mea est ultio, & ego retribuam* Roma.
eis in tempore. Es laico gaizqui bat eguiten de- 12.
rarçunean, çuri baiño guchi ago eguiten dio
laincoari ceren hartan, haren manua hausten
baitu. Ordea eztu hargatic laincoac bere hali
gazitgatcen, iguriquitcen dio, eta iguriqui a-
gatic eztu desohorenic. Beraz eztuçü çuc ere
desohorenic içanen, berce munduraino igu-
riquitceaz, hareraino ez mendecatceaz. Bal-
din orrai paciencia baduçü, laincoari berari,
berac da guçela vtzten badiçoçü, çaren segur,
berac berari eguin çaicán bide gabea, eta çari
ere eguin deratçutena, colpe batez, escaz gabe,
eta mercei beçala gazitgatuco dituela, eta be-
har den deçeargua. etsaiari eraguiné deraucala,



Liuius
dec. 1.
lib. 1.

Senec
lib. 2 de
ira cap.
34.

Pfaln.
117.

Cerori ceure escuz mendecatu nahi baçara penatu behar çara, eta anhitz etan ere deus ecin eguinez guelditu behar çara. Ceren venturaz etsaia içanen baita, çu baiño indarlu ago, eta bo here lu ago. Eta Livioç dioen beçala. *Vana sine viribus ira.* Indar gabeco çolera, haf ferrea, eta mendecatceco desira parric ecin iragan deçaquey enarena, vano da, alfer eta guti valio. Eta erraiten du Senecac ere. *Ergo ab ira abstinendum est si ve par est qui laceffendus est si ve superior, si ve inferior. Nam cum pari contendere anceps, cum superiori furiosum & cum inferiori sordidum.* Nola nahi den dela beguiratu beharda iharduquitcetie, eta etsaiaren acometatcetie, nahiz dela etsai hura çure berdin. nahiz handi ago, eta nahiz ttipi ago. Ceren berdinarequin iharduquitcea, dudos da eta perilos, handia goarequin et hoqueria, eta ttipi agoarequin itzuli, eta desohore. Eta guziarequin ere haut hunela delatic, eta dela daquiçularic ere, iharduqui nahiz çabiltça, desira gaxtoz bethea çaude, eztiocça etsaiari barccatu nahi. Eta hartan ceure burua galtcen duçu. Ceren hartan ceure buruari, etsaiari baiño calte guehi ago eguiten baitioçu. Hala emaiten du aditcera Erregue Dauitec, erraiten duenean. *Circumdede runt me sicut apes.* Inguratu nenduten etsaieç, erlec beçala. Erleac nehor autsiquitcen duenean autsiquitcen ago du bere burua. Ceren bere ezteña eta bicia han vtzten baiticu. Hala guertthate

cen çaitçu bada çuri ere, etsaiari autsiqui eguiten dioçunean, barccatu nahi eztiocunean eta bide gaberic eguiten dioçunean, guehi ago eguiten dioçu, ceure buruari.

Eta pontu hunen gainean, gauça bat, erran nahi deratçut, iaquin behar duçu ecen, çuc ceure etsaiari ez barccatu agatic, eztela handic seguitcen, baldin harc bere aldetic bere eguin bidea eguiten badu, eztiocela hari laincoac barccatuco. Orduan ez barccatceaz, ceure buruari eguiten dioçu calte, eta ez ceure etsaiari.

Eta hala bethi ere bai, baina guztiz ere cerori ecin mendeca çaitzequeyenean, consola çaitte eta iaquiçu ecen, laincoac mendecatuco dela. Eta harc eztuela vtzten, eta ez vtçico ere, saltaric, gatzigatu gabe: eta çuc cerorec eguinen cinitten baino, cintqui ago, eta fintqui ago gatzigatuco dituela. Eta nola anhitz etan ere, aita batec bere semea ceharu du enean, çathitecen baitu cigotra, eta egotzten fura: Hala çure etsaia, çure cehatçaillea eta penatçaillea ere çathituco du laincoac, eta azquenean egotçico ifeinuco fura.

Beraz hunelatan presona batec, bide gabe bat eguiten, erraiten, edo pensatcen deratçunean erran behar dioçu laincoari. Iaina badacusaçu certan naicen, eta cer eguin derautan: eta çuri, hiri baino guehi ago eguin deratçu. Eta çuc badaquiçu, nic baino hobequi, cergarti gu eta cenbat mercei duen ezta beraz araçoinçu çaten leccuan, nic escuti har deçadan. Eta ha-



la arraçoin den beçala eta manatcen dugun beçala, cerorti vtzten deratçut ceure eguigu infficia. Eta hunein bertcez, ceren fida bainaz eguinen dugula. Oray danic mendecatutçat ca ducat neu re burua, eta guelditcen naiz neu-re baithan fofegatua, eta etsaiari barccatcera deliberatua.

Heiur garren arraçoina, eta oraicotz azquenda: bircevu behar diogula gueure etsaiari laincoac gueri barccadia çugun amore a çgatic.

CAP. XXX

BEhar diogu gueure etsaiari barccatu, guri ere gueure laincoac barcca diaçagun gatic. Ceren laincoac berac errana da, ecen baldin barccatcen baderaucagu guc gueure etsaiari, barccatuco deracula harc ere guri, baina ez bertcela. Eta ezcara gaizqui, guc gueure etsaiari barccatceaz, laincoac guri, barccatcen deracuncen: ecin erran diteque, cein irabaci handia eguiten dugun huetan. Ceren nola gauça appura baita guri eguiten çaicun bide gabea, baina handia, eta aldez infinituqui handia, guc laincoari eguité dioguna, gure barccamedua ezta deus laincoarenarequin comparaturic.

Badira gauça batçuc, berac baccari, bere eguitez gaitz baitira, baina bertce batequin iuntaturic, eta elccar harturic erraz dira. Odol

atheratcea copatcea, purga vher baten, edari min baten edatea gaitz da, penos da, baina ofafunarequin iuntaturic erraz da. Sendatcea gatic, gogotic, errecibitcen eta pairatcen dira. Hala etsaiari ere eguiten derauzquitçun faltén barccatcea, bera baccari bere egultez, gaitz da, Ordea iunta ezaçu, hargatic çuri laincoac, eguiten derautçatçunac barccatcearequin, eta erraz idurituco çaitçu. Errazqui barccatuco diogu ceure etsaiari, laincoac çuri barcca diaçagun gatic. Eta hala iende galduac eta adimen du gabeac içanen gara, baldin gueure probetçhua gatic bedere, gueure etsaiari barccatcen eçpadio gu. Eguigu contu, ea cenbat beccatu eguin ditutçun orai nocoan, eta cein handiac eta nahi badugu çuc barcca diaçatçun hec çuri çeure laungoicoac, barcca iaçotçu guc ere ceure etsaiari, eguité derauz quiçunac. Presuna batec bide gabe bat eguiten deratçunean erraiten duçu, eztiçula barccatu nahi, ez behintçat hain fite. Ceren defohore ere badela, bere hala barccatcea. Hori da blasphemia handia, laincoaren contra minçatcea. Ceren hori da laincoaren manuaeren cõplitcea, defohore dela, erraitrea. Barccatu behar diogu beraz ceure etsaiari, eta barccatu ere, ez ezedo cein moldez, ez hitzez itçhura-penez, campotic eta edergailluz: baina cin cinçez eta gogotic barrenetic eta bihorçetic, çeren iaçiquçu ecen bertcela ezteratçula laincoac



barccatuco. Cofessa ahal çaitetzque , gorputz
faindua errecibi , barur , oracinotan egon , eta
duçun guztia probey eman , baina hec guztia
etçaiçquitçu deus valiaturco , baldin barrenean
nehori herraric , heguigoaric , gorroturic ,
edo vorondate gaixtoric badiaducoçu Eztite-
que çauria fenda , elhorria barrenean deino ,
eztiteque beccatua barcca , vorondate gaiztoac
diraueino. Barberec buruco çaurietan , le-
henic haraguiã aldaiatcen dute , eta heçur ero-
coa aguertcen , bitartean odol vstelic gueldi
eztadin. Ceren baldin gueldi baledi , hanc mi-
dicinari eta egarten den erremedioari , indar-
ra flaca liaçato , eta venthutea edequi : Hala ar-
maco çauri hanetan ere , lehenic behar da bar-
reneco odol vstela , eta etsaigoaren vherita fa-
na athera eta garbitu. Ceren berçela ezta sen-
datceric , eta ez emaiten diren medicinec , eta
eguiten diren erremusinec barurec , oracinotac
eta bertee obra onec on eguiteric.

§ 1.

Eccl. 29 **B** Ere etsaiari barccatu nahi ezteraucanac ;
eztu edirenen bere behar orduan ararteco-
ric , eta ez orhoitz eguilleric. Ceren Spiritu fain-
duac dioen beçala. *In hominem sibi similem non
habet misericordiam , quis exorabit pro peccatis
illius.* Bere lagunaz , bera beçalacoç ezta
misericordiaric , eta ez vrricamenduric
notic eguinen du bada othoitz halaco-
ren

ren beccatnac gatic ? Ez fainduc , ez Ainguiruc
eta ez are misericordiaren amac ere. Ceren *Jacob 2*
ionbone lacuec dioen beçala. Judicium sine mi-
sericordia illi. qui non facit misericordiam. Mi-
sericordia gabeco iusticia , eguin behar etçaica
misericordiaric , eguiten ez tuenari. Etçaica
barccatu behar , barccatu nahi eztuenari.
Eta halacoac eztu berac ere nahi barcca
diaçoten. Ceren , *Pater noster* , erraiten duen
guztian , eguiten dio laincoaric othoitz , er-
raiten duela.

Dimite nobis debita nostra , sicut & nos di- *Matth.*
mitimus debitoribus nostris. launa barcca iaçta *6.*
gutçu gueure çorrac , guc gure gana çordun
direney barccatcen derauztegun beçala. Erran
nahidu. lainco iauna barcca iaçta gutçu çure
alderatçotçar eguiten ditugun faltac , eta bec-
catnac , guc gueure etsaiey , gure alderatçot-
çar eguiten dituzten hutsac , eta gaizquiã
barccatcen derauztegun beçala. Eta ala baina
ezterauzetçu çuc barccatu nahi , ceure et-
saiey , eguiten derauz quitçutenac , beraz ez-
tuçu nahi barcca diatçatçun çuri ere ceure
laincoac , eguiten derautçatçunac. Ceren nola
eguiten battuçu çuc çeure etsaiarequin , hala
eguiten dioçu laincoari othoitz , daguicla
çurequin.

Falta bat nehore eguiten daratçunean , er-
raiten duça duçun bothere guztiaz : Nic
taur hari barcca , lehen bicia galneçaque. Eta



eztuçu consideratcen , eta ez pensatcen , çue laincoari falta handi agoac eguin agatic , nahi duçula guztia requin ere , hare çuri guztia barccatdiatçatçun.

Considera eçaçu bada çue , ceure etsaiari barccatu nahi ezteraucaçuna , barccatu cerauela laincoac , bicia edequi ceraucaten etsaiçy , eta are guchi ago eguin ceraucala bere aithari hequen gatic othoitz , eta oraino ceure etsaiçez teratçutela çuri halaco minic ; eta chimicoric eguin ; considera eçaçu halaber , cer erraiten duen Spiritu sainduac.

Ecclef. 28.

Memento no vissumorum & desine inimicari. Orhoitçaiteci ceure azquen fineco eguitecoez , heriotceco pontuaz , arimaren ilquitceco dembora perilos hartçaz , eta orduan eman behar co duçun contuaz , eta hetçaz orhoituric , çizquitçu etsaigoac. Orhoitçaiteci no'la nahico duçun çue orduan , azquen oren hartan eguin deçan laincoac çurequin : eguiçu bada çue ere orai hala ceure etsaiarequin. Ceren haur da laincoaren manua ; haur da hare nahiduen : haur da bethi ere , eta guztiz ere bere azquen finean gomendatu deracuna.

Bihoa beraz etsaigoa , aparta Bedi egun beretic , guero co luçatu gabe , mendecatceco desira defordenatua. Ceren halatan içanen gara eçagun , eta seiñale , Iesu Cristoren escolan iccasiac garela , haren discipuluac garela. Eta bicico gara bihotz ycaçalduric , açaçalduric ,

eta iccarranic gabe , baquean dagoen bat , mendecuric gogoan eztuen bat , eta guztiequin adisquide , arrotter , eta solhafturi denbat , bicitcen den beçala.

Cenbat calte eguiten duen haraguiaren beccatuac , lehenbicicoric itsurcen duela adimendua , eta no'la behar d'n hartan sartceic beguiratu , eta sarribuz guero ere , leh.n basno lehen ilquitcera ençiatu.

C A P. XXXI.

BAldin bertce beccatuetan hanbat calte eguiten badu luçamendutan ibiltceac , erremedioaren guero co vsteac , cer eguinen du emaztçtaco beccatu an ? Haraguiari hain plazer çaicen placerean ? Bat bederac natural qui desitacen duenean ? Eta baldin erroen eguitera vtz badadi , atheratceco , eta camporatceco hain gaitz denean ?

Baina ceren materia haur baita hain handia , eta lacea , perilosa , eta limbutcorra ; ditçagun lehenic eguiten dituen calteac , eta emaiten dituen eguitecoac considera , eta conta : eta guero halaber eman behar çaitçan purgac , eta erremedioac bilha , eman , eta ordena.

Eta itfas hondar gabe hunetan sartcen nai-



cela , ezrut vste dela , eztaquienic , gure ari-
maren etsaiac direla hirur.

Mundua, Deabrua , eta haraguiā. Eta hirur
hautaric gaixto-ena , perilosena , eta barran-
correna , dela haraguiā. Haurda etchecho ohoi-
na , barreneco etsaia , bethiere gurequin da-
goena : Curari pipia, oihelarie errena, vrdaiari
cedena , eta haraguiari harra beçala , gau era
egun alha çaicuna ; tentatcen, eta narritatcen
gaituena , gueure ganic ecin egotz deçaque-
guna. Halaco moldez ecen erraçago baita
hartçaz minçatcea , eta beguiratu behar dela
erraitcea , beguiratcea baino. Hala erraiten du

Valer.
max. l.
9. cap 9

Valer. Valer. *Luxuriam accusare facilius est quam
vitare.*

Flaco da haraguiā eta sendo. Flaco deffen-
datceco , sendo tentatceco, eta quillicatceco.
Anhitz habe, fabore, eta sostengu behar du, on
eduitceco , erori gabe egoiteco, eta asco du
deus guti, occasino tripi bat limburteco, be-
haztopatceco , eta erotceco. Hargatic erran

Aug.
scrm. 20
intemp.
Tom.

Aug. *quē san Agustinec. Imer omnia Christianorum
certamina, sola duriora sunt praelia castitatis, ubi
quotidiana est pugna & rara victoria.* Guinili-
noen arteco guerlaric handienac , eta gogor-
renac , castitarearen guerlac dira. Ceren han
baita gudua , eta combata egunoro , eta victo-
ria , eta garaitia , bakhan , eta guritan. Halatan

Aug
Epist.
206.
Tom. 2.

da san Agustinec berac errana. *Nulla tot Dia-
bolus animas reti capit, quod laqueo pessimatum*

mulierum. Deabruac anhitz fare badu ere ari-
men atcemaiteco , eztu batez ere hanbat atra-
patcen, nola emazte gaixtoez, eta hec hedat-
cen , eta paratcen dituzten artèz, sarèz , la-
chioez , eta segadez.

§ I.

H Andiac dira haraguiac, eta haraguiaren
amorio desordenatuac eguitendituen
calteac. Eta calte principalenetaric bat , prin-
cipalena ezpada ere, da adimen duaren goi-
belteca, ilhuntcea , eta itsutcea. Presuna amu-
rusac eztaçusa , eztaqui cer hari den : bere go-
go guztia haraguiā daduca : iatean edatean,
ohean dat çanean , hartan pensatcen du : bere
solhasac, eta ametfac ere, hartçaz eguiteintu:
eztu nahi bertee gauçaz nehor mintça ere
daquion : itsuda , erhoda , cençutic campoan
da : Halatan lehen agoco Poetec pintatcen çu-
ten Cupido, amurusiaren laincoa , haur , eta
itsu. Itsu, ceren ez paitu iccusten. Haur, ce-
ren ezpaitu adimenduric. Eta badio Plutar-
cocere. Gaitz dela, amurus içaitea, eta cent-
guan egoitea.

Halacoa ez desohoreac, ez iendèn erraitceac,
ez onen gaitceac , ez fama gaiztoan iart-
ceac , ez loaren gaitceac ; sinean deusec ere

Plaaf.
in A-
pho-
the.



eztu guibelatcen. *O nager assuetus in solitudine, in desiderio anime sue, a traxit ventum amoris sui, nullus a reitet eam.* Bala-asto amurusa beçala, beguiac itfuturic, ihiztarien artetic iragaitenda : edo cein periletan sartcen da. Bere amorio defordenatuaz bai, bere amurufiaz bai, baina gaineracoaz eztu conturic eguiten.

Vfoa beçala da halacoa. Vfoac eztu, bertce hegaztinec beçala edatean burua goiti ailtchatcen. Edan gogo duena, abreac beçala, hatfic hartu gabe, burua goratu gabe, colpe batez edaten du. Bertce hegaztinec edateco curca gufietan, ahartara baccotchean, burua goiti ailtchatcen dute. Eta badirudi ecen naturaleçac berac erateutitric eguiten dutela hala Ceren nola orduan baitute perilio guehiena, ceren orduan baitaude gueldi enic viera beha : eta orduan baitira ihiztariez ere celatatuac, barrendatuac, eta guardiatuac, halatan daude hec ere iratçariac orduan : eta edaten duten vrhorta guztietan ingurunera behatcen dute, eta burua goiti, guardia eguiterco beçala ailtchatcen dute. Baina Vfoaceztu halacoric eguiten, haoz-pes dago alle arteino, eztu bitartean bururic ailtchatcen, eta ez ingu unera behatcen. Eta hartan da agueri vfoaren inocentcia, eta erguelqueria, perilio guehien duenean, baita eihoenic eta antficabenic. Hala da bada bere gogo guztia emaztetan ibenia daducana ere. Etfaia celatan

dagocanean, perilio guehien duenean, da galduenic, eta erhoenic. Ceren bere edate hartçaz, eta plazeraz baicen, ezpaitu deusez ere berceçz, conturic eguiten.

Cyto Emperadore handi hura, hain itfutu, Josephus de Ant. 11. lib. 11. cap. 3. eta erguel du çuen, Apaina bere amorangeac, non hartçaz nahi çuen guztia eguiten baitçuen. Alde batetic, eta bertcetic beharondocce hari ceican, batean, biçarra, bertcean beharriac thiratcen ceratçan : haur batequin beçala, harequin dostatcen cen. Eta guztietan Emperadore ethoa, hortçac hirrituric, irriz, beha cegocan : miraillean beçala hartan miratcen cen, haren aleguerateçaz, alegueratcen cen, eta trilletceaz triltercen. Eta emazte gaixtoac batçutan bere burua, berariac hasserre iduri eguiten çuen : eta orduan Emperadore çorac, ahal ciren asmuac, eta enfeiuac balacatecco, eta baquetceco eguiten cituen. Amorangea cen nabusi : cen tho : emaztea guiçon : oilloa, oillat. Erran behar da escu handia hartcen duela emazteac amurus itfutuaren gainean, halaco Emperadore bat, emaztheus bateç, hala errendatcen duenean.



f. 2.

Guiçona delaric ordenatua, emaztearen ere amorio itsuac, haraguiaren appetitu defordenatuac, hausten du ordenantça haur: guiçona eguiten du emaztearen muthil, eta azpico. Ezta gauça preciatu agoric, libertatea, eta nabusitasuna den baino. Bada hala bata nola bertea galteeintu amurus itsuac, emaztearen hitz ederrey, eta mainey behatcen çayenac. Hala galdu cituen bere libertatea, nabusitasuna, eta bai azquenean bicia ere. Affricoen Erregue batec, Semiramis, icen huretaco bi garien emazte eder famatu hura ceta causa. Eta içan cen casua Eliano grecico esquiribatçaille batec contatcen duen beçala. Ençun çuenean Erregue harc Semiramis haren edertasunaren fama, quilicatu cen, guticiatu cen: eraccari çuen, icussi çuen, eta icussi çuen beçain fite, atceman cen, sua pitztu cen, eta amorio bero itsu batez onhetfi çuen. Eta noiz, eta amorio hura baitcegoen goren pontuan, eta graduan, idurituric ecen orduan ceta occasinoric, eta paradaric hobereña, nahi çunenaren eguitico, eguin cioen emazte gaixtoac othoitz Erregueri, arren

Alian.
de va-
ria hist.
lib. 7.

dembora appur batez, bortz egunez; emanciçola bere çuen escua, eta botherea, bitartean utzceçala errefuman manatcera. Erreguec aircin guibel guti behaturic, eta Salomonen conseilluaz ere contu guti eguinic, ceneccerraiten baitu. *Non des mulieri potestatem Eccl. 9. anima tua, ne ingrediatur in virtute tua & confundaris.* Eztemoçula emazteari ceure duçun escua, eta botherea, nahi ezpaduçu ceure burua ahalquetan icussi. Baina malicianic, edo enganamenduric ahalçatequeyenz gogora ere gabe, erran cioen deblauqui Erreguec, baietz deufetan ere dudatu gabe: Eta are berac lehenic agur eguin cioen; berac bere escuz co-roaburuan ibeni cioen: eta manatu çuen, biciaeren penan, hurreneco bortz eguneran Semiramis harc manatcen çuen guztia; eguin cedilla. Eta hain aitecina iragan cen eguitecoa, non icussi çuenean emazte gaixtoac, nola cen obeditua, manatu baitçuen, Erregue berari burua edequi ciaçotela. Eta nic eztaquit nola hartu çuen Erreguec eguitecoa; baina bere hala manua complitu cen, eta trufan burlan burua edequi cioten. Eta gueldituen Semiramis Erregue, eta Erreguina: eta Erreguec itsua bere errefuma; eta bicia galduric desohorezqui finatua. Iccussaçu cer eguiten dituen emazteac, eta emaztetaco amorio defordenatuac, nola guiçona itsutcen duen; nola cer harti den eztaquiela milla erhoqueria



eguiten duela, eta bere buruaren iaun, eta
be ezten beçala ibentcen duen.

Zalenco Greciaco parte batçuetaco Erre-
gueac, icuffiric ecen beccatu hunec, bat be-
dera bere adimenduan barrera irfuten çue-
dro lib. la, campoan ere irfutafun hura aguer cedin
4, capr. amoteac gatic, ordenatu çuen, eta egarri le-
guea, nor ere erorico baitcen adulterioan, eta
norc ere behar etcen emaztearequin huts
eguiten baitçuen, halacoari, eta halacoy,
hainari, eta hainey, hala guiçonari nola emaz-
teari, iusticiac beguiac atheraco, eta iracico
cerauztela: Barrenean, culporen veldur ga-
be, irfutu cirenaz guero, campoan ere pena-
requin irfutu citecin gatic. Legue haur ibeni
çuen Zaleuco Erregue harc. Eta hain herfua
quibegu iratcen çuen, non ezpaitcen, fabo-
rerit, ahaideric: adisquideric, eta ez vrreric,
eta ez cilharrit hauts araci ahal ciatçaonic.
Huts eguiten çuenac, ihes ahal ceidiqueyen,
alba eguiten, baina atrapatuz guero, etçuen
barrea menduric, beguiac galdu behar citu-
en. Erregue hunec legue haur huncin cinç-
beguitatcen çuen demboran, guenthatu ce-
can Erregue hunen beraren femeari, legua-
ren hauftera, eta behar etcen emaztearequin
huts eguitera. Erreguec bere femearen falta
haur iaquin çuenean, laincoac da qui cenbat
damu hareen çuen; eta nola alde batetic bere
aitatafunac, femeari gana ceducan amorio na-

turalac guibelateen çuen, escuac lotcen ce-
rautçan; eta etcela arraçoïn aita batec bere
femea condena ceçan, erraiten cioen.

Eta berriz bertce aldetic nola iusticiac ale-
gatcen cioen, legueac beguiratu behar citela;
eta batari barccatceaz, bertceac aufartcia
hartuco çuela. Eta iusticiaren arraçoïn haur
bortiz ago idurituric, femea, galduco baçuen
ere, deliberatu çuen, eta manatu, iusticia
eguin cedilla, bere femea atceman iciaçotela,
eta beguiac leguearen arauaz athera ciatço-
tela. Errefumac iaquin çuenean bere Erre-
gueren deliberamendua, vildu cen comun
guztia, eta ioanceican guztia batetan othoitz
eguitera, arren nahi cioen bere femeari bar-
tatu. Ceren legue hura comuna gatic eguina
çela, eta comunac, hain Erregue onaren, eta
iustuaren amoreac gatic, aldi hartacotz bere
çucena quitatcen çuela. Comunaren othoi-
çac, eta femea ganaco amorioac anhitz go-
goeta eraguin ceraucaten, baina guehi ago
leguaren hautstea. Ceren iduriteen ce-
can ecen etçuela bere coroa segur içanen,
baldin tripiençat beçala, handiençat ere
iusticia eguiten ezpauçen. Eta hala anhitz
icçulinguru, pensu, eta gogoeta bere bai-
than eguinic, azquenean edren çuen bide
bat bere calteracoa, baina femearen gasti-
guaren atintceço ona. Okher hobe, irfua
baina. Ordenatu çuen, ecen halaz, eta leguea



ren arauaz, halaco hutific eguten çuenari, bi beguiac iraci, eta athera behar ceitçanaz gueroztic, athera ciaçotela aitari berari bere beguietarie bata, eta semeari bèretarie bertcea. Eta halatan, bien artean caltea iafanic, leguea beguira cedilla. Eta hala ordenatu begala complitu cen. Aitac, eta semeac bere beguietarie bana galdu çuten. Eta guero handie harat guelditu cen legueac confirmatua, semea gatzigatua, errefuma guztia iccaratua: eta halaco faltatan erortcen cenarentçat, barecamendu erdiesteço, esperantçaren athea, hertsia.

Laudatçecoa cen Erregue hura, eta bai ibeni çuen leguea ere: çeren eritasunari cegocana baitcen. Halatan itsutafunaz itsutafuna, gorputzecoaz animacoa sendatçeco, eta aincerat guebi ago eritçetic, eta halacoric guertatçetic beguiratçeco. Çeren haur da haraguiaren desira desordenatuac eguiten duen lehenbico caltea, eta colpea, adimenduarren itsutcea, liluratcea, nahastea, eta çoraturic ibentcea.

Haraguiaren amorio desordenatuac eguiten duen bigarren, eia hirur garren calteaz, ezuela den ahaicoarie hurcoenez ere conturic eguiten, eta ez hartaco iuramenturic complitcen.

CAP. XXXII.

Haraguiaren amorio desordenatua hain da gauça itsua, eta itsugarria, non halaco amorioa duenac ezpaitu batçutan ahaicoaz ere conturic eguiten.

Ingressus est Absalon ad concubinas patris sui, 2. Reg. 6. coram universo Israël. Sathucen Absalon munduguztiac ceçufala bere aitaren amorantçetara edo emaztetara, eta han hequin seguitu çuen, eta içan parte. Halatan mehatchatu cituen londone Pauloc ere Corintioac, çeren bere vgaçamerequin etçaten cenbat, bere artean sostengatcen çuten. Omnino auditur inter vos fornicatio, qualis nec inter gentes, ira ut uxorem patris sui aliquis habeat. 1. Cor. 5.

Hala erraiten da. Neron gaixto hanc ere, Erromaco Andre prestuen erdiac desohoratuç guero, eta iduri onçetaco muthil gazte.



bat, icusten çuenean, harequin ere, naturala
ça bera ere narda den beçala, seguituz guero,
azquenean bere ama propioaz amuruztu ce-
la, bere ama bera, ceinen fabeletic ilqui
baitcen demandatu, çuela. Eta hartaraz guero
emaztea bera ere comunzqui airatcen, quili-
catcen, eta gogoetan lurrera beha iartcen da.
Ceren materia hunetaco pilotu on batec
dioen beçala. *Illa est casta, quam nemo rogavit.*
Nehorc orhoitu, eta orhoiztu eztuena,
da casta, garbi, eta prestu. Anhiteran haz-
teintu osloqui oilloac, bere chito guziac,
mirua oldartu gabez. Anhitz egur eder guel-
ditcen da oihanean eccarleric gabez. Irrai-
tunic içan eztuena, mandaturic edo falhoric
eguin etçaicana, nehorc ernatu, orhitu, eta
behartu eztuena, erran ahal diteque segurqui
bere ohorean dagoela, eztela erori, eta ez
limburtu. Baina demandatuz guero, oldartuz
guero, bulcatuz guero, eta gaidenac, gai de-
nari, bere moldean, paradan occafinoan, dem-
boran, eta sequeretuan nabarbentiaric gabe
aditcera emanez guero, peril da, baldin choil
gogor expada, bera dadin, limbur dadin, amo-
ra dadin: Eta demandatua içaite hura, harta-
coa dela, eta ederra dela ençute hura, eder
iduri daquion. Bada Neronec bere amari
mandatua eguin cioen, eta ama ere etcen
munduco emazteric prestuena, beraz perile-
tan içan çiren. Eta bada errairen duenic, biac

Ovid.
El. 2.

Carroçan edo cotchean ibili çirela; eta han
bere iocoa iocatu çutela.

Hala Henrico, içen hunetaco çortci gar-
ren, Ingalaterraco Erregueac ere, bere emaz-
te prestua vtçiric, bere alaba bastarta, bert-
ceren emaztea ganic eguina, hartu çuen amaz-
te. Eta handic bere burua, eta bere errefuma-
co guiristinotasun guztia, galdu cituen, Lu-
therren heregiari entrada emanic..

Bada bertceric ere hunelaco çafuric, eta
exemploric anhitz, gairz bailligateque, laur-
denen ere contatcea. Asco da iaquitea, behin
behar ezten amorioa iaunduz guero, eztela
leguric beguiratcen, eta ez den ahaicoaric
hurcoenaz ere, conturic eguiten. Cein bai-
ta haraguiaren beccatuac eguiten duen bigar-
ren caltea.

Hirur garren caltea da. Ezta arneguric, iu-
ramenturic, eta ez falseriaric, emaztetan it-
futura dagoen batec eztaidiqueyenic, eta ez
gueguric ere erran ezteçaqueyenic. Han-
dic harat hala itfutuz guero, lehen hitz
onetaco, eta eguiatitçenac, eguiten dira
guegurti, arnegari, eta iuramentutçu.
Ceren bere çetiren histea gatic prometate-
cen dute anhitz, eguiten dute milla iura-
mentu: baiña guero nahi dutena, iragan
dutenean, eztute conturic eguiten, eztute
deus complitcen, guziac hautsteintuzte.
Eta hala etcen lehen agoco ientilen artean,

Petrus.
de Ri-
bade-
neira.
lib. 1.
Histor.
Angli-
ca. cap.
7.



Alexander ab Alexandro lib. 5. cap. 10. Pl. to lib. 5. de amore.

halaco; eta hartaco iuramentuez; conturic eguiten. Halaco moldez ecen ethorri baitcen Platon erraitera; laincoec ere dissimulatcen cituztela amurufen iuramentuac, eta promefac. Eta egungo egunean ere, eta halaco iuramentuetan cer sobera fidaturic. Ceren amurus itsutuac, bere placeren ondoan dabilta, eta ez bere promesen edo iuramentuen complimentuaren; Cein baita haraguiaren beccatuac eguiten duen hirur garren caltea.

Haraguiaren amorio d. sordenatuac eguiten duen laur garren calteaz amolisu, eta baquezco cirenac, eguiten baititu cruel, eta gueriatu.

CAP. XXXIII.

AMorio desordenatuac hanbat calte eguiten du, non behin harc itsutuz guero amolisu, eta baquezco cirenac ere, eguiten baititu anhitcetan bere desiren complitea gatic, traidore, bihorz gogor, cruel, eta ethaile.

Erregue David lehen, hain saildu, bihotzbera, eta misericordios cena; eta bere etsaiey ere bethi ongui eguiten, eta barccatcen hain ceyena; eguin cen azquenean hain

terent non Vriaf bere adisquide maitea, eta capitain leyela haren emazteaz goçatcea gatic, hil araci baitçuen.

Hala halaber frai Iban Guerin, hain saildu handi aren faman cegoen harc ere; Guirape los Barcelonaco Condearen alaba, gomendiotan eman ciotena, gorputceç içan çuenean hil çuen. Hala guerthatu, ceican iondone lacue Penitencialea deitcen çuten hari ere, hanbat demboraz etsai gaixtoaren tentamenduac, ichilie, eta aguerriç garaituz guero hanbat penitencia eguinez guero azquenean hain itsufqui eroricen, non sendatecco eccarri ceracaten nescato bati bere ona galaraci baitceraucan, eta guero azquenean bere beccatuaren estaltcea gatic, vra beheera egotci baitçuen. Hemen erran ahalditeque, gure salbatçailleac bere passioneco egunean, Jerusalemeco alabey erran cerauela.

Si in viridi ligno hæc sunt, in arido quid fiet? Baldin Erregue David eta erran dirugun bertice presuna saildu hec, han demboraz, haraguiaren appetituen verçuen, oracinotan contemplacinotan, eta penitenciatan egon ciren hec, hain torpequi, araguiac itsuturic erori baciren; cer içanen da, laincoz munduz eta concientiaz conturic eguin gabe laçoqui direnez? Eta are beccatu eguiteco occasio bilha dabiltaçanez?

Histor. montis. ser. cap. 2.

Metap. in vita eiusdem die 28. Januar.

Luc 23.



Aita batec bere semeari diaducon amorioa delaric handia eta naturala, guztiarequin ere, amorio desordenatuac, hain flatatcen eta cordocaten du amorio natural haur, non bat uetan erroctaric erauzten eta atheratcen baitu.

Salust. Catilina Erromaco guison gaixto harc, eta in vita quen seme bat baicen, eta hura ere ia adinetara heldua, obediencia bere manuoa, eta aflatara prestua. Eta gustiarequin ere, bere desira desordenatuac, Aurelia ceritcan andre batequin complicea gatic, hil araciguen bere seme hura. Ceren hura bici ceino, haren veldurrez, ezpaitceican Aurelia behatu nahi. Hala esquiribatcen du Elianoc ere Lenilla ceritcan andre handi batec, bere plazerac, bere plazerera, bere cerbitcari batequin iragaita gatic accusatu cituela bere seme propioac Erregueren aitocinean, erraiten cuela ecen tradore cirela.

Eta handic eguiaz, edo gueçurrez frogantçac eguinic gal araci ceriautzela biciac. Eta guero nehoren veldur gabe, guelditu cela, bere cerbitcariarequin, bere amorio itsuan itsutua.

Arist. 1. Halatan erraitendu Aristotelec, onguita 2. Polit. guin çutela lehen agoco Poetec, Mars eta cap. 1. Venus elcarrequin ezcontceaz. Mars eta Venus elcarrequin ezcontceaz. Mars eta Guerla, eta amurusia ezcondu cicuzten elcarrequin.

Ceren comunz qui amurusiatic sortcen baitira guerlac eta differentciac. Halatan halaber lehen agoco ientilec eracusteco, cer aztura eta condicino quen emazte gaixtoac, pintatcen çuten lehoi bat emazte beguitartearequin.

Ceren emazte gaixtoac lehenbician lausengatcen, eta balacatcen badu cere, ordea azqueanean, lehoi gofleac beçala larrutcen, eta defeguiten baitu Hargatic erraiten du Spiritu sainduac *Favus enim distillans labia meretricis* et *niidius oleo guttur ejus, No vissima autem illius amara quasi Absinthium.* Ez temoçula conturricemaztearen balacuari, eta enganamenduari. Ceren ezta darion berasca bezala dira haten ezpainac, eta olio bano leunago haten leppoa, ordea ondorea azquen fina Absintio belharra beçain min eta goço gabe.

Lehenbician amorio handia, azqueanean gaitz erizcoa errabiatua Lehenbico egunean besarca, hurrencoan colpeca. Adisquidetafunetic etsaitasuna, amoriotic defamorioa sortcen da.

Erran behar da handia dela Satan gaixtoaren artea, bi gauça hain differentac, nola baitira amorioa eta defamorioa adisquidetasuna eta etsaitasuna elcarrequin iuntatcen etabara bertcea ganic atheratcen dituenen.

Haraguiaren plazeretan ez ohi da dantçatic, eta irritic baicen iateric, edateric eta amorioric baicen, eta guztiarequin ere



ere etſa gaixtoac gauça hauc guztioe im-
prentuaz beçala bertce aldera icultceintu :
Onherizcoatic gaitz erizcoa : baqueric guer-
la , irritic nigarra , eta dantzatic (Herodes
baithan eguin çuen beçala ,) heriotcea athe-
ratcen du.

Honelatan athera dadin eguiatan Salomo-
nec dioena. *Extrema gaudii luctus occupat.*
Atseguin daſunaren fina eta ondorea atse-
cabea da , eta dolua : Ezti-Beraſcatic Ab-
ſintioa , plazeretic deſplacera fortcen da.

Amorio deſordenatua , bereaz eguin due-
nean , deſ amorio bihurtcen da. Haur da ;
haci hunetic fortcen den bihia , amorio
deſordenatua eguiten duen laur garren caltea ;
baquezcoen guerlati , eta bihotz beren , eta
amoltſuen omorio gabe , eta bihots gogor
eguiteate , eta errendatcea.



*Haraguiaren amorio deſordenatua eguiten duen
borz garren calteaz : ſoſeguric etſa pau-
ſuric gabe ibentceaz.*

C A P. XXXIV.

H Araguiaren appetitu deſordenatua
eguiten dituen , deſordenuez eta
caltez mintço garenaz gueroztic ,
goacin aitcinago , eta edirenen du-
gu ; eçen emazte guiça-coiac , eta guiçon
ema-coiac , preſuna putanerac eztuela deſe-
tan ere ſoſeguric , eta ez pauſuric

Nor erranen du , cenbat atſecabe , cenbat
gau eta egun gaixto iragaiten duen halacoac ,
hala guiçonac nola emazteac ? Nola compa-
nia preſtuaç vteiric , bere eguitecoey guibela
emanic , loa galduric , bera baccarric itçal
gaizca , airatua , baſatua , eta iduricortua ibilt-
cen den ? Eta erraiten duen bere baithan ? Ie-
cuſſi othe nante ? Cer othe diore nitçaz ? Eta
deus ençuten badu , diotela , haſſerretcen da ,
gaitzerizcoan batarequin eta bertcearequin
lartcen da. Ceren nahi luque , hura bera be-
çala , bertceac ere iſtu liien , eta nehoic ez
erran deus. Eta ala baina ezta hartazco ſolhaç
ſic baicen.



Guztiac, batat alde batetic, eta bertceac bertceric, saltza nahastan, eta iatioc en dute guztiac hartçaz mintço dira. Bertceric ezpalliz ere, bere amoranteac berac eccartcen dio betri franço: norc cer dioen, nor nola mintço den, direnac, eta ez tirenac, gamaiatcen derautça. Ceren halacoac, hartaco dira on eta ez bertceraco. Han da munduco elha betri, erran merran, eta nahasteca guztia.

Nic vstedut ecen emazterara emana den guçiona hala deino, ecin datequeyela ongui eta guttiz ere baldin ezcondua bada. Ezcondu gabe baten erotcea, behar ezten emaztebatequin seguitcea ezta ongui, beccatu da. Baina alde ezta hain miresteco munduco arauaz.

Ordea ezcondu batec, emazte ederra, eta prestua duen batec, hura vtiric, har deçalla itzulibat, begui ceihar bat, ezquel bat, betheriatfu bat, finean eztheus bat: eta harequin ioffia beçala egon dadilla.

Erran behar da adimendua itsutu çaicala memoria nahasi çaçala, eta vorondatea behar ezten aldera irçuli çaicala. Halacoaren etchean ezta guerlaric, liscarric, eta bicirec gaixtoric baicen. Ceren emazte ezcondua ezta deusec ere, hala guharran vquiteen, ezcan erazuten, eta ez bere tentutic, eta pacientiaric atheratcen, nola bere senbarr berterequin diabilcola iaquiteac.

Como bueno segundo
f. i. *o. g.*

BAina guero nahi nuque iaquin: guçon ezcondua bere emazte prestua vtiric, cerc hela, behar eztenaren hartcera itsutendu? cer alda guratcen du? Hitz gutiz ihardesten du San Hieronimoc. *Quidquid non licet magis desideratur.* Nehorc debecu den gauça, fori eztena desiratcen ago du, hartara lehi ago du. *Aqua furti va dulciores sunt.* Olca. dio Salomonoc. Vr ebatfiac ezti ago, eta goço ago dira.

Halatan Plautoc ere, hobequi ago saltceatic eguiten çuen oiñu, emazte ebatfiac ceçazqueyela: eta Poetec adulterioa deitzen guten, epascoa, ohoin quera. Haur da lehenbico arraçoina, ceren guçon ezcondua, berea baino bertceric nahi ago duen. Ceren berea ezpaitu debecu, eta bai bere ezteua, eta nehore debecura lehi ago baitu. Halaber bigarren arraçoina emaiten du San Geronimoc berac leccu berean. *Quod varietate dulce est, assiduitate vilescit.* Bethi ere coac, higuinça emaitendu, alda nahia eccartcen du. Nola guçon ezconduac bethi ere baitu bere emaztea bere escuco berez franquia, eta bertcerenaz escasfia, eta escas den gauça maitaro, eta iarraiquiz

Pro
u. 1. 5.



ığaiten dena desiratenago, eta goçorago idu-
ritcen baita, halatan presuna ezcondua be-
rea vteiric, bertcerena lehiatcen da, alda na-
hitcen da eta handie gaitcen da.

Ceren amorantea eguinez guero, haren
gana egoitzen du bere gogoa harequin, ga-
stac ceintu bere onac: handie harat bere emaz-
teari, eta haren ganie igan dituen haurrey,
gaibela emaiten detae. Eta baldie on han-
diac ezpaitu, ecin dateque errumeztu gabe.
Ceren amorantea, eta guztiz amorante mia-
ria eta escalea, hantz adarra b. çala da.

Huntçac inguratcen du çuhaitça, befatca-
tendu, edoquitcen du, eta azquenean ihar-
cen du. Hala banda amoranteac, bippiltcen du
larrutcen du, ariman, eta gorputcean ihartce du.

Vrricalquiçun da halacoa: eta bai amoran-
tea ganicaco haurra ere. Ceren nola ezpaita
legitimo, nola baita, bastari, bort, ezcont-
çaz campoan eguina, ecin mintça diteque li-
brequi ien dartean, ecin burrutie ailtcha deca-
que: bere hala lehenbicio liscarrean, puta
feme deitzen dute.

Eccl. 4. Hargatic erraiten du Salomonec, edo ha-
ren ahotie Spiritu sainduac. *De patre impio
quaruntur filii, quoniam propter ipsam sunt in
opprobrio.*

Aita gaixtoaz errençuratcen dira femcac,
ceren hura dela causa baitira desohorezco
Seme bastatac, berac eztu hobenic, baina be-
se

re aitarena gatic, eccarri behar da burua be-
hera. Solon handiac Atenascoen maestru-
ac umec bere aita- amearan dute obligacio-
az mintço dela, nola ohore eccarri behar de-
raueçan, eta bere behar orduetan, eta guztiz
te çahartcean, behar ditutzten faboratu, athe-
tate ceintu obligacio hunetarie bastatac, ezçot-
çaz landan eta campoan eguinac legitimo ez-
tirenac. Eta arra çoina, ceren aita ama hec el-
carrequin batcean, eta iuntatcean, intencione
guchi ago igan baitçuten bere plazer desorde-
natuen complitecco, seme eta alaba ığaiteco
baino, eta nola hequen vorodatearen contra
eta hec nahi çaberie eguinac baitira, hala du-
tela mereci gatzigu hura eta guchi ago ere.

Iccuillaçu cein gaizqui den guiçon ezcon-
dua, bere emaztea vteiric, behar eztenare-
quin dabillana, eta bai hetarie ığaiten den
haura ere.

Bada eritafun hunez cutfatua guerthatcen
den Eliça guiçona are da gaizqui ago, eta gal-
du ago. Perilda hala coac, ahide probe guti
ezcondaco duen erremufinac baxhan eguinen
dituen. Ceren amorantea eguinez guero, be-
re gogoa eta bihotça, haren baithan ibentcen
baitu, eta bere onac ere harequin gaitatcen
eta hondatcen baititu.

Bi beccatu suerte dira beguiz begui, eta at-
tez Eliça guiçonari contra dagotçanac, Eli-
çaguiçonaren etsaiac eta galgariac.



Bata da emaztequin seguitcea, eta bertcea etsaigoan egoitea. Nahi du laincoac, hai e etche-co cerbitçariac, appez ordenatuac dituen guztien gainetic bi abantail, baquea eta garbitasuna. Ceren sagaramendu garbi bat, eta baquezco bat erabiltcen baitu escuen artean. Beraz hunelatan etsaigoan dagoena ere, ez Baina guztien gainetic emaztètan dabillana ezta appetetaco on. Eta hain da eguia haur, non vste baitut ecen, emaztètan faltari ez tuen appeçari, bertceric anhitz falta içan agatic ere, hec guztiaç hobequi barcca, estal, eta dissimula daquidit çayola: eta bertce guztieç ez tuelala hala defuistatcen, eta ez bere ohorean nothatcen, nola emaztequin, ibiltceac, eta cutefatceac. Emaztetan eztabillan appeça, emaçu faindurçat: eta dabillana, hala dabillaino emaçu galdurçat.

Beraz hunelatan, principalqui Eliça guizonac, eta presuna ezconduac, baina guero beguira biteci bertce guztiaç ere, haraguiaren lohian sartetic, eta hidoiztatetic. Ceren behin hidoiztaruz guero, iaquin ahal deçaquete ecen caltiar, eta sosegu gabe içanen direla: ez tirela virriqui gabe guertharuco. Eta guero eta guero, cenbatenaz, eta guehigo, egonen baitira, hanbatenaz barren ago sarthuco, eta nequez ago ilquitco, eta garbituco direla.

Haraguiaren beccatutic beguira cecco, eta handic heldu diren calten erremediatceco, lehen bicico, erremedioa, eta bidea
Oracino 4.

C A P. X X X V.

H Araguiaren placerey, desira desordenatuey, eta eguiten dituen caltey, erremedio emaiten hasi baino lehen, erra nahi dut gauça bat, eta ibeni eta pausatua eguiaçco cimen du bat.

Emaztetaric escapatcea, castitatearen beguira cecca, haraguiaren beccatuan erori gabe eta cutsatu gabe egoitea, irantea eta perfeçeratcea, laincoaren donua, dohaina, emaitça, eta garacia dela. Eta garacia hura gabe, alfer direla, gure ahala, nahia permatceca, eta enseiu guztiaç. *Non est Virginitas qua pretio emitur, non virtutis studio possidetur.* Dio san Ambrosioco. Ezta ez Virginitatea diruaren pisuz, eta gure indarrez eta verthutez erdiesten den gauça, ceren haraguiac, haraguiaren vengutcea: naturaleçac naturaleçaren azpiratcea, gantz da. Hartacotçat bertceren faborea, naturaleçaren

Ambr.
lib. 5.
ep. 31.



gainean escu duenarena behar da. Eta hala iaquin ahaldegeque bat bederac, ezteçaqueyela haraguiaren contra victoria ossoric erdiets, bere ahalean fidatcen deino, berac eztruela defendatceco indarric asco, etsitua; gogatua, eta errendatua iar arteino: Behar du eçagutu, bere etsai haur garai çaicala eztirela indarrez berdin. Eta hala dela eçaguturic, behar du halaber lagun bilhatu, eta fabore escatu baldin nahi ezipadu caltiar guerthatu, eta vençutua guelditu. Haur da eguia haur eçaguturic, erran çuen Salomonec. *Vi sci vi, quoniam aliter, non possem, esse continens nisi Deus dei & hoc ipsum erat summa sapientia, scire i cuius esset hoc donum, adii Dominum & deprecatus sum illum.* Iaquin nuenean, ecin nençoqueyela erori gabe, laincoac eduquiten expanindaen eta hunē iaquitea ere iaincoaren donua cela ioan nintçaicān bere hala edireitera; eta eguin nioen othoitz: bere escutic eduqui nintçala, erortetic beguira nintçala, eta garaitiarequin guelditecco indar, eta antce eman ciazadala. Halatan eguia hunen berri ciauquienac beçala, eguin cioen othoitz San Augustinec

cap. 8.

August.
10 c.
cap.

ere laincoari, erraiten cioela. *Continentiam jubes, da quod jubes, & jube quod vis.* Manatcen duçu, beguira deça gula castitatea; emaçu bada manatcen duçuna, eta guero manaçagu plazer duçuna: manua beçala, emaçu, manuaren complitecco eta beguiratcecco

indarra ere, ceren halatan bai, baina bertcela ezta complitceric eta ez beguiratceric.

Bada haraguiaren beccatuan, lehen edo guero, aldez edo moldez, obraz edo gogoz, cutfatu gabe, edo limburu gabe egoitea, eta irautea, laincoaren donua eta emaitça, guero gueure indarrez, ecin erdiets deçaqueguna denaz gueroztic, erna gaitecin iratçar gaitecin, eta erortetic beguiratcecco, ahal diratequeyen habeac, sostenguac eta erremedioac bilha dirçagun.

Eta lehenbicico erremedioa; eta sostengua da oracinoa, othoitça. Gueuteaz denaz beçan batean, errendatuac iarturic, garaitia emanic, eranqui erranic, eztugula indarric asco eçaguturic; gueure laincoari heldaquigula, eta bere escutic eduqui çaitçala othoitz eguita. Eta othoitz hunequin batean ama Virginaren, castitearen patroin beçala ararteco ibentcea. Ceren baldin Eliçaco doctor batçuec dioten beçala, ama Virginia, are mundu hinetan cenean ere, nori ere, eta norc ere behatcen baitcioen, hari, haraguiaren desira defendenatnac eta gogoeta liçunac iraunguric, eta Virg.

hequen leccuan gogoeta garbi batçue, eta Virg. Garbiqui bicitecco, nahicunde handi batçue, cap. 7. pitzen eta emaiten bacerautçan: Cenba. S. tho. tenaz orai han goiritic, loriatic, hanbat 3. sent. credit eta escu duen leccutic, bere debotey, 9. r. ar. eguiazqui gomondatcen, çaiçeonsy erdiet- 3. ad. 1.

Ambr.
de insti-
tutio.
Virg.
cap. 7.
S. tho.
3. sent.
9. r. ar.
3. ad. 1.



fico derate, eta erdietsitue emanen deratue, haraguiaren tentamenduen haizatceco, eta vençutceco; indar, bothere eta garacia?

Beraz daguiogun laincoari othoitz eta oracino, emaiten diogula ararteco bere ama Virginia, beguira gaitçala, fabora gaitçala.

Ceren lehenbico erremedioa eta erremedioic hoberena, harraguiaren lobian ez sartceco, eta sarthuz guero ere, fite ilquitceco, aratz eta garbi guelditceco eta egoiteco, haur edirenen dugu, laincoari gogoz eta bihotceez othoitz eguita, eta ama Virginaren ararteco ibentcea eta enplegatcea.



Haraguiaren beccatutic beguiratceco, bi garren erremedioa; hartaco gogo, etey leccururic, ez emaita.

CAP. XXXVI:

BI garren erremedioa; eta erremedio ona eta hautua, emaztequin cutfatu nahi eztuenarentçat, da, hartaco gogoetez beguiaren eduitcea; heldu direla iccusten direnean athearen herstea. Sua pitzten denean da eracenic iraungitceco; eta bai landarea ere ttipi denean bir landatceco eta atheratceco.

Gogo-etetarie, pensatcen egoitetic heldu dira beccatu guztiaç, eta guztiz ere haraguiarenac: handi hasten dira, hec dira chertoac, hec dira landareac, eta erroac. Hec beraz behar dira handitceic beguiatu. Soldaduac etchean barrena sarthuz guero, nahi duena eguiten du: hala eguiten du bada halaber nahi duena gogoeta gaixtoac ere, gogoan ostatu hartuz guero, han bein pausatuz guero.

Suco inharra, suco chinda, bera ere bere buruz fite iraungitcenda; ordea çuc an ateraino iguriqui gabe, pausatcera ere vti gabe.



bere hala pontu berean, ceure ganicegortzen dugu. Hala bada emaztet-co gogoeta gaixtoa ere, bere hala aguertcen den beçain fite haïçatu vruundu, eta ceure ganice egotci beharda duçu.

Egun batez galdeguin ceraucaten frai Gil, san Franciscoren lagun faindu hari, ea cer moldez, edo nola garaiten cituen haragniaten tentamenduac, guticiac, quilicadurac eta hartaco gogoetac: Eta ihardetçi çuen. Ene vorondateaten atheac ioiten dituzten gogo eta gaixtoei erraiten derauet: Ea tenta garriac, itagan aiteinat: ezta hemen çuentçat ofstaturic eta ez pausa-leccuric. ezitue etchean barreña faterca vtzten, ezterauet beguitarteic eguiten ezterauet ofstaturic emaiten, ez naiz hequin goçatcen, eta ez solhasean iartcen, bere hala iauci eraguiten derauet: eta halatan; ez hec ni, baina nic hec garaitceintut.

Ethortcen çaitçu gogora behar ezten emaztea, eta berequico placera: eta çue gogoeta hura ceure ganice, bere hala, egotci, behar bidean nola egotcico duçun ecen haitan çaporatcen çara, goçatcen çara, eta are obran baitcina beçala, anhits etan ere, ceure gogoan ateguïn hartcen egotcen çara, eta hala egonez beccatu mortal handitan erortcen çara.

Ceren ez obratu agatic, obratceco gogoa, eta are obratceco gogoric gabe era,

gogoeta hartan atseguin hartcea, beccatuda, Hala erraiten dute Theologoec. *Non solum consensus in actum, sed etiam consensus in delectationem est peccatum.* Hunen arauaz erraiten du san Geronimoc ere. *Perit & mente virginitas.* Galtcenda, gogoz ere Virginitatea. Eta badio Casianoc ere. *Mulierem ignoro, & virgo non sum.* Eztaquit emazteren berric, eta ala baina eznaiz virgina.

Ceren san Matheoc dioen beçala. *Qui viderit mulierem ad concupiscendum eam, iam merchatus est in corde suo.* Emazteati, desideratceco, eta desira hartan atseguin hartceco contuan, behatcen dioenac, eguin duque ia bere gogoac, eta biotcean beccatu Pontu haur consideraturic, eta huni erremedio eman nahiz, erraiten çuen san Gregorioc. *Celer ergo & facilis victoria contra libidinem est, circumspectio cogitationis, si quoties carnalia obuiant, ad aliquid aliud recurramus, quod libidinis incrementum non sit.* Haraguiari conta equiteco; eta haren ganice victoria erdiestece, bide onada, eta lasterra, hartaco gogoetey beguiaren edaquircea, eta equen-leccuan bertce gogoetari lotcea.

Gure gogoa ecin dagoque gogoeta gabe; ecin gauteque, cerbaitetan pensatu gabe; Pontua da ea certan pensatcen dugun, nolaco gogoetac ditugun; eta baldin gaixtoac badiugu, vtz hec, eta har hequen leccuan onac,

Hieronim.
ad Faustum.
Casian.
lib. 6.
cap. 19.

Matt. 5

Greg.
in cap.
1. Reg.



Beguiratçu , etçaudela emaztétan pen-
fatcen. Ceren penfatce hartaric ethortico
çaitçu atseguin hartcea : atseguin hartcetic ;
desiratcea : desiratcetic bidén eguita , eta
obiatcea. Etaguztiac heldu dira , gogoaren
lehenbico oihoitçapenetic , eta oihoitça-
pen hari leccu , eta olatu emaitetic , erroen
eguitera , eta handicera vtztetic. Beraz har-
taric beguiratu behar da. Ceren hura da
emaztéraco beccatutan erortcetic begui-
ratceco bi garren erremedioa : hartaco go-
goetey leccuric ez emaita , aguertcen dire-
nean khentcea , baratcera ez vtzte , eta ez
sofegatcera : veltçuri bai , baina beguirate-
teric ez eguita.

*Haraguiaren beccatutic beguiratceco, hirur-
garren erremedioa, vorondatearen
deliberamendua.*

CAP. XXXVII.

EZ erortceco , eta eroriz guero ere s
iaiquitceco , erremedio handia da ;
gogoa , vorondatearen delibera-
mendua : hain handia , non bertce
guztiac alfer baitira , deliberamendu hura gai-

be. Iaincoaren aldetic , behar da haren gara-
cia , eta faborea , eta guretic , gure gogoa
eta vorondatea.

Emazte batequin beccatutan çaudenean ;
eta peril handian , hala çaudela , ceure az-
quen egunac ediren çaitçan : cer bide iça-
nenda , peril handi hartaric escapateco ?
Emazte haren vtzteco ? Cer ? Gogoa , vo-
rondatea , apartatcera deliberatuqui deli-
berateca.

Ethorcenda Iubilio bat , edo besta - buru
bat , edo garçuma : Eta hetaric batetan , ic-
culliric ecen bertcela galdua çoacilla , egui-
ten duçu vrriquimendu handi batequin co-
fessione general bat , ceure mendean eguin
dirutçun falta guztiez , harturic voron-
date fin bat , ez guchi ago emazte haren ga-
na , eta ez bertce halacotara bihurtceco. Eta
handic harat hala complitcen duçu , et-
çara guchi ago bihurtcen. Haur da erre-
medio ona , eta hartu behar den bidea , itfu-
tua , eta beretacotua çadutçan , emaztearen
vtzteco.

S. I.

ORdea vtzte haur ; amorañtea ganic a
parratce haur , nola edo cer moldez ;
eguiten duçu ? Onez onetata , etçaitu gabe
ala etçaituric ? Baldin etçaitcen baçara ;

Qvi

Igildu-
co.

horra non duçun bere hala amorante haren ganic milla burho, eta maradicino: erran meran, eta desohore: erascodu, oiñu eguinen da, eztu nehore ichilduco. Bada etsaitu gabe, eta gaitcera ethonñ gabe, onez onetara apartatcea ere, gaitz içanen da, eta perilos. Ceren lehen trebatuac içan, eroriac içan: lehen beçala elcarrequin egoiten, ibilcen, mintçatcen: occalinoac ere lehen beçala, edo maiz ago presentatcen, eta guerthatcen: gogoa vru, aldacen erraz: eta emazteac ere behin guerthatuz guero, ez falta equidin. Bada eguiteco, bada certan penfa. Badirudi hobe liçatequeyela, gaitceraric, eta hasserreturic, partitcea, eta elcar vtztea.

Pontu hunen gainean bi gauça nahi situzque erran. Lehenbicioa Baldin etsaitu gabe; adisquidetafuna hautsi gabe, ecin aparta baçaitzque, hautsi eçaçu, etsai çaiteci. Eta orduan emazte hura hasserretcen dela, edo gaitceç iartcen dela iccussi agatic; eztaquicula conturic. Ceren hasserretce hura, eta gaitceç iartce hura, haren gainean içanen da eta ez çure. Eta halaber orduan, çutçaz gaizqui erraiten badu ere, paira eçaçu, ceren centre merecia duçu. Halaco ezteyeran halaco çopac; halaco egoitecoec halaco ondotea, plaçer iraganec atfecaba ohi dute.

Bi garrena çrran nahinuque. Baldin emazte hari, ceure amoranteari; adisquidetafuna

hautsi gabe; etsaitu gabe, eta liscartu gabe; aparta ahal baçaitzque; hala eguin çaitzque. Ordea nola apartatuce natçaitca, etsaitu gabe: Ezta gaitz, baldin partiba bioc, gaixtaquerian içan çareten beçala, ontasunean accort baçarete, nola içaiteco baituçue. Ceure gogoan deliberatu duçunean, debocinoan iartcera, beccatu suerte guztietaric, eta guztiz ere, emazteac etaric camporatcera. Orduan emazte hari, ceinequin behar ezten eçaçutça içatu baituçu, erran behar dioçu onez onean.

Iaincoac daqui, nola nahia baiçen ezpaliz, nahi nuqueyen, oraino beçala hemendic aicina ere çurequin egon, ibili, bici, eta seguitu. Baina hunela içaitera baducufat ecen, çu, eta ni ere galduac goçilla, fin gaitz eguiteco bidean garella. Eta hala gueure arteco eçaçutça gaixtoari, alde eguin behar dioçu, apartatu behar gatçaitça: eta hemendic aicina (gaineracoan adisquide guelditcen garella) halaco traturic gabe, garbiqui, eta prestuqui bici behar dugu. Nic hala nahi nuque: hala deliberatu dut, gogo hartu dut, har eçaçu bada çuc ere. Eta iaquicucen eztela hemendic aicina, halaco eguitecoç, enequin cer guchi ago mintçaturic: eta orai danic, nic hetçaz, adio erraiten deratçu dala. Eta orduan bertceac ere, çuc beçala erraiteco luque eta eguiteco. Eta vite dut gutic falta leça-



queyela, baldin alde batetic edo bertetic;
hunelaco bideric, molde onez idequi baledi.
Hona nondugun erremedio ona, bala arima-
co nola gorputzceco, eta bai munduco ere:
elcarrequin accordaturic, eta mintçaturic,
elcarganic apartatcea, eta berezteca.

Ordea lehen munduac daquiela beccatu-
tan egon direnec, eta beccatuaz denaz beçan
batean elccar vti duteneç, ez tute handie har-
rat, lehen beçala elccarrequin ibili, ian, edan;
eta solhasatu behar: ez tute, premiaçco
gaucetan baicen elccargana behar. Bataz
occafinoac occafinoapitz ezteçan gatic; eta
berriz bertcea escandaluric ezten gatic, eta
munduari ere ez teta ia hequen aitean, lehen
beçalaco beccaturic, aditcera emaitca gatic.
Ceren obligatu çara exemplo onaren
emaitera, eta munduari ere guirifino be-
çala bicitcen çarela eracustera: Halatan,
ez çure faindutasuna aguer dadin, baina
Iainco lauda dadin amoreac gatic. Eta halar-
ber baldin bada nehor, çu ceneunden be-
çala, dagoenic, esportça dadin hura ere;
çuehartu duçun gogoaren, eta vorondatear-
ren hartcera, eta çuc beçala beccatuaren
vtztera.

§. 2.

EMaztetic apartaturic egoiteco gogoaz,
hain ongui hartu behar da çahartcean,
nola gaztean. Ceren gogoaren aldetic denaz
beçan batean, bada hurran, hurran hanbat
peril çahartcean nola gaztean. Presuna bat
denean hordi, eta emaccoi, ian-edanera,
eta emaztetic emana; erraiten ohi da co-
munzqui halacoa gatic, vticico dituela dem-
borarequin emazteac, baina ez edateca. Ce-
ren emaztetic indarra facatuco baitçaiça,
baina ez edatecoa hala. Bada iaquiçu ecen
guiçon putanera, gaztean bethi hala içatu
dena, çahartcean ere comunzqui hala ohi
dela: ez obraz, baina bai gogoz. Ceren go-
goa bethi da gazte; eta gaztetafuneco v-
lantec çahartcean ere gogoa errequerit-
cen dute. Çaharrac beccatu guti ago egui-
ten badu ere obraz. Ordea guti haren egui-
teco, gogoa bethi hartan daduca. Eta haur da
san Gregorioc dioen beçala, Deabruaren
vlantça, obraz ecin eraguin deçaqusyen-
nean, gogoz bedere eraguiteca. *Calidus*
adversarius noster, cum ab effectu operis ex-
pellitur, secreta cogitatione polluere nititur.
Çahar içan agatic, gogoa emaztetican

Greg.
in Mat.



badaduca vrrats guztiaz erorico da , edo ho-
bequi mingatcera , bethi eroria egonen da.
Eta hala beccatu hunetarie beguiratcea , ez-
tago ez guztia adinean , eta ez indarrean , bai-
na bethi ere laincoaren faborea aitcinean
hartcen dela , dago gogoan , eta gogoaren de-
liberamenduan. Eta dohatfu da , emaztètao
indarra ioaiten çaicanean , hartaco gogoa ere
ioaiten çaicana.

Eguia da , çahartuz guero , adin batera hel-
duz guero , odola hotzten da , naturaleça fla-
catenda. Eta hala çahatceco amurusia da
gaixtoena. *Senex amore captus ultimum malum*
Ceren hura baita gogoarena , naturaleça bort-
chatu nahizco arena , occasino gabecoa , con-
denatceco seinalea ; eta Spiritu sainduari , le-
henerran den beçala , itfusi çaizeon beccatue-
taric bat.

Halacoari erran ahal daqui dicayo. Udo
ceritçan bati erran ceicana. *Impone finem ludo ;
quia satis lusisti Udo.* Asco iocatu çara , çahartu
çara ez guehi ago bihur. Accaba iocoa , cerori
accabatu gabe : vtz çuc hura , hanc çu vtci çu
be. Baina Udo hanc etçuen vtci : eta hala fin
gaitz eguin çuen , eta eguinen duçu çuc ere ;
baldin çahartcean bedere gogoa hartaric ala-
daratcen ezpaduçu.

Eta gogoa diot. Ceren eguiçu milla erre-
musina , eta obra on , eta çaren vtthez carga-
tua. Baina ezta probetchu , baldin bertce

Menan-
der.

detic gogoa emaztètan badaducaçu. Sinhet-
eçaçu ecen laincoarequin batean , guztia go-
goan dagoela.

Haur da hirur garren erremedioa , emaztè-
taric beguiratceco , hequin ez cutfatceco , eta
cutfatuz guero ere , garbitceco gogoaren de-
liberamendua , vorondatearen bertce aldera
deliberatuqui itçuliric , iatceca , eta egoi-
tea.

Haraguiaren beccatutic beguiratceco laur garren
erremedioa , ez alfer egoitea.

C. A. P. XXXVIII.

TRabailla çaite , eguircotan ibil
çaite , cerbaitetan emplegat çaite ,
alfer egoiteric beguita çaite , eta
halatan beguiratuco çara , emaz-
tèquin huts eguitetic ere. Ceren alferque-
riatic heldu da amurusia emaztètaco gogoa ,
orhoitça pena. Eta bai malicia pensatcea ,
eta nahastecamenduen eguitea ere. Halatan
erraiten du Aristotelec. Neccaçaleric , eta
laborariric baicen ezten herria , dela herriric
hoberena.

Ceren neccaçaleac , bere nequeaz , eta tra-
bailluaz baita duca contu , eta ez amurufiaz ,

Arist.
lib. 5.
Politica



eta ez nehoren nahastecatceaz. Traballata cen dena, edo eguitemotan dabillana, etu haraguiac tentatcen-handi. Aitcitic traillauec, atsecabèc, eta eguitemoc, bertec eguitemoric emaiten diote.

Hieron
ad Ruf-
ticum.

Eguia hunen frogatceco contatcendu san Geronimoc : Egiptoco monasterio batean cela fraide gazte bat, haraguiac bortitzqui tentatcen çuena, bero hutsez bethi ciraquite- na, hain iraquin ecen barurtu agatic, disci- plinatu agatic, eta bertce anhitz enfeitu eguin agatic, ecin iraungui bairceça queyen fu hura, eta ez egotz bere ganic harraco go- goa. Monasterio hartaco Abadeac, eguitemoc haren berri iaquin çuenean, iccussinic ecen faide hura galtceco periletan cela, eguin çuen gogoeta, cer moldez atheraco, eta li- bratuco çuen peril hartaric. Eta iduirituric ecen tentamendu hec guziac, alferqueriaric, eguitemoc gabe, aise, bere gogara, placerera, eta atsecaberit gabe egoiteric heldu çerçar- la, erautçaraci ceraucan falso testimonio gaizto bat. Accusatu çuten bi leccucoc Aba- dearen atcinean, Abadearequin berarequin adituric. Eta baciharducaten eleccarien ar- tean. Accusatuac vkha, oihu, falso cela, gue- çurra cela, etcela halacoric, etçuela hobenic. Baiña leccucoec, mantena, on eduqui, hala cela. Hunela cebiltçala, eta Abadea ere sen- tencia emaitetic berariaz guibelatcen cela ;

iragan cen vrthe bat. Eta guero haren bu- ruan, galdequin ceraucan Abadeac fraide ha- ri, ea nolç cihoacon bere haraquiarequin ? ea lehen beçala tentatcen çuenz ? Eta ihardet si- cioen. *Papa, vivere non licet, & fornicari libeat ?* Cer tenta ? Eztacusaçu certan naicen ? Eztacusaçu biciaz etsitu burran dudala ? Lotic ere ecin daidique dala ? Ioan dira ioan lehen- co gogo eta hec, orai bertec deraut gogoeta, eta eguitemoc. Iccussaçu cein aitez eman cio- en Abade hanc chedeari, eta nola atsecabea- ren emaitceaz, eta alferqueriaren, eta aisiaren quentceaz, quendu cerautçan haraguiaren tentamenduac ere.

Amor est animis vacantis passio. Amorio desordenatua, astia duena baurhan, presuna alferrean edireiten, eta ostatatcen da, hani da goçan arrotça, eta vianda da. Hargatic pintateen çuten Venus iarrinic. Ceren amo- rioa edo amurusia, alferqueriaz, aise, eta gueldi egoiteaz hazten, eta mantentcen bai- ta. Eta badio Ouidioc ere. *Otia si tollas, pe- riere cupidi nis arcus.* Baldin quen baitçatçu lib 2 de alferqueriac galdu dirataque Cupidoren arcu- ac, eztu nehore bere tragacéz çautuco ?

Gedeas
ii.

Chris.
Hom.
14. in c.
1. Mat.

Ouid.
remed.
amoris,



S. II

Comunzqui alferraç ian edanean ; eta ematé-tan ohi daduca gogoá. Hala eraitendu Casianoc. *Mens oitosa nihil aliud novit nisi de escis atque ventre.* Alferraten gogoetac , eta solhasac , ian edanaz , eta sabelaz diva , eztu bertcetán pensatcen ere. Hala-tan erraiten ciden san Geronimoc Ruslicoc. *Ama studia litterarum & vitia carnis non amabis.* Onhetz eçaçu estudioa , eta eztugu haraguiaren leccatuan atseguinic hartucoa eta ez gogoric edaquico. Hartcen baduçu estudioa fintqui , vteico duçu emaztea laçioa qui. *Hac fuit iniquitas Sodome sororis tuas, superbia, saturitas & otium.* Ierusalem , çute aixpa. Sodomaren beccatua , eta galgarría ; içan cen , vrguillatufona , aslea , eta alferqueria. Alferqueriarequin batean eguin cituen Sodomaco hiri harc hainhuts handiac , eta beccatu khiratfac , non igoric baitceratucan iaincoac , ez lur estaltceco , eta ez vrgarbitceco , baina bai fu , eta khar erratceco , eta chispiltceco.

Casía l. 10 cap. 8.

Hieron ad Ruf. ticum.

Lajoqui Ezech. 10.

Gispilt ceco.

Erregue Davitec , travaillatcen cenean ; guerlan bere presunaz cebillanean , conruguti eguiten çuen emaztez. Baina aitari , eta aitari iarriric , mandatariz , eta bere ordainez

eguirecoen eguiten hasi cenean , atceman cen bere hala ; eta erori bertceren emaztearequin. Salomon ere temploaren eguiten hari cen bitatteen , eztugu edireiten enganatu çu ; tela emaztec , baina temploa accabaturic alferqueriari emanceicanean , site atrapatu cen.

Bada Sanfon ere guerlan cebillaino , ecin egun daino garaitu çuten bere etsaiec , baina eguitecoac , eta guerlac vteiric , emazte baten altçuan bere plazerera etçan cenean , emazte harc berac enganatu çuen , eta guero etsaiec hartçaz nahi çutena eguin çuten.

Vigilate ergo fratres mei, quia nec sanctiores ad fratres in eremo. ser. 17. tom. 10
Dauid, nec fortiores Sansone, nec Sapientiores Salomone vos esse video. Caudere beraz iarriric ene anaia maiteac (dio san Agustinec) ceten eztaculat nic , çaretela çuec , David baino faindu ago , Sanfon baino valent ago , eta ez Salomon baino iaquinfun ago.

Queritur, Agestus quare sit factus adulter? in promptu causa est, d fidius erat. Galdequintenda , cergatic eroricen Egisto adulterioan? Prest da arraçoina ; ceren alferra baitcen. Bada molde berean erran ahal diteque ; Davitez , Sanfónez , eta Salomonez ere. Ceren hec guziac , bertceric anhitz beçala alferqueriac galdu cituen edo galceco perilean ibeni cituen.

Beraz hunelatan cenbaitetan emplega-

August.

ad fra- tres in eremo. ser. 17. tom. 10

Ovid. lib. 1. de re- medio amoris.



çaitte travailla çaitte , alferqueriatic beguira
çaitte. Ceren halatan emaziétatic ere beguira
ratuco çara.

*Haraguiaren beccatuti beguiratceco borz gure
ren irremedioa , consideratcea ecin ttipia ,
Eta laburra den hartaco placera.*

C A P . X X X I X .

E Maztetaric beguiratceco , heta
ra ez hain ifuria , erocia
eta gogoa egotia egoiteco
on liçateque , cen bait aldian
bedere , baccarric çaudene-
an , gogoeta eguitea , eta
ceure baitan consideratcea , ea nolacoa
handia , ala ttipia , luca ala laburra den
maztétaco placer hura. Ceren baldin teipia
eta laburra bada , erhoqueria handia da
hargatic prefunac bere buruari , banbat atfe-
cabe , eta eguiteco , nola anhitetan eta emai-
ten baitio , emaittea.

Bada frogatu duten guztiee baretan , eta
boz batez , aithortcen , erraiten , eta co-

feffatcen dute , placer hura , placer ap-
burra , eta laburra dela , hafi deneco ac-
cabatu dela : eta are batçutan hafi gabe ere ,
accabatcen dela. Ceren placer hartan berean
ere , comunzqui , placer baino , desplacer ,
guchi ago edireiten baita. Vtzen ditut pla-
cer haren aircin-guibelac , an arerainoco , eta
ondoreco eguitecoac , eta atsecabeac , han-
diac baitira , baina hartan çareneco bereco
placeraç mintço naiz : Eta diot ecen orduan
ere , hartan çarenean ere , cerbait efcastaçun ,
cerbait descontentamendu içaiten duçula ,
eta hura dela causa , orduan ere , guztiaç
ongui contatcera , placer baino desplacer gue-
hi ago içaiten duçula. Hala erraitendu fan
Babilioç.

*Oblettatio corpora voluptatis , plus dolo- Basil.
ris habet quam voluptatis. Haraguiaren in. Psalms
33.
placer corporalac , dolore ; eta desplacer
guchi ago du , atseguin eta placer baino. Ar-
racoinequin galdeguitendu iondone Pauloc
ere. Quem fructum habuistis in iis in qui-
bus nunc erubescitis ? Cer fruitu , cer irabaci ,
eta placer içan cenduten orduan , orai ahal-
quez ere bururic ere ecin ailchatuz , çaudeten
beccatu hetan ? Are orduan ere etcenduten pla-
cer offoric hartu , etcineten aspertu , eta ex-
aste. Eta ezta miresteco ez asletcea. Ce-
ren sua begala da haraguiaren beccatus : eta
suac eztu behin ere erraiten asco duela*



Ignis numquam dicit, sufficit. Ceren Glosac dio-
 en beçala. *Voluptates semper habent famem sui.*
 Prov. Haraguiaren placerac, bethi dira, placer
 30. Gl. gosse. Eta iduriteen baçaitçu ere, baldin
 ordin. behin ceure desira defordenatua compli ba-
 In cap. ceneça, hain bertcez sofega cindezqueyela,
 7. Luc. enganatcen çara. Ceren san Getonimoc dio-
 en beçala. *Libido numquam satiatur, & cum*
 Hieron *videtur extincta reaccenditur ussu crescit & de-*
 ad ma- *scit.* Haraguiaren placera, ezta behin ere
 trem. gustic asletcen, eta ez osloqui iaunguitcen.
 Eta batçutan asletcen, eta iraunguicen dela
 badirudi ere, berriz bere hala gossletcen, eta
 pitztenda. Eta are dembora gutiren barre-
 nean, lehen baino biciqui ago natçartcen da.
 Hala erraitendu Glosac. *Luxuria est ad ho-*
 ram *satiatur, postmodum tamen ad appetendum*
 Gl. *arctius inflamatur.* Nola guigonac emazteari
 Syrana in cap. diaduco amorioa, bere eguitez baita, natu-
 3. Prov. ral, amorio hura appurbat hotztu agatic ere,
 bere hala naturaleçac berac berotcendu, iraun-
 gui agatic, pitztenda.

S. 2.

ERraiten du Alciator. *Heu miser in mediis* Alcia-
sitiens, stat Tantalus undis. Et poma ef- tus Em-
uri, ns proxima, habere nequit. Tantalo on- blem.
 bebar hura gosse eta egarri cen, eta baçuen 84.
 oinen azpian vi franco, eta buruaren gainean
 çuhaitz bat, fruitus bethea. Ordea edan nahi
 çuenean, viac ihez eguiten cioen, eta latera-
 coan, çuhaitz adarrac goititeen eta goratcen
 ceitçan, ecin erdiets eitçaqueyen. Ianhariz eta
 edariz inguratua cegoen, eta ala baina gos-
 seac eta egarriac hilcera ceraman. Hala da
 bada haraguiaren atseguinean eta placeretan
 dabiltana ere.

Gosse da, egarri da eta emoçu nahi duen
 beçanbat, sar bedi beguieraraino, baina ezti-
 teque asle, ezteiteque osloqui compli eta ez
 contenta. *Libido lassari potest satiari non potest.*
 Vnha ahalditeque, eta nekha, baina ez asle. Destru-
 Hala erraitenda Errromaco ande batez, han- çtor. vi.
 bat ibili cela guigonéquin non herarie partitu tiorum.
 baitcen nekhatuic, baina ez asleric. *Et las-* Iuven.
sata viris, sed non satiata recessit. Aitcitic edan Saur. 6.
 ago. eta egarri ago; vlatu ago, eta nahi ago Hara-
 guaren desira defordenatua, auaricia beçala
 da. *Crescit amor nummi, quantum ipsa pecunia* Iuven.
crescit. Cenbatenaz diru guchi ago, hanba-
 tenaz guticios ago. Hala da bada haraguiaren



beccatua are. Seguitu ago, eta nahi ago, usatuago, eta baren ago asle ago, eta gosse ago.

Baldin vste baduçu, emaztetan anhitz vsfatceaz, emaztétaco guticia, gutituco çairçula; enganatcen çara. Aitçitit nola bat bedera anhitz iateaz eta anhitz edateaz, iale ago eta edale-ago eguiten baita: hala emaztequin vsfatceaz ere eguiten da emacçoi ago, eta emaztétara eman ago.

Haraguiaren appetitua hobequi hiltcenda ez vsfatceaz, vsfatceaz baino. Vrtzen dirut bertce erremedioac, baina erremedio naturalic; haraguiaren tentamendu guti içaiteco, eta halacoric, nolaez vsfatcea. Ceren ez vsfatceaz ançutcenda haragui, ez anfiatua, eta ahantçia iarcenda. Baina vsfatceaz bethi ernatua, iraçarria eta orhoitua egoitenda. Hala edirenen duçu, ecen guiçon bat alharguntçen denean; bere hala, haraguiaren lehenbicio orhoit; apenean, ezcondu nahitz dabillala, ecin dagoqueyela. Ceren leheneco vsfantçac erreque-rit cen baitu. Eta alacoac nola bera ecin baitagoque, vsfudu ecen bertce guziac ere hura beçala direla, hanc beçain iguritquitça eta pairu guti dutela. Baina bere burruaren baitcen, bertitit ez taquiena beçala mintço da. Ceren vsfatcen ezruenari, haragui hildua, sofegatua, sortua eta ez-anfiatua dagoca.

Beraz ez vsfatceaz, etsitua, eta gogatua egoit

teaz, eta guztien buruan haraguiaren placeta, cein gauça appurra eta laburra den consideratceaz, eguiçu. Ceren halatan ceure buruari sofegamendu handi bat emanen dioçu eta haraguiaren beccatutic beguiratceco cere borz garren erremedioa edirenen duçu.

Haraguiaren beccatutic beguiratceco sey garren erremedioa, hartaco placeraç cein ondore gaixtoa, bere ondoric utzien- duen, consideratcea.

C A P. X L.

Haraguiaren beccatutic beguiratceco, sey garren manamenduaren complitceco, erremedio handia bada, ere, haraguiaren placera ceinda, ere, haraguiaren laburra den consideratcea: ordeç ezta ttipi agoa, placer ttipi labur hanc; cein ondore gaixtoa bere ondoric vtzen duen, halaber consideratcea, eta ongui gogoan eduquitcea. Ceren placera iragan den beçain site, han da desplacera, han da bere hala damua, vrtiquia, atfecabea, eta eguin ezpalu



Avl ce-
lles lib.
I. cap. 3.

nahia. Contatcen du Aulo Gelioc. Cotintio-
co herrian cela lais cenitcan emazte eder bat ;
famatuua, amoltsua, placer eguillea, eta bere of-
ficioaren valiatcen ongui ciaquienu. Bada
egun batez Demostenez Philosopho handi
hura emazte haren aldetic iragaiten cela , qui-
licatu cen , ernatu cen , limbuitcen hafi cen :
eta galdeguin cioen Lais berari , ea cenbana
faltcen cen fruitua , cer valio çuen mercatal-
goac ? Eta alegueraric , ystex ecen ihicia farean
çuen , escatu ceican suma handi baten , guehi
ago boiz ehun ezcutturen baino, handiari han-
diqui. Demostenec aditu çuenean ema-
muthiriaren demanda , ihardetsi cloen , ez ystex be-
çala. *Ego penitere non tanti emo.* Eztut nic vr-
riquitcea edo vrriquia horrein garaltia etofe-
ten. Erran baillio beçala. Badaquit andrea
ecen baldin nic orai iragan baneça çurequin
neure appetitu desordenatua , vrriqui lequidi-
que dala bere hala. Bada vrriquitce hura , on-
dotoo damu hura , eztut horrein cario erosten
eta ez hargatic hanbat diru emaiten. Escarnio
eguin ystoa , guelditu cen escarniatua. Eta
Demostenec emançuen hartan aditcera , bec-
catuari berthiere bere ondotic vrriquia darrai-
cala. Munduco plafer desordenatu hautan ;
appetitua hiltex guero , assez guero , goçatuz
guero higuinctenda vianda ethortcenda vrri-
quia. Ecin erran diteque cein erhotua ibili-
cen Amnon Erregue Dauiren Ichenbicio sez

Plutar.
in
Apho-
ho the.

mea, bere arteba Thamarren ondoan, cenbat
pensu , gogoeta era itçul inguru eguin çuen ;
harc erdiesteco. Baiña guero erdietsi eta go-
çatu, çuenean, hain gaitz etsi çuen, ecen bere-
hala , iccussi ere nahi gabez , etchetic egotci
baitçuen.

Erregue Lyfimacoc , egartsua launduric ;
behin edatea gatic , errendatu cenean, erran-
çuen , edan ondoan edanaz vrriquituric , tris-
tura handi batequin. *O dii quam parua volupta-
tati causa, meipsum ex Rege seruum effeci.* Ha-
laincoac, ala ni placer apparia gatic, behingo
vr-hots edatea gatic, Erregue eta libre nintce-
na , muthil eta gathibu eguin bainaiz. Hala
erran ahal deçaque bada , haraguiaren placer
appur baten gatic, deabruaren azpico eta gat-
hibu eguiten denac ere. Ala ni, deus gutigatic,
hunetara bainaiz , laincoarequin adisquide
nintcena , etsaitu bainaiz.

Plutar.
in aph

9. 22

H Araguiaren placerac cein guti irauten
duen gogoeta eguitera: Placer haren er-
diesteco, cenbat trabailu gau, eta egun gaixto
iragan behar den pensatcera : eta guztien
gainetic, placer eztheus harc , hafi deneco, edo
hafi gabe accabatcen den harc , cenbat pena
eta atsecabe emaiten duen : eta cein ondore
gaixtoa bere ondotic vtzten duen considerat-



cera, eztut vste, liatequeyela bat ere, eguitico hartan far lirequeyenic; ez behinçat adimenduan dagoenic, centçua buruan duenic, çoto eta itfu eztenic.

Eta hartan dabilçanec berèc ere eçagutcen dute, eçagutcen, huts eguiñac doacilla, anhitz calte handic errecibitcen dutela, bai concientcian, bai ohorean, bai ofafunan eta bai haciendan ere.

Eta hala vste dut ecen, eztela bat ere, bere defira iragan duenean, tristecen ezicnic, vrritquitcen etçai canic, eta bere baithan, eztuela guchi ago bihurtu behar, cerbait gogoera, eguiten eztuenic. Ceren orduan bere berri hartan appur bat hotztua dateque, ematua dateque. Ordea nola guero berriç bere leheneco appetitura bihurcen baita; hala bijurcenda halaber, bere leheneco toquira, tornuta, eta lohira. Eta nola vli farfailla, eçpaita, hegalaçerra arteino, candelaren igurunetic vrruntcen: hala amurus itsutua ere, ezta, anima, gortputça, eta hacienda honda arteino cençateen.

Eta hunen arragoina da. Ceren hala dabilanac, eçpaitu abreac baino guchi ago, ethorqui çunera behatcen: eta ez placer hare cein on ore hotça era atfecabersua, bere ondotic vtzten duen behar beçala consideratcen.

Papilio.

Haraguiaren beccatuiç beguirateco çaspi garrerremedioa, borz censuez, eta lehencioric, beguiez contu eduquitcea.

CAP. XLI.

Norc ere nahi baitu, bere buruaz *Visus* contu onic eman, behar ditu borz censuac, cein baitira, iccusteç, dafatcea, ençutea, vfnatcea eta utquitcea guardiatu eta beguiratu. Ceren hauc dira lehioac, eta portaleac cein etaric beccatu guztiaç, eta guztiz ere haraguiarenac, ariman barrenac sartcen baitira. Athe hauc hehar ditugu hertsi; eta hautçaz eduqui contu, baldin etsaia gueure arimaco gazteluan sartetic nahi badugu beguiratu.

Lehenbico athea, eta portale principalia; da beguetaco vista *Visus*. Hunec bertce censu guztieç eramaiten deraue abantail. Hunec dembora gutiz eguiten du anhitz. Vrruitie iccusten du, eta iccusten daena, gogoan barrenac sartendu, eta gogoac ere errecibitcen du. Baldin beguari, eduquitcen eçpaçaica beguia, calte handiac guerthatuco dira.

Euac iccussi çuen sagarra, eta handic bere



burua gurequin batean, penatan ibeni çueni.
Dauitec behatu ciohen behar etcen emazteari,
eta handic eguiteco handitan etori cen.

Comunzqui amorioa beguictaric farcen-
da handic hasten, eta fortcenda. Ihizrari han-
diac dira beguiac, eta bere gogaraco ibicic
eraiquitcen dutenean, ez tira erdietz arteino,
baratcen.

Beguictaco vista batec, behingo behatceac,
eta are anhitcetan ere, iragait, çaz eta vste çar-
bean behatceac arrobatcen du bihotça; cer
eguinendu bada behin eta berriz, beraziaz eta
luçaro beha egoite hanc? Bi garren behatce
hanc; berriz bihurtce hanc, gogoeta eguiten
duela, eta cer hari den daquiela, beguiac fin-
caturic, eta landaturic, emastearen beguicy,
beguitarteari, gorputçari, ederra funari eta
ibilguncari beha egoite hanc, sua pitzen du,
aitcinatcen du, eta azquenean erratcen du.

Ecl. 9. Hargatic erraitendu Spiritu sainduac. *Ne res-
picias mulierem multii volam, ne foris incidas in
laqueos illius.* Eztiagoçula beha, emazte arin, ai-
ratu leihariati behin iccusiz guero, *ne respicias*
ez bir-iccus, ez berriz bihur. Ceren bihurt-
cen baçara, haren saretan erortceco perileran
Iarrico, çara. Ahalque gabequi, muthiriqui,
cansoin utzietara beguiac darabiltçala, da-
billan emaztea, peril da etoria den, edo farri
etorico den. *Ne aicatis vos habere animos pudri-
cos, si habeatis oculos impudicos quia impudicos*

August.
in regu-
la.

oculus, animi impudici est numius. Ez terra-
guela (dio san Agustinec) bihotz garbiac
eta onheflac ditutçuela, baldin begui defon-
heflac eta ahalque gabeac baditutçue. Ce-
ren begui defonhefla, ahalque gabea eta
campoan foseguric ez tuena, barren gaixtoa-
ren, fosegu gabearen eta defonheflaren man-
dalaria da eta seinalea. Emaztearic begui-
ratu nahi duenac, beguiratu behardu hala-
ber emaztey behatcetic, behintçat bai, aihet-
cunde gaixtoz, eta handic quilitatcen dela,
fentitcen duelanic beha egoitetic.

§ I.

G Auça ederra da, eta arimacotçat probet-
çu handitacoa, onhetstafun bateran be-
guen beheitituric eduquitcea. Contatcen
da Hugo Ipizpicu saindu hartçaz, hain ce-
ducala contu handia bere beguien eguin bi-
deaz, non emazte batequin minçatcen ce-
nean bethiere burua ahal beçanbat, bertce
alderat itçultcen baitçuen. Eta erraiten
çuen ongui cela hala eguitea, ceren bert-
cela gaitz cela bere gogoraco gauça ic-
cusiz guero, haren ez desitatcea, edo
hartçaz gogoetaric eguin gabe, egoi-
tea.

Cyroren soldadaec, hartu cituztenean Assi-

R. v

Guidus
Cartuf.
in vita
Hugo-
nis.



rioen iendesc eta onac ; edirençuten bertce
prefoen aitean Pantea ederra , Erregue Abra-
daten emaztea. Eta emancioten bere hala
aditcera Erregue Cyrori , emaztehareen eder-
tasuna , nolacoa eta cein abantaillatua cen
Baina ceren Erreguec ez aditu iduri eguiten
baitçuen , lehiatu ceican bere adisquide ma-
mietaric bat , trébén ceicana , Arraspas ceit-
çan bat , erraitera Erregue , ezta egun daiño
lurraren gainean hain emazte ederie for-
thu , metecidu hain bertce ohore emandia-
çoçun , mercedu behin iccus deçaçun : eta
prometatcen deratçut ecen baldin behin ic-
custen badugu , eztuçula bi garrean gon-
nidatçaileric beharco , cerori egonen çar-
rela errana.

Orduan ihardetsi cioen Erreguec ; hala er-
raile hāri. Bada ariaçoin horren beronen
gatic , eztut iccussi nahi. Ceren baldin be-
hin librequi iccusten badut , veldur naiz bi
garreneco gathiba nadin , eta neure desita def-
ordenatuac behar eztena eraguin diaçar-
dan. Errepuesta eder haur eman çuen Er-
regue ientil harc. Ceren baitçaquien , cen-
bat calte eguiten çuen , gauça debecuarén ic-
cuseac.

Hala iracurtcen dugu Alexandro han-
diac ere victoria famatu hura Erregue Da-
rioren gainean içan çuenean , eta haren ala-
ba ederac , bertce prefoen aitean hartucic

tuztenean , etçuela , nahi içatu , eccarciago-
ten hetaric bat ere , bere aiteinera , veldur-
rez iccussi eta guero , behar etcena eraguin
ciacoten.

Edireiten da bertceric ere anhitz hunela-
co exemploric , ceinetaric athera behar bai-
tugu , baldin nahi ezpadugu , behar ezten a-
morria gogoan eta bihotcean barrena fat
daquigon cenbait aldiz beguiac beheitcu
eta heitçi behar ditugula : beguietaco vifta-
ren portale hunez , cein baita lehenbico cen-
sua , contu eduqui behar dugula. Ceren haur-
da erremedio ona haraguiaren beccatutic be-
guiratceco , hartu behar dena.

*Haraguiaren beccatutic beguiratceco çortci
garren erremedioa , mihiaz contu
edukitcea.*

CAP. XLII:

B Aldin viftaren portaleari eduqui Gustus
behar baçaica beguia , eta eguin
guardia , segurda etçaicala guti
ago eguin behar gustuarenari.
Hain ongui eduqui behar da contu ba-
taz , nola bertceaz. Eta gustuaz mintço
naicenean , mintço naiz , ahoari vquitcen çait-



çan gauça guztiez : hala mihiaz eta mingatceaz , nola ianaz , eta edanaz.

Lehenbicoric behar da , vanoqui , erguelqui , arintqui , eta defonhesqui mingatceatic beguiratu. Ceren Iondone Pauloc dioen

3. Cor. beçala. *Corrumpunt bonos mores , colloquia mala.* Solhas gaixtoec gaitcen dituzte aztura onac. Eta erraiten dute Philosophoec ere. *Voces sunt signa conceptuum.* Mihiaç declaratcendu , cer daducan bat bederac , bere gogoan eta bihotcean. Nor nola mintço baira campoan , hala obi da barrenean. Cer baitaduca gogoan , hura aippa nahidu iendartean ; mihia da bihotçaren mandararia , mihian da eçagun , nor den bat bedera , eta bai nongo den ere. Iondone Petri eçagutu cen beçala.

Escufatu behar dira eta guibelatu hitz alferrac , arinac , iocolariac , doñailuac , eta guztien gainetic defonheslac , vanoac , eta erguelac Ceren hec iratçaitcen dute lo datçana , eraiquitcen dute inicia , eta eraguiten behar eztena. Hec dira su pitz garriac , eta elccarrequin trebatceco bideac. Halaco hitcetaric behar duçu escufatu ceure mihia , baldin nahibaduçu beguiratu emaztetic , ceure burua.

H Alaber beguiratu behar duçu emaztèquin sobera solhaslac , conuertacetic , eta hitztun içaitetic. Ceren hequen conuertfacioneac , eta solhaslac bere quin du ezta , berequin du balacua , linburteco occasinoa , eta bai elccarri lotceco , cola , visca eta lequenda ere.

Emazten artean dabillanac , hequin solhaslacceaz atsequin harcen duenac , eta guztiaquin ere ezteia erortcearen verdur erraiten duenac , sinhetz axaci nahidu , ezteia haraguiç eguina , ezteia guiçona : edo sua golcoan gorderic , arropey lothu gabe erabildeç queyela : edo iccatz bicien gainean orthu-

fic , oinçolac erre gabe , ibil dite queyela. Ordeç erraitendu Spiritu sainduac , ezteia posible hala eguitea *Nunquid potest homo abscondere ignem in sinu suo , ut vestimenta illius non ardeant ? Aut ambulare super prunas ut non comburantur planta eius ? Sic qui ingreditur ad mulierem.* Emaztèquin ibiltcea , eta calteric ez errecibitcea , suan erre gabè egoittea beçala da. Nor nahid den , eta nolacoa nahiden çarela : çaren handi edo ttipi ; çaren debocinoz , eta intencione onez bethea : sinean çaren ceure ystèz harrìa baiño gogor

Vide Basil de constit. monast. cap. 4.

Prov. 6.



ago, eta virea baino fin ago, baina emazteac bere hitz leunaz, solhas garaciat suaz, eztiar, eta emeaz, beretacotuco çaitu, centigutic atberaco, liluratuco eta berice aldera itçulico çaitu. Çabiltça errota hartara, irina lothuico çaitu: huibil çaquitça, cufatuco çaitu. Halatan erraiten du londone Pauloc. *Fugit fornicationem.* Ihes equiçue emaztëtaric, haragiaren beccatutic, ibençue çuen eta occafinoaren artean mutrubat, ez eccargana huibil. Eztu erraiten londone Pauloc, berice beccatuez beçala, emaztëtaco beccatuari deffenda gaquitçala: eztu erraiten harmetan moccoz mocco iargaquitçala, baina dio, *fugite*, ihes daquigula. Erian bailleça beçala. *cap. i.* Berice beccatu guztiey behar gutçaitze, *Leincoaren* faboçarequin batean, contratu eta deffendatu, baina haragiarenail, ihes eguin: halatan behar dugu garaitu, eta victoria erdietfi. Ceren bertecela, hurbilduz guero, eccarganaz guero, solhasean baccaric iarriz guero, gaitz da cufatu gabe guelditeca, farcan farthu gabe itçurtceca.

Ezta çuhurtcia, içurtia den leceura, erro: medioetan fidaturic, ioaitca. Alde eguiçu, ihes eguiçu, hura da ez içurrizatceco erro: medioeric hoberena eta segurena. Bada emaztëtaco beccatua içurriaren pare da, cufuz doha, asco du vquitceca, asco du huibil: ceca. Har deçagun beraz londone Pauloren

Vide
Aug. de
honest.
mulie.
cap. i.

confeillua, dagnigun ihez, ezcaitecilla occafinotan far, eta ez iar.

Lehen agoco. Emparadore gaixto hequen demboran, hetaric ihes eguiten çuenac galtcen çuen martirioaren palma, eta Coroa. Coroa hura erdietfico çuenac, martir içanen ce: nac, etçuen ihesic eguin behar. Baina different da, castitatearen ez galtceca gatic, ihes eguitean: ihes eguite hura, occafinotan çarenean, ceure buruaren beguiratce eta bortchar: ce hura; da martirio eta martir içaitca. Hala erraiten du san Agustinec. *Nemo dicat fratres mei charissimi, quod temporibus nostris, martyrum certamina esse non possunt, habet enim pax magna martyres suos, nam libidinem fugere pars magna martyrij est.* Ezterrata nehoric, ecen orai gure dembora hunetan ecin datequeyela martiric, badira bai orai ere martirac. Ceren haragiaren appetitu defordenatuen vençutceca, emaztëtaric ihes eguitea, eta bere buruaren hetaric beguiratceca, valentia handia da eta martir içaitca.

August.

sermon.

240 de

temp.

§. 2.

⊙ Rdea cergatic erraiten da, berice beccatua deffendatuz, eta contra carcean iarriz behar ditugula garaitu, baina haragiaren ihes



egunez ? Lehenbico arraçoina. Ceren guñona eta emaztea, sua eta istupa beçala, baitara beraz ez tira elcartequico on, hurbiltcen baitara, ezta segurantçari, apar egoitea da hobereñic. Bi garen arraçoina. Ceren ezpaita on, hurbiltceaz indar hartcen duen etçaiari alderatcea. Hala da bada haraguiaren beccatua. Ceren gure haraguiaren lehen gueldi, eta sofegu onean cegoena, bertce harraguia gata hurbiltceaz, pitzenda, ernatcenda, indartean sartcenda, etçai bihurtcenda. Eta nola. Erregue batec herabe bailluque, bere etçaien contra guduan eta combatean sartcera, liaquinean, bere soldadu propioac, bere traidore dituela, bere contra iaiquico çaitçala : hala behar dugu gure etçian herabe, haraguiarequin iharduquit cera eta guerlan sartcera. Ceren gure haraguiaren traidore bat beçala gure contra iaiquitcen baitara.

Arraçoin haur emaiten du aditcera eta bai de-claratcen ere san Thomasec, erraiten duenean. *Peccatum semper est fugiendum, sed impugnatione peccati, quandoque est vicenda fugiendo, quandoque vero resistendo. Fugiendo, quando continuata cogitatio perseverans auget incenti-vum peccati, sicut accidit in luxuria. Resistendo autem, quando cogitatio perseverans tollit incenti-vum peccati, sicut accidit in omnibus peccatis, præter luxuriam.* Beccatutic. bethi behar da

5. th.
22. q.
35. art.
1. ad 4.

ihes eguin baina beccatuaren accometamen-
dua, naritamendua, eta tentamendua, bate-
an behar da ihez egunez, eta apartatuz ga-
raitu; eta bertcean deffendatuz, contra egu-
nez, eta borrocatus. Baldin defendatce hart-
çaz, eta hartan pensatceaz, gutitcen bada be-
ccatuaren tentamendua, nola eguiten baita, ha-
raguiaren beccatuaz bertce beccatu guztie-
tan, orduan hobe da deffentan iartcea, eta
tentamenduaren contra borrocateca. Baina
baldin deffendatce hartçaz, eta hartan pensat-
ceaz pizten ago bada sua, eta handitcen ago
tentamendua, nola eguiten baita haragui-
aren beccatuan, orduan behar da ihes eguin,
eta ez nola deffendatuce den, gogoetan jarri,
ceren gogoeta hura bera da, su pitz gari-

Eta ihes eguitea da, hartaco occalinoera-
ric, solhasetatic, incontruetaric, eta gogo-
erataric beguiratcea. Ceren dirua ezta segur-
ohoinac diren leccuan; ez ardia ofsoen ar-
tean; eta ez istupa suaren aldean. Gauça pe-
rilosac dira hauc elcartequico, eta bai gu-
çona, eta emaztea ere, berac baccaric, bi-
bian egoitceo.



§ 3.

BAina oraino bi bian egoiteaz, halaco paritico, ezpaliz ere, bada bertce arraçoin bat, emazt éraric apartatceco, hequen artean ez maiz ibiltceco, eta solhasean ez sobera egoiteco, cein baita exemplo onaren emaitceco, eta escanda luaren escusatceco dugun obligacinoa. Ezta asco ceure concientcian barren casto, garbi, eta onhest içaitea, baina

Rom 12 campoan ere, eta munduaren alderatcoçat ere, hala behar duçu içan. *Providentes bona non tantum coram Deo sed etiam coram omnibus hominibus.* Bere arauaz, laincoaz beçala, munduaz ere, barrenecoaz beçala, campocoaz ere eguin behar da contu. Ongui heldu da pontu hunetara, emazte prestuaz Spiritu sainduac

Prov. 31 dicena. *Quasi vii lanam & linum & operata est consilio manuum suarum.* Bilharu cituen illea, eta lihoa, eta biac bere escuz landu, eta obratu cituen: illea campoco, eta lihoa barreneco. Legue çabarteco arca famatu hura, vire finez campotic, eta barrenetic vrraztatuz cen. *Deaurabis eam auro mundissimo intus & foris.* Ceruco esposoac biatan deitcedu ederra bere esposa. *Quam pulcha es amica mea, quam pulchra.* Aditcera emaitcea gartic, guintino on içanen denac, campoan, eta barrençan, bi etan behar duela içan on;

eta eder: bi ez behar duela eduqui contu, eta ardura.

Guizon bat, maiz baccarti, eta premia gabe emazte batequin egoiteac, emaitendu occasino beccatu eraguiteco, eta gogan behar aracitceco, badela hequen artean, behar ezten cenbait eçagutça, eta amorio desordenatu.

Nahi eztuenac erraçunic, eztemela occasinoric. Nahi eztuenac, dei deçaten otso, ezteçala jauntz otso-larrutic. Nahi eztuenac ilkhi dadin kneric, eztagiela suric. Legue çucenean ordenatua dago, asco dela frogantçanic, emazte baten gaixtoçat emaitceco, guizonarequin baccartic, ez-orenean, eta hartaco leccuan editçitea.

Gerén aieru hec, itçal gaizca, ibiltce hec çabaitira frogantçanic asco, gogan behar, aracitceco. Beraz hunelatan ezta asco intencione ona içaitçea, baina behar da, beccatu eraguitceco escandalua, eta occasinoa ere escufatu, eta khendu.

Naturaleçaren aldetic denaz beçan baitira eztaude behin ere, elcarrequin segur, guizona, eta emaztea. Asco da guizon, eta emazte içaitea, periletan içaiteco, eta egoi concuteco. Eta tentatçuillea ere eztaçça behin ere lo: hanc eraçuitcen du erbia, pirtz-tendu sua, gogoratcen du beccatua, iratçartcen du haragui: eta behin iratçartiz

Vile

Chryf.

term.

contra

concu-

bi rom.

5.



guero, gaitz da lohacartcen : gogoa airatuz
guero ; gaitz da sofegatcen, eta bere leccura
bihurtcen

Igilic. **Q**uhurtca handia da, emaztèquin eçagur-
çatan ez sartcea, nor bere leccuetan egoitca.
Ceren behin elccagana abiatuz guero, gaitz
da handie pitzten den suaren irauquitca,
eta bai halaber iendearen ichilic eduquitca.
Leherbician erraz da, emaztèquin adisqui-
detctic, eta trebatctic beguiratcea, solba-
fean barrera ez sartcea, elccar gana ez ibilt-
cea : Baina behin abiatuz guero, adisquiduz
guero, trebatuz guero, eta elccarquin sol-
hasean, hitz quetan, elhequetan, present que-
tan, gosal quetan, eta visita quetan haziz que-
ro, peril handia da arimaco, eta exemplo
gaixtoa munduco.

Beraz hunelatan emaztètaric beguiratu ;
nahi duenac, nola behar baitu bere mibia edo
cein hitcen erraitetic guibelatu : hala behar-
du halaber, emaztequin trebatctic, ibiltce-
tic, eta hitcetan, eta eçagurçatan sobera bar-
rena sartctic escufatu.



*Haraguiaren beccatutic beguiratceco bideratci
garren erremedioa, sobelari ez sobera
emaitca.*

C A P. X L I I I.

EMaztètaco eguitico hunetan bere
buruaz contu ona eman nahi
duenac, behar du ian edanetic ere
beguiratu. Behar du neuriz iatera,
edatera, eta gustuaren, eta çappotearen
portalearen ahal beçanbat cerraturic eduquit-
cera eçciatu. *Sine Cere & Baccho friget ve-
nus*, dio Therentcioc Oguiric, eta arnoric
ezten leccuan, hotz da Venus : ezta han
amurusiatic, eta ez emazte guticiatic. Erra-
na da, haraguiaren placera, amorio desorde-
natua, sua beçala dela ; eta su haren egurrac
ian edanac direla. Edequi iatçotçu beraz
egurrac, ian eçaçu guti, eta edan guti ago,
eta halatan, edo ezta sua pitztuc, edo pitz-
tua site irauinguico da.

Ordenatu çuen Solonec bere leguètan,
baldin herrico cargudun bati guertha bate-
quion, sobera edatera, eta handie mihitaren
motheltcera edo çangoen cordocattcera, ede-
qui cequiola bere hala bere caigua. Eta atra-



Ecl. 14

goinequin ordenatu çuen hala. Ceren bere burna ecin gouerna deçaqueyenaç, nola eguinen du bertcerena? *Qui sibi nequam est, cui alii bonus erit?* Beretçat gaixto dena, nola içanen da bertcerençat on?

Aneas Silu. de Europa ca. 10.

Cointhioec bere Erreguearen icendatcean, eta corroatcean, vsatcen çuten cirmonietaric bat cen, eccatcea, bere aiccinera, beira bat vr, adicera emaita gatic, etçuela handic aiccinera, arnoric edan behar, edo edanç çuena, ongui ematuric, eta vitçaturic edan beharç çuela.

Alexan. ab Alexandro lib. 2. cap. 26

Lehen ago Erromaco emazteç etçuten bat ere arnoric edaten. Ceren bertcerentçat ere itfusi da sobera edatea, baiña emazteçat are itfusi ago, eta perilos ago. Handic vlladut ethorri cela vsantça, arrotz calean, canpotic ethortcean, guiçoneç, emazteç poteguitea mussu emaita, iaquiteco ea arno vsanic baçutenz.

Aneas Silu. 1. de dictis & factis Alph. Regis. num. 7.

Federico, icen hunetaco, hirur garren Emperadoreac, etçuen bere mendean arnoric edan, anhitz baircen Aleman barentçat. Eta nola berac ezpaitçuen edaten, begui gaitceç beharçen cerauen, arnora emanac ciren guztiey. Emperadore harc etçuen haurric içaiten, ezcondua bacen ere. Eta miducueç eleçargana vilduric, eta conseillu harturic erran cioten Emperatriçari, arno apputbat edan behar çuela, eta halatan cenbait haur içanen çuela. Emperadoreac Midicuen a vll

hunen berri iaquin çuenean, deçira handia baçuen ere, bere ondotic cenbait vmet en vezteco, guztiarequin ere, gaztiga u ceraucaç, bere emazteari, beguira çuela, etceçala halaco erremedioric har; etceçala haur içaita gatic arnoric edan. Ceren nahi ago çuela emazte haur gabea, esterila, defota, antçua, eta haltça oihanaren vllta beçala, fruita gabea, ecen ez hordia, eta arno edalea. Hitz notatcecoac ciren hauc, eta segur ongui erranac. Ceren handiac baitira, arnoac, guztiz ere emaztetan eguiten dituen calteac: bain handiac, ecen ezpaita emazte edalea baithan cer fidaturic, eta ez guiçon hordia baithan ere.

Ohoïn bat, iocai bat, arnegai bat putanerbat, gaixto da: ordea guiçon da, bere adimenduan dago, cerbaitetaco gai da. Baiña hordia, ardancoia, abre da, ezta guiçon. Ceren guiçon içaitrea da, adimenduan egoitea, arraçoinaz vsatcea. Beraz hordia, hordi deino ezta guiçon. Ceren orduan ezpaitago adimenduan; ezpaita orduan, abrea baino guehi ago, arraçoinaz valiatcen. Eta halac guiçonac, bere guiçon rassunean, ecin duque falta handi agoric, eta ez defohore defohora garriagoric (munduac hala expadudua ere) horditcea, adimenduaren nahastea; eta fama hartan iaitcea baino.



Noe Patriarca. faindu hura horditu cen egun batez: eta harena etcen miresteco, ceteren lehenbico edan aldia baitçuen, eta epaitci. quien oraino orduan cer indar çuen. Arnoac: ceren iaquinez guero beguiratu cen. Baina miresteco da, nola orai çue daquigularic, eta esperientcia deçularic, neumi batetara helduz guero, arnoac iragaiten çaituen, gaitz eguiten deratçun, etçaren çaitia equin ere cençatcen, eta ez bertiz halaceteric beguiratcen.

Licurgo Ibraçiac Erregueari iduritu çeicacan ecen, etcela asco arnoac eguiten çituen calçen erremediaceco, leguez eta ordenantçaz arnoaren debeatça, ceren hura eela erroac vtçie adarey lotça. Baina mabañac behar çuela ebaqui, eta picatu. Eta hala bere errefumaco guziac, bat ere vtci gabe, picaraci çituen: eta manatu çuen etcedilla nehor handic harat, biciaren penã, auçat, mabañatiren landacera. Era bide haitçaz, Erregue hanc, erremediatu çituen, arnoac, bere Errefuman, eguiten çerautçan calte guziac.

Sabel bethea, ianhariz, eta edatiz gaitz eguina, ezta deufetaco eto on, iocaccco, mingatecco, erasteco, eta etçhoqueria eguitico baitcen. *Nolite inbriari vino in quo est luxuria* dio Iondone Pauloc. Egaitzetela hordit, etçaitzetela arnoz betha, ceren arnoa den leccuan da haraguiaren desita deford-natau. Hanc

Hunen arauaz erraiten du san Geronimoc. *H'er. l. 2. in las seminario libidinis est:* Haraguiatea, arno edatea, eta sabelaren bethatça, guticia defordenatuen haz - leccua da, eta mindegua. Ceren nola mindegua bir landatecco landatea sortcen, eta hasten baitira: hala ianedanean ere, haraguiaren plazer hartceco guticiac, orhoitça penac, eta quilicadurac pitzien, eta eguiten dira. Gaizda, alfer, aise, eta alle egoitea, eta haraguiaten beccatutic escapatça.

§. I.

Comunzqui iende aberatçac, ian - edaz anean ieri dabilçanac, erortcen ago dira haraguiaren beccatuen, probe goflez direnac baino. Hala frogatu çuen Sefostis Egiptoco Erreguac. Erregue hura eritu cen, eta ifutu Herod. eritafun hartaric. Eta bere hala Errefumaco lib. 2. sacerdote, midicu, eta gaineraco hartaco çituen guztic consulta eguinc, etian çituen: bere senharraz bertçerequin eguitçoric iean etçuen emazte baten guençaz, eta vtçitiaz garbitu behar çuela bere beguiac, eta halatan bere hala arguitico, eta fendatuto ceitçala. Erreguec haur aditu çuenean, fendaturçat ceducan bere burua: ceren vtçituen ecen mundu guztia prestu cela. S



hafi cen bere hala ordenatu ceican erremedioz vfatcen. Eta lehen bicicoric, segur baino segur ago, hartu çuen Erreguinaren vr-ifuria, bere emaztearena, eta hartaz medicuec ordenatu cioten beçala, busti cituen beguiac, eta gantçutu. Baina alferric, lehen beçain itfu guelditu cen, çeren Erreguinac bere senharraz bertceric ere dastatu baitçuen.

Erreguec choil mireñi çuen hunetçaz, çeren etçuen vste ecen Erreguinac halaco iocoric iocatu çunqueyela. Erreguinaz etñitu çuenean, hafi cen berniz bertce emazte principal, eta aberats batfuetaric foroguarien eguiten, vr-ifuri eccartcen, eta senda ahal citequeyenz enseiatcen. Baina etcioten hec ere senti aracitcen, eta ez onic eguiten. Çeren guztiac ciren berdin presta, guztiac ciren bertcerequin cutsatuac. Orduan Erreguec hurrau, hurran etñitua cebillala eguin çuen inçontru baratce-çain probe baten emaztearequin, eta haacn vr-ifuriaz beguiac vçuitu cituen beçain fite, arguitu cen, eta sendatu cenecan hartu çuen emazte probe hura, eguin çuen bere emazte; eguin çuen Egiptoco Erreguina: eta guero bertce guztiac, gaixto frogatu cituenac, Erreguina bera battenean cela, biciric, errearaci cituen.

Aberatfac aurçuitu cituen, probeac baino gaixtoago, eta araguiaren beccatuan eroria ago. Aberastafunetic, ian edanetic, gulatitc,

fabeldarraio tafunetic, forcen da haraguiaren placer nahia, eta beccatua. Eta abstinetic, neurritz bicitetic, fabel-ederretaco içaitetic, eta pairatetic helduda debocinoa, eta fainduta funa. Erraiten du Climaco fain. Clima. cap 14.
duac; Nahi dena içan casto, eta ala baiña arnoan çopatua egon, eta aisean ibili, halacoa dela, suati iraunguitceco olio, eta orari bere ganic hastanceco, ogui puscaren emaita beçala. Çeren nola ora bazcarequin hurbiltcenago baita, eta bai sua ere olio arequin pitzten ago: hala haraguiaren guticiamendua ere; ian-edan harequin berretcen ago, eta handitcen ago da.

Beraz emazteraric beguiratu nahi duenac, beguiratu behar du halaber, golas, içaitetic, arnoan sobera sartetic. Çeren halatan beguiratuco du bi garren censua, eta portalea, cein baita aboa; mihia, gustua, çappore, ceinetaric sartcen baita, haraguiaren beccatu hatsa, higuina, eta bat bederaren galgarria.



Haraguiaren beccatutic beguiratceco, lehen gaineraco erremedioac.

C A P. XLIV.

Nola haraguiaren beccatuan, erori nahi ez tuenac eduqui behar baitu contu, lehenbicio bi censuez vistaz eta gustuaz, beguiez, eta aboaz: hala eduqui behardu contu; gaineraco bertce censu guztiez ere. Eduqui behar du contu ençuteaz, beharriez. Ceren anbitz gauça ençutenda, hobe bailligereque, ez ençutea. Nehor emaztèz, edo emaztètaco gauçez mintço denean, ez ernaturic egon, herts beharriac, itçul burua bertce alderat: ahalic eta gutiena halaco solhasic ençun, ez hetan atseguinic har. Ceren san

Audi-
tus.

Isidor.
lib. 5o.
liloq.

Isidoroc dioen beçala. *Facile agitur, quod libenter auditur.* Errazqui, eguitenda, gotic ençuten dena. Bada castitarea beguiratu nahi duenac, ez tu dantçatu ere behar, eta ez foynuac. dizen leccuta ioan. Lehen ago lentilen artean, eta demboran, defohore cen dantçatcea: eta hitz

la etcen iende ohorezcoric; eta contuzcoric dantçetan edireiten. Ciceronen erranada. *Nemo fere sobrius salta.* Nehor guti dantçatcenda edana eztenean, adimenduan dagoenan.

Cicer.
pro mur
rena.

Iende gazte arinen; cençuz baino; çan goz fida go direnen, officioa da dantça. Dantçan ezta occasino gaixtoric baicen. Han ahalquea galtcenda; egagutçatan sarcenda: solhasatcenda, trebatcenda, escuztatcen da; mandatu eguitenda, eta azquenean behar eztena mortcenda.

Erran behar da, gauça gaixtoa, eta occasinotua dela dantça, hartçaz dioenean san Agustinec. *Melius est in diebus Dominicis arare, vel fodere quam choreas ducere.* Hobe da, eta beccatu guti agoda, igande egunetan, gorde nabarretan, eta lar lanetan travaillatcea, ecen ez dantçan haritcea. Eta haur erraitendu hunela, ez ceren dantçatcea bera hain gauça gaixtoa den, baina ceren dantçatic anhitz occasino behar eztenic sortcen den.

August.
de decò
chori
dis.

§. I.

Bada beguiratu behar da vsnaren portalea ere, eduqui beharda contu sudurrez etc. Ceren sarditeque handic ere behar ezte,

Odo
ratus



na. Ezta musquetaz, balzamo, eta halaco bert-
ce vsain onez vsainzaturic ibili behar. Ce-
ren hala ibiltceac eztu vsain ona. Eta hala-
tan manatu çuen Solonec, etcegala nichore
vsai mercatalgoatan trata. Zenon Philoso-
phoac etçuen iccussi ere nahi halaco vsainic
çuenic. Eta hala egun batez bere compai-
niaco bai vsaina adituric, eta bere baithan
hasserreturic, gardeguin çuen. *Quis hic mu-
lierem olet?* Norc du hemen emazte urrina?
Bide gabe handia eguicn derauca bere bur-
uari, emaztequi bat beçala, vrinziatu-
ric, eta vsain onez betheric dabillan gui-
çonac.

Diog.
laert. l.
7 in vi-
ta Zen.

Ceren halacoac vsain ona emaitca gatic,
emaiten baitio bere buruari fama gaixtoa.
Badira gauça batçuc iccussi gabe, tudurraz
beraz, vrinaz vsnatcen, eta iaquiten baiti-
ra, non diren, eta cer ediren: Hala bethi vsain
onez betheric dabilçanac ere, vsnatcen dira,
eta iccussi gabe iccusten, nolacoac, cer az-
turatacoac, eta certtu diren. Halatan Mar-
cial Poerac erran cerancan egun batez Postu-
mo bere adilquideari. *Hoc mihi suspectum est,
quod oles bene Postume semper. Postume non be-
ne olet, qui semper bene olet.* Gogan behar gaix-
toa emaiten deraut Postumo çure bethi
vsain onez betheric ibiltceac. Ceren eztu
vsain ona, bethi vsain ona duenac. Vvainic
hoberena, bat-ere vsainic ez içaitca da. Hala

Martial
l. 2 Epi.
gr. 12.

erraitendu Ciceronec emaztèz mintço dela. *Cicero
Id-o bene olent, quia nihil olent.* Vvainic ez tute-
nean dute vsain ona: eta ceren ezpaitute vsai-
cum lib
nic, hargatic dute vsain ona. Balsamo, am-
2.
bar, musquera, eta halaco bertce vsain onac,
icnden enganatecco, bere gana eracartcecco,
bere buruez mintça aracitcecco, eta haragui-
aren beccatuan eroriac dauntçala, vsnatcecco,
eta gogan behartcecco; bideac, eta seinaleac
dira. Edo bai ceren venturaz cenbait vsain
gaixto, eta khirats baitute bere gorputcean,
haren estaltcecco, eta ezeztatecco hartuac, eta
pensatuac.

§. 2.

EZtu deus valio vsain onez betheric ibilt-
ceac, eta are guti ago, berari dagocan bai-
no soineco atropa eder agoac erabilteac;
Ceren hec guztiac dira vanaloriac, desorde-
nuac, eta defonhers queriaren seinaleac.
*Amictus corporis & risus dentium & incessus
hominis enuntiant de illo.* Soineco artope-
tan, irrigan, eta ibiltcean da eçagun, nolacoa;
eta certaco den bat bedera. Nola khea den
leccuan, agueri baita badela sua: hala so-
seguric gabe, hortçac hirrituric, bethi irriz
egoitean, eta vanoqui yeztituric ibiltcean, da

Ecc. 91



halaber eçagan, eta agueri, han dela erqueb-
queria franco, eta adimendua eçcaz. *Ha-*
bentes alimenta, & quibus regamur, his con-
renti sumus. Dio iondone Pauloc, dugu-
nean certçaz gosseñ hil, eta larrua estal, asco-
esten dugu. Eztugu ian edonean, eta veztim-
mendetan soberaniaric galdeguiten: doi-
az elicateen, iragaiten, eta contentatcen
gara. Cenbait granoz arin delaco seinalea
da, bertceac ez beçala, edo dagocan baino
ederqui ago veztituric ibiltcea: eta veztidara
hee soinean dituenean, bere buruari conten-
tez beha egoitea. Halaco bai erian dioen egun
batez sequeretuan beharria Demonaat ce-
nitçan Philosopho batec. *Hens tu, hoc ante te,*

Lucan. *in vita oris feribat.* Hola adisquidea, orai çuc lo-
demon. nean darabiltçatçan arropa horiec, çuc
baino lehen, erabili cituen bere bizcar-
rean ardiac, ceren haren illeaz eguinac
baitira. Eztugu beraz honetçaz cer lo-
riaturic. Eta Bertcela ere, ceren veztidara,
beccatuaren estalgarriac beçala, eta
beccatu eguin dugulaco seinaleac baitira.
S. Tho. Ederqui erraiten du san Thomasec pontu
de regi. hunen gainean. *Qui gloriatur de veste, similis est*
mine *furi glori anti de cauterio, quia propter peccatum*
printip. *Ad usus vestium introductus est.*
lib. 5. *Ad usus vestium introductus est.*
cap. 59.

Nahi dugu iaquin, bere soineco atropetz,
preçatcen, eta loriatcen dena, nola den? Aço-
tatu ondoã, iustiac, soibaldan, burdin goriaz,

emaiten dioen marçaz eta ciguilluaz, preçat-
cen den ohoiña beçala. Marca hura, bere gaix-
taquetiac gatic emaiten çaica ohoiñari; eta bai
guri çuc veztimenda, gure eta Adan gure le-
henbicico aitaren beccatua gatic. Beccaturic
içan eçpaliz, etcen beharco veztimendaric;
eztugu beraz hetçaz cer vanaloriaturic.

B. r. bederac behardu, bere estatuaaren ara-
uaz, nola baitagoca, hala veztitu, eta ez çuehi
ago. Ceren çuehi agocoaz, desohotatcen
ago du bere burua oho ratcen baino. Erregue
veztid bedi oihalic hoberenaz: aitonen semeac
erdicoaz, eta neccaçalea arronteraz. Ceren
gaineraco guztiaç dira vanaloriac, desorde-
nuac, beccatu eguitemo, eta eraguitemo bideac
eta castitatearen gal-garriac.

I. 3.

B. Aina guztien gainetic borz garren censu
escuztatcea, eta hazcatcea, eduqui behar çaica
corporealari, cein baita, *Tactus*, vquitcea, *Tactus*
beguia. Ceren hura da ohoñen capitaina;
çitocn Condea, bertceren èbatsietan ere parte
duena lecuçteaz, miçatceaz, ençuteaz eta
vfnatceaz eguiten da beccatu, ez ordea vquit-
ceaz beçala. Bertce censuec vrruitatic, baina
vquitceac hurbilletic acometatcendu. Be-
guitec; mihiac eta bertce censuec eraiquitcen
dute ihicia, baina vquitceac atcemaiten du.

S.v.



Gaixto eneco pontuan, defonhesqui behatu agatic, eta mintzatu agatic ere, aiteinago nagaiten ezpada, ezta obratic bedere; baina vquituz guero, acabatu da iocoa, eguinila colpea. Defonhesqui behatzea, eritecco seinalea da, baina vquitzea hiltcecoa. Oraino solhatceaz, eta behatceaz beraz ere, quilicatenda, orhoitenda. Cer iganenda bada, vquitcera, eta muslu beffarquetara dadinean? Vritiñic ere berotcen du suac, cer eguinenda bada hurbil dadinean? Gaixqui doha iztupaz, suac utqui deçanean. Berce ioco guztia ametsetacoac begala dira, vtquitcea da, iraçarrinicoa, fina, eta fegura. Garçat vrez eguina delaric, ezta via baino etsai handiagoric: ez eta haraguiac ere haraguiç delaric, haraguiç baino gal garrinagoric. Batac eta berceac ere asco dute elecatren vquitcea. Beraz aparra, ez hurbil, ez vtqui. Ceren nola vquitceac pitzten baitu sua, hala ez vquitceac, hastanceac, eta aldaraturic egoiteac beguiratcen du castitatea eta garbitasuna.

Finen erremedio guztien gaineco, behar ligatequeyen erremedioa da, consideratcea, laincoac icusten gaituela, beha dagocula. Eta baldin den presunatic eztheusentzen behatceac, icusteac eta aiteinean guertatcea, guibelatcen bagaitu, halaco beccatuzen eguitetic; nola iganenda aragoiñ guibela

gaitçan, gueldi gaitçan, eta beguira gaitçan, laincoac icusten gaituela, eta aldacan beha dagocula iaquiteac eta pensatceac.

Hauc dira (eta laincoac ailliotfa liren asco) haraguiaren beccatuan ez erortceco eta eroriz guero ere, iaquitceco, hartu hebar diren erremedioric principalenac. Cein baldin egun beretic, gueroço luçatu gabe, hartcen eta consideratcen badituçu, iaquiçu ecen gorputçari aissa handi bat emanen dioçula; eta arimari, are handi agoa. Eta halatan munduan duçun etsaie handiena, eta perilos ena, cein baita haraguiç, azpiraco, garaituco eta errendatua ibenico duçula.

Nola guerotie guerora gabiltçan bitartean, alha çaicun conciencia gaixtoa.

CAP. XLV.

ERraitendu san Thomasec; eta S.Th. 1. frogatcen den gauça da; gure part. q. laungoicoac ereina eta landa- 79. art. tua daducala gure baithan barrenena, iaquin behar diren gaitçan iaquiteco, eta eguin behar direnen eguitceco hacia eta landarea. Badu gutaric çac bederac, bere baithan barrenena, laina



coac emanicaco aircindari bat, quidari bat eta argui eguille bat. Eta hanc eracusten deracucer dagocun ongui eta cer gaizqui: noiz goacjin maccur eta noiz artez. Eta are guehi ago, hanc berac bere ahal guztiaz, aircinatcen, eta bulcatcen gaitu ongui eguiterai eta guibelatcen, eta halantcen, gaizqui eguitetic.

Barreneco aircindari haur, edo argui-eguil-le haur, cein deiteen baitute Doadorec. *Synderesis*, da gure conciencia, edo arraçoin naturala. Cein ezta munduan halaco aircindarinic, quidariric, argui-eguillic eta ez eracusterric, nola baita arraçoin naturala, eta arraçoin naturalac dieenas; naturaren arauaz, leguez eta ethorquiz daquiguna: bat bederaren barrenac, conciencia: eta concienciaen lehenbicio muguida, abiadura, eracuspina eta conseillua. Hala eraitendu san Crisostomoc. *Ab initio Deus hominē formans, legem illi naturalem incidit. Et quid tandem est lex naturalis? Conscientia nobis expressit, & per se discibilem constituit bonorum & contrariorum scientiam. Non enim opus habemus discere quod mala est fornicatio, sed ab initio hoc scimus?* Hasteric, eguin, çueneric bereric, eman ceraucan laincoa guisonari legue naturala. Eta cer da legue naturala? Bat bederaren conciencia, ceinetan barrenac baitago, bere buruzco egagutça bat, iaquiteco, cein dençuen eta cein maccur: cein den ongui eta cein gaizqui: halaco moldez cein

Chry-
Iostom.
12 ad
Popul.
Anth.
10. 5.

ezpaita cer ibiliric frogatcen, gauça gaixtoa dela beccatua eta gauça ona verthutea, ceren badaquigu haur gueroc ere gueure burutic, legue naturalac berac, conciencia eracusterric.

§. I.

HUneran da agueri maite gaituela gueure laungoicoac. Ceren gueure baitan barrenac, gueure etchean, bertetara conseillateta ioaiteco premia gabe, emaiten baiteracubehar dugun nabusia, eta eracustlea, cein baita conciencia. Eta halatan condenatcen dira, legue naturalaren arauaz bicitcen ezti en lentilac.

Mercatari batçuec eguiten dituzte saleroñ nahasiac, tratu gaixtoac, lucureriazcoac, enganamenduz bertheac. Eta guero ioaiten dira bere coffes soetara edo bertetara, galdequitera, ea tratu hec iustu direnz, eguin ahal dittezqueyenz. Eta ioaiten dira mengoa babe, premia gutirequin. Ceren hain da clar ezti-rela iustu, non baldin bertetan ibiligabe, galdequin baliçote beric bere conciencia, hanc berac eracutz bailiçaye eguia. Eta handic, beric condena bailiçaquete bere buruac. Ceren bere concienciain barrenac ediren bailiçaquete, esquinibatutic beçala, galdez danden guziaren errepuesta. Uti nahi



Suguen.

S. Th. 1. part. 79. art. 13.

badigu concientciari, bera da asco, errebe-
 larcetic beguiateco, artez eta chuchen era-
 biltceco. Ceren badaqui behar dena, eta
 bere eguitez guzia da onera emana. Eta San
 Thomasec diven beçala, onafunari eguiten
 dio belta, eta beguitarte, eta gaixtata funari lile-
 car eta veltçari. *Synderesis dicitur insigni-
 ad bonum, & murmurare de malo.* Bera
 bere concientciaren arauaz haren buruz, eta
 conzelluz gobernatzen eta quidatzen dena
 ongui da, aleguera da, content era paguda.
 Baina bertela, bere concientciaren contra-
 dabillana, gaizqui da, beltz, ilhun, goibel
 eta triste da.

Eta aragoinequin da hala. Cere nola, can-
 goa, befoa, edo goiputecco bertce parte bat,
 bere toquitic eta iunturatic ilquitzen, ma-
 curtzen, aldaratzen edo enhardatzen denean,
 ecin sofega baititeque, eta ez pausa, bere to-
 quira eta leccura bihur arteino: hala bere con-
 cientciari guibela emanic, beccatutan dagoe-
 na ere, nola behar den iunturatic eta aragoi-
 naturalac erracusten dioen bidetic eta orde-
 nantçatic aldaratua, eta iltquia baitago, ecin
 sofega diteque, eta ez pausa, hala dagoeino.
 Bere bidean eta toquian dagoenean, nola bat-
 tago beccaturic ez tuenean, orduan da alegue-
 ra, arrai, aise, content eta bere gogara.

S. 2.

EZta concientcia gaixtoa beçain gauça
 gaixtoric eta erragarritic: bera da açote-
 ric eta borrororic asco. Hala erraitendu San
 Agustinec laincoarequin mintço dela. *Fuisti
 enim & sic est, ut pœnasua, sibi sit, omnis inor-
 dinatus animus.* Manatu cenduen eta hala da: *lib. xi
 Angul. 11
 confel. 12*
 concientcia defordenatua, bera da bere bu-
 tuarentçat, pena, eta gaztigu.

Ezta vhareric, eta ez vholdenic, lurra hala
 lurrutcen eta arrobatcen duenic: ezta pipi-
 nic çura hala defeguiten eta çohiritcen due-
 nic. ezta cedenic vrdaiã hala bohatcen eta ia-
 ten duenic: ezta cerrenic oihala hala eta hain
 guisa gaizqui bilhacatcen duenic, eta ez har-
 ric haraguiã hala galteen eta gastatcen due-
 nic, nola concientcia gaixtoac, eguiten baitu
 bere burua.

Harra da, concientcian barrena, dagoen
 beccatua, eta harrac beçala, gau eta egun, aut-
 siquitcen du, iaten du, larrutcen du. Eta hain
 da gosse, ecen ezpaita behin ere affetcen eta
 ez, autsiquitcetic, eta bere faltén, gogora ec-
 carcetic, guelditcen.

Erregue Dauitec bertceren emazteare-
 quin hutz eguin çuenean, anhitz enfeiu eta
 licul-inguru eguin çuen, huts hura estali-
 nahiz. Eta ez, ez, ceren nehoen veldur, cen



Erregue cenaz gueroz. Baina coen ezpaizquen bere concientciac fofegacera vtzten.

Concientciac, ez Aita sainduri, ez Emperadorei, ez Erregueri, eta ez muduan den bertee pifunari, eztiçaiio barcea. Eta haur gutior eguiten du gure probetchua gatic, beccatutan lohaçar ezcaitecin gatic. Gueure aita propioac baino, maite ago gaitu gueure concientciac. Aita batec, bere semea, behin, biatan, hiruretan edo amarretan, mehatchatu duenean, icusten badu eztela cecatcen eta ez emendatcen, vtzten du, etsitcen du. Baina ez concientciac, ezta behin ere vtzten, eta ez etsitcen.

Vide Chryf. concio 4 de Lafaro. tom. 2.

Guera handia eguiten deracu gueure concientciac, eta guera hunc appur bar ere, guibelatcen gaitu, beccatu eguatic, bertecela eguinluque guteac. Hala erraitendu san Crifostomoc. *Conscientie increpatio sacra est anchora, non sinens, nos tandem, in peccatorum demergi profundum* Concientciaren erançurtea eta mehatchua, aingura da, eta aingura ere saindua eta sacratua, beccatuen hondatzean erort. cetic, eta han ithotcetic beguiratcen gaituena.

Chryf. ubi supra.

¶ 3.

ORdea differentia handia da; concientciaren artean, anhitz doha, batetic bertecera.

Concientcia batque dira erne, senticor, min-bera, herti: eta berriz bertee batque, loti, lil, laço, çabal, eta ez antia. Çapata bat duçuncan, neurri, iustu, doi; ecin paira deça queçu bartenean, den legarti tuipena: baina çapata baquetazco handi çabalac, eztira hain perilos; hec badute leccu franco, oina guti min beraturic, ez legarraren, haina haritzcoen ere eduquitceco.

Bada differentia haur berorda, concientcia onaren, eta gaixtoaren artean ere. Concientcia onac, iustuac, ecin paira deçaque beccatu venial bat ere, baina gaixtoac, laçoac, ezta mortalez ere conturic eguiten. *Multi per nimias iniquitates non sentiunt peccati conscientiam*. Anhitcen ere, beccatu eguin hutsen bohetz, eztute bere concientciaco beccatuac sentitcen. Eta haur da Spiritu Sainduac ere dioena. *Impius cum in profundum malorum venerit contemnit*. Gaixtoac beccatuen hofinean bartena saithuz guero, galcen du sentimendua, ezta antliaric *Pia mentis est, vulnus sentire peccati. nam qui expertes doloris sunt, non sentiunt vulneris acerbicatem, quod est immedicabilis egriitudinis*. Seinale ona da, beccatuaren çantiaten sentitcea, eta gaixtoa ez sentitcea. Ceren sentimendua galduz guero, oinhaceac hillez guero, ezta fenda gai, ezta fenda quiçun, eta ez midicuntçatan ibiltceaz probetchuric. Haur da mundu hunetan beccato-

Ambros. lib. 3. de para. cap. 5. tom. 2.

Prov. 18.

Ambros. in Psal. 50 tom. 2.



reac ahalduqueyen miseriari handiena, estaturic perilosena eta egoitçari gaixto ena, beccatuaren ez sentitcea. Halacoac concientiaren sainga guti aditcendu, lo guti hargatitc gaitcendu. Ordea ezta ez hura ere aldit gütiz nario gabe; den gaixto enari ere, noizic behin bedese alhateen çaica bere concientia Ceren San Chriostomoc dioen beçala.

Chryf. in Psal. 142. t. 1

Ambros. depoen. cap. x. tom. 4.

Neque enim in ejus potestate situm est remittere. Nahi ago badu ere ecin barcca degaque concientiac. Hala emaitendu aditcera San Ambrosioç ere. *Conscientia cum non habet loquendi usum, nescit tamen tenere silentium.* Concientia mingatcen usatua ezrelaric. Eztaqui ala baina ichilic ere egoiten. Ceren campoan mingatcen ezpada ere, baitordea mingatcenda barranean.

Concientia da behin ere lohacartcen ezten cerbitçari bat, marrantatcen edo erlasten ezten predicari bat, eta bethiere ontasunera ahal beçanbat eramaiten gaituen quida ri bat. Eta etçaiçu pontu batez ere aldaratcen bethi darraicu, gorputçari itçala darraican beçala.

Eta eztago ez alferric ere; alha çaiçu, saingaz, eta erançutez dagocu. Beccatua eguiten baino lehen, eguitean, eta eguinez guero erastendu, auisatcendu, accusatcendu. Eguguztiz ere beccatu eguin ondoan, iaquitcenda, orduan atçartcenda orduan dira cinac

minac; orduan dira ezproin colperic handienac. Ceren San Chriostomoc dioen beçala. *Sicut ebrius cum multum vini ingurgitat, nullum sentit à vino damnū, postea autem sentit: ita peccatum, donec consummatur obtenebrat mentē & quasi densa nubes, ita mentē corrumpit.* Deinde *gravis arrodit, monstrans absurditatem peccati.* Nola hordiac arnoa iresten duenean, ezpaitu sentitcen, handic heldu çaican caltea: ceren goçatafun hare, edatean hartcen duen atseguinac, itçutcen baitio adimendua. Ordea guero hordia ioan Diquionean, egagutcen baitu bere salta eta defohorea: hala beccatoreac ere, beccatua eguiten duenean, eztu sentitcen eta ez iccusten, handic heldu çaican caltez, ceren hartaco atseguinac, eta placerac liluratcen baitu, hain liluratcen ecen ezpaita orduan gaitceç orhoitcen. Baina guero iragan denean beccatua, iaquitcenda concientia, eta hain cinç accusatcen eta liscar eguiten hasten da, non iragan diren placer, guztiez ahantçiric ibentcen baitu beccatorea nahi gabez bethia.

Chryf. Hom. 64. in cap. 42. Genes.

§. 4.

ERraitendu San Agustineç; emazte gaixtoac, itçaiçurac, eta kheac atheratcen duen beçala guiçona bere etçeric: atheratcen duela concientia gaixtoac ere beccatorea.

Vide August. in psal. 33. 82 in psal. 100.



bere folegutiç; Emazte gaixtoa, ithaiçura; eta khea diren leccuan ezta placeric, ez eta conciencia gaixtoac duena baiñan ere ontasunic. Beccatorea far badadi bere conciencia barrera, bere hala hango kheac arheratocendu camporat, azpiratocendu tristurac.

Campoan etsaiac, perilat eta affalduac dituenac, laster eguiten da etchera. pausatcera, eta bere buruaten seguracera. Ordea etchean ere etsaiac, atsecabeac, ithaiçura khea eta emazte gaixtoa dituenac, cer eguinendu? Non pausatocodu? Cer consolamendu içanendu? Campoan etsaiac, etchean guerla non edirenendu biquea? Non? Bere barreneco ganbarac, bere conciencia, han behar du pausatu, han alegueratu. Ordea baldin bere barreneco ganbara hartan ere, bere conciencia ere ediren ten badu, etsaiac, beccatuaren ithaiçura, khea eta erangitea, cer eguinendu orduan? Noraco bere conciencia, ezteçaque pausuric ediren. Ceren han berean batcen baitçaiçaca bere etsaiac; eta etsaiac gaixtoena etche barreneco.

August.
in Psal.
45.

Hostm suum in venit, quo confugerat. Etsaiaren ihesi dabillala, eguitendu etsaiarequin incostru. Beraz guehien bazterretaric hartua da hacoa, alde guztietaric atrapatua da. Ceren bere burua ere etsai baitu eta berac, bere gaitcecin baitaidique ihesic. Arraçoinequin erra-

tendu San Agustinec. *Nulle pœne gravioris quam mala conscientie, in qua cum non habetur Deus, consolatio non invenitur.* Ezta conciencia gaixtoaren eguitecoac eta penac baino, pena handi agoric. Ceren nola ezpaitaai lacoa han egoiten, ez ezta, consolamendurie ere edireiten.

Eri den presunac, barrenean minduenac, ahal daidique dembora appur batez, campoan eta sendartean aleguera iduri, ordea guti hala irauñ, bere hala bere barreneco gaitçac, gogortan ibentocendu, tristetocendu. Hala tristetocendu bada beccaturan dagoena ere, bere conciencia, bere barreneco critasunac. *Vides conuivium peccatoris, interroga ejus conscientiam, nonne gravius omnibus foetis sepulchris?* Iccusten dugu beccaturan dagoenaren gonbitea, ian edana, bonbacia eta banquecia, baitrudic ecen han dela parabisua, etzela cer guehi ago desira. Ordea baldin galdequiten badiogu, ea nola diho acon bere barren hartan, bere conciencia, erranen deratçu gaizqui dela, narda garridela, sepultura quiratçac baino, quirats ago dela. *Impii quasi mare feruent, quod quiescere non poss.* Gaixtoac itas iraquitua beçala dira, ezte baqueric eta ez foleguriç; hequen holec, whinec, bagueac eta tormentec, hanbat badira, ecen, gainez eguiten baitute. Era badio Salomonec ere. *Precordia fatui quasi rota carri.* Gaixtoaren conciencia, eta barren aldeac, or-

August.
sent. 191
tom. 3.

Ambros.
lib. 1.
offic. c.
12. tom
5.



garrenedo gurdiaen a roda beçala dira. Gurdi carginuac badarafa, badirudi bere carga handia ecin iafanez, aren curatcen dela : hala arrencuratcenda bada beccatorearen concien- cia ere, bere beccatuen carga eta pisurafura ecin iafanez : hanc neccatcendu, hanc çapatcendu, hanc bere soinuaz, habarrotfaz eta crastear trufitecen, eta penatcendu.

Egun batez ioan cituen Philosopho batez çapata barçue, berè etchera, prometatutic çapata guilleari, dembora gutiren barrenean çapata guco ceratçala. Eta abiatucen bere hiticean, eta eçpean pagamenduaren eguiticet Baina ençunic ecen hiltcela, diruac behar cituen çapataguina, bihurtucen alegueratc bere diruequin etcherat, iduritutic ecen hanc inbertez quito tela : eta eduqui cituen çapat bait demboraz diruac berequin. Ordea çapat tarte hartan hain iaten eta erratcen çuen bere baitan barrena bere conciençiac, ecen ecin çapataguina en etchera ; eta hanc egotci çapatuen, erraiten çuela, çapataguina bere berarequin mintço içan bailliz beçala.

Senec. *tibi viuit, redde quod debes.* Bertce guztientçac lib. 7. *nil bahaiz ere, oraino bici aiz enetçar.* Theop. de be- *nefic. çic bada har itçac heure çapaten diruac, eta* 21. *vtzrac mihi baquea.* Descargua eguin arte neçerquen vtci bere conciençiac sofegarecra, ar arterrano beñi eman cioen gauri eta nari

Etra egungo egunean, mundua huncin senticor, eta ez conciençiatu.

§ 5.

GAixtoa, bertce etfairic gabe, bere conciençiac berac, bere baitan barrena, arrencuratcendu, autsiquitcendu, çaurtçendu, larturcen, eta penatcendu. Iragan denean beccatuen placera, hanc da bere hala conciençiacen desplacera. Beccatua, çauri hanc guillea beçala da. Hanc eguiticet arrefeguin hartcen duç. Ordea hanc gordin eguiticet, guelditçc çaitç. Ondotc errafumina. Hala guelditçcenda bada, beccatuen placera iragan denean ere, conciençiaten mina eta oinhacea. Succar handiarequin çaudenean ere, arrefeguin hartcen duç vñhotz aren edateaz, ordea guero edan ondoan, çaitç berretutic, içaiten duç arrefeguin hanc atsecabea. Hanc da fruitu onda gabèn ondorea, hozqui dura, higuinçca.

Garçelean dagoenari, emoçu, nahi duen beçatuen iatera eta edatera, eguiticet abal dazugun beçta guztia, baina ezta hargatic osloqui alegueratcen. Ceren ezpaitaçqui çeri dagoçan. Alegueratçqui ago bicida, athez athe dabillan erramefa. Ceren San Chriçoftomoc dioen beçala. *Sappicij expectatio non finit presentium voluptatum sensum capere.* Garçelean dogoena, çatu vtzren, gueroço çaitçigatç veldurçac, atsec

Chryf. Hom. 12. in c. 7 Rom tom. 4.



guin hartcera, eta ez esquen artea dituen plazer appurten gogacera.

Urtebera condenaturic dagoena, aicinetic penatcenda, urtebeaz orhoitcen den gaztiac, urteatcen begala da. Hala da bada concientia gaixtoa duena ere. Halacoa noiz eta hartzen boita bere gogarenic, bere lagunquin arte guin hartcen, orduan berean orhoitcenda bere beccatuez orduan berean alhatcen caica bere concientia: halaco suertez, ecen ezpaita posible beccatutan dagoenac, hala dagoeno arte guin dafun ofonic ahal duqueyen.

Halacoac, perillie ezruenean ere, vste du perill duela. Eta hala iccussio duqu anhitcetari ere, ohoinac edo guison hilcaileac sentitcen duenean iusticia. bere hala vera bere buruz, nehor orhoitcen ez dela, bere concientiac accusaturic, ihesi itzal gaizca abiatcendela: eta handic nabar benduric gaizquiere helcen dela.

Gaixtoac vstedu ecen hartgaz orhoitcen ez tirenean ere, hartgaz mintzo direla. Gaixtoa bethi da guibel verduri, eta gogan behartu.

Gau ilhunean baccaric dohana, deusen perillie ez ican agatic ere, latz da, veldur da, icic, eta iccaca da: Hala da bada gaixtoa ere, deusen perillie ez ican agatic ere, bere concientiac accusaturic latz, icic; iccaca eta verdur.

Urdeac, bertce abreceguiten ezrutena, oraino minic hartu gabe, uquitceaz beraz egaiten du marraffa. Ceren nola ezpaitu deufere du

den gauçatic, bere vrdaja baicen, ez illeric ez lumaric, ez larruric, eta ez bertce gauçatic; bere iganez, eta naturaz da veldur, hartcen dutenean, biciaren edequitceco hartcen duten: Hala bada concientia gaixtoa duena ere, lehenbicico aldi gaitcean, den buruco minic ttipiencan, da veldur hil dadin, bicia edequi diaçoten. Ceren espaitu deus ere deus valio duen gauçatic, bere bicia baicen, eta hura galduz guero, penatu behar baitu.

¶ 63

ERraitendu Job guison saindu hanc *Sonitus* *terroris sepe in auribus eius, & cum pax sit, Job. 15*
ille insidias suspicatur. Gaixtoatic bethi dagoca bere beharrietan, veldurtafunaren soinua, concientiacaren latztafuna, eta assaldua: eta baquean denean ere, vste du guerlan dela, eta orduan ere atrapatu nahiz, celatan dagotçala: Hant da are mundu hunetan ere, bertce munducoaz gainera, gaixtoatan gaztigua, veldurtafuna, segurantçatic gabe, icic ibiltcea. Gaztigu hunetçaz, mehatchatu cituen, gure lincacoac, bere manamenduen hautfilleac, er-Lev. 26
raiten ceravela *Quod si non audieritis me, nec feceritis omnia mandata mea, fugietis nemine persequente.* Baldin ençuten ezpanaçue, eta ene

T,



manamendu guztia complitzen ezpaitu-
que, iaquique ecen, nehoren peil gabe, eta
nehor iarraiqui gabe, emanen diogueta ihe-
sari, eta iccara handi bat eguinen çaitçue-
la. Hala eguin ceican iccara handia Caini, bere
anaia Abel hil çuenean. Abiatucen Cain
mundutic ihesi, erraiten çuela *Omnis igitur
qui inuenerit me occidit me.* Eguindu eneac,
ezta eçcapatçeric, ediren naçan guztiaç
hillen nau: Cerdioçu Cain? Noren çara
veldur? Nore hillen çaitu? Ez Adanec ez
Euac. Çeren horieç çure aita amac dira, eta
oraino ezta munduan bertçeric. Noren çara
bada veldur? Ez nehoren bertçeren: çure
buruaren, çure concientiaçen. Çeren con-
cientia bera, bertçee eçfaiçic gabe, da a-
sco, veldurtasun handiarequin erabilteçeo.
Adanec beccatu eguin çuenean, eta sentitu
laincoac deitu nahi çuela; ihes eguin çuen,
gorde cen. Eta çergatic gorde cen Othe çia-
quien çer nahi çioen laincoac? Bai baciagu-
en (dio san Agustineç.) Eta nondic çia-
quien? Bere concientiaç erranic. *Neque
alium obfurgatorem habebat, & tñm peccato-
rum;* Etçuen bertçee leccuoric, eta ez ac-
cusatçailleçic, bere concientia baiceni: bai-
na hura çuen asco. Eta halatan, berac bere bu-
rüz, bere falta eçagaturic, eta hobendum çela
nabarbenduric, eçtagunea bilharu çuen.
Hargatic erraitendu san Ifidoroc, *Numquam*

Gen. 4.

August.
Hom.
17. in
cap. 3.
Genes.
tom. 1.

*securus est reus animus, mens enim mala conscien-
tia. propriis agitur stimulis.* Pretuna ho-
benduria, faltatçua, ezta behin ete fegur,
çeren bere concientiaçen eçproinaç berhie-
te colpeca hari balçaitça. Pontu hunen
gainean erraitendu san Ambrosioc *Domi-
ni autem traditorem non inuenio à iudice esse
damnatum. Non enim damnat eum Pilatus,
non damnat populus, sed quod grauius est, se-
ipsum condemnat.* Ezta edireiten ecen Judas,
launaren faltçaillea, nehorc condenatu çuela,
ez Pilatuseç, ez herriac: eta ez bertçee: bai-
na gaixto ago baita, edireitendur, berac bere
burua condenatu çuela. Çeren sententia
guztien gaineco sententia, guztiaçhitcen;
eta itagaten ditçena, bat bederac bere bu-
ruai, bere concientiaç vençuturic, emaiten
dioena da.
Eta hunetan da agueri, eçtela antzia, ne-
horc bertçee ez iaquin agatic ere çure falta,
eta beccatua, baldin çeroreç badaquçu,
concientia bera da leccuoric asco; Ezta
baicentçat goçcoric, çoccoric, eta ez eçta-
guneçic. Çeren Senecac dioen beçala. *Quid
prodest recondere se & oculos hominum aure que
videre? Bona conscientia turbam ad vocat; mala
autem in solitudine anxia est, atque sollicita. Si
honesti sunt que facis omnes sciunt, si autem tur-
pia, quid prodest, neminem, cum tu scias? Cui pro-
betchu da gordetçea, eta ien den beguieratic eta*

2 Selil.
Ifidor.
lib.

Ambro.
serm 2.
in Dan.
Tom. 2.

Senec.
epil. 43



beharrietaric ihes eguitea? Conciencia onac aguerrian, eta iendartean ibili nahi du, fida da han ere. Baina gaixtoac, eztu nehon ere, segurantzaric edireiten, ez etchean, ez campoan, ez baccarric dagoenean, eta ez are compainiatan denean ere. Cure obrac onac, eta prefluac badira iaquin bitzate guztiec, baina baldin gaixtoac, defohorezcoac, eta defohot gartiac badira, cer probetchu da, bertceez iaquitea, baldin cerorrec badaquizquirce. Ceron garata, çute conciencia da leccucoric segurena: bertce guztiec faltatu agatic, harte ezteçaque falta, harte on eduquicodu, harte accufatucodu, Hargatic erraitendu halaber Senecac.

Senec. lib. de morib. *Nullum consciam peccatorum tuorum magis tenueris, quam te ipsum: alium enim potest effugere, te autem nunquam nequitia enim ipsa sui pœna.* Et çarela çure beccatuac daquiz quitenen baten ere, hain veldur, nola ceure buruaren çeren bertce taric badaidiqueçu ihes, escapagaitzque, baina ez ceure ganic. Ceren beccatua bera da, bere buruaren çat pena, eta gatzign.

Job. i. Job guizon saindu hari guhertatu ceitçan calte, galtce, eta fortuna gaixto guztietan, escapatcen cen bethi ere bat, auisatceco, eta berriaren eccartceco. *Ego evasi solus, ut nuntiarem tibi.* Hala escapatcenda bada beccatorer baithan ere conciencia, eta concienciaera

mandataria, eta erançutea, berri eccartceco, auisatceco, eta erraitceco, cenbat calte ethorri çaitcan, eta cenbat ontasun galdu duen beccatuaren eguiteaz.

§. 7.

Concienciae aubitz officio du, bera da calcate, bera da leccuco, bera da accufatçaille, eta defençatçaille. Eta hain da fin, eta eguiati, ecen berac milla leccuco valio baitu. *Conscientia mille testes.* Hain da artez, Quinte iustu, eta leyal, non mundu guztiac expaitçaque irabaz, ez corrompi, eta ez bertce aldera itçul. Ezta diruric, eta ez faboretic: ezta lausenguric, eta ez mehatchuric: ezta arartecoric, eta ez adisquideric, conciencia bere eguiatic maccur deçaqueyenic. Pontu hunen gainean bethi beçala ederqui erraitendu san Chrisostomo vitezco mihi hare. *Externi iudices pecuniis corrumpuntur, et assentionibus delinuntur, et metu simulant. At conscientia tribunali nulli hominum non vit cedere: sed quam vis de dero pccunias, quam vis mineris, quam vis aliud quod vis feceris, iustam ferret sententiam ad versus peccatoris cognitiones, adeo, ut ipse quoque qui peccatum admisit, seipsum condemnet, quam vis nullus alius condemnet.* Munduco gotheac audien-

Chris. concio. 4. de Lazaro.



dientziac, eta justiciac nahasten dira, leccu-
coec vccatcen dute, notaria irabaztenda, al-
catea diruz itzultcenda, lausenguz, eta f. bo-
rez gobernatcenda: eta handie anhitceran
ere barreanean çarela vste dugunean, cam-
poan edireiten çara, irabaci vstea, galcen
duçu. Baina concientiaren gorthean, eta nu-
ciantian ezta halaco bide gaberie egui-
ten. Aitcitic bertee gustiee salatu agatie,
culpantac berac, concientiac berac ac-
cusatcendu bere burua, eta bai condenatcen
ere.

Campoan eguin ahal ditezque, eguiaten
contraco enfeiuac, eta frogantça falsoac: fal-
ta duenac ere vkha ahal deçaque, eta erran-
eztuela faltarie, baina hargatic, barren har-
tan, bethiere concientia bere eguien ego-
nenda. Mintço direnec ahal dadiquete huts,
baina est concientiac: hari galdequioçu ha-
requin mintça çaitcei, eta hare nor çaren er-
ranen deratçu; han miraillean beçala, çeu-
burua iccusico duçu.

Eguitco batec hac hartcen çaituenean, han
da bere hala concientia, era egun daino eguin
ditutçun falta guztiez orhoitcen çaitu, guz-
tiac gogora eccartcen derauzquitçu. Eta a-
re erraiten deratçu, cenbait ceure beccatu
gatic, hunelaco, eta halaco gatic, hec gusti-
ethorri çaitz quitçula. Hala Iosephen anaiee
Egiptora cirenea, eta han eguitcotan Iari

cirenean, bere beccatuaz, hogoy vrthe çuela
eguin çatenaz, orhoituric errancioten elccarri.
*Merito hæc patimur, quia peccavimus in fra-
trem nostrum, videntes angustias animæ illius
dum deprecaretur nos, & non audivimus, id-
circo venit super nos ista tribulatio.* Merecituric
ditugu eguitco hauc guztioe, iustu da guehi
ago ere paira deçagun, çeren beccatu han-
dia eguiniç, gueure anania salduric bai-
çaude.

Gogorqui usatu guenduen haren aldera-
cotçat, anhitz orhoitz eder eguin çeracun, an-
hitz nigar purpuilla ifuri çuen, asco baitçir-
atequeyen, den bihorcie gogorenaren ere
hautsteo, eta beratceco; baina gureac etci-
ten cantitu ere, etceicun vrricalda, ezquen-
duen entçun Hargatic gabilteça bada orai
gueroc ere assaldatuac, accusatuac, eta atfec-
beztatuac. Hunela erraitencioten elccarri.
Hunela accusatcen cituen bere concienti-
ac. Eta guztiz ere Ruben bere anaietarie batec
eguiten çeracuen erançute handi, erraiten
çeracula. *Nunquid non dixi vobis, nolite pec-
care in puerum & non audistis me, in sanguis
eius exquiritur.* Ezneratçuen nic orduan
ere erran, beguira cendutela, etceneguitela
halaco beccaturic anaia hanraren contra?
Ercenegatela sal? Baina ezñenduçuen en-
çun nahi içatu: hunan non duçuen bada çuec
ere orai ceuen merecia, ceuen ordain



Chryf. moc dioen beçala. *Ipsorum conscientia per obla-*
 Couc 4 *tam occasione inſurrexit, momordique illorum*
 de La- *animos efficiens, ut nemine compellente, confite-*
 zaro. *rentur ſua facinora. Ne horere borchatu gabe,*
 be èc bere votondatez, aguertu çuten, eta a-
 rthoitu, hanbat demboraz eſtaliic eduquicu-
 ten gaixtaqueria. Hant da concientiaren
 cargua, eta offeioa, bertçen ahants orduetan
 orhoicendu, demboraten buruan penatcen-
 du, min, eta oinhace emaintendu. Eta lchiat-
 cen çaicu, lehen baino lehen, gueroco luca-
 menduran ibili gabe, bide on batean iar gaite-
 eilla. Eta are erraiten deracu ezcaituela an
 atteraino foſegatcera vtico, eta hala ezcaitu
 vizten ere. Beraz hunelatan, concientiçac be-
 rac eguiten derauzquigun erançuteac gatic,
 eta etchean barrenna beccatuaren kheric, it-
 haiçuric, eta liſcarric ez içaitea gatic ere, be-
 har dugu egun beretic, gueroco beguira egon
 gabe, gueure concientiatic, cer ere notha,
 falta, eta nariio baitugu khentcera enſeiatu:
 eta halatan baquean, eta foſeguan egon iarti,
 eta paulatu

Nola guerotic guerora gabiltçan bitarteangalt-
c n dugun conciencia onar en baquea,
 eta foſegua

CAP. XLVI.

GAUÇA ſegura da; clara, eta eſpe-
 rientciçac ere frogatua, concient-
 cia gaixtoaren autſiquaç, autſiqui
 minac, liſcarrac liſcar garratçac,
 eta colpeac ere, colpe bortitçac direla: eta
 halaco conciencia duenac, hala dueino, pla-
 centia offoic eztuqueyela.
 Baina gauça clara, eta frogatua da halaber;
 conciencia onaren baquea, eta foſegua gau-
 ça goçoa, eta placenta dela: eta nola mundu
 hunetaco ifernua baita conciencia gaixtoa,
 hala dela halaber, mundu hunetaco pa-
 tabiſua, conciencia ona.

Ad ſpirituale gaudium hodierna die fratres Auguſt.
 chariſſimi intendo vos invitare, quod quidem gau- ad frat.
 dium, non operatur diuitiarum copia, non fallax in ere-
 mundi gloria, non prolis fecunditas, non corpo- mo ſer-
 ris ſanitas, ſed tantum conscientie puritas. Placer tom. 10
 ſpirituale, arimaco alegriantçara, conui-
 datu nahi çaituztet, egungo egunean, neu-
 to anaia maiteac (dio ſan Aguſtinec.) Eta.



alegriantça haur eztu ez eguiten , eta ez emaiten aberatlasunac , ez munduco ohoreac , ez seme alaba dun igaiteac , eta ez gorputceco ofasunac ere. Cer eguirendu bada ? Concienciaaren garbitasunac , beccaturic gaibe egoiteac. Hare eccartendu eguiarzo alegriantça , hare oinhace guztietaric fendatcendu arima , eta hare campoiat ere atheratcendu barren hartaco harra , eta tristura. Ceren

Ambr. san Ambrosioco dioen beçala. *Sicut in opere c. 2. in malo est tristitia, ita & in emendatione gaudium.* epist 2. Nola obia gaixtoan edireiten baira tristura, ad eta maleconia , hala onean , onera emanen , R. T. 3. eta emanatecan , edireitenda alegriantça , eta

Isid. l. bozcarloa. *Vis namquam ; esse tristis ? Bene vive , secura mens tristitiam leuiter susinet ; bona vita gaudium semper habet.* Nabidugu

1. Sel. ez behin ere içan triste. Caren prestu , ençu conciencia ona , conciencia onac aintqui iasaitendu , deus guti sentitcendu , campotic heldu çaikan tristura : bicitec onac bethi du berequin arraitasuna , irri nahia eta placentia. Hargatic erraiten çuen iondone Pauloc , etcebillala behin ere triste , triste , beçala bai , baina bethi aleguera.

2 Cor. 6. *Quasi tristes, semper autem gaudentes.* Iondone Pauloc anhirz trabailu , eta atsecabe içaiten çuen , ceinec tristetceco occasio emaiten baitcioten , baina hec guztiaç , conciencia onaren alegriantçac , eta arraitasu-

nac , iguzquiac lanhoa beçala , haicat cen , eta barraiatcen cerautçan.

S. I.

GAixtoac gueçurrez dira aleguera ; eta eguiar triste : eta onac bertce aldera ; eguiar aleguera , eta gueçurrez triste. Propioqui , eta eguiar mingatcera , onec dute alegriantçaren icena , eta içana , eta gaixtoec icena , eta ez içana.

Cure atseguin , eta plazer guztien mintceco , eta goço gaitzceco , asco da conciencia gaixtoa , eta bai atsecabèn , eta desplaceren goçatceco , eta çaporatceco ere conciencia ona. *Namque si ibi vulnus non sit , sanumque su illud , quod conscientia vocatur , ubicumque aibi passus fuerit tribulationes , illic confugiet , & ibi inueniet Deum.* Dio san Agustin. Guçonac tristetua , atsecabeziatua , eta eguitecoz bethea dabillanean , baldin bere barren hartan çautic ezpadu , bere conciencia sendo badu , hara laster eguitendu , han lainçoa edireitendu , eta han harequin batean bereburua consolatcendu.

Çur - guinac çuça lantcen , eta ppaitcen deuncan , aurquitu agatic gain aldea , açalari datecheçana arraça tua , eta pipiztatua ; eztu hargatic antharic , baldin bihotça , bar-

Tvj

Aug in Psalm. 45.



ren aldea on, eta fin edirenten badio. Guico- naren aqala, eta gain aldea, gorputza da, barrena, eta mamia da conciencia: eta hura on bada, ezta gaineracoaz antsiaric, eta ez cer contu eguinic, ceren barren hura baita principala.

Ambr. 1.1. of. 15. T. 3. Et ideo non secundum forensem abundantiam estimandam esse beatitudinem singulorum, sed secundum interio rem conscientiam. Ezta ez ceran behar nehor dela bere gogara, campo bere gogara gatic, aberatz tafunac gatic, ian edarac gatic, eta ez bertce franquiagatic: Baina orduan erran beharda bat bedera dela ongui, eta bere gogara, eta atseguinac, eta placetac ere ditela offoac, eta complituae, noiz eta barren aldea, conciencia baita ongui, sendo, garbi, eta nario gabe. Non contristabit iustum quidquid ei acciderit, impii autem implebuntur iniquitate. Dio Spiritu sainduac. Cer nahi den guertha daquiola, ezteqaque, deusec ere iustua trista, baina gaixtoac bethco dira gaixtaqueriaz, eta eguitecoz. Hunen arauaz erraitendu Eliqac ere. Nulla nocebit ei adversitas, si nulla domineatur ei iniquitas. Eztio bat ere guertha daquion eguitecoc calteric eguinen, bat ere beccaturic eztuenari. Ceure beccatuec, eta apetitu desordenatuec eguinen deratqute guerla, eta calte, hec tristeceren

Prover. 12.

gaituzte. Kheintqatcu hec, eta iqanen qara aleguera, kheinqatcu hec, eta bicico qara baquez, eta ceure gogara. Hala erraitendu Erregue Davitec. Pax multa diligentibus legem tuam. Baque handia du conciencia onac, laincoaren legue sainduari darraicanac. Eta badio san Ambrosioc ere. Quid est iuste vi vere, nisi cum tranquillitate vi vere? Cer da iustuqui bicitcea, baquean, eta soseguan bicitcea, baicen? Erran nahi du conciencia onaten iqaitea, eta baquean, eta soseguan egoitea guzteia dela bat. Ceren iustuac campoan guerlac, eta eguitecoac iqan agatic, barrenean bethi du baquea: berequin du halacoac, mundu huetan erdiets ahal ditequeyen loria, eta conciencia. Halacoac ezta antsiaric munduco erran-merranac gatic. Falso testimonio bat, contrario bat, erauzten diotenean, eta batec eta bertceac ahotan gaixtoqui darabillatela icusten duenean, laster eguitendu bere conciencia: eta nola ezpaitu han diotenciatie edireiten, hartqaz consolatcenda, hartqaz esporqatcen, eta berotcenda. Arracoinequin erraitendu san Ambrosioc. Bene sibi conscius falsus non debet mori veri, nec estimare plus ponderi. esse in alieno convivio, quam in suo testimonio. Faltatic eznela daquien presunac, offoic ezta bertceren gaizqui erraitiaz casuric eguin behar, eta ez pensatu ere, bertceren tom. 5.

Psalms 118.

Ambros. lib. 19. epif. 28. tom. 2.

Ambros. lib. 1. cap. 5. tom. 5.



Greg
epist 2.
tom. 7.

guceturac indar guehi ago ducla , beraren
eguiac baino H nen arauaz erraitendu san
Gregorioe ere. *In omne quod agimus , vel extra
de nobis agitur , recurrere ad mentis arcana de-
berus Et si omnes vituperen . Liber tamen est
quem conscientia non accusat . Quia si omnes lae-
dent , liber esse non potest . si hunc conscientia accu-
sat .* Eguiten ditugun gauça guzietañ , edo
gutçaz eguiten , eta erraiten direnetan , con-
cientiaren barren co sequeietura eguin behar
dugu laster , eta hartçaz , haren leccuco tafunaz
har barren haitan dio enaz eguin contu , eta
ez iendearen erasteaz , eta ongui edo gaizqui

August.
lib. 3.
contra
Periti.
donas-
tita.
Luter.
tom. 7.

mintçateaz Ceren san Agustinec dioen be-
çala. *Nec malum conscientiam sanat pra. onium
laudantis , nec bonam vulnerat con vitiantis oppre-
brium .* Conciencia gaixtoa , eta etia eztu on-
cen , eta ez sendatcen nehoen laudorioac , eta
ez ona , eta sendoa ere gaixtatcen , eta ez erit-
cen , gaizqui erraitetac , hargatic bat bedera ,
dena içanenda.



§. 2.

BAi ordea damu hartcendut , iendec ene
baithan eztenaren erraitetaz , eta bai bat-
çuran denaren ere aguertceaz , eta banatceaz.
Sinhestendut damu hartcen duçula : baina
pacientia behar duçu. Ceren bartceren mi-
hiac ecin eduqui ditça quetçu , hec eztaude
gure escuan. Utzquitçu hec , gaixtoac baitira ;
eta iende onen , eta prestuen erranaz , eta ceu-
re concienciaz eguiçu contu. Ceren san Ber-
nardoc dioen beçala. *Omnino sufficit adversus
os loquentium iniqua , opinio bonorum , cum testi-
monio conscientia .* Afco da mihi gaixtoen con-
trato , iende onen alderacotçat fama onean
egoitea , conciencia onaren leccucotafuna-
requin.

Bernar:
super
cantica

Deusec ere eztu hala sendatcen , eta ez
arintcen iende gaixtoec , gutçaz gaizqui er-
raitendutela , engureaz , hartcen dugun da-
ma , nola eguiten baitu , icusteac , eta iaqui-
teac eztugula hobenic : eta iende prestuec , eta
ohoratuec ere , eztutea vste , eta ez sinhesten
gutçaz alacoric.

Batuin iende prestuec erraiten badute çut-
çaz , ongui , eta concienciaz ez accusatcen , egui-
çu loa lacho , eztuçula antharic charrec
edo galduec gaizqui erran agatic. Aitçitit



atseguin harteco duçu, ceren hartan da
 Laert. agueri etgarela hec beçala. Eguia haur ere
 lib. 6. dieti cuen ongui Antitenes Philosopho.
 cap. 2. Ceren hanc engunça enean ecen iende gaix-
 to bat nec, haren laudorioz ceudecilla, erian
 çuen, tristura handi batequin.

Ha laincoac, cer eguin othe dut nic? Cer-
 tan faltatu orhedut? Veldur naiz cerbate-
 tan huts eguin dudan, eta lehen danie
 gaixtatu naicen.

Ceren iende gaixto batquec, lehen nitçaz
 gaizqui erraiten çatenec, erraiten omen du-
 te orai ongui. Cein baita seiñale gaixto
 Ceren halacoec ez ohi dute erraiten ongai-
 ric, gaixtoez, eta gaixtaqueriez baicen. Ha-
 nela mintçatu cen Philosopho, hure gaix-
 toen condicioa çagaturic. Beude betar
 hec, diren becalacoic, ez hetarat bururic
 itçol, ez hey beha, ez hetçaz conturic eguin
 Ceure concientiarequin educaçu, harequin
 conseilla, eta consola çaitedi. Hala eguiten
 çuen Iondone Pauloc erraiten çuenen. *Gloria*
nostra hæc est vñstimonium conscientie nostræ
 2. Cor. Haur da mundu hunetaco gure loria, eta
 2. parabisua, concientiaren accusamenduric
 gabe egoitea, barren hartan faltaric ez ed-
 reitea.

Erran baillu beçala. Batçuen loria, eta
 contentamendua da, aberats içaitea: errenta
 handien erdiestea; handiequin seguitceaz

iocoan, ian-edanean, emaztetan eta munduco
 berce placeretan demboraren iragaitea, baina
 ez gurea (Dio Iondone Pauloc.) Guc eztugu
 hutzaz conturic eguiten, barrenecoaz, con-
 ciencia coaz contentatcen gara. Hunen ara-
 baz erraitendu San Ambrosioe ere. *Proposi-*
tum pie mentis mercedem non expetit, sed pro-
mercede habet boni facti conscientiam & iusti-
operis effectum. Conciencia ona, bere ongui
 eguinaz, bere baitan barrena edireiten duen
 pagamenduaz, contentatcenda, hura daitça af-
 to, eztu bertceric bilbatcen, eta ez desiracen
 Ceren San Ambrosio berac dioen beçala.

Quis enim puritate & simplicitate peccatoris dulcior
fructus: Quis cibus suavior quam is, quem ani-
mus bene sibi conscius, & mens innocentis epula-
tur: Cer fruitu da, conciencia onaren garbi-
 tasuna, eta simpletasuna baino ezti agoric? Cer
 janhari, deasetan eztuela faltaric daquienae
 iten duena baino goço agoric. *Nihil simplici*
cordis felicius: quia qui innocentiam erga alios ex-
hibet, nihil est quod pati, ab aliis formidet, habet
anim quasi arcem firmissimam simplicitatem suã,
 eta
 ezta
 gabea
 Gregor.

Conciencia simplea, plauna eta malicia
 gabea baino, gauça dohatçu agoric (Dio San
 Gregorioe.) Malicia gabe, simplequi, go-
 çan gaiterice eztaducala dabillana, ezta deu-
 te veldur: Iduricen çaiça halacoari ecen be-
 te simpletasuna eta intencione ona, duela gaza

Ambrosio
 lib. 2.
 de abra-
 ham c.
 2. tom.
 3.

Ambrosio
 in Psal.
 35. tom.
 2.

Gregorio
 lib. 2.
 Moral.
 cap. 24



Gregor ubi lu-

teluric eta dorreic asco ; eta berac bertceri eguiten eztioena , eztiaga yola , berari ere bertcece eguin. *Al contra mens prava semper est in laboribus, quia aut molitur mala qua inferat, aut metuit ne haec sibi ab a iis inferantur.* Conciencia gaitoa , maliciatia eta fede gaixtoz dabillana , bethi da nequez eta trabailuz , bethi da gogan behartsu , iduricor , guibel velduri eta fofegu gabe ceren nola bera baita gaixto , vstedu ecen bertceac ere hala direla : nola bera hari baita gaixtraqueria pensatcen eta eguiten , veldur da berari ere hain bertce daguioten , moneda berean pagadeçaten.

§. 3.

G Aldeguin ceraucaten egunbatez. *Bias Philosphoari, ea othecenz munduan deus, deusen veldur etcenic? Eta ihardetli çuen baitetz, eta hura ceta conciencia onac. Conciencia onac eztu deusen veldurric, eta ez bere baithan iccararic. Halatan galdeguin cerauen gure salbatçailleac ere bere etsaiey, scriba Phariseocy, deusen veldur gaxtaion. be autfartcia handi batequin. *Quis ex vobis arguit me de peccato? Ceinec çuetaric eguinen deraut niri beccatuz erançute? Norc culrenendu ene baithan faltaric? Norc erranen**

du nic badudala beccaturic? Galdez nagotçue? Deus badaquiçue erraçue. Cer diogu luungoicoa? Cer hari çara? Nolatan eguiten deraveçu galde hori ceure etsaiey? Çutçaz gaizqui erraiteco occasino bilha dabilçanex? Nola etçara veldur ahalque gabe dabilçanex? Nola eztena badela erran diaçaguten? Nola eznaicen veldur? Ezpaitut deusetan ere faltaric. Conciencia baitut ona eta garbia. Hare esportçatcen, berotcen eta segurantça segur batequin deusen veldur gabe ibentcen nau. Nahi duçu egon deusen veldur gabe? Çaren presta, ençu conciencia ona. Çaren conciencia onarequin, ez etsairen, ez igortcirinen, ez ozprinaten, ez vren, ez suren, ez incontruren, ez fortunaren, eta ez munduan den bertce perilen ere, etçara veldurçanen.

Conciencia gaixtoac perilic eztuenean ere, vstedu peril duela : baina onac peril duenean ere, bere burua segur daduca, esportçu du, esperantça du orduan ere : bertce guztieç etsitu agatic, eztu berac etsitcen. Sufanna legue çaharreco emazte presta hura, bere senharraz bertcerequin içan ceta, falsoqui accusaturic harriz iocarcera çetamarenean ; galdutçat ceducan mundugoztiac. Ordea berac esperantça handia çuen laincoa baithan. *Erat cor ejus, filuciam gabens, in Domino.* Ceren nola ezpaitçuen hoben, bere hoben gabeac, bere concienciaç,

3.

i. Joan
31.

berotcen, consolatcen eta esperantçatcen
quen. Eta hala miracuilluz qui falseria aguer-
turic escapatu cen. *Si cor nostrum non reprehendit nos, fiduciam habemus ad Dominum* Dio
londone loannes Evangelistac. Baldin guere
conciencia accufatcen ezpagaitu, esperantça
dugu, eta fidantcia laincoa baithan

Eta handic londone Pauloc ere Thimoteo
bere discipuluarî esquiribatu cioen cartan,
ibenî quen esperantçaren leccuan, conciencia
ona. Aditcera emaittea gatic, conciencia
onaren icaitea eta esperantça ere icaitea, guz-
tia dela bat. *Ille enim sperat qui habet bonam conscientiam* Ceren conciencia ona due-
nac, du esperantça ere.

August.
in Psal.
31.

Eta nola, conciencia gaixtoa duenac ez othe
du esperantçatic? Bai badu esperantça, ez order
esperantça eguiazcoa, ez esperantça bicia eta
fina. Esperantça vano, alferra eta hilla du ha-
lacoac. Ceren nola baitira bi fede molde, bata
bicia eta bertcea hilla; hala dira halaber bi es-
perantça bekhatutan dagoenaren esperantça,
espeña fauna hilla eta probetchu gutitacoa da

Conciencia gaixtoac hotzten, ezihesslen
eta vlitcen du gogo; baina onac, berotcen, va-
lentcen, esportçatcen, ausartcen eta esperant-
çatcen. Guizon bati ceure mende guztian,
etsai goa eduqui dioçunean: eta guertharu
çaitçan o casino, guztieran, ahal dagnicun
gaizqui eta contra guztia eguin dioçunean.

Cer esperança ahaldu queçu guero haren bai-
than, haren behartcen eta menetatcen çare-
nean? Arraçoinez ez anbitz Eta nehorc er-
ran agatic ere, eztala hargatic antsia, guizon
ona dela, gomenda çaquitçala, behar deçaçu-
la: eta çuc hari gaizqui eguin agatic, harc
bartara guti behatutic, eguinen deratçula
guri ongui. Eztuçu sinhesten. Ceren ceure
conciencia guibelatcen baitçaitu, harc go-
goa horzten eta hiltcen baiteratçu. Baina
bertce guizon bati bethiere amorio eduqui dio-
çunean, eta occasino guztietan haren alde
eta labore eracutsi çarenean, baduçu espe-
rança, cerorri ere hura, haren behartcen çar-
nean, helduco eta langunduco çaitçula. Eta
nehorc erran agatic ere, ezetz, etçaitçula
lagunduco, eztuçu sinhesten. Ceren haren ga-
na daducaçun amorioac eta eguin deraut-çat-
çun cerbitçuec emaiten baiteratçute esportçu
eta esperantça. Bada haur guerthatcen çaiça
conciencia eracutsi ere laincoarequin. Conciencia
onac esportçu du, esperantça handi du, bai-
na gaixtoac guti, edo ez bat ere. Eta ezta
miretzteco ez icaitea ere, behintçat espe-
rantça finic eta deus valio duenic. Ceren ez-
paitu berac ere aiticinetic, laincoaren aldera-
cotçat hala obratu, eta ez eracutsi.



§ 4.

Guiristino, guiristino denac, batean ezpa-
da batean, noizic behin bedere, aute-
matendu bere conciencia, visitandu bere
anima. Eta beccatuan dagoenean, iduritzen
gaizca ihunbean dagoela, eta coropillo bat,
edo çama pifü bat, barren baitan baduela.
Baina beccaturic gabe denean, animai, elar, eta
libre eduteiten du bere buua:

Ongüi cofessaturic etcherat bihurtzen çä-
renean iduritzen çaitçu, carga sonha bat, çä-
ma pifü bat gairitic vteci duçu, arindu, con-
solatu, eta alegueratu çarela. Eta arraçoin-
quin iduritzen çaitçu hala. Çeren çerda mun-
duan consolamendu handi agonie, eta bihotz
esportça eta ailtcha garrigorie, iccastra bai-
no. ezuela deusen ere penite, ezuela cofessa-
beharric, eta ez bere concienciañ harrie?

Halacoac eztu antfiriaric, eta eztu igaiteco
ere, bere hala laborzqui, guchi ago cofessatu
gabe hil agoric ere. Çeren prestatua baitago,
segur baitago, beccatu mortalie gabe baitago.
Aise da, alleguera da, baque handian da ha-
lacoa.

Çer abal dateque bada munduan hala co on-
tafunic, edo parabisunic, nola baita concien-
cia ona, esperança handiz bathea, veldu ta fun-
gabea, eta eguiaz co alegriant çaten iabea?

Bertce munduco parabisuaz, ceruco ioniaz,
contu guri eguitea, itfutafun handia da, eta bat
ere f deric dutenen artean gaizca miretste coa.
Baina aldez are itfutafun handi agoa, eta gau-
ça miretste co agoa da, mundu hunetaco para-
bisuaz, çain baita conciencia ona, hain contu
guri eguitea. Çeren bertce munduco para-
bisua, eztugu oraino iccasten bedere, eta ez
goçateen. Baina mundu huneta coa, con ci-
entia onaren baquea, eta sosegua, noizic be-
hin, beccaturic gabe gaudenean bedere, iccus-
ten, dastateen eta frogateen duçu. Eta guz-
tiarequin ere ontafun haur ere, bertceric an-
bitz beçala, gaitcera vtzten duçu.

Bada veithuteac, prestuqui biçitceac, bert-
ce pagamenduric eta golardoaric ezpalu ere,
conciencia onaren baquea eta sosegua bai-
cen ere, har gatic be ra gatic ere behar guendu-
que, lehen baino lehen, guerotic guerora ibili
gabe, eguneric biharrera luçatu gabe, orai be-
rean, conciencia onaren, ontafun handi hu-
nen erdiestea enseiatu eta lehiatu. Hanelatan
guturic bat bederari erran ahal lequidiqueyon
beçala. *si dormieris non timebis, qui fecit & sua-*
vis erit somnus tuus. Lo çantçanean, etçara
velduriganen, pausatuco duçu, eta lo goçoa
eguin duçu.

Prov. 3



Nola orai danic behar dugun, gueroco beguir
egongabe onafunean irauracta
perseueratcera enfiatu.

CAP. XLVII.

B Eh'n ere maccurtu gabe, saiherfo
rat ere aldaratu gabe, bide onat
eta artheçari, bethi ongui eta ar
tez iarraiquitça: verthutean, pre
tuta funean eta obra onetan fin eraino eta fi
nean, bethi fin, eta finco egoitea eta irautea
deitcenda guchien herrietan eta hitzuntce
tan Perseueratcea.

Eta perseueratce haur, verthutean eta on
ta funean fineraino, eta finean iraute haur, da
laincoaren donua eta emaitça: laincoa be
ra

Triden- ganic baicen, bertetarie ecin darequeyena
tin. fel- Hala erraitendu Concillioac. *Munus perse
fic 6 rantia aliunde haberi non potest, nisi ab eo qui
cap. 13. potens est, cum qui stat, statuere ut perseuerant
set: & cum qui cadit, restituere.* Eta arragoi
S. Tho. emaitendu San Thomasec. *Perseuerantia in
x. part. diget non solum dono habitualis gratia, sed citius
q. 137. ratuito Dei auxilio, confer vantis hominem nisi
art. 4 ad finem vite. Quia liberum arbitrium de se est
flexibile, Nola guigonaren vorondateca, alde ba
tera*

tera eta bertcera itçulteco baita libre: voron
tate libre hunc, contra co aldera itçuli gabe,
eta harac erori gabe egoiteco, behardu lain
coaren garaciaren, eta faborearen habea eta
sostengua, eta bai perseuerantciaren indarrea
eta donua ere. Hala emaitendu aditcera San
Agustinec. *Firmissime tenendum est, neminem
aiam baptismatis gratia renovatum idoneum
isse ad superandas Diaboli insidias, & ad
vincendas carnis concupiscentias, nisi per quo
tidianum adiutorium Dei, perseverantiam bon
conversationis acceperit.* Pintqui eta duda gabe
sinhesten dugu, sinhetsi beharda, ez tala ne
hor ere asco sendo, eta ez botheretsu, dea
bruaeren enganamenduen eta haraguiaren gu
ficien garaitceco, egun guztiaz laincoa bera
lagunduz, perseuerantciaren donua errecibit
cen duela baicen.

Etsaiac, mundua; Deabrua eta haragui
bortitz; natur-aleça flaco, vorondateca onera
eta gaixtora libre, bietara iocatcen, eta ha
raguiaren arauaz gaixtora iocatcen ago. Ezta
beraz irauteric eta ez fermo eta fintco egoite
ric, laincoac berac eduguitcen eta sostengatcen
gaituela baicen.

August.
lib. de
Eccles.
dogma.
cap. 25.
tom. 3.



S. I.

BI perseueratce, molde, bi iraute suerte er-
 ran abal diteque, edireiten direla gurear-
 tean. Bata da cenbait demboratacoa, cen-
 bait demboraz onatafunean irauenez guero;
 eta beccaturic eguin gabe egonez guero, az-
 quen finean edo finera hurbiltcean saltatcen
 duena. Hura da lapitzaren gainean ereiten
 den hacia beçala, sortcenda ongui, baina nola
 ezpaitu erroric eguiten, site ihartcenda. Hala
 dira bada sende thallu batçuc ere, hasten dira
 ongui, ordea eztira aincinatcen: den traburic
 ttipiencan behaztopa, canabera beçala, mal-
 gu eta plega; Camaleona began bateran
 muda, finean firmetasunic ez hoberencan
 falta

Plin.de
 natural
 hist. 1.
 s. c. 39.

Edireiten da Vipera daritecan sierpe bat
 gaixtoac eta poçointfua. Eta hartçaz errai-
 tendu Plinioc, egotzten duela neguan bere
 poçoina eta lurrean barrenahortzten due-
 la: Baina guero vdan poçoin berriarequin;
 are lehena baino gaixtoagoarequin aguer-
 cen dela Hala dirudi bada eguiten duela;
 eritafunean, gariçuman, edo cenbait trabail-
 lutan eta eguitecotan dencan, beccaturic
 apartatcen denac ere. Senda arteino, gari çu-
 maren edo trabajilluaren negua iragan artei-

no, poçoina vtztendu. Baina guero vda da-
 thorenean, senda dadinean, gariçuma iragan
 dencan, finean bere gogara iardadinean, ber-
 riz bere poçoina hartcendu, bere leheneco
 beccatura bihurtcenda. Haur da bihurtcena
 gaixtoa, dembora gutiz onatafunean irautea
 eta perseueratcea: eta goztia ongui contatce-
 ra, deus guti valio duena.

Bi garren iraute eta perseueratce moldea
 da, asquen finecoa; lehen cer içan baita ere,
 azquen finean, onatafunean, prestutafunean
 eta verthutean perseueratcea, irautea eta har-
 tan accabateca.

San Agustinec eztu conturic eguiten, ait-
 cinco perseuerantciaz eta irauteaz, finera
 baino lehen, edo finean berean, fina finatu
 gabe finatcen denaz. *Pbtius habuit perseve-*
rantiam unius anni fidelis, & quantum infra ex-
cognari potest, si donec morciur fideliter vivis,
quam multorum annorum, si exiguum ante
mortem à fidei stabilitate defecit. Azquen vr-
 thean, heriotceco aincinean dembora appur-
 batez ongui bicitcen denac, eta guero hiltcen
 dencan beccaturic gabe guertbatecen denac;
 erran ahalditeque duela behar den perseue-
 rantcia eta firmetasuna, eta ez aincinetic an-
 hitz vrthez ongui eta prestuqui bici içan de-
 nac, baldin hiltceracoan edo hiltcen dencan
 saltatcen badu.

Aug. 1.
 2. de do
 mo per-
 teac. c.
 1. t. 7.



Aaron sacerdote handiaren veztidurac, behereco bazterran inguru, cituen, Mingrana Pintatuac, Mingranac, bertee fruituec ez-tutena, badu coroa idari bat Bada coroa hura nahi çuen laincoac eman cequion sacerdotearen veztidurari, ez haslean eta ez erdian; baina basterrean, oinetan, accabatcean. Ceren accabatceari dagoa coroa eta ez hasletari.

Galdequin ceraucaten egun batez Diogenez Philosopho handi hari, ea cergatic hain çahartuz guero erçuen pausatzen? Etçuen estudiantetic eta iracurcetic guelditcen? Eta ihardetsi çuen. Thema batean gainean, garaicariccan, laster eguiten duenac, eztu chedera eta marrara hurbildu hurran donean, ez anfiatu behar eta ez baratu. Aitcitic orduan behardu permatu ago, eta emlegatu ago, hartaraz guero, garaitia bertec eraman eztaçon, eta anarterainoco travaillua ere gal ezteçan. Hala bada nic ere (Dio Diogeneç, orai chedera, bicitcearen bazterera, eta adinaren finera hurbil du naicenean, eztut guelditu behar eta ez, ez anfiatu.

Baina orai behardut laster ago abiatu, fintqui ago permatu eta dembora kobequi ago emplagatu. Ceren bertcela venturaz thema gal neçaque, leheneco laster eguinaz eta estudiantuaz eznuque probetchuric. Haur da londe done Pauloc ere erraiten duena. *Sic currit*

I. Cor.
2

in comprehendatis. Eguicue laster, atrapa-deçaqueçuen beçala.

Eta hunela laster eguite eta atrapatce haur, fineraino eta finean, azquen pontuan eta particean beccaturic gabe guerthatce haur, eraitendu San Agustinec dela laincoaten donna; eta emaitça, laincoaren liberaltasuna; eta nori emanen çaiccan eta nori ez, laincoa bera ganic baicen ecin iaquinditequyena.

Beraz veldar garela behar dugu bici, behatuqui ibili, eta gueure indarrean baino, laincoaren faborean fidatcen ago garela, humilrasun handi batequin othoicetan iarri, nahi gaituen sostengatu, erorcetic beguiratu, eta beccaturic gabe gauden batez, bere gana deitu eta thiratu. Ceren onatascanean azquen fineraino iraute haur, nehorc ere bere buruz ecin mereci deçaqueyen donna bada ere ordea, guziarequin ere, eguin behar du bat bederac bere aldetic ahal daguena, mereci ahal bailleçaque beçala. Ceren gure orhoitz guztien ençutera eta compliceera obligatcen ezpada ere laincoa, ordea gaineratcen prestic dago, ahala eguiten duenari heltceco, jabérceco eta escuaten emaitceco. Hala emaitendu aditcera Erregue Davitec. *Prope Psal. 144.*
Domini omnibus invocantibus eum, omnibus invocantibus eum in veritate. Hurbil dagote laincoa cinez, eta eguiaz gomendatcen eta



fabore escatcen çaiçcon guztiey. Eta nahi du eçtagaquitçan, eta are lehia gaquitçan eta lehenbicio ezean eta errefusean ezteççagun etfi: baina athal ondoan dagoen eçcalea beçala, erdiertz ateino, gauden buthoituac.

Eta oro bat da, noiz nahi den gauaren erdian ere eçcatcea. Ceren laincoa baithan ezta, ez-orenio, eta ezaldarte gaitcie, munduco ienderan ohi den beçala. Hain baithan muga guztiaç eta oren guztiaç dirabat, bethi danhor ongui ethoria. Beraz hunelatan cinçtqui eta finçqui, maiz eta lehiatuqui, behargatçaitça azquen finco irupenaren eta perfeueratceco donuaren eçcatu: eta huneran guçtue, ahal guztiaz permatu, eta bulharca iarru. Ceren azquen finco perfeuerantcia da galkhoa, hura da gora behera guztia, hartan dago garaitia eta victoria. Hura gabe lehen eco obiatonec deus guti valio dute. Ceren iraganac iragan, azquen finean nolaco gaten behatcen du laincoac: eta orduan edireiten gaituen arsuaz, emaiten deracu feculaco çoithea, ona edo gaixtoa.

Eta onatasunean iraute haur, perfeueratcea orai danic behar da hartu eta eduqui eta eçgueroco esperantçan vteci, eta largatu. Ceren azquen finco aircin hartan irauten eta perfeueratcen duenac, perfeueratcen ohi du comunçqui, azquen finean berean ere.

§. 2.

ORdea ezcaitu ez icitu behar azquen finerainoco, edo gareinoco trabailu appur batec, hartçaz cerucoloria, hain gauça handia erdiesten denaz gueroztic. Ceren londone Pauloc dioen beçala. *Non sunt condigne passionis huius temporis ad futuram gloriam qua re velabitur in nobis.* Hemengo neque trabailu guztiaç, guehi ago balira ere, eçtira ceruco loriaren erdiesteco merecient, eçtira asco, eçtira deus harequin comparaturic. Beraz hunelatan eçtugu bici gareinoco trabailu appur haur, sobera etfi behar. Aircitic desiratu behar guenduque licen handi ago, eta iraun leçan guehi ago. Hala desiratcen çuten lehen agoco fainduac; eta halatan desirata hala hala içanez eman cerauen laincoac hain loria handia. Halaco batez mintço dela erraitendu Spiritu fainduac. *Consummatus in bre. Sapiens vi explevit tempora multa.* Dembora gutiz bici içan baten ere, guti hartan eguin çuen anhitz. Ceren hartan içan baitçuen, airci nerat ere ongui eguiteco, gogo eta vorondate, eta vorondate harequin hil baitcens. Hala erraitenda halaber gaixtoez ere, dembora gutiz eguin çutela anhitz: eta dembora gutiz eta laburiez eguin cituzten beccatuac batic, emaiten çaiela gaztigu lucea eta secu-



Iacoa. Ceren demboran iñan baciren ere larbur, ordea beccatu eguiteco gogoan, vorondatean eta desiran; iñan baitenen luce.

Bada nola gaixtoac baitute gogo, era vorondate, aitcinerat ere bere gaixtaquerietan egoriteco eta biciteco: hala onec dute halaber onatanean aitcina iragaiteco, era hartan fineraino, eta finean irauteco eta perseverateco.

Eta ezta ez, ez deus gatic, munduac, Deabruac, edo haraguiac conta appur bat eguin agatic, utel behar perseverateca eta aitcinera iragaitca, ezta hargatic guibelat bihurtu behar.

Itsafoan dabilte ganac, tormentac hartu agatic, contraco haiceac io agatic, ez tira bere halarrendatcen, eta ez bihotz hilduac eta cistituac iartcen; ez tira portuan sar arteino lachatecen, eta ez, ez anfiatcen, anatteraino bethion daducate, bethi enfiatcen, eta permatcen dira. Hala hehar dugu bada guc ere permatu, eta parafisico bidean, iaquitcen gaizquigun tormentac eta contrac venguturic, bango portuan faitcera enfiatu; eta ez anatteraino errendatu, eta ez amainatu. Estugu Chiminoac beçala eguin behar, eltgauraten irateco de firos delatic, campoco açalaren hautsteco nequea gatic, utzten baitu barrenccomamia dastatu gabe;

Guirifino fina, ezta ez bere hala lehenbico occasinoan eta tentamenduan erortcen:

ezta lehenbico incontruan beaztopatcen; eta ez icitcen. Aitcitic orduan deffendateco, eta ihardesteco, pitzen ago, permatcen ago, eta finatcen ago da.

Su tripia, candela arguia, haice gutic iraungitcen du: baina fu handia, iccatztobia, haice, handiarequin, handitcen ago, eta sendotcen ago da: Hala bada debocino tripia, ez baieco gogoa, eta intencione flacoa ere, edo ceintentamendarequin, occasino gutirequin, haice appurbatequin, iraungitcenda. Baina debocino handia, intencione fina, verthutean erroac eguinic dagoena, occasino handiequin haice, nahasiequin, eta tentamenduequin fincen ago, eta handitcen ago da.

Ordea erraiten denean ecen azquen fineraino ez tirela guirifino onac, eta finac batatcen, çabartcen, eta ez guelditcen: ezta ez aditcen lehenbico hastetic accabatceraino; gatzetic çabartceraino, behin ere, eta neohiz ere beccaturic eguin gabe, egoiten direla. Ceren Salomonec dioen beçala. *Septies in die cadit iustus* Den iustuena ere, egunen çazpitan erortcenda, cenbait beccatu venialetan bedere beaztopatcenda. Baina aditcenda ecen beccatu bat eguiten duenean, hartatic bere hala, hartan guti pausatutic ilquitcen dela, eta iltquiric azquen finean beccaturic gabe, guerthatcen dela.

Batçuet hartcen dute gogo; eta vorondate;



cenbait demboraz bedere, beccaturic eguin gabe egoiteco. Ceren balaco naturaleça du beccatuac, non yste baitur, ecen eztela nehor ere, gaixto ago bada ere, bere gaixtaqueriac vshatcen. eztuenic: eta bertee bicitec molde bati lotcea desiratcen eztuenic. Ordea bat ere, eta nehoiz ere, beccaturic eguin gabe eguireco gogo deliberatua, perseueratceco firmetasuna, gueroco vitzendute.

Badu gure Guero hunc hemen ere bere etchalecua, eta ofstatua Bada baldin iganen bada firmetasunic guero, behar da perseueratcera; eta firme egoitera, enseiatu orai. Aitcineco obia onac, eta perseuerantcia, dira ondoco fin onaren, eta perseuerantcianten bidea; eta seinalea. Iaiqui, eta eror dabillanaren biciteca, bicitec perilosa da, guztiz ere, baldin erotitic dembora guehiago eguiten badu, iaiquiric baino: nola comunzqui guerthatcen ohi baita gure baithan.

Aguian aste batez edo biaz, egoiten gara beccaturic eguin gabe; baina vithe batez, eta hamarrez beccatutan. Badaquigu gaixtaquerian pensatcen, irauten, eta perseueratcen; August. baina ez onatasunean. Eta badio san Agustin. ferm. 3. nec, ecen hunela beccatutan egoiteac, eta de temp. perseueratceac, h. s. f. retcen ago duela lainpo. 10. coa, beccatu eguiteac berac baino. Non 10. enim qui peccaverit, sed qui in peccatis perse-

severa verit, odibili, & abominabilis erit Deo.

5. 3.

EBaquitcen duçunean çuhaitz bat, eta berriz hartaric vit-vmeac edo adarrac forcen direnean, agueri da etcenduela offoqui, eta ondotic ebaqui, guelditu cela cenbait erro, eta çain.

Halaber çauria ere behin sendatutçat utçiz guero, bere hala gaizcoatcen denean, badi rudi guelditu cela cenbait cutsu, cenbait nario etcela ongui sendatu. Hala bada behin beccaturaric sendatuz guero, bere hala eritcen, eta hetara bilhurtcen denean, badi rudi guelditu cela cenbait erro, cenbait beccatu eguiteco; gogo etcela ongui sendatu, eta ez garbitu, etçuela apartatcera, fintqui deliberratu.

Eguia da ordea, ongui garbitu eta sendatu agatic ere, guertha daquidicayo, berriz liquitstera, eritcera, eta beccatu eguitera: Ceren beccatuaren erroa, eta cimendua, libertatea da: eta libertateac behin vteci duena; berriz har deçaque.

Baina guztiarequin ere; behin eror, eta



beriz iaqui, ibil cea, seinale gaixtoa da, eta gure galgarria.

Unus edificans & unus destruens, quid prodest illis, nisi labor Batec eguin, eta batec defeguin, cer probetchu, trabailua baicen? Bada halaber cer probetchu da, behin iaquitceaz; baldin berriz erortcen bada, eta eronit dagoela, eta datçala, guelditcen bada? Cer probetchu da bide luzeari lotceaz, gogo duen leccura helcen ezpada? Cer probetchu, vnticiac betheric, eta cargaturic vela ongui eguitceaz, baldin portura baino lehen, edo portuan galtcen bada? Cer probetchu etchearen hasteaz, accabatcen ezpada? Ezta asco ongui hastea, accabatu behar da. Judas ongui hafi cen baina gaizqui accabatu. Loten emaztea ere, Ainguiruaren manuaeren complitcen ongui hafi cen, Sodomatic iltquicen, ordea guibelat behatceaz galdu cen, hargatic gatz bihurtu cen. Eta gatz bihurtce hunen gainean erraitendu Glosac. *Sal est condimentum ciborum: ideo uxor Lot respiciens retro, versa est in statum salis, quia puniio eius, dat condimentum sapientie penitentibus ne ad pristina peccata reuertantur* Gatçac du indar, eta verthute, ianharic gogo, eta çappore emaiteco, eta bai aincinerat ere irauñ aracitceco. Eta halatan guibelat behatceaz, gatz bihurtu cen: emazte hare, eta hari eman ceican gatziguac, eracultenderaco, eztugula guibelat behatu behar, eta ez les

Lyran. in cap. 19. Ge. 19. 26.

hen vrci dirugun beccatnetarat bihurtu. Halatan erraiten deracu laincoac berac. *Memento uxoris Lot.* Oihoit gaitecilla Loten emazteaz, centça gaitecilla haren baithan, hari guerthatu ceicana, guertha eztaquigun, eta haren gatz hartçaz gacituric beçala, beccatutan vstelctic beguira gaitecin.

S. 4.

EZta guibelat behatu behar, ceren hala, behatceaz içatu da gaizqui heldu denic. Bada exemplo bat, edo elhe bat, elccar hila nahi çuten batçuen artean guerthatu. Hafi cion bi guicon ezpada colpeca: eta batac malicios ago baitcen, erran cion bertceari.

Hola, hola, bihoa hortic çure guibelean dagoen guicon hori, eznaiz ni biaren contra hari. Orduan vstez ecen eguiaz mintço cen, behatu çuen guibelat, eta bitarte hartan, eman cion bere bethea, eman cion çafadaraco eder bat. Hala eguiten derane bada Deabruac ere, guibelat, leheneco bicitce gaxtorat behatcen duteney, eta bihurtcen diteney ere.

Nemo mittens manum ad aratrum & recipiens retro, aptus est regno Dei. Guibelat beha dagoe-la, golde nabarretan hari dena, ezta ceruco.

Luc. 17.

Luc. 20.



errefumaren erdiesteco gai, eta ez on (dio-
gure laincoa.) *Arator respiciens retro, facit
sulcum tortuosum aut inutilem: sic accipim me-
lioris vite statum, & habens affectum redeundi
ad pristinum statum, ineptus est r-gno Dei ad-
piscendo.* Golde nabarietan, edo golde pi-
coetan, lur lantcen, eta appaintcen, guibe-
lat beha dagoela hari denac, hilgoa mac-
cur eguinendu, ezta hura goldelari on ica-
nen.

Badira lan batçur, eta obra batçur, aitei-
nerat guibelerat, saihererat, edo norat nahi-
den beha dagoela eguin agatic, ezpaita an-
fia, nola baita iatea, edatea, mintçatcea. Baira
badira berriz berce batçur, nola baitira ef-
quititbatcea, pintatcea, iostea golde nabar-
ren, eta athen ere haritcea, ezpaitira ongui
eguiten, behi contu ednquitcen dela, eta ait-
cinerat artez behatcen dela baitcen. Hala da
bada ceruco errefuma erre, baldin erdiesteco
bada, hartz ibili behar da, aitecina ioan be-
harda, ezta guibelat; leheneco beccatuerat
behatu behar, eta ez bihurtu. Ceren bi-
hurttecotz, probetchu guti da, lehen eguin
den guztiaz.

Erhoa da, behin garceletic itçuriz guero;
berriz bihurtu nahi dena: eta bai behin bie-
hatetan arrobatu dutenean, berriz handie-
iragan nahi dena ere. Halacoac, animalia
adimenduric eztauenac baino, adimendu guti

ago du. Ceren animaliac, bere adimendu ga-
bearequin etc, ezta lehen gaizqui heldudi-
ren leccuta, berriz bihurtcen, baina bai becc-
atorca, bihurtccenda. Hünen gainean errai-
tendu iondone Petric. *Melius enim erat illi;
non cognoscere viam iustitie, quam post cognitio-
nem retro, sum converti.* Hobe çuqueyen egui-
taco bidea iaquin gabe egon, iaquinez guero
guibelat bihurtu baino. Hala emaitendu adit-
cera san Lucas Evangelistac ere. *Novissima Luc. 11
entem ejus erunt pejora prioribus.* Behin Dea-
tua spiritualqui, edo corporalqui, bere ga-
tic atheraz guero, bere faltaz, berriz sartcera
yrtzen duena, gaizqui ago da orduan, bi gar-
ren hartan, lehenbicioan baino: perilos ago
da, azquen hutsa, lehena baino: azquenac
lehena ahantzendu. Hünen arauaz auifatu
cen Paralitico sendatua ere, bere sendat-
çalleac. *Ecce sanus factus es, jam noli peccare, Joan. 5.
ut tibi deterius aliquid contingat.* Badacusaçu
sendatu çatela, beguira bada berriz eritctic,
çebait, ate lehen baino gaizqui ago guer-
ta eztaquigen. Ceren gaixto da eritaluna;
baina gaixto ago berretura: Gaixto da çau-
na, baina gaixto ago gaizcoa dura: Gaixto da
cofessatu gabe egoitea, baina aldez gaix-
toago, cofessatu ditutçun beccatuetara bi-
hurtcea. Bi garren bihurtce, eta eritce
çara gaitçi ago çaica laincoari lehenbicioan
baino.



Eragutça gabe tasun handia da, eta ingrat
içaitça, laincoari cofessatçean, eta handie
campoan, coute oracinoetan, eta othoiz
etan, hanbat promeseguinez guero, eta he-
quin batean ceute beccatuen barceamendua,
eta bertçerie ere anhitz garacia, fabore, eta
ontasun erdietsiz guero, promesac haut-
çie, bertiz leheneco maina gaixtoetara bi-
hurtçea, hanbat obligacino, çifer gaixtoen
pagatçea.

Id 50

Vide S. **H** Ain da handi, eta irfusi bi garren beccat
Tho. 3. tua, behin barceatuz guero, bertiz egui-
ep. q. 88 ten dena, non hanc bere ingrat-tasunaz, lehe-
art. 2. neco beccatu barceatuaç ere bihurtçen be-
ia corp. çala baititu. Eta ezta miresteço. Ceren
bi garren bihurtçe hanc, leheneco beccatu
barceatuaç ere erraberriteen, gogora eccate-
cien, eta pitzten beçala baititu. Eta hala iustit-
ciac, ere behin açotatua, bi garren atrapa daz-
ran, bortitzqui ago gatzigatçendu.

Behin vti çuen beccatura bertiz bihurt-
cen dena, comparatçendu Spiritu sainduac,
bere okha eguina iaten duen orarequin. Sicut
Prov. 26 *canis qui revertitur ad vomitum, sic imprudens
qui iter ad sultitiam suam.* Eta iondone Petrie, atç-

guchi ago, comporatçendu halacoa, lohira
hidoizatçera bihurtçen den vrdearequin. *Ca-
nis re versus ad vomitum, & sus Lota in voluta-
bro suti.* Hain da gauça hatça, liquirsa, qui-
ratça, biguina, eta nardagarria, or baten bere
okha eguinaren, eta ahotic egotçiareñ ber-
tiz iretsten icustea, non baldin Spiritu sain-
duac berac, vsatu ezpalu comparacino hu-
nez, ezpainitçe ni airtatçera ere ausartuço.
Baina erraitçendu Spiritu sainduac derragun-
beraz guc ere Behin beccatua cofessatu, aho-
tic egotçi, eta bertiz hartara bihurtçea, bere
okha eguinaren beraren iretstea beçala dela.
Ceren okha hura cein liçun, eta vrde den,
ate baita liçun ago, eta vrde ago beccatua.

Beraz hunelatan ezta leheneco beccatue-
tara bihurtu behar, eta ez behin garbituz gue-
to bertiz liquitstu ere. Aitçue daguigon, eta
deragun espolac beçala. *La vi pedes meos, quo-
modo inquinabo illos? Expolia vi me tunica mea,
quomodo induar illa? Oinac garbituitut, nola
bada liquitstucoitut? Athorra erauntçidut,
nola bada iauntçicodut?*

Cofessatu ondoan, munduac, Deabruac, edo
haraguiac bertiz beccatu eguitera, eta lehe-
neco estatuan, egoitçan, etçautçan eta to-
çgian iartçera acometatçen çaituztenean,
hardetsi behar ceneraçaye. Nolatan ahal
çaidiquet nic hori? Garbituitut neure oinac,
nola bada liquitstucoitut. Erauntçidut behin

2. Petri

Cantio
5.



august
lib de
vera &
falsa
pen.

athorra lobia, nola bada berriz iaunticodut? Biluci naiz behin aztura gaixto guztietaric, nola bada berriz veztiruconañ? Urciditut behin, nola bada berriz hartucoituz? Edo berriz hartecotz, certaco vteci behar nituen? *Si pœnitens es, noli facere, si facis certe pœnitens non es*, dio San Agustinec. Baldin bagara penitent baldin lehen eguinaz damu badaçu, eztaguigula guehiago, ceren baldin eguiren badaçu, aguerida, etçarela penitent, eztaguigula lehenaz damu.

Differentia handia da salbatcen direnen; eta salbatcen ez tirenen artean: eta differentia haut, eztago ez guztia beccatu eguitemedo ez eguiteman. Ceren salbatcen direnetaric, batquec eguin çuten, noiz bait bedere beccatu; iondone Petric, iondone Pauloc; Magdalenac; eta bai bertce anhitcec erei. Baina differentia dago, behin edo berriz beccatu eguitera guetthatu agaric, hequen site vtztean, eta behin vtcez guero, ez herara; berriz bihurtcean. Hala edireintenda, lehen agoco sainduac, cenbait beccatutan erori bacioren ere, site iaqui cirela, eta behin iaiquiz guero, etcirela guehiago erori, eta ez bere leheneco beccatuetara, eta ez bert cerara bihurtu. Hala eguin behar dugu bada guc ere. *Qui secutus es peccantem, sequere pœnitentem.* Baldin orainocoan iarraiqui bagarçaitze sainduey beccatu eguiteman, iarriqui behar

in vita
sancti
Ambr.

garçaitze halaber beccatuen vtztean, eta behin vtcez guero, ez berriz herara bihurtcean. Fineraino, eta finean perseueratcen duena; iqanenda salpatua, eta ongui çortheatuaz. *Qui autem perseuerauerit usque in finem, hic saluus erit.* Bertce guztiaç deus guti dira, azquen finac darama coroa, accabatcean cantatcenda loria.

Beraz fin hari; eta accabatceco lor'a hari, beguia eduquiric, hareraino, eta han, behar dugu, egun beretic, gueroco beguira egon gabe, beccaturic gabe egoitera enfeiatu. Har taracorçat orai escuen artean dara biltçagun beccatuac vttriquimendu handi batequin cossalaric, eta vtceiric, aicinerat guehiago eguiteric beguiratcen garela. Ceren halatan erdiefisco dugu orai perseuerantciaren donua, eta guero azquen fiaean arimen salbamendua, sculaco loria.

Math.
10.





Nola icussiric ifernuco bidea den gaitz ago,
Parabifucoo baino, behar den,
gueroic guerora ibiltzea vici.

C A P. XLVIII.

ANhitzetan egotunaiz, neure burua
requin gogotan: eta iduritzen
gait ecen, gogoeta eguiteco, egui-
tecoa dela, ea cein den gaitz ago,
laincoaren cerbitzatzea, ala Deabruaten:
parabifura ioaitea, ala ifernura.

Bi presuna daude bertee munduan; bata
parabifuan, eta bertee ifernuan. Bada her-
tic bietaric, ceinec iragan othequen mundu
hunetan pena, eta travaillu guehi a. o? Haur
nahinuque iaquin, hunen nago galdez, haut-
da ene gogoeta.

Badirudi travaillu guehi ago iragan be-
har duela parabifuratcen denac, parabifurat-
ceco, ifernuratcen denac, ifernurateco bal-
no. Ceren parabifuco bidea gaitz ago baita,
ifernucoo baino. Hala emaitendu aditceca
fan Matheoc. *Angusta porta & arcta est via
Math. 7 q. a ducit ad vitam, & pauci sunt qui inveniunt
eam* Athea, athe hertzia da, eta bidea ere bide
meharra, parabifurat dohana, eta gutiac dira, bi

de hura edireiten dutenac. Ebran nahidu,
gaitz dela ceruco lorian sartcea, eta laincoa-
ren manamenduen compliteca. Ceren ezta
bide bat baicen, eta bat hura ere, guztia da
mehar, malcear, buruz gora, haraguiaren
contra, eta desfogara.

Eta guztien buruan, ezta bide hartan, bat
ere errebelatu behar, eta ez nehorat mac-
cortu, eta ez aldaratu, manamendu guztiac
behar dira complitu. Baina ifernura ioaiteco,
ezira guztiac hautsi behar, asco da batetan
saratcea. Hala erraintendu iondone Jacuec.

*Quicumque totam legem servaverit, offendat
autem in uno factus est omnium reus.* Bertee guz-
tiae complitu agatic, batetan behaztopatcen
bada, guztietan eguitenda hobenduri. Eta
haur aditcenda, Glosac dioen beçala *De pœna
damni & non de pœna sensus.* Guztietan eguiten
da hobenduri. Ez ceren beccatu bat baicen
eztuenac, hanbat pena mereci duen, nola ha-
mar diruenac, baina ceren bat baicen eztue-
na ere, ifernuraco baita, hamar diruena be-
gaitn ongui, ez hain barten, eta ez hanbat
penarequin, ordea biac batrenean, norc bere
mereciarequin.

Beraz gaitz içanenda, parabifuan sartcea;
harracotçat, manamendu guztiac com-
plitu behar direnean, bide bat baicen ezte-
nean, eta bat hura ere, hain meharra, eta gait-
za denean. Eta hala iondone Pauloc bere

Jacob:
2.

Glosa
in cap.
2. Jaco-
bi.



saïndutafun guztiazquin ere, cein bururic eguinez beçala, erian çuen. *Isfelix ego homo, quis me liberabit de corpore mortis huius?* Aiene titcha gabea, ene on beharra, eta vricalkuiguna, noie libiatuco nau gorputz mortal hunetarie? *Scimus enim quod lex spiritualis est, ego autem carnalis, venundatus sub lege.* Ceren ni naiz haraguz, eta haraguiari emana, eta leguea, lainceaten manua spiritu. Cer iccusquigun du bada spirituac haraguiarequin? Nolatan auentuco diabiac elcarrequin? Eguiteco handia da haur, hain handia, ecen arragoinequin erraiten baitu Salomonec. *Fugum grave solum per filios Adam, à die exitus de ventre matris eorum, usque in diem sepulture in matrem omnium.* Vztarri pisua, eta carga handia darabillate soinean Adanen vmec, sorteen diten eguneric heriotceraino, bere amèn fabeleric ilquitcen direneric, hobira, guztien ama gana bihur arteino. Halatan eritendu san Matheoc. *Regnum cælorum vim patitur.* Cernuco erresumari boricha eguin behar çaitca: han parteric içanen duenac, cin cinez, eta bere indar guztiaz behar dicitela permatu. Eta baliio Job saïduac ere. *Militia est vita hominis super terram.* Guztiristino, guiristino denac, guerlan dabilan soldaduac beçanbat, travaillu iragan behardu. Ceren soldatdutauna, eta guziçonaren

Rom 7.

Eccl. 40

Matth. 11.

Job. 7.

lorteco biciteca, bat baitira. Eta iondone loannes Euangelistaren errana da. *Palma in manibus eorum.* Iccussi cituela iustuen efuetan palmac, cein baitieren Palma guhaitzaren adarrac, victotiaren seinaleac. Eta victoriaden leccuan, aicineric behar da guerle, aicineric beharda neque, eta travaillu. Ceren iondone Pauloc dioen beçala. *Non coronabitur, nisi qui legitime certa verit.* Ezta co. 2. Th. *rosua içanen, eta ez victorios gueldituco cin cinez permatcen, eta guduztatcen eztena.* Eta are haur da eguitecoa, cenbatenaz, eta guiristino bat, baita guiristino ago, cenbatenaz eta cintqui ago, eta fintqui ago permatcen, eta ensciatcen baita, laincoaren cerbitçatcera, eta Deabruari contra eguitera, hanbatenaz etsalac harmatcen ago, eta tentamenduac ere beretceren ago çaitça. Hala eritendu Spiritu saïnduac aditçera. *Fili accedens ad servitutem Dei, sta in iustitia & timore, & prepara animam tuam ad tentationem.* Ene seme hasten çarenean laincoaren cerbitçatcen, çauce erne, eta veldur çaitca, eta presta çaitte tentamenduac contra eguiteco. Ceren iaquin beharduçuen ecen, ordua egun bairino baino, tentatuagoa içanen çarela. *Qui pie vivere volunt in Christo Jesu, per temptationem patiuntur.* Saïnduqui, eta presta Tim. 2.

apocal. 7.

2. Th. 2.

Eccl. 2.

1. ad Tim. 2.



qui, Jesu-Christoc manateen duen beçala, bici nahi detenac içanen dira penatuac, eta perfe-
guituac. Hey erauzten çaitze falseriac, hey
eguiten çaitze irriac, eta escarnioac, fi-
necan hey eguiten derauzte munduac contra
handiac.

Eta guertha baledi ere munduan cenbat
presuna hain sainduric, iusturic, fama handi-
tatoric, edo dohatfuric, non ezledin nehor
autsart haren baithan mihitic ibentcera, eta
ezharen ohorearen vquitcera, eguia içanen
da orduan ere, londone Pauloc dioena, tenta-
tuac, eta perseguitrac içanen direla iustuac.
Ceren bere baithan barrera bedere, bere
haraguiaren muguidez, eta desira defor-
denatuez, tentatuac, eta frogatuac içanen
baitira.

Guerla handia dute elccarren artean ver-
thutec, eta vicioec. Uguillutasunac guer-
la handia eguiten dio, humiltasunari: Aua-
riciac, liberaltasunari. Haraguiac callita-
teari: imbidiac, caritateari: Gulac, ab-
stinenciari: colerac pacientciari: Na-
guitasunac diligentciari. Eta hunen bate-
narequin iustu guztia dira perseguituac,
eta contrastatuac bere baithan barrera be-
dere.

Eta hala bethi ere da eguia. *Per multas tri-
bulationes oportet intrare in regnum Dei.* Anhitz
tribulamenduz, penaz, eta travailluz behar
dela

dela ceruco errefesma sarthu. Anhitz in contru
bortitz, anhitz pena eta atsecabe iragan behar
du parabifuco bidean dabillanac.

§. I.

Ifernuc bidea daducanac, badirudi ez tuc-
la halaco atsecaberit, persecutionetic eta
contrarie içaiten, ez tuela halaco guelaric eta
eguitecoric sentitcen.

Ceren bere gogoa eta haraguiac diotfan
beçala, bide çabalaz, bere aisiara baitabil-
la. Halatan erraitendu San Matheoc. *Lata
porta & spatiosa via est, que ducit ad perdi-
tionem, & multi sunt qui intrant per eam.*
Athea, athe çabala, eta bidea ere bide handia
eta espaciotsua da ifernutat dohana; eta anhitz
ibiltcenda bide hartan, eta bai athean ere sart-
cen: bada han oin-batça franco, eta ez com-
paina escasic.

Eta ifernuc bidea gaitoec daramatena, dez-
itcenda handia, eta çabala, ceren hartan dabilt-
çanac, ezpoitira erreguelaz bici eta ez orde-
nantçaz. Eztute hec bertce erreguelaric,
bere vorondatea baicen, eztaude leguearen az-
pian, leguea da hequen azpico. Bidea huts
eguinac, errebelatuac dabilçça: eta hala da-
biltççanac nondic nahi den dabilçça, hequent-
çat guztiaç dira bide, guztiaç dira çabal. Eta
nola çabal baitira eta laguna ere franco baitu-
X



te, placer çaye, bere errebelamendu guztiarequin ere, bide çabal harran ibiltcea.

Placer da mihiaten anhitz arnegu eta iuramentu eguiten duela, nahi duen beç la minçatcera vtztea. Placer da igandetan eta bertce bestetan, solhascan, ian edanean, dantçetan iocoan eta atseguin hartcen, meçaz, bezperaz eta oracinoz conturic eguin gabe, demboraren iragaitea. Placer da haraguiac quilicatcen çaituenean, bere hala ceure desiraren complicea. Placer da bide gabe bat eguiten deratçutençamendecatcea, ordainez, ordain, moneda berean pagatcea. Placer da, bere edo bertceeren, esuen artean, ceibait erabiltcea, eta alfer eta aise, çbatiz içanen bada ere egoitea. Placer da çebartutcea, ongui iatea, hobequi edatea, eta barazcari ona gatic, avari hobearen ez vtztea. Finean placer, placent eta atseguin da, bere gogoac eta appetituac diotfan beçala, bide çabalaz ibiltcea.

Ez ordea ezta placer eta ez atseguin, baina gaitz eta penos da, parabisuco bide rchararen eduquitcea; manamenduric hautsi gabe; bethi artez ibiltcea eta bicitcea. Gaitz da mihiaten ongui gouernatcea, limbutçetic beguiratcea, eta bertceac çutçaz mintça lirecin, nahicenduqueyen beçala, çu ere herçaz minçatcea. Gaitz da bide gabe bat eguiten deratçutenean, barçatcea: gaizqui çraiten de

ratçunari ez ihardestea, ceure esuan duçularic, ez mende catcea. Gaitz da, haraguiac tentaten çaituenean, gaitetan eta occasioetan çarelariç, ceure buruaren bortçatcea, desiraten ez complitea. Gaitz da tratuetan era salerosi etan, bethi eguiaz ibiltcea, bertcerena esuan darabilla çularic, ez çusatcea, eriotan iinic ez lotcea. Gaitz da çur baten gainean, ceure ohe ona vtçiric, eta larru arras dilicio bat, çerdazco çuerrico bat harturic etçateca eta ibiltcea. Gaitz da barutçea, iançari ona, edari hobea, eta appetitu ere duçularic, guztien laincoa gatic vtzteca. Finean gaitz da eta penos da munduan çarelariç munduan çzpaquina beçala, munduaz conturic eguin gabe, laincoaren vorondatçari errandaturic egoiteca; haren manamenduen arauaz, haraguiç çzpaquina beçala, bethi spicualqui bicitcea.

Eta ala baina gaitz ago bada eye, haur da parabisura ioaitco bidea, haur da han sartceco athea. Beraz orai badirudi ecen eztela gaitz, galdez gauden eguitçoari ihardestea. Çeren iduriz frogatu baitugu asco clarqui, etraz ago eta placent ago dela ifernuco bidea parabisucoa baino, parabisucoa hain gaitz denaz çueroztic.

Baina guztiarequin ere aihertcen naiz erraitera, eta erraitendut, parabisuco bidea errazago, plaun ago eta placent ago dela, ifernucoa



baino. Eta ifernura ioaiten denac, pena eta trabillu guehi ago iragan behar duela, are mundu hunetan ere, ifernura ioaiteco, parabisuratzen denac, parabisurateco baino.

Eta hartaracotgat froga deçagun lehenic; erraz dela parabisuco bidea, eta guero frogatuco dugu, erraz ago dela ifernucoa baino.

Nola parabisuco bidea den errazi

C A P. L X I.

E Guia haur, parabisuco bidea erraz dela; anhitz moldez, eta arraçoinez frogabahal ditekue. Lehenbicoric erraitendu Iondu-
 ne Joannes Euangelistac, *Mandata eius gratia, non sunt.* Iaincoaren manamenduac ez-
 tita pisu, eta ez gaitz. Halaber erraitendu
 Eccl 8. *Spiritu sainduac. Qui custodit præceptum, non experietur quidquam mali.* Manua completu-
 cen duenac eztu gaitic frogatuco, halaber
 aise eta bere gogara içanenda. Eta guztic
 gainetic erraitendu gure salbatçailleac berac
 Venite ad me omnes qui laboratis & onerati estis
 Mac 11. *& ego reficiam vos. Tollite iugum meum super vos, & discite à me, quia mitis sum & humilis corde, & inuenietis requiem animabus vestris. Iugum enim meum suauis est, & onus meum leue.* Cato

teene gana trabailatzen çareten guztic, eta çargaturic çaudetenoc, eta nie arinduco eta aise ibenico çaituztet. Har eçaque ene vztarria ceuen gainera, eta iccas eçaque ene ganic ni naicen beçala, eme eta humil içaiten, eta editrenen duque çuen arimentçat baque era fo-

legu. Legis difficultatibus laborantes, & peccatis seculi oneratos ad se vocat. Legue çahar-
 harreco cini moniez trabaila turic, eta beccatuzco eguitecoez çargaturic daudecinac, deit-
 ceintu bere gana. Eta hey erraiten deçau, le-
 guez aldaturic, legue çahar hura vçitric, eta
 beccatuen carga ere bere ganic egotçiric, har
 deçatela bertee carga molde bat, vztarri leun
 ago bat, cein balta legue bertia, Euangelio sa-
 indua, eta haren arauaz bicitcen direla, iccus-
 sico dutela, cein aisia handian ibenico dituz-
 ten bere buruac, cein content eta bere gogara
 bico diren: eta cein placent, aise eta erraz
 burituco çayen Iaincoaren ceibitçatcea, eta
 haren legue sainduaren vztarriari errendatu-
 tic, manamendu sainduen bidean ibiltcea.

Iaincoac berac erraitendu, placent dela ha-
 ren vztarria eta carga ere arin, beraz hala da;
 placent da, eta arin. Çeren Iaincoac ecin der-
 raque gueçaric.

Ordea nola Iaincoac erraiten baitu; haren
 vztarria placent dela, eta carga ere arin; hala
 erraitendu halaber Iaincoac berac, parabisura-
 itateco bidea, bide hertsia, meharra eta gaitz-

bilarius
 canon.
 12 in
 Matth.



ga dela, eta gutic edireiten duela bide hural
Baina ife nuce bidea dela handi, çabal eta
placent, eta ez dela bide hartan iende efcasie;
badela compainia franco. Batean emaitendu
aditcera, erraz dela eta çabal parabisuco bi-
dea eta berriz bertcean gaitz dela eta me-
har. Nolatan ahal dateque bada haur
hunela, erraz, eta gaitz: çabal eta me-
har?

§. I.

Pontu huni ihardesteco, iaquin behar du-
legue sainduari berari, hain ossoqui eta com-
plituqui, complitu eta beguiratu behar dena-
ri: eta bertceric gueure haraguiari ere berari,
hain gauça flacoari, eta flacaten errazari,
soilqui, eta baccarric beha badicegu, laz
eta gaitz dela laincoaren cerbitçatcea, eta ha-
ren legue sainduaren beguitatcea eta com-
plitcea. Baina baldin considera biditçagu
laincoaren laguntça, ethorquicuneco espe-
rantça; pagamenduaren segurantça, gogotic
eta vorondatez dagoenaren indarra; eta guz-
tien gainetic, onatafunean dabillanari Spiritu
sainduac emaiten dioen indarra, berotafuna,
consolamendua, eta donua, edirenen dugu,
ez gaitz, baina erraz; ez herri, baina çabal;
ez pifu, baina arin eta placent dela laincoa:

ren cerbitçatcea eta haren legue sainduaren
complitcea.

Gaitz da laincoa ganaco bidea, haren ma-
namenduen complitcea. Ordea noientçat da
gaitz? Berrientçat, usatu gabeentçat: nagui-
entçat: lachoentçat: enfeiatcen ez tirenentçat: Lajoen-
aitcinarat behatu gabe, ethorquicunaz con- çati
tutic eguin gabe, haraguiaren arauaz bici na-
hi dutentçat: eta guztien gainetic gogotic
eta amorioz eztau decinentçat. Ez ordea ez-
ta laz, eta ez gaitz haraguiari guibela emanic,
arrazoinaren arauaz, gouernatcen direnent-
çat: ethorquicunera behatcen direnentçat, eta
gogotic eta deliberatuqui, cin cinez eta amo-
rioz enfeiatcen direnentçat. Hala emaitendu
aditcera San Chriostomoc. *Quod si onus au-* Chryl.
diendo formidas nimium, atque perhorrescis, non Hom. 3.
natura rerum huiusmodi timorem, sed igna via- in c. 11.
tae totum tribue. Nam si accintus & prepara- Matth.
tus eris, & nulla desidia effeminatus, cuncta tom. 2.
facilia biiebuntur.

Baldin laincoaren euangelioa eta vztartia;
carga dela enguteaz lazten eta larritcen ba-
çara, ceure hotztafunari eta naguita funari
emoçu hoben eta falta, eta ez bertceri. Ce-
ren baldin gogotic, cin cinez prestatutic eta
istalgaraturic, abia bacin deci eta perma;
etcindezque ici eta ez iccara, baina iduri
lequidiqueçu guztia erraz, placent, eta arin.
Ceren oraino San Chriostomoc berac dioen



beçala. *Fieri potest, quod natura est intolerabilis*
 Chryf. *si leve, si cum alacritate animi suscipiamus.*
 in cap. 16. luc. Bere eguitez, gaitz den gauça ere, errazten-
 tom. 2. da, gogotic, eta alegueraqui hartcen denean.
 Eta badio San Agustinec ere: *Omne praecep-*
 August *tum leve est amanti.* Manamendu guztiaç di-
 sent. 2. ra erraz, amorio duenarentçat. Den gauça-
 22. tom ric errazena eguin bedi gogo gaitceç, eta gaitz
 3. içanenda; den gaitzena, eguin bedi gogo onez
 eta erraz içanenda.

Halatan londone Joannes Euangelistac;
 amorio dutenez eta eztutenez mintço dela,
 emaitendu aditcera, amorio duteney, manamendu
 Joan. du bat. *Si quis diligit me, sermonem meum ser-*
 14. *vabit.* Baina amorioic eztuteney manamendu
 bat bera iduriteen çayela, anhitç manamendu.
Qui non diligit me sermones meos non seruat.
 Batean dio *Sermonem*, eta beritcean, *ser-*

August. *mones.* Halatan erraitendu San Agustinec ere.
 decivi. *Ita corpus pondere, sicut animus amore fertur,*
 ratedet. *quocumque fertur.* Amorioac erabiltcen du
 cap. 28. bat bedera nahi duen leccura pifuaç balantça
 tom. 5. erabiltcen duen beçala. Guztia dago gogoan,
 guztia dago vorondatean eta amorioan.

Manamendu guztiaç amorioic eta carita-
 tetic hasten dira, amorioaz eta caritateaz com-
 pliciten dira, eta amorioa eta caritatera bere
 finera eta chedera beçala, viltcen eta bihurt-
 cen dira. Beraz ecin dateque gaitz, amorio

duenarentçat, manamendu complitea. Ce-
 ten amorioac manamenduey, bere garratztra-
 suna ezitcen, mintafuna goçatcen, eta gaitz
 tafuna errazten baitetauc. Erregue Dautet no-
 la ezpaitçuen amorio escafic, halatan laincoa-
 ren manamenduac erraz idurituric, erraiten
 quen *In via testimoniorum tuorum delectatus*
 sum *sicut in omnibus divitiis.* Çure manamen-
 duen bidca, hain da bide atseguina eta placen-
 ta, non hartan ibiltceaz, mundaco aberatstafun
 guztien escuen attean erabiltceaz beçanbat
 atseguin hartu baitut. *Quam dulcia faucibus*
meis eloquia tua. Ecin derraquet cein goço era
 ezti çaitzquidan neure ahoan eta eztarian
 çure manuac, solhasac eta perpauçac, are ezti
 baino ezti ago edireiteintut. *Super mel ori meo.*
 Amorioac beroturic, eguiten çutê lehen agoco
 fainduec, laincoaren cerbitçuan, hanbat valen-
 tia: Halatan pairatcen çuten hãbat pena, eta tra-
 baillu, heriotce eta martirio, dolore eta estira.
 Nola Patriarca Iacobi iduritu baitceican la-
 bur eta deusguti, Raquel ederraren erdiestea-
 gatic, çazpi urthez haren ondoan eta cerbitç-
 çuan ibiltcea. Cerê maite baitçuen amorio bait-
 çaducon. *Videbantur illi pauci dies pre amoris* Genes.
magnitudine. Hala fainduey ere iduriten çaye 29.
 deus guti, laincoa gatic eguiten duten guztia,
 çeren gogotic baitaude, amorioa baitute han-
 dia. Halatã Apostoluec, ete orduan cedutçaten
 bere buruac dohatçuenic, eta çiren aleguerenic



A& 5.

noiz eta laincoa gatic desohore eta laido gues-
hi hago errecibitcen baitzutten *Ibant gaudentes*
à conpectu concilii, quoniam digni habiti sunt,
pro nomine Jesu contumeliam pati Ceren nola
desohore eta laido hec guztia, vorondatez eta
amotioz hartcen baitcuzten, amotio haxquin
batean, etciruzten sentitcen, etcieitzen travaillu
iauritcen haren arauaz erraitendu San Agus-
tinec. *Nullomodo sunt onerosi labores amantium,*
sed etiam ipsi delectant, sicut venantium, aucu-
pantium, piscantium. Nam in eo quod amatur,
aut non laboratur, aut & labor amatur Amori-
oz eta gogotic dab lçanen travailluac, ez tira
travaillu, aicinic, heran atsequin hartcenda:
hiztariac, harran çaleac, pilotariac, dantsariac,
neccatcen dira, travaillatcen dirazera ala baina
travaillu hura guztia bestatçit, hartcen dute
Ceren maite den gauçan, edo ezta nequeric, edo
maite da nequea ere: edo ezta travailluric, edo
baldin bada ere, harran atsequin hartcenda:
Iccussio duçu cenbat pena iragaiten duen
ama batec bere haur triplarequin; eta guztiz
ere, haurra charra, çacarsua eta hazcari gaitça
denean. Eztio, lonic eguitera vtzten, gau eta
egun haren mainatcen eta errecaitatcen, bere
birtua deseguinic, hari behardu. Eta guztiare-
quin ere ama erhoa hartan loiatcenda: ganaric
erdian iaquiric, eta bere loa galduric, haur ha-
requin, milla erhoqueria erraiten duela, do-
talcenda. Ceren maite baitu, amorio baitiadu-

August.
de bo-
no vi-
dura.
com. 4

co. Eta amorioac travaillu guztia arintcen,
goçatcen, çaporatcen eta ezeztatcen baiterautça.
Hala bada guirifino onari ere, amorioac,
gogotic egoiteac, arintcè, errazten, goçatcen eta
abantz aratciten derautça, laincoaren mana-
menduen complitcean, iragan behar diren ne-
que travaillu guztia. Hala erraitendu San
Agustinec. *Omnia seva & immania, prorsus* August.
facilia & prope nulla efficit amor. Diren gauça- de ver-
ric gogorrenac, molde gaitzenac eta ez- gaitze- bis Do-
nenac ere, hezten, beratcen, moldatcen eta ef- mini
cuetarat ceintu amorioac. Ezta gauçaric, amori- ferm. 8.
oac, hez, hauts, balaca, eta errenda ezteçaque- & fer.
yenic. Amuruz batec anhitz pena, eta travaillu 46. de
paitatendu bere amurufa gatic: anhitz gau, eta tempo-
egun gaixto iragaitendu, haren erdiesteac gatic. re t 10.
Baina, hec guztia, ceren amorioac itfutua bai-
tago, deus guti sentitceintu. Bada guirifino
oac, Spiritu sainduaren amorioac eta garaciaz
vquituric dagoenac, cenbatenaz, gutiago senti-
titceoiru, eta errazqui ago iragaineintu, laincoa-
ren cerbitçuan ahal diratquen travailluac: Ceren
amotio gatbiac, laincoa ganic heldu denac,
indar guchi ago beharluque, eta du ere, Dea-
buaganic heldu den amorio higuin, hats ligu-
na baino. Eta halatan arraçoinequin erraitendu
gore laincoac haren euangelioaren vtzarria, pla-
cent dela, eta leguearen carga ere atin. Ceren
hala baita, atin eta placent baita, gogotic dago-
enarentçat, vorondatez eta amorioz hartcen
duen ar entçat.



§ 2.

ARe guehi ago, placent, aisit, arin eta er-
namenduen complitcea; ez hastean, ez lehen-
bician, ceren haragua, eta vsantça gaixtoec
contra handia eguiten baitute. Baina behin
usatuz guero, dastatuz guero, eta spiritua, hara-
guiari launduz guero, ezta mundua hain viada
appetitose eta goçoric, nola baita laincoaren
cerbitçatcea. Capatac iauntei berrian, hersten-
du, min eguiten du, baina appur bat erabiliz
guero, moldatcen da, oinaren neurritza, eta or-
coiera ethortcenda. Oinac lohacartua dagoen-
nean, eta gorputçat eta çurrundua, manatu gu-
ti dute, iaiquitcera eta ibiltcera herabe dute:
baina behin iaiquiz guero, eta appur bat higu-
tuz guero, bete hala çalhuitcen, manaiucort-
cen eta iratçartcen dira. Halaber prefuna ian-
çaharrac, mathela gogortuac edo horzquitua
dagoenac, ezta atseguinic hartcen, iaten haf-
tean, lehenbiceico pochinean eta ahamenean:
baina behin hasis guero, handie harat, iaten
duena, on eta goço edireitendu. Hala bada la-
incoaren cerbitçuan ibili nahi dena ere, lehen-
bician horzquida, çurrû da, hort eta nagui da;
baina enfeia bedi, has bedi, eta bete hala bero-
tucco, eta çalhuituto da, trebe, bithore eta en-
tragu içanenda, aise ibilico da: eta guero eta
gupro aise ago, ceren ezta han affetceric eta ez

Pogir-
nean.

higuintceric. *Augent enim spirituales delicia de-
siderium in mente, dum satiant: quia quanto ma-
gis earum sapor percipitur, eo amplius cognosci-
tur quod avidius ametur.* Bertce ianharieç hilt-
cen dute appetitua. (Dio San Gregorioc) Bai-
na laincoaren cerbitçatceco ianhari hunc ber-
retcen ago eta pizten ago da. Ceren barren
ago hobe ago, eta goço ago edireiten baita.

Gregi
Hom.
36.

Munduco placentieç, diren handienec
ere, demborarequin, vnhatcen dute, bere
batez aiccin ago, higuintça emaiten dute.
Baina laincoarenec, guero eta guero appetitua
piztzen eta berretcen dute. Eta handie harat,
hala berretuz guero, vsatuz guero, atseguin
da eta placent laincoaren bidean, eta cerbit-
çuan ibiltcea, haren manamenduen complit-
cea, eta prestuqui bicitcea.

§ 3.

ARe guehi ago atseguin da eta placent ia-
incoa ganaco bidea, haren manamen-
duen complitcea, complitce hartaric heldu-
den probetchuari eta irabaciari behatcen dio-
enarentçat, hartan gogoa, eta beguiac ibent-
cen dituenarentçat. Ceren San Chriostomoc
dioen begala. *Nulla res est tam difficilis que
non fiat facilis spe futura vite.* Ezta hain gauça
gaitzic, ethorquiguneco bicitcearen esperant-
çarequin errazten eztenic. Hala erraitendu

Chr. in
Psal. 5.



Augst. San Agustinec ere. *Omne opus. le ve fieri solet. cum sus premium cogitatur, & spes praxii solatium est labori.* Den lanic handiena ttipicent, eta cagatic pisuena ere arintcen du, hartaric heldu den irabacian pensateceac. Pagamendua ren esperantça da, traillauren consolamendua. *Si vis sustinere laborem attende mercedem.*

Augst. in Psal. 38. t. 8. (Dio oraino San Agustinec) Nahi badu çu irau traillaun, pensa eçaçu pagamenduan, eta irabacian. Den eguitecotic gaitzenari ere, gogotic lotcen çagaitça, ongui pagatua içanen çurela segar çarenean. *Condimentum cibi jejunium est. Quanto avidior appetentia, tanto escajundior.* (Dio San Ambrosio) Ianhariaren

Ambrosio de Elia & jejunio c. 4. iaquia harura da, eta gosea Cenbatenaz gosea handi ago, hanbatenaz ianharía goço ago. Nola gosea edo appetitua baita ianhari guztien falsa eta iaquia: hala da nequearen eta traillauren consola garria, çappora garria, eta arintcarria, pagamendua eta pagamendua ren esperantça. Hunen arauaz erraitendu Erteguo Danitec ere. *Declina vi cor meam ad faciendas justificationes tuas, propter retributionem.* Delli be atu nuen çure manamenduen complitcera, complitcetit, helduccitan probetçhua gatic. Nehore deus vste ez tuen leccuan, herabe du, oina pifu du, baina irabaciac oinac arin.

Psalm 118. Laboraríac fruitpen esperantçan, gogotic iragaitendu bere lur lanetaco nequea. Mercataria irabaci vstez, eguitendu itfasoz, eta leltote

rez, hain arintqui, hanbat bide, itçul inguru, eta loan ethorri. Finean irabaciaren esperantça hunec, deusen vsteac, ernatcen, eta iragaitcendu mundu guztia: Hain iragaitcenen, non esperantça hunequin, neguac vda: gauac egun: vtiac atheri: minac goço: traillauc aitia, eta atsecabeac, ere, atleguintasun eta placentcia iduriccen baitçaiçquigu.

Bada baldin mundu hunetaco irabaci appur baten esperantçac, anhitz etan ere, enganaturic vtzen gaituenac, hain gogotic, hain arinduric, eta guti sentituric, trailla aracitcen bagaituz cer içanenda arraçoín eraguín deçan ceruco loriaren esperantçac, vsteac, eta orhoitçapenac? Eta cer içanenda halaber, loria haren, irabaci guztien gaineco, irabaciare ondoan dabillanaz? Hain gauça handiaren esperantçan traillaucen denaz? Halacoari, baruttea, oracinotan egoitea, etsaiari barcattea, haraguiaren placteren vtztea, eta finean obra on guztien eguitea, iduriccen çaica erraz, eta deus guti. Ceren trailla appur: bequen gatic, seculaco loriaren, hain irabaci handiaren eta pagamendu abantailatuaren esperantçan iartcen baita.

Halatan erraitendu San Agustinec *Cum attenderis quid accepturus sis, omnia erunt tibi vilia, que pateris, nec digna estimabis, pro quibus illud accipias.* Confidera deçaçunean cein pagamendu handia emanen çaitçun hemengo trailla appurac gatic, erramenduçã, ez tuçula,

Augst. in Psal. 36. T. 8.



hain deus guti gatic, hanbat mereci. Ceren
trabailua baita ttipi, labur eta temporal, eta
pagamendua handi, luce, eta seculaco.

Confidera deçagun beraz pagamendua, eta
edirenen dugu erraz laincoaren legue sain-
duac.

§ 4.

ARe guehi ago edirenen dugu erraz eta
arin laincoaren legue saindua. Ceren
legue haur vztarri baita, eta vztarria, biac
iasaiten eta eramaiten baitute. Halatan erran
cerauen baratcean nabusiac bere discipuluey.
Sustinete hic & vigilate mecum. Sostenga eça-
que orai hemen hain bertee trabailu, çaudere
appurbat irat çarriric: eta ez cerde, ez, baina;
mecum, onequin, ni laguntcen natçait çuela.
Hala erraitendu londone Pauloc ere.

Matth
29.

I. Cor.
15.

*Abundantius illis omnibus laboravi; non ego autem;
sed gratia Dei mecum.* Ni bertee guztiac bai-
no trabailatu ago naiz, ez ordea neror, ez;
sed gratia Dei mecum. laincoaren garacia ene-
quin. Hala erran çuen halaber londone Pau-
loc berac *Omnia possum in eo, qui me confortat.*
Ezta gauçatic, neure esportçat çaillea;
requin batean, eztaidique danic.

Consolamendu handia da, bere trabailuetã
eta eguirecoetan, lagun onbatẽ içaitea. Beraz
confola ahal gaitzque gu ere, ceren gueure es-
guitecoetan Iesu Christo lagun baitugu. *Obra*

onetan çabiltçanean etçara behin ere baccaric,
çurequin da laincoa, laguntcen çaitçu, quidat-
cen çaitu. Eta halatan da laincoaren legue sain-
dua erraz, eta arin. Ceren laincoac berac gue-
bien partea iasaiten, eta eramaiten baitu.

laincoaren manamenduac, idien orgac;
chaluparen arauac, vntciaren velac, eta he-
gatzinaren hegalec hegala dira. Orga carga
da, pisuda. Ordea idiec carga harequin, carga
guchi ago eramaiten dute. Badirudi, carga
laguntcen çayela, carga eramaiten. Arraiac,
eta velac ere pisu dira, ordea hequin batean
arintqui ago, eta laster ago dohaci vntciac,
eta chalupa c. Hegatzinaren hegalec ere ba-
dute bere carga, eta pisufatuna. Ordea carga
harc, ez çargateen, baina auntecendu hegaz-
tina. Hala erraitendu san Agustinec.

*Hæc sarcina non est pondus onerati, sed ala vola-
turi, habent enim & aves pennarum suarum
sarcinas. Et quid dicimus? Portant illas, & por-
tantur. Portant illas in terra, & portantur ab il-
lis in celo.* Hegaztinac iasaitentutu lurrean bere
hegalac, eta airean hegalec iasaiten dute he-
gatzina: iasaitentutu, eta iasaiten dute. Er-
tan baceneça. Hegatzina haur trabatcen, eta
çargatcen dute bere hegalec, eta vrrical-
duric, edequi baciniatço, calte guehiago
equin ciniatçao, probetchu baino. Ceren ai-
ratcen, eta hegaldatcen cena, lurrean gueldi
bailiteque.

Aug de
Verbis
Domini
Ierm.
24. tom.
10.



Beraz carga badira ere , on dira orgac , ve-
lac , arrauac , hegalac , eta bai laincoaren
legue sainduaren vztarria ere. Ceren vztarri
haut , carga içan agatic ere , hunequin batean
hobequi ago , eta aisequi ago iragaiten baitira
mundu hunetaco trabaihuac , eta atsecabeac.
Ceren laincoa bera leguearen emaillea , le-
guearen beguiratzen , eta complitcen lagunt-
cen baitçaiçu : eta hartaracotçat , vztartcen
beçala baita gurequin. Eguia haut eçaguru-
ric , erraiten cioen san Agustinec laincoari ,
hi z gutiz , eta ederqui.

Aug. l.
20 con-
fel cas.
29 &
31.

Da quo iube; & iube quod vis. Iauna ema-
çu manatcen duçuna , eta guero mana eçaçu
nagi duçuna. Ceren indarra franco denean ;
eta laguna ere ona ezta carga gatic antzia. Be-
raz laincoa bera iaçaiten laguntcen çaiçunaz
gueroztic , arraçoinequin erraitenda , haren
vztarria placent dela , eta carga ere arina.

S. S.

GUre legue sainduaren , eta manamendua
Ceren baldin alde bateratic cargatcen bagai-
tu , bertetic arintcen , eta bertice anhitze
cargaren , eta obliga cinoren , azpitic , atbe-
ratcen baicaitu.

Galdeguiten dute Theologoec , ea guc gueure
beccatuac gatic , gueure laincoari satisfacione-
nic , eta pagamenduric eguin ahal dia çai-
ogunz. Eta badirudi ezetz. Ceren erraiten
du san Thomasec. *Satisfactio est redditio volun-
taria , æqui valenti , alias indebiti.* Satisfatcea
da , çor ezitugun obtez , gueure escuco ditu-
gunez , nahi badugu baicen eguitera obligatu
ezcarenez , çor dugun beçanbat pagatcea , eta
bihurtcea. Beraz ecin eguin diaçaiogu guc
gueure laincoari pagamenduric. Ceren nola
baita laincoa , guztien gaineco ongui eguil-
lea , eta dugun guztia haren ganic baitugu : ha-
la dugun guztia , eta ahal daguigun guztia ha-
ri diogu çor : beraz etçaiçu deus guelditceci
gueure escuco , ezta obra liõteric , manamen-
du eztenic , cein deicen baitituzte Theolo-
goec. *Opera super erogationis*, obra emendailluz-
coac , emanen gainecoac , gure escuco dire-
pac , libreac , nahi badugu baicen , eguitera
obligatu ezcarenac. Badirudi eztela hunelaco
obratc : eta baldin ezpada , segur da ecin pag a
deçaquegula gueure laincoa , eta ez satisfia.

S. Tho.
4 discis.
sent. q.
1. 2. 1.

Baina guztiarequin ere ihardestendute
Theologoec berèc , eta erraiten. Alde guz-
tiz çordun bagatçaitçære gueure laungoi-
coari , badela guztiarequin ere , anhitze
obra on nahi badugu baicen , eguitera obli-
gatu ezcarenic , gueure escuco dugunic : no-
la baita orçitale guztietan barurtcea , egun



oto meça ençutea, gau erditaraino oracino:
 tan egoitea, eta hunelaco bertceric anhitz.
 Hauquen eguitera ezcara obligatu, nahi ba-
 dugu baicen. Ceren laincoari alde guztiz, eta
 gueure ahal guztiaz çordun bagatçaitça ere:
 Ordea laincoaren misericordia, eta libe-
 ralafuna hain da handia, non baldin, haren
 manamenduac complitcen baditugu, con-
 tentatcen baita hain bertceç, eta gaineraco
 bertce obra on guztiaz; gueure escuco urzten
 baiterauzquigu. Eta hala manamenduen emai-
 teaz, manamenduac gutitu cerauzquigun,
 carga arindu ceracun. Ceren bertcela, bal-
 din manamenduac, eman ezpalerauzquigu,
 guztiaz manamendu içanen baitciren.

Beraz arraçoinquin erraitendu. *Fugum
 meum suave est & onus meum leve.* Ene vzar-
 ria leun, placent, eta aisu da, eta ene carga
 ere arin:ceren hala baita. Eta are carga delaric
 carga arintgarrri, eta guti garrri baita.

Eta hala segur da, parabisuco bidea, be-
 harden bidean harteen duenarentçat, plaun
 dela erraz placent, eta atseguin.



*Nola parabisuco bidea den erraz ago
 ifernucoa baino.*

C A P I T L O

HUnen aitcineco capituluan, eman-
 diren arraçoinen arauaz, agueri da,
 laincoaren legue sainduaren carga,
 carga arina dela, eta iatfateco erra-
 ça. Ordea carga da, eta carga denaz gue-oz
 segurda cenbait neque, eta travaillu badue-
 la: nola halaber ifernuco bidea daducanac;
 edireiten baitu cenbait atseguin, eta placer:
 Orai da bada contua, eta pontua, ea ceinec
 duen atseguin, eta placer, edo travaillu guehi
 ago, parabisuco bidean, ala ifernucoan dabil-
 lanac? Eta gauga segura da, ifernuco bidean
 dabilanac travaillu guehi ago duela, carga
 pisuagoa darabillala; halaco moldez ecen
 carga hura ecin iasanez erraiten baitçuen
 Propheta Davitet. *Iniquitates mea super grisse*

*sunt caput meum: & sicut onus grave grava e-
 sunt super me. Ene beccaruec iragan, etaferdi-
 tu dute ene burua eta carga soitha pisubatec
 beçala, aurizqui, eta çapatu naute naicea guz-
 tia. Eta halatan erraiten deraue Iaincoa halaco
 cargarequin dabilçaney. Venite ad me om-
 nes qui laboratis & onerati estis, & ego reficiam*

Psalm: 32.

Matth: 11.



yo. Catozte enegana travaillaten çareten guztioç, eta cargaturic çaudetenoc, eta nic arinduco çaituztet : nic carga piflu hoi ede- quic, carg: arin ago bat emanen deratçuer. *Tollam quidem sarcinas, sed inanes à sarcinis non dimittam.* Tollam sarcinas matas & impo-

August. de Ver- bis Do- mini fer 24. tom. 10

nam bonas. Edequico deratçuer carga, baina çuei carga gaixtoa, eta emanen ona Veitbu- nequeac, eta travaillaac, eta bai beccatuac ere bere atseguinac, eta placerac.

Bala vertuthearen neque, eta travailla hec, atsequin ago dira, beccatuaren atse- guinac, eta placerac baino. Hala erraitendu lan Agustinec. *Dulciores sunt lacryme oran-*

August. in Prial. 1. 7. tom. 8.

tium quam gaudia theatrorum. Ezti ago, eta gogoç ago dira oracinotan, eta o'hoitzetan dandecinen nigarrac, comedietan, danteçtan, eta munduco pl. ceretan dabilçanen irriac baino.

Icussico duçu s'ndutto bat çocco batean nigartez, eta hart-beherapenez, oracinotan dagoela : eta icussico duçu halaber oracinoç, eta debocinoç conturic eguiten eztuen bat, bethiere iend'artean, iocoan, dantçan, eta atseguin harteen dabillalac Bida oraiçun idurituco çaitçu ezetz, baina çoccoan oraci- notan dagoen hanc, bero ago, eta aleguera gor- du, bere baithan barrera bere gogoa, munduco

co atseguinetan dabillanac baino. Ceren laincoac bere garaciaz, eta faboreaz deboci- notan dagoenaren nigarrac, goçatcen, eta çaporatcen baititu: eta berac ere nigar he- tan ondore on bat edireiten baitu. H. laco- garic erraiten san Agustinec. *Semper doleat & de dolore gaudeat.* Beu bethi dolore, eta do- loreaz gogoç, eta çappore.

August. de vera & falsa poenit. cap 13. in fine tom. 4.

Icussien duçunean presuna bat bere bec- catuen dolore hutsez, nigartez dagoela, vste duçu ecen presuna hura triste dela, baina en- ganatcen çata: ceren aleguera da, eta ale- gueraz nigar hec eguiteintu. Ceren san An- brosioc dioen beçala *Non solum dolor lacry-*

Ambros. de obi- tu fia- tris o. 2. 4. tom. 5.

mas habet, habet & letitia lacrymas. Eztira çz nigar guztiaç doloretic heldu, badira alegrian- çatic helduditenac ere. Presuna iustuen huc beherapenac, oracinotan, eta penitencietan dandenen nigarrac, alegriançatic heldu dira. Nigar hec, arrosac dira elhoçtien artean. Egur heceac eguiten du gar, eta eguitendu nigar: sua datheca, eta via dario. H. la bada presuna iustuac ere verthurezco obretan eguitendu nigar, eta eguitendu irri: badu travaillu, eta consolamendu, badu tristura, eta alegriançca: campoan tristura, eta bar- tenean alegriançca. Eta barreneco alegrian- çca hanc, garaitcendu campoco tristura. Ceren tristura hura bere nahiz, eta vo- dundatez, eta bere probetchutan hartcen



Psalm. 127. baitu, eta haren ondoan alegriantza vste baitu. Halacoa gatic erraitendu Eliçac ere. *In labore requies, in æstu temperies: in fluitu solatium.* Traballuan pausua: beroan frescura, nigarean consola mendua. Halaber halacoa gatic erraitendu David sainduac. *Labores manuum tuarum quia manducabis.* Bere escuen traballuac ianen dituela. Traballatcen denac, bere traballuaz içaiten duen irabacia, iaten ohido, eta ez traballua bera. Eta hala baina erraitendu Erregue Dauitec, presuna iustuac traballua bera ere iaten duela. Eta arragoinequin erraitendu hala. Ceren iustuac traballu hartan ere, ian hari goço baten iatean beçanbat atseguin hartcen baitu. Guiristino onac iaten ditu mundu hunetan bere traballuac, eta bertce munduan, traballuaren irabaciace, eta fruituac. Ceren traballu hetan, barurtean, oracinotan egoitean, eta nigar eguitean ere, epperqui iatean baino atseguin ager hartcen baitu. *Fuerunt mihi lachryme meæ panis die ac nocte*, dio Prophetac. Ene gauzaco, et egunazco oguia, nigarrac içan ciren. Oguita affetcean beçanbat, atseguin hartcen nuen, et gar eguitean. *Gaudet iniquus in pompâ vanalorietan, pomperietan, bombacietan, et handira funetan hartcendu atseguin, eta placer, eta martirac, iustuac, gartcelean, traballuetan, eta gathean. Eta martir hanc atseguin*

Vide Aug. tur per huc Psalmu

Pfal. 41.

August. in Psal. 137.

guin ago barrcendu bere traballuetan, eta laincoa gatic iragaiten dituen penetan, gaixtoac muduco placeretan baino. Ceren san Agustinec diogen begala. *Major est sua vitæ mentis, quam ventris.* Handiagoo da arimaren consolamendua, eta bere gogara, go putzarena baino adimenduaren atseguina sabellaren baino, eta bareneco bozcarioa, campocoo baino.

§ I.

NOla gaixtoec, munduco atseguinetan, dantcetari, ian edanean, eta bertce placeretan dabilçanec, ezpaitute barurtecean, oracinoaren, eta bertce verthuten barreneco mamia, compoco açala baicen iccusten, ezpaitute penitencian, eta penitenciazco obreretan estaliric dagoen goçatassuna frogatcen, vste dute ecen penitenciazco ezuela bat ere ontafunic, atseguinic, eta ez placeric: eta içaitecotz ere, bertce munduan içanen duela, eta ez emen. Eta nola bertce munducoo baita gueroco erraiten dute, ez tutela presenteco placera, gueroco esperantça gatic vteci nahi. Eta erraiten dute hunela, ceren baitacusate ecen verthuteac, laincoaren legue sainduac, campoco iduria, eta figura duela itfusi lartz, eta gairz. Eta handie campoco gaixtafun hanc icituric, vtzten dute barreneco mamia,

Y

eta hartcendute campoco açala.

Emaztetara emana-den batec, eztu vste; emaztequin seguitu gabe, nehor bici ahal di-tequeyela. Baldin erran badiaçogu badela anhitz seguitcen eztuenic; eztu sinhesten. Ceren ezpaïta bera egoiten.

Iocari bati, arnegari bati, edale bati, dantaçari bati, edo halaco bertce iende thallucy idurritcen çaye ecen bicio hetan dela, placer guztia: eta verthuteac, laincoaren cerbitçateac, manan enduen complitceac, ezuela bat ere atseguitnic, eta ez placeric; penaric, eta atsecaberie baizen. Baina enganaten dira, eztaquitenaç beçala mintço dira. Eztute egun daino frogatu, eztute egundaino laincoa cerbiçatu, eta guero erraitendute gairz dela laincoaren cerbitçateac: dastatu eztuten viatada arbiatcen dute: eztaquiten gauça conde-natcen dute. Gairz da, itsuac coloren berri-laquitea, gorri, ala more den eçagutcea, hartan sentencia emaittea. Saindu guztiec erran dute, esquiribuz eçarri dute, laincoaren vtartaria placent dela, haren legue saindua erran dela, beraz hec, nola berac frogatuac baitira sinhesti ago, behar dira, bat ere berritce in-quin gabe, bere placerera mintço direnac bai-no. Eztu egun daino nehorc laincoaren legue-saindua escuztatu, eta frogatu, non ezpaïtaçaz, erran, eta contatu.

Deabruac emaiten derauzte bere iendey, bere atseguin, eta placer moldeac. Cer bada, laincoa içanenda hain idor, eta on-edequi, non vtico baititu bere adisquideac, eta cer-bitçariac, atseguin dafun mocco bat ere ga-be? Cein parte estimatcen duçu hobe, lain-coarena ala Deabruarena? Baldinba laincoa-rena? Beraz laincoaren atseguinac, eta place-ric ere hobe agoac, eta handi-agoac içanen dira Deabruarenac baino

Eta eznaiz ez mintço bertce munducoaz; hangoaz, ezta dudatic. Ceren segur da, han gaixtoac, içanen ditela, seculacorçat pena-tuac, eta onac golardoatuac, eta lorificatuac. Baina mintço naiz mundu hunetacoaz. Eta diot ecen, are mundu hunetan ere, guirifli-no onec, laincoaren partea daducatenec, atseguin, eta placer guehi ago goçatcen du-tela, guiriflino gaixto Deabruaren partea se-guitcen dutenec baino.

Eguia haur eman cerauen aditcera lain-coac berac, hartçaz arrencuratcen erren-iende batçuey, erraiten cerauela. *Con ver-* Malac:
simini & videbitis quid sit inter iustum, & 5.
impium, & inter seruientem Deo, & non ser-
uientem ei. Conuerçi çaitetze, bide onean iar-çaitetze, eta icussico duçe cer different-cia den, onaren, eta gaixtoaren, laincoa cerbitçatcen duenaren, eta cerbitçatcen ez-tucnaren artean. Erran baillerage beçala:



Bertce munduco beguira egon gabe, anartearaino iguriqui gabe conuertitcen çaretan pontuan; eçagutuco duçue, onaten, eta gaitoaren arteco differentia: bataren alegrantaça, eta bertcearen tristura: bataren baquea, eta bertcearen guerla, bataren atseguina, eta bertcearen atsecabea: bataren araitafuna, eta bertcearen goibeltafuna. Finean eçagutuco duçue, eta esperientiaz frogatuco, cein handia den, onec gaitoen gainetic, dutuen abantaila, eta nola diren onac, are mundu hunetan ere, gaitoec vste duten baino, aiseago; eta bere gogarago.

Marc.
10.

Egun batez galdeguin ceraucaten Apostoluec bere nabusiari. *Ecce nos reliquimus omnia & secuti sumus te, quid ergo erit nobis.* Ianaugue vti ditugu, ditugun on guztiaç, çure amoreac gatic, eta iarraiqui gatçaiz quitçu, ceiganenda bada gutçaz, edo guretçar? Ihardetseraueu. *Amen dico vobis nemo est, qui reliquerit domum aut fratres aut sorores, aut patrem aut matrem propter me, aut propter Evangelium, qui non accipiet centies tantum in tempore hoc, & in sæculo futuro vitam æternam.*

Eguiaz erraiten deratçuet, seguraten çaituztet, ecen norc ere vticobaitu enegatic, eta ene Euangelioa gatic etheic, anaiatic, artebaric, aitaric edo amariç, errecibituco duela orai prefenteco demboia hunetan, utico duenetic ehun guchi ago, eta guero bertce munduco

an bicitçe eternala. Iccuçaçu nola mintçoden mundu hunetaco pagamenduas, eta bertce munducoaz: eta nola batraz, eta bertceaz differentia eguiniç, erraiten duen, laincoaren cerbitçatcea gatic deus vtzten duenari, emanen çaicala, are mundu hunetan ere, vtzrenduenetic ehun guchi ago, eta guero bertce munduan seculaco loria.

Beraz hunelatan badu laincoaren cerbitçatceac bertce munducoaz gainera, mundu hunetan ere cenbait golardo, cenbait pagamendu, atseguin, eta plazer.

§. 24

ERranendu cenbaitec; nolatan ahaldateren eztugu iccusten ecen laincoac bere cerbitçariçy, presuna iustuey, mundu hunetan horrela gauça handiric emaiten derauela, ez çarguric, ez ohoteric, ez aberatafunic, eta ez munduco bertce gauçaric. Aiticic anhitzetan ere, hec dacus quigu direla probe, eritotqui, eta munduco arauaz on behar. Nola aditenda beraz, emanen çaiela, are mundu hunetan ere, vtzten dutenic, ehun guchi ago? Ezta gaitz ihardesten. Aditenda, laincoac bere cerbitçariçy, halaco donuac, eta aberatistafun espiritualac emaiten derauztela, bere baithan barrera, non hec baitira, ehunetan ere.



handi ago, eta valios ago, mundu hunetaco atseguinplacer, eta onhasun corporal guztia elceari iratchequitic baino.

Iaincoaren atseguinac, eta placerac, guebienic ariman barrena dira. Eta barreneco atseguin hec, garaitcen dituzte, campoco atsecabeac, eta bai gorputz aren placerac ere

August. *nes sancti adjuvantur à Deo, sed intrus, ubi nemo*
in Psal. *videt* dio san Agustinec. Saindu guztia dira
53. Iaincoz lagunduac, eta faboratuac. Ordea non?

Barrenean, nehore iccusten ezuen leccuan.

Baldin vtzten badituzcu campoco placerac, gorputzarenac, emanen çaitquitcu, barrenecoac arimarenac, çanen baitira ehunetari, gorputzarenac baino handiagoac, ezti agoac, eta abantailatuagoac. Eta baldin gorputzarenac vtzeric dasta bacinitça arimarenac, higuin lequi disquetcu bere hala gorputzarenac. Handic, harat, lehen on, eta goço ceizquitçun atseguinac, eta placerac, etcinituzque iccussi ere nahi, eta ez aippuatu. Ceren orduan halaco moldez argui lequidiqueçu ceure adimendua, eta alda leheneco gogoa, non gauça guztieç, lehen ez beçalaco colore bat, iduri bat, eta çappore bat har bailleçaquete.

Iaincoaren cerbitçaric badirudite campotic probe, eztheus, placer gabe, hil hurranac. Ordea Iondone Pauloc dioen beçala, barrenean dara billate gorderic bicitcea, cein baita

ad Col. *Iesu Christo. Mortui enim estis, & vita*
3.

stra abscondita est cum Christo in Deo. Eta nola lesa Christoc berac, baitceducan bere divinitatea, eta Iaincoafuna barrenean estalia, eta campoan baiterudien ttipi, eta probe: hala haten cerbitçaric ere, bere iaunari irraiquitcen çaitçala, dirudite campoan deus guti, eta triske, baina barrenean dira aleguera, eta consolamenduz becheac. *Quam magna multitudo dulcedinis, quam abscondisti timentibus t.*
A cein handia den Iaincoac guiristino veldur çaitçonentçat gorderic, eta estalinc daducan ezritafunaren, multçutafuna! Hain da handia cten frogau duenac baicen cein iaquin baitegaque nolaco den. Halatan erraitendu Erregue Dauitec. *Gustate & videte, quonia suavis est Dominus.* Dasta eçaque froga eçaque, ceren ezta Iaincoa, dirudien beçain latz, eta gaitz. Orainocoan Deabruaren cerbitçuan beçala, emplega çaitte hemendic aircina, Iaincoarenean, eta orduan iccussico duçu, eta esperentiaz frogatuco, cein goço, cein ezti, cein atseguin, eta placent den Iaincoa. Nola verthuteac, prestutafunac, eta guiristino on çaitteac baithatarque berequin, bere baithan barrena, bozcario bat, alegriantça bat, eta contentamendu handi bat: hala beccatuac, eta beccatutan ibiltceac ere, daccarque berequin, desplacer bat, atsecabe handi bat: hain handia non baldin ifernuric ezpaliz ere, ceren beccatua bera bere baithan baita hain itfua.

Psal. 35

Psal. 333



fi, eta bera bere buruarentzat pena gari;
eta gartzigu, hargatic bera gatic ere, beharbai
quenduque, beccatu eguitetic beguiratu.

Jocari batec, nahiz hari dadilla dostetan, ez-
tuen bat ere irabazteaz probetchuric, eta ez
galtceaz calteric, guztiarequin ere atseguin
hartcendu irabazteaz eta damu galtceaz. Ce-
ren irabazteaz, bere eguitez baira plazer, eta
galtceaz desplacer. Hala bada prestu igaitc
ere, parabisuric ezpaliz ere, badu bere bai-
than barrera, bere atseguina, eta placera, eta
bai gaixto igaitc ere, halaber ifernuric ez-
paliz ere, bere desplacer, eta atsecabea.

§. 3.

B Atquey iduritec çaye eeen beccatua go-
go dela, placentiaz bethea dela: Baina
enganatcen dira. Ceren bataz placentia hura
ezta placentia, baina da enganamendu: eta
enganamendu hura ere, eta ez beccatuarena,
eta ez beccatutic fortcen dena: baina da becc-
catorarena, beccatorea bera ganic, eta becc-
caturaten eraguille Deabrua ganic heldu de-
na. Orac bidean edireiten duen heçur idorra,
goçoqui erabiltcendu ahoan, ez ceren heçur
harc duen berequin mamitic, edo vrinic: bai-
na ceren, erabili hutsez, orari berari, aho-
tic odola jarieten baitçaica, eta guero odol
harequin batean, heçur idor hura, on goço,
eta ezti iduritec baitçaica. Hala bada becc-

catore ari ere iduritec, çaica bere beccatu
idorra, on goço, eta hece, ez ceren beccatuac
berac bere baithan duen ontasunic edo goço-
tasunic, baina; ceren beccatoreac baitaduca be-
re goçoa, bere guticia eta desira guztia becca-
tu hartan ibenia; eta desira harc emaiten baitio
beccatuari goço, eta çappore.

Egun batez Israëleco iendeac hain çuen
egartsu idorra eta edateco desira handia, non
lancoa hequen premia iccussiric, eman bait-
cerauen, harri-muguer batetarie atheraric;
ihur-vr fresco bat. Eta guero hartaric edan
gatenean, erran çuten; vr hura etcela ez vra,
baina vra baino hobe ago munduco arno guz-
tiac baino goço, ago eztiaren parecela. *Vt
saggeret mel de petra.* Eta cerc eman cioen vr *Deut. 32*
hari, eztafun-hura? hequen guticiac, hequen
desira eta egartsuac; ceren gaineracoan, bert-
ce vr bat beçala cen vr hura ere. Hala bada
emaitendio beccatuari ere bere goçotafuna,
gure goçoa, gure desira, eta Deabruac. Eztu
beccatuac berac bere baithan itchura peneczo,
eta enganamenduzco goçotafunic baicen:

Eta Deabruac beccatuari emaiten dioen en-
ganamenduzco goçotafun hura ere, bortchaz
emaitendio, eta ez vorondatez. Baldin bert-
tela eraguin albaça beccatua, ezlemaque
munduan den placentia tiapiena ere. Arrantça
berac egortcendu amua vrera beitarequin, cen-
tateco, eta bazcarequin, eta ez, ez anaiña-



ren viricariz , ez hari iatera eman nahiz ;
baina ceren bertela ecin engana baiteçaque
eta ez atteman. Hala bada Deabruac ere e-
maiten dio beccatuari cenbait atseguin eta pla-
cer , cenbait bazca eta goçotafun , ez eman
nahiz , ez atseguin fari , baina ceren bertela
ecin engana baiteçaque beccatorea eta ez
atrapa.

Eta Deabruac beccatuari emaiten dioen en-
ganamenduzco goçotafun harc ere , denac ere,
deus guti irautendu , baino ondoco pena eta
atsecabeac arhitz. Beccatuaren placeraç mint-
ço dela , erraltendu Sophar loben adisqui-
de harc. *Hoc scio à principio , ex quo homo*
põsitus est super terram , quod laus impiorum
breviis sit , & gaudium hypocrite ad insiar pun-
ti. Munduaren hastetic huneraino , iendeac ien-
de direnaz gueroztic , badaquit pontu haut ;
gaixtoen laudorioa labur dela , eta hipocriten
alegriantça , are labur ago , pontu bat beçala.
Beccatorea deitenda hipocrita. Ceren hi-
pocritaren faindurafuna beçala , baita becca-
torea en atseguina eta placera ere. Nola hi-
pocritac campotic baitirudi faindu , eta de bot,
ordea barren an baita gaixto eta maliciati : ha-
la beccatoreaç ere campotic dirudi aleguera ;
content , atseguinez , eta placerez bethea , or-
dea barrenan triste da , goibel , eta ilbun ,

§. 4.

GAixtaquerian dabillanac , guztiaç ongui
contatcera , segur da are mundu hunetan
ere , atseguin baino , atsecabe guehi ago iragai-
ten duela. Ohoin batec cenbat trabaillu ira-
gan behardu , bere ohoinqueriaren eguiteco ?
Eta saigoan dabillanac cenbat iccara , cenbat bi-
hotz vccaldi errecibitu behar du , bere etfaiaz
mendecatceco ? Enganaçaille batec , cenbat
pensu , eta itçul-inguru eguin behar du , bere
enganamenduaren valiatceco ? Gueçurtiac
cenbat gueçur , cenbat hitz eder saldu behardu ,
bere gueçurraren edertzatceco , estalceco
eta eguiatçat bulecatceco ? Bethi ere beçala ;
hemen ere ederqui erraitendu San Chrisostomoc.
Quemadmodum enim deformia corpora
multis artificiis & indumentis indigent , qua na-
turæ deformitatem contegant , quæ autem natu-
ræ pulchra sunt , ipsa per se , etsi nihil extrinse-
cus deueniat , resplendeant : ita etiam in virtu-
tes vitio , in veritate & mendacio , in venire pos-
sumus. Presunac ederrac , gorpuztça bere
elcucoc , eta ongui eguina duenac , etu cam-
poco eder garriren beharic , ceren bera baita
bere baithan eder asco. Baina itlusiac , mar-
quetfac , behar du anhitz estalqui , anhitz
vernicadura eta appaindura , ata hequin guz-
nequin ere , etchean legoque , ederquienic.

Chryso-
in Pl.
26.T. 2.



Hala da bada verthutearen eta vicioaren, eguiaren eta gueçurraren artean ere. Egoñac, verthuteac eztu eder garriaren beharic, bera da eder asco. Gueçurrac bai, hanc anbitz estalqui behardu, eta eder garri; eta halaric ez ezta behin ere asco edertcen, eta ez estaltcen. Baldin gueçurrac bere gueçurra eguiatçat iraganen eta salduco badu, penatu behardu; bariñ eta bertceari cer ihardetlico dioen, aitecetic pensatua eduqui behar du, gogonduri on behar du, accorduan, eta memorioan egon behar du. *Mendacem oportet esse memorem.* Ceren erran communa da, gueçurrac çainac labor dituela.

Cer erranen dugu bada, emazte baten ondoan dabillanaz. Harequin hartcen den atseguin hura, guztiaç ongui contatcera, atseguin gazte bat; eta batçutan, are gaixto ago baita, cenbair çahar ere bai, gauac galduric, onac galfaturic, gorputça defeguinic, bere ohorea, eta eguin bidea guibolat vteiric, emazte bati darraicala. Eta berriz iccusfico duçu halaber bertce bat, emaztez conty guti eguinic, dabillan bat. Orai bada, hetatic bietatic, cein otheda aise ago, eta bere gogarago? Ceñec iragaiten otheditu, gan egunac gueldi ego eta malencoria, guti equin, ago? Ezta, cer galdeguinic. Ceur aithortuco duçu, mundu, hunetan içatu diruçua incontru gaitz guztiaç, edo behintçat

guchienac, aldez edo moldez, emaztetaco beccatuac gatic, içan dituçula: Eta baldin eguia erran nahi badugu, beccatu hetan, placer baino desplacer, guehi ago iragan duçula. Eta hala da bere arauaz, bertce beccatu fuerter guztietan ere.

Ezta gaiztatafuna baino, gauça traillaufu agoric, eta ez hartaco traillauna baino, trailla galdugoric. Ceren ezta trailla hartaric, calteric, eta defohoreric baicen, bertce fruituric viltcen. Halatan galdeguin cerauen londone Pauloc beccatutan ibili ciren iende batçuey *Quem fructum habuistis tunc in illis, in quibus nunc erubescitis?* Cer fruitu, cer irabaci, içan, cendaten orduan, orai aippatcera ere, ahalque, çareten beccatu hetan?

Beccatuparen gazigu handietaric bat da ahalquea. Hartcen duçu Deabrna ceure nabusi, eta ahalque çara, haren muthil çarela, erraitera. Gaixto çara ordea, eztuçu nahi, gaixto deiçaitçaten. Ceureguin duçun beccatua, eztuçu ceure aippatu nahi: defohore çaitçu hartças mingateca.

Vitriçalquiçun dira, on behar dira gaixtoac. Ceren hetçaz, hequen adifquideac ere agueritiz ezpada ere, capapetic bedere gaizqui mintço baitira. Baina onez, eta presteuez, guztiec, ate etfaieç ere, bere bihotzetan barrera bedete, ongui erraiten dote.

Ordea guztiarequin ere, halaric ere, bere



ahalque defohore eta trailla guziequin ere nahi ago dute gaixtoec, contraco bidean traillaturic ibili, bide onean eta artecean traillatu gabe baino.

Anhitz gauça eguin ahal diteque, laincoaren cerbitçuan, trailla gutiequin. Ceren cer trailla da, eguiatz minçatcea? Falso testimonioric ez etauztea? Juramenturic ez eguitea? Guiristino lagunari barcatcea? Baina bertcela eguitean, bada pena, eta trailla. Ceren gueçurac, falso testimonioac, iuramentuac, eta etsaiez mendecatceac ere, anhitz occasino, eta eguiteco pizten obi dute. Eta ala baina haur da eguitecoa, nahi agodugu ifernutic ifernura ioan, ecenez parabifutic parabifura. Manamenduen complice-co eta beguitatceco, eztugu neccatu behar, ez behintçat hautsteco beçanbat, eta halatic ere, neccaturic, eta traillaturic ere, nahi agodugu ifernura ioan, trailluric gabe parabifura baino.

In vita
Thomæ
Mori c.
21. Ger-
loac.

Etçuen behin, gaizqui erran faindu batec; anhitz etan ere, ifernura ioateco, harteen dugun trailluaren erdiatz, erdietz gueneçaquy-la parabifua. Halaber faindu harc berac, icufliric, ecenez nescato bat, copetaren edertceco, cherloac goiti thiraturic, penatencela: eta guerriaren ere lerdentceco, bortizqui hersten ceta, erran çuen. Bide gabe eguinentio laincoac nescato hunt; baldin hunene-

bat pena eta trailla gatic, emaiten ezpadio ifernua. Ceren nola iende batçue penatcen eta traillatcen bajtira, parabifura ioateco: hala bertce batçue, are penatcen ago, eta traillatcent ago dira ifernuaren erdiesteco.

Eta ifernuco pena hura etçaiç pena iduritcen, eztute hura sentitcen, baina bai parabifua, hura sentitcen dute, hura choil çaiç gatic, hartan fite vnhatcen dira. Amorantian, ohoiquerian, iocoan, gau egunac aise eta guti sentituric iragaiteintuçu, hartaco etçara eri, hartaco baduçu indar. Baina barurtceco, aracinotan egoiteco, erien visitcera ioateco, flaco çara, eri çara, buruan min duçu. laincoa gatic, den penatic ttipiena errecibitcen duçunean, bere hala arrencuratcen çara; baina Deabua gatic, gau-aireac hotçac, eta beroac ere ichil pairateintuçu.

Ioil.

Igil.

Iccufllico duçu emazte gaixto bat, hasten dela oihuz, heia goraz, deihadartez eta atçapartaz, ceren bere senharrac, soberaniac gainez eguiniç, behar ondoco bat eman dioen. Baina bere amoranteac, bere placereco daducan guçon gaixto batec, burua haurz badiaço ere ichil pairatcendu; eroriric edo bertcella hartu duela, ederztatcendu. Senharraren colpe ttipiaz arrencuratcenda, eta ez omorantearen handiaz, contrara dabilla. Hala gabiltça bada gu ere contrara, eta arrencuratecen gara, laincoaren cerbitçuan



Chryf.
Rom. 29. 1. 2. *Laborant peccatores. quam vis ad iuroriorum Diaboli*

iragaiten ditugun trabailu appurrez, barutce bat ez, eta ez Deabruarenean paitatcen ditugun pena handiez, heceztira deus, heceztitugun sentitcen. Ceren San Chisostomoc dioen beçala, Deabruac iasaiten lagunteen baitçacu. *laborcm non sentiant.* Baina ethorrico da dembora Deabruac laguntçatic eguinem ezteracuna, eta ifernuco bidean iragaiten diren trabailuac, eta iasaiten diren cargac ere, cein handiac, eta pifruac diren frogatucoduguna. Çur bat, handi ago, eta pifru ago bada ere, hofin handian errazqui manaiatcenda, arintqui eta guti sentituric, alde batera eta bertceira, itçultcen eta etabiltcenda. Baina vr bazterean, leihorrean, cein bigui deçaqueçu; han da agueri, han iaquiten, eta frogatcenda, cein pifru den. Hala bada halaber bicitcearen bazterean, accabatcean, heriotcean, aguerico da, han iaquinen eta frogatucoda, nolacoa den beccatua, eta beccatuaren carga, eta pifruafuna: eta cein handia Deabruaren cerbitçuan, fernuco bidean iragaiten den nequea eta trabailua.

§ 5.

N Ola Iaincoaren cerbitçatceco bidea, gogotic dagoenarençat, baita plaun, eta çabal, ezluque nahi Deabruac çabaltafun haria

beha guiniago: baina cenbait meharta fun eta buruz gora ere baitu, hura nahi luque iccuz gueñeçan. Eta berriz bertce aldera, nola Deabruaren cerbitçatçeac, baitu anhitz trabailu, ez luque nahi Deabruac gueneguien trabailu herçaz conturic: baina atseguin ere cenbait baitu, hura nahi luque beñi gueure gogoan. eta beguinen aicincan eduqui gueñeçan. Hala luduac Egiptoco gathiburafunetic iltquinic, libre eta bere gogara, ceruco ianhariz affetcen cirela cebiltçanean, ceren ethorri ceyen haragui iateco guticia bat, eta guticia hura etçuten nahi beçain fite complitcen, hafi ciren erraiten, bihurtu nahi çutela Egiptora, bere leheneco gathiburafunetic: Ceren han porruz, tipulaz, eta baratçuriz affetcen cirela. Etçuten consideratcen, gathiburafun hartan iragaiten çuten bicitçatçeo, baina bai escuen artean çuten escafin appurra, edo defira defordenatua: eta hantan bere leheneco toquira eta miseriara bihurtu nahi çuten. Ceren haur da Deabruaren malicia, ibentcen deracu gueure beguinen aicincan beccatuaren placera, baina ez dezplacera. Pintatcen deracu verthuteaten trabailua, baina ez irabacia.

Baldin verthutea, eta vicioa: eta verthuteaten eta vicioaren, ioan ethorriac, onac eta çaçeac, iben baguinitça bi balantçatan, eta considerat behar licen moldean, ez tut vste edi-



ren litequeyela munduan; beccatu leidi queyenic.

Erranen duçu, baduela verthuteac laincoaren cerbitçateac cenbait pena, eta trabailu; eta bai beccatuac era beccatutan ib liteac ere atsegunin eta placer, beraz hobe dela beccatuaren placera, verthutearen desplacer baino. Ez borrelacoric. Ceren san Agustinec dioen begala *Nec per latam viam diu gaudetur, nec per asperam & angustam, longo tempore laboratur. Quia & isti per breuem tristitiam accipiunt vitam eternam, & illi per parvum gaudium, patiuntur sine fine supplicium.* Verthutearen nequeac eta trabailuac labor dira, eta bai beccatuaren atsegunac eta placera ere. Ordea verthutearen trabailu laborra condotic du loria lucea eta seculacoa, eta bai beccatuaren atsegun appurac ere, gatzigu handia eta sin gabecoa. Beraz hobe da verthutearen desplacer, beccatuaren placera baino.

Nola penatan, eta trabailutan denac, baldin guero ondoan irabaci handi bat, edo cargu ohorezco bat vste badu, ezpaitu pena eta trabailu hec guztia deus sentitzen: hala atsegunetan eta placeretan dabillanac ere, baldin placer hequen ondoan senti badu gatzigu handi bat harentçat prestatua dagoela, ezta posible, atsegun hetan, atsegun ofortie har ahal deçaqueyen. Aiticitic orduan, atsegunac, atsecabe bihurtzen çaica.

August. scim 55 de tempore t. 10.

Guizon batec, vrcabera daramatenean, ianhari onac era edari hobeac çan agatic, eta vrcabeco bidea ere, bide ederra, plauna, placenta, çuhaitz verdez, itçalez eta placerez betheac icuffi agatic, cer placer ahal duque hetan guztietan? Badirudi erraiten dioela halacoari San Agustinec. *Noli attendere qua iturus es, sed quo iturus es.* Ezteçaçula beha nondic iragan behar duçun, baina beha eçaçu, nora berin har duçun. Ezti açoçula beha vrcabeco bide ederrari, baina beha iaçoçu vrcabeari berari, baratu behar duçun leccuari.

August. in Psal. 36. tom 3.

Hala bada çuc ere beccatu baten eguitera çoacinean, ezti açoçula beha beccatuaren eguiteman hartcen duçun atsegunari, baina beha ioçoçu atsequin haren ondoco ondoreari, atsegun hare eramaiten çaituen leccuari eta emanenderatçun atsecabeari.

Beccatu baten eguitera dohanac considera baleça, cenbat pena, eta atsecabe iragan behar duen beccatu haren eguiteman eta eguin ondoran; cer goço, cer çappore, cer atsegun eta placer har ahal liaçaiço beccatuari?

Verthuteac, laincoaren cerbitçateac, presiqui biciteac, ondore ona du, eta cenbait trabailu badu ere, du appurra eta laborra: eta labor hura ere arintcen, gutitcen eta goçatcen on, ondoreco irabaciarien eta placencien segarantçac: gogotic, amorioz, eta vorondatez egoiteac, eta guztien gainetic laincoaren



laguntzac eta faboreac. Baina beccatuetan eta beccaturzco placeretan eta obretan gauza hauc guztioe dira contraia: hetan placera da tripi, eta labor, eta ondoco desplacera handi, luce, ete no, eta seculaco.

Eta hala arraçoin hauc guztioe ongui consideraturic bat bedera bere balançan ibeniric; segur da parabisuco bidea erraz ago dela, ifernucoo baino; eta ifernuratcen denac, pena eta trabailu guehi ago iragan behar duela ifernuratceco, ecen ez parabisuratcen denac, parabisuratceco.

Beraz hunelatan parabisutic parabisura, bicitce on batetatic, hobe agora, ioaitea gatic ere, behar guenduque egun beretic, gueroce beguira egon gabe, Iaincoaren legue saildua hain vztari emea eta carga arina, gueregogo eta bihotz guztiaz hautatu, besarcatu, eta halatan guero vrriquiric eztuquegun beçala bicitcera enseiatu.



Nola ezien cofesatcea, gueroic gueroa luçatu behar.

CAP. LI.

B Aldin scritura saidua ongui iracur; eta considera badeçagu, ednemen digu, eztela egun daino nehor salbatu, eta ez salbatuco ere, aldez edo moldez cofesatu babe.

Egun dainoz gueroz, legue guztietan, eta mende guztietan vsatu da eta vlatcenda cofesatcea. Diferentqui ordea, ez berdin. Legue naturaleco cofesatcea, oraic cofesatcearen, itçala beçala cen. Orducoa cen, oraicoren seinala bat, figura bat, pintura bat, eta significantça bat. Legue naturalean asco cen bihorrezco vrriquimendu batequin, eta bat bederari bere gogoac, bere baitan barenena, ciotlan, campoco cenbait seinalerequin, contu eguiçu begui ailtchatce batequin, edo belhautatce batequin, Iaincoari berari cofesatcea eta barecamendu escatcea.

Deitu quen Iainco launac Adan, eta galdequin quen, ea non cen? *Voca vit Dominus Deus Adam, & dixit ubi es?* Eta galdequite



hura etquen ez eguin iaquin gabez , baina halatan bere beccatua eçagun ceçan , eta eça guturic cofesa ceçan amoreac gatic. Eta ceren ezpaitquen behar cen bidean cofesatu , baina defencufatu , eta ederztatu nahi içatu baitquen , erraiten çuela ecen bere emazteac eraguin ceraucala , halatan parte bat bedere , hanbat calte , eta damu errecibitu çuen. Molde berean edireintenda , galdeguin cioela Caini ere , bere anaia Abel hil çuenean. *Ubi est Abel frater tuus ?* Non da çure anaia Abel ? Eta cergatic galdeguin ceraucan hunela ? Bere beccatua gogota ceçan , eta gogogaric cofesafa ceçan gatic. Eta ceren ezpaitquen cofesatu , baina vccatu baitquen , halatan hain on behar eta vrricalquiçun eguin cen , eta munditic defferiatua ibiliric , azquenean condenuatu cen. Bada Adan , eta Caini ere legue naturalean ciren , iendeac bere naturaleçaren arauaz , esquiribuzco quidaric eta eracufleric ere gabe , biciteen ciren demboran.

Ordea ceren naturaleçac berac ere , eracusten baitu , behar dela arragoinarean arauaz bici , gaizqui eguitea vrricic , haincoarequin eduqui , eta hain bere faltac aithortu halatan etcen legue naturalean ere , ceren bait moldez , gogoz , eta bihorzez bedere , ceibat feinalerequin cofesatu habe , nehor falbatcen. Egua da , etcen oraino orduan cofesateco ciimonia feinalaturic. Hala

erraitendu San Thomasec. *Sicut in statu legis naturalis , homines nulla lege exteriori data , sed solo interiori instinctu , movebantur ad Deum colendum , ita etiam ex interiori instinctu determinabatur eis , quibus rebus sensibilibus , ad Dei cultum uterentur.* Asco cen barreneco vrriquimendua , eta vrriquimendu haren , bat bederari bere baithan iduriteen ceican , campoco ceinbait feinalerequin aguertcea eta significatcea. Etcen oraino orduan bertce cofesatec molderic , eta ez erremedio ezquiribuz eçarriric eta ibiliric.

Baina gueto , mundua appur bat aiccinago iragan cenean , legue naturalec iltquiric , legue esquiribatura , Moisenen demborata heldu cenean , hafi cen vsatcen , bertce cofesatec molde bat. Etcen ia orduan asco , bat bederac , bere barreneco damuaren eta dolorearen , plater çuen feinalerequin campoan aguertcea. Baina behar çuen barreneco dolore hura eta vrriquimendua ; cenbait offerendaz eta sacrificioz , eta ez ez , ceinetçaz nahi cen , baina hartaco esquiribuz ordenaturic ceudecinez declaratu eta eman aditcera. Baciten legue çahar esquiribatuan Sacerdoteac , eta temploco çargu dunac. Eta presuna batec beccatu bat eguiten çuenean , behar çuen beccatu hura gatic , vrriquimendu batequin , eta guchi ago ez eguireco vorondatearequin , Sacerdote hequen

S. Tho^a
4. ep. 9.
60. art.
3. ad 3.



aitcinean, eguin cenbait offerenda, eta sacrificio, eta hattan eman adircera, beccatore cela. Hala manatcen cen leuiticoaren capitulu bat-

Vide gñetas. Eta are hetan seinalatcen ciren, beccatuey cegozten offerendac, eta sacrificioac. Levit. cap. 3. Er cen orain orduan, orai den beçala, ne-

4. 5. & 6.

hori bere gainqui bere beccatuen cofesatceco manuric, eta ez nola, noiz eta cenbat eguin cituen erraiteco premiatic. Asco cen orduan vituquimendu barequin, legueac manatcen cituen offerenden eta sacrificioen eguitea: Hura cen, orduco cofesatce moldea. Erregue Davitec bertceren emaztearequin beccatu eguin çuenean, eta beccatu haren estalcea gatic, emazte haren senharia hil araci çuenean, er-

Glossac Lyrana in Psal. 31.

raitendu Glosac, haren gainean. *Ex verecundia enim non apperiebat peccata sua faciendo pro eis sacrificia in lege præcepta, quæ pro variis peccatis, variè imponuntur.* Erregue Davitec ahalquez, eta bere buruaren ez nabarentecia gatic, vizien cituen eguin gabe, haren beccatuengar ordenaturic ceuden sacrificioac. Eta et cituen behin e eguin, Natan propheta mehatchatcera, eta erançute eguitearen ethor cequidicaion arteino. Baina bai orduan, ahalquea vençuturic, eguin cituen behar ciren offerendac eta sacrificio guztia; eta guero hequin batean erdietsi çuen barettemendu. Ceren orduan ere, legue çahar esquiribatuan ere, eguin behar ciren, beccatuen

tuen erremediat ceco, ordenaturic ceuden offerendac, eta sacrificioac; eta hura cen, orduco cofesatce moldea.

§ I.

ORai legue berrion, Evangelio saindua declaratuz guero, vsatcenda guiristinoen artean, bertce cofesatce molde bat, appeçaren aitcinean eguiten dena. Legue naturalecoa, eta esquiribatucua baino segur agoa, indartsu agoa, eta valios agoa. Ceren hitz batez erraitera, oraico, cofesarecan, obratcen baitu Iesu Christo iaunaren heriotceac, eta passioneac. Beccatua cofesatcen duçuenean, eta appeçac absolbacinoia emaiten deratçuenean, han da bere hala Iesu Christoren passioneco meritua, eta valioa; han da bere hala haren garacia, eta faborea, eta harequin batean beccatuaren barcamendua.

Bi arraçoin eman ahalditezque principalqui, frogatecco oraico cofesatceac indar guethi ago duela, legue çaharrecoac baino. Lehenbaticoa. Ceren oraico cofesatceac, legue çaharrecoac etçuena, badu bere baithan barten indar, garacia emaiteco. Legue çaharreco cofesatceac, eta orduco bertce sacramentuz etçuten berèc bere indarrez, eta veithutuz garaciaric emaiten: baina emaiten çuten garacia, emaiten çuten, errecibitcen cituenag



çuen disposicionearen , debocinaren , eta aparailuaren arauaz. *Sacramenta veteris legis conferebant gratiam ex opere operantis.* Nola prestatcen baitciren errecibitceco , hala errecibitcen çuten. Baina oraico cofesatceac , eta sacramentuec emaiten dute gute disposicioneari , eta prestatceari dagocan garacia , eta faborea , eta are guehi ago , sacramentuec berèc bere baithan dutenetic ere errepartitcen dute , eta errecibitcen dugu guc ere parte hura , baldin gueroç gueure aldetic , trauric ibentcen ezpadugu. *Sacramenta nova legis conferunt gratiam ex opere operato.*

Bì gaiten arraçoina eman abal direque , frogatceco , oraico cofesat ceac indar guehi ago duela legue , çaharrecoac baino. Ceren orduco cofesatcean , baldin erdietico bacen barecamenduric , behar cen dolore fin bat , bihotzeco vrriquimendu bat , laincoa bera gaitic , eta haren ganaco amorioa gaitic içana , eta hartua , cein deitcen baita. *Contritio* , contricionea , vrriquimendu guztien gaineco vrriquimendua. Baina oraico cofesatcean asco da , appeçaren absoltacioarequin batean ; contricioneaz bertce dolore molde bat , parabifuco loniaren galtceco , edo ifernuco penètara ioaitceco , veldurtasunetic heldu dena , cein deitcen baita. *Atritio* Atricionea. *Ex atritio per Sacramentum fit contritus.* Asco da oraico cofesatcean vste içaitea baduela contri-

cionea. Ceren ezpadu ere atricionea baicen ; complitcendu sacramenduac bitartean den falta , eta escaftafuna : Cein baita consideratceco pontua , eta salbatceco fabore handia.

Hain handia ecen arraçoinequin galdeguiren baitu Jeremias Prophetac. *Nunquid resina non est in Galaad? aut medicus non est ibi?* Jer. 8.

Quare igitur non est obducta cicatrix filie populi mei? Cerda haur? Ez otheda arrochinari c edo arriacac Galaadteco hirian , edo midi curic han berean? Nolatan bada ene herrico alabarric.

Quare igitur non est obducta cicatrix filie populi mei? Cerda haur? Ez otheda arrochinari c edo arriacac Galaadteco hirian , edo midi curic han berean? Nolatan bada ene herrico alabarric. *Quare igitur non est obducta cicatrix filie populi mei?* Cerda haur? Ez otheda arrochinari c edo arriacac Galaadteco hirian , edo midi curic han berean? Nolatan bada ene herrico alabarric. *Quare igitur non est obducta cicatrix filie populi mei?* Cerda haur? Ez otheda arrochinari c edo arriacac Galaadteco hirian , edo midi curic han berean? Nolatan bada ene herrico alabarric.

Quare igitur non est obducta cicatrix filie populi mei? Cerda haur? Ez otheda arrochinari c edo arriacac Galaadteco hirian , edo midi curic han berean? Nolatan bada ene herrico alabarric. *Quare igitur non est obducta cicatrix filie populi mei?* Cerda haur? Ez otheda arrochinari c edo arriacac Galaadteco hirian , edo midi curic han berean? Nolatan bada ene herrico alabarric. *Quare igitur non est obducta cicatrix filie populi mei?* Cerda haur? Ez otheda arrochinari c edo arriacac Galaadteco hirian , edo midi curic han berean? Nolatan bada ene herrico alabarric.



Arimaco eritasunetic fendatceco, erremedioa da, cofesatcea. Vntcia galduz guero, cer erremedio iñanendu marinela salbatceco? Cūr pusca bati lotcea, thaula baten edo obol baten atrapatcea, eta harequin batean, hari dachecala, iei costaren irabastea. *Pœnitentia est secunda post naufragium tabula.* Vntcia galdudoan atrapatcen den thaula haren pare da, beccatutan erori, eta tormentatu denarantçat, cofesatcea. *Si pœnitentiam non egeritis omnes simul peribitis.* Dio San Lucas Evangelistac.

Luc. 13. Baldin eguiten ezpaduque penitencia, guztioe fin gaitz elccarquin eguinen duque. Bada penitenciareren partetaric bat da cofesatcea; beraz ez fin gaitz eguitecotz, behar da ongui cofesatu.

Beccatua da arimaren çauria, eta handia sua. Eta handi sua irazten denean, eta campo rat lehertcen, esperantça fendatuco dela. Baina barranean guelditcen denean eta gogortcen, perilos da. Hala iñanenda bada halaber perilos, cofesatu gabe barranean guelditcen; eta gogortcen den beccatua ere. Halatan galdeguitendu, eta ihardesten ere bai, san Gregoriot. *Quid est peccatorum confessio, nisi quædam vulneris ruptio? Et confitendo peccata quid facimus, nisi maium quod intus latebat aperimus?* Ceida beccatuen cofesatcea, çauriaren edo handitsuaren lehertcea baicen? Eta cer eguiten dugu beccatuaren cofesatceaz, barranean

Greg. Rom. de divite & laza.

astaliric cegoen gaitzaren, eta eritasunaren aguertcea baicen?

Beccatutan eroriz guero, lehenbicio erremedioa, cofesatcea da. Ceren acin dateque contritioneric, eta ez behar den bertee vrriquimerduric, cofesatu gabe: edo, acin cofesatequeyenar, cofesatceco vorondatea gabe. Hala erraitendu san Agustinet. *Initium August. operum bonorum, confessio est operum malorum.* Tract. 32. in Joan. Tom 9.

§ 2.

O Bra onen hastea, baldin bada, obra gaixtoen cofesatcea, cofesatce haur nola edo cermoldez eguin behar othe da? Galdeguigu Jeremias Prophetari. Ceren hart Ierusalemeco hiriareren gañean eguin cituen nigartzen, auhenen, eta dolamenen bi garren capitulan, eracustendu, erraiten duela. *Effunde Theron cor tuum sicut aquam in conspectu Domini.* Isur. 2. eçaçu ceure biotça, vra beçala, laincoaren aitcinean.

Erran nahidu. Lehen eguinen vrriquimerduricquin, eta guchi ago ez eguiteco vorondatearquin, laincoac bere leccuan ibeniric daducan cofesoraren aitcinean, cofesa, egotz, asen, eta isur ditçatçula, eguin, erran, eta pensatu dituçun beccatu guztiac. Eztu erraiten,



ifur ditçatgala ceure beccatuac , olioa beçala , ezta beçala ; edo arnoa beçala . Nola bada ? *Sicut aquam* Ura beçala . Ceren ezta ianhariric , eta ez edariric vra beçain garbiqui , eta ofoqui hutsten , ifurteen , eta chutcatcen denic . Ezta hutsten duçunean , edo olioa , guelditcen çaica bethiere vnteiari , cenbait hondar , edo cutsu . Arnoa hutsten duçunean ere , ahal guztia chutcatu agatic , guelditcenda vñaina bedere . Baina vretic ezta guelditcen cutsuric , eta ez vñainic . Alde guztiz hutsten , chutcatcen , eta garbitcenda . Hala bada guc ere gueure beccatuac cofesatcen ditugunean , behar dugu gueure gogoa , eta bihotça , intencione gaxto guztietaric , alde guztiz hutstu , chutcatu , garbitu ; eta halatan , vra egotuden vntcia beçala , bat ere hondarric , cutsuric , eta beccatuaren vñainic , eta vrrinic gaube guelditu .

Ordea hunela cofesatce haur , cenbaretan eguin behar , othe da ? Asco othe da gueroço luçaturic , vrthean behin cofesatcea ?

Nola cofesatecco manamendu haur , Iaincoac berac emana baita , complitu beharda , noiz içanen baita ere , noiz bait . Eta hala heriotcecco orenean , edo dacufagunean , vtzten badugu escuen artean dugun occasinoa , iragaitera , ezcaitezqueyela secular cofesa , orduan Iaincoaren manuaeren compliteca gatic ere , behar dugu cofesatu . Ordea ceren baiti-

rudi , ecen cofatcecco manamendu haur guere Iaincoac eman çunean , içan çuela intencione , eta vorondate , cofesa guindecin cenbait aldiz , heriotcecco perilean ezquinenean ere , ceren cofesatcectic anhitz ontasun fortecen baita . Halatan Eliçac eduquidu bethi ere pontu hunez contu : eta ordenatu du differentqui , demboren differentcien arauaz , noiz eta cenbatetan behar dugun , heriotcecco pontuan , edo perilean ez egon agatic ere , cofesatu .

Lehen ago Apostoluen demboran , eta oraino Apostoluac hillez guero ere , lehenbici berri hartan , hain cen debocinoa handi , eta bero ecen egunoro gorputz faindua errecebitcen baitçuten , eta hartaracotçat , beccaturic çutenac , egunoro halaber , cofesatcen baitçiren . Ordea nola guero ondoan , debocinoa hotzten hafi baitcen ; manatu çuen Fabiano Aita fainduac , maiz ago içanen ezpacen ere , vrthean hiruretan , baz coz , mendecostez eta eguerriz cofesaturic , gorputz faindua errecebi çueneçala . Eta azquenean hain hotztu , edo iraungu cen debocinoa , non Innocentio icen hunetaco hirur garren Aita fainduac , manatu behar içatu baitçuen ; vrthean behin bedere cofesa guindecilla , eta errecebi gorputz faindua , bazco garçumicoz . Eta hala orai , heriotcecco perilez içan agatic ere , obligatu gara vrthean



behin cofesatcera. Eta vithea behin cofesateo haur, eguiten ohi da comunzqui, bazco garisumacoz. Ceren orduan errecibitu behar baita gorputz saildua, eta gorputz saildua errecibituko duenac, baldin badu beccaturic, lehenic behar baitu cofesatu.

Ordea nor iñanenda, vrthean behin baicen cofesatuco eztena? Vithe batez osoqui, bere concientia visitatu gabe, eta nola daducan auteman gabe, pairatuko duena?

Erramendugu. Eliçac eznau manatcen, vrthean behin baicen cofesa nadilla, eta ni eguiten nahiz hain beiteetan; beraz eznaiz gaitz, erraiteco, guehi agotan ez eguin agatic ere. Bada ordea gaitz erraiteco çara. Ceren eguia da, erçaitu eliçac manatcen guehi agotan, ordea etçaitu debeatcen ere. Aitcitic nahi luque guehi agotan eguin bacindeci. Eta halatan erraitendu. *Saltem semel in anno.* Vrthean behin bedere. Bedere erraitendu: aditcera emaitcagatic, nahi luqueyela, guehi agotan ere eguin baguindeci. Ceren anhitz, eta handiac baitira, maiz cofesatceric, heldu diren probetchuac, eta irabaciac, eta bai halaber gutitan eguitcitic fortcen diren damuac, eta calteac ere. Hurreneco capituluan aguerico den beçala.

Maiz cofesatceaz, eta handic heldu den probetchuaz.

CAP. LVIII.

NOla anhitz prefuna baita; cofesatcera herabe duenic: nagui, eta loti denic, halacoen iratçatceco; nahi nuque capitulo hunetan eman cenbait arraçoin, eta gratcutsi, cenbat probetchu daccatqueyen, maiz cofesateac, eta calte gutitan eguiteac; hec consideratcitic bat bedera maiz cofesatcera, eta bere eguin bidearen eguitera, erua dadin amoreac gatic.

1. Lehenbicico arraçoina. Maiz behar da cofesatu. Ceren cofesatceac emaiten dio beccatutan dagoenari, bere beccatuen barccamendua: garaciatic eztuenari, garacia: eta garacia duenari, eta saildu denari, berretcen dio eta handircen, bere leheneco garacia, eta saildutasuna

Ordea erranendu hemen cenbaitce. Nolatan ahal dateque hori horrela? Nolatan cofesatceac berret ahal deçaque, eta handi, leheneco garacia, eta saildutasuna? Ceren cofesatcera heldu dena beccatutan dago, ceren



hala ezpalego ; ezluque cer cofesaturic. Beraz et;uen lehen garaciatic, eta ez sainduta-funic, eta baldin ezpaquen, erran ahal diteque, cofesatceac ematen dioela garacia. Baina ecin erran diteque berretcen dioela. Bada ordea erran diteque berretcen dioela, eta erran ongui, eta eguiatzqui. Ceren anhitz ethortcenda cofesatcera, beccatu mortalic gabe, eta beccatu mortalic eztuena, laincoaren garacian dago. Anhitz presuna prestu, anhitz iende debot, eta saindu, edireitenda munduan, eta hec maiz cofesatcen dira. Ceren beccatu mortalic ez ičan agatic ere, badute cenbait venial, eta venialac asco dira cofesatceco. Eta nola venialac asco baitira, eta baitacufate ecen, cofesatceac, traburic eztenean, iratche quitcen dioela berhi ere cen bait gradu, leheneco garaciari, halatan berretura hura, eta venialen ere barccamendua erdietsi nahiz, cofesatcen dira hain maiz. Eta ongui eguiten dute hala eguiteaz, ceren hainda gauça handia, eta estimatcecoa cofesatceaz erdiesten den garacia; edo garaciaren berretura, non hartatic den graduric ttipienac ere, mundu guztiac baino guchi ago valio baitu : eta bertce munduan ere, hemendic garacia guchi ago eramaiten duenari, loria guchi ago emanen baitçaica; Beraz maiz beharda cofesatu.

2. Are guchi ago maiz beharda cofesatu digarien arracoina, Ceren maiz cofesatceac

arintcen, gutitcen, eta laburtcendu purgatorioetaco pena, eta pena hetan egon behar den dembora. Cofesatcen denari, cofesatcen den guztiaz, ongui cofesatcen bada, barccatcen çaica, eta gutitcen bere çor duen penatic parte bat. Eta hain maiz cofesa ahalditeque, eta hain ongui, non guztia pagaturic, hartceodun ere guertha baititeque, lehenagoco saindu handi; maiz cofesatcen ciren hec, guerthatu ciren beçala.

Eta purgatorioetaco penen bortitzafuna consideratcen duenac, eta han iragan behar diren pena hec, maiz cofesatceaz, arintcen direla daquiencac, segurda, accusatuco duela bere naguitafuna, eta eguiten den baino maiz ago, cofesatuco dela. Ceren mundu hunetaco pena guztiac elccarri iratche - quitic ere, ezpaitira deus, purgatorioetan den penaric ttipienarequin comparaturic. Beraz maiz beharda cofesatu, eta cofesatceaz, pena hequen irauinguitcera, eta gutitcera enseiatu.

3. Are guchi ago hirur garren arracoina, maiz beharda cofesatu. Ceren maiz cofesatceac haferretecendu Deabrua, eta ate erhoturic, eta çoraturic beçala, cer haidden, eta cer eguin eztaquiela, ibentcendu.

Beccatuac, cofesatu gabe, dembora luceaz; bere baithan barrena gorderic, eta estaliuc dadutçana baithan, escu handia du Deabruac, nabusi da harentçat. Baina eguin, eta bere

hala aguertcen, eta cofesatcen dituenari, veldur çaiça, gogan behar çaiça, etçaiça sobera fida.

Icusien duçunean ecen prefuna bat dela erasle handi, mingatçaille, aha çabal, hitz mitzti, elha berriti, eta falhati, eztiogu halacoari sequeretuiic fidatcen. Ceren Spiritu sainduac dioen beçala. *Qui denudat arcana amici, fidem perdit* Adisquidearen sequeretuiac biluzten, aguertcen, eta falhatcen dituenac, galtcendu nehorç haren baithan ahal duqueyen sinhestea, eztu merçi nehor fida daquion, Hala bada Deabruac ere, dacusanecan ecen, eraguiten derauzquitçun beccatuac, ichil, eta sequeretu eduqui baciniça, nahi bailluque, çue bere hala camporatcen dituçula, cofesorari erraiten, eta aguertcen derautçatçula, galtcendu çure baithan çuen sinhestea, eta fidantcia. Icusituc ecen haren iduriz hitz mitzti, eta falhati çarela, vtzen çaitu, etçaitu handic aitecina hanbatetan tentatcen, eta ez beccatu eguitera narritatcen; Ceren berdin baitacusa ezuela probetchuric; hanc eguiten duen guztia, çue bere hala cofesoraren aitecinean defeguiten duçula.

Gutitan cofesatcen direnac dira deabruaren gogaracoac, hec dira haren cerbitçari finac, eto leyelac; hec dira haren secretariac, haren beccatu sequeretua, sequeretu, demboraluçcaz eduquitcen dituztenac.

Bada halaco nabusi gaixtoaren secretari, eta cerbitçari ez içaitea gatic, hari damu eguirea gatic, eta gure baithan ahal duqueyen fidantcia ere galdutic vtz gaitçan gatic, behar da lehen baino lehen, behar da maiz cofesatu.

4. Are guchi ago, laur garrenarraçoina, behar da maiz cofesatu. Ceren maiz cofesatcen dena baithan, eztira beccatuac hala gogortcen, eta ez fincatcen, eztira hala erroztatcen, eta ez hain barrena sartcen.

Ecranen duçu. Iende barçue cofesatcen dira maiz, eta bai halaber maiz bere leheneco beccatuetara bihurtcen: etor, eta iaiqui dabiltça; garbitu begain fite liquisten dira. Cer probetchu da bada halaco cofesatceaz, iaiquitceaz, eta garbitceaz? Cer probetchu den? Bada bai probetchu. Ceren baldin maiz erottcen badira, halaber maiz iaiquitcen dira: baldin maiz eguiton badute beccatu, halaber maiz erremediatcen dute. Eta erremediatu duren bitarte hartan, iaiquiac, eta garbituac daudenean, deiditç que laincoac, hil ditezque orduan, eta bai halaber halatan falba ere. Eta hala batean eror, eta bertcean iaiqui dabilanac, peril badu ere galtceco, ezordea hanbat, nola bethi ere, erorit datçanac.

Eguia da ordea, cofesatcen çarenean, behar duçu ez berriz bihurtceco vorondatearequin cofesatu. Baina hala cofesaturic ere.

çure libertatea , eta facotafuna dela caufa ; beccatu eguitera berriz bihurtcen bagara ere , behar duçu halaber , berriz cofefatcera bihurtu. Ceren halatan etçara hala beccatutan gogortuco , eta ez , ez anfiatuco.

Maiz biluzten , eta erabiltcen den ezpata ; prest da , manucor da. Baina gutitan dabillana , çoccoan datçana , herdoiltcen da , maguinarequin iosten beçala da , gaccoaz dagoela erraitenda Halaco moldez non guero behartcen çarenean , ecin atheraz çabitçala ; etfaiaç cutçaz nahi duena eguin baitçequae. Hala guerthatcen çaiça bada dembora lu ceaz cofefatu gabe , beccatutan herdoildua , eta gogortua dagoenari ere. Ethortcen çaiça eritafuna , hurbiltcen çaiça heriotcea , batcenda

Pfalm.
76.

etfaiarequin , eta guero nola ezpaitago vfatua , eta ez prestatua , prestatcen den bitartean eguitendu etfaiaç , hattçaz nahi duena.

Erraitendu Erregue Propheta Dauitec. *Et meditatus sum nocte cum corde meo, & exercitabar, & scopabam spiritum meum.* Gauaz eguiten nituen neure buruarequin , neure gogotac , eta contuac , eta guero ifatsaz iragaiten nuen neure concientia Bada nola ifatsaz maiz iragaiten den etchea , erraz baita garbitcen , ceren hare fitf mits , eta liquitsqueria guti baitu : baina vrthean behin baiten garbitcen eztena , neque baita , eta gaitz , ceren hare herrautfa , eta amaraua lodi baitu : hala molde

berean maiz cofefatcen dena erraz beçala , gutitan eguiten dena ere , da neque eta gaitz ; Ceren hari dembora lucean , anhitz liquitsqueria , eta beccatu lotcen baitçaiça. Beraz mahiz behar da garbitu , maiz beharda cofefatu.

5. Are guehi ago , borz garten arraçoina , maiz beharda cofefatu. Ceren beccatutic gabe ceneundenean , eguin cinituen obra onac , cein baitçiren obra biciaç , eta guero beccatu eguiteaz hildu , eta iraungui beçala cirenac , cofefatceaz pitzten , eta cobetatcen bairira.

Eta pontu hunen hobequi aditceco , iaquin behar duçu ecen , laur obra molde , laur obra luerte , edireiten direla , orai gure contuco , ongui heldu direnac.

Lehenbicicoac dira. *Opera viva.* Obra biciaç : beccaturic gabe ceneundenean eguin cinituen obrac onac. Bi gartenac dira. *Opera mortifera.* Obra hiltçailleac , arima hiltcen , eta ethaiten dutenac , cein baitira beccatu mortalac.

Hirur gartenac dira. *Opera mortificata.* Obra hilduac , hildumatuac , lohacattuac. Ceren beccatu mortal bat eguiten duçunean , guelditcen dira , lehen beccaturi gabe ceneundenean , eguin cinituen obra on guztiaç , hilduac , hebainduac , eta ceruco loriara ceramaten bideitic , eta abiaduratic guibelatuac , eta tratatuac



Bida obra hildu , hebaindu , lohacartu ; eta trabatu hec , libratcen , pizten iratçatcen , eta erraberritcen dira cofesatceaz. Ceren cofesatceac khentcen baitu , hequin aitecinean cegoen traba , cein baita beccatua.

Laur garren obrac dira. *Opera mortua*.
Obra hillac. Eta hauc dira beccatu mortalean çaudela , eguiten dituçun obra onac. Beccatutan çaudenean barutcen çara , oracinotan egoiten çara , erromerian ibiltcen çara , beharren alderacotçat misericor dios gnerhatcen çara , eta anhitz bertce obra misericordiazcotan emplegatcen çara. Eta hauc guztioç bere eguitez , eta içanez , obra onac dira. Ordea nola prefuna hillac ecin baitaidique obrabiciric , eta çu orduan ceure ariman hilla baitçaude , halatan çure orduco obra on hec ere , dira hillac , eta deus guti valio durenaci. Eta hala vrricalquigun da beccatorea , bere alfer trailla gatic ere : Ceren beccatutan dagoenean , anhitz obra on eguitenduelaric , ceren beccatutan dagoela eguiten dituen , ezpaitçaitça casi deus valiatcen Cofesa bedi berzabat bedera beccatua eguin duen beçain fite. Ceren bertcela , beccatutan dagoeno eguiten dituen obra on guztiaç galtceintu , eta are ; lehenecoac ere , beccatuoic gabe cegoenean , eguin cituenac ere ; hilduac , eta trabatuac edquitceintu.

Ordea venturaz , erranendu orai hemen cene

baitec. Beraz halatan , beccatutan nagoenean ; ezut cer baruturic , oracinotan egonic , eta ez bertce obra onetan ere , cer emplegaturic. Ceren berdin , orduco obra on hec , ezpaitute orduan , deus valio. Bada ordea , orduan ere cer bait valio dute , eta on da beccatutan çaudenean ere ongui eguitea , eta obra onetan emplegarcea. Ceren eguia da orduco obra on hec , ezute , ceruco loriaren erdiesteço , orduan deus valio , ezute hartaracotçat beréc indarric asco. Eta hala hequen gatic , baldin orduan hil baidideci , ifernura cindoazque. Bai ordea valio dute , bertce anhitz gauçataco. Valio dute munduco on temporalen erdiesteço : garaciaren bidean eta dispoçionean iartceço ; beccatu guti ago eguiteco : eta vsantça onaren ere hartceço. Eta haur da San Thomasec erraiten duena.

Opera extrà charitatem facta , ex condigno , nullius boni meritoria sunt , ex congruo vero alicujus meritoria dici possunt. Quia decet diuinam bonitatem , ut ubicumque dispositionem invenit , perfectionem adjiciat. Et secundum hoc , opera ista , ad triplex bonum valent , scilicet ad consecutionem temporalium , ad dispositionem , ad gratiam , & assu factionem bonorum operum.

Beccatoreac beccatutan dagoenean , eguiten dituen obra onec , valio ezpadute ere deus ceruco loriaren erdiesteço ; eta obra on hequen gatic , beccatore hac , laincoaren alderacotçat buruperic ecin baduque ere : ceren obra on

S. Th.
in ad
dicio-
nib. q.
14. ar. 2.



hec bere baitan hillac baitira, ezpaitira deusen merecient. Ordea badirudi ecen laincoac, bere onafuna gatic, hetaric occasino hartceco duela, hala obra onetan dabill nari, beccatore iñan agatic ere, ongui eguiceco, escuarren emaiteco, eta bide onera heltececo, escaz çaicnaren complicececo. Ceren beccatorea bera ere orduan, hartara disposatcen, eta enseñatcen baita.

Beraz nola nahi den dela, beccatutan egon agatic ere, eguicu ongui, ezritçatçula hartagatic ceure oblacinoac, eta debocinoac vtz. Ceren vtzten eztitutçun demboran, aldezedo moldez bethiere cerbait valiatico çaitçquitçu. Ez ordea, cofesaturic eguiten baitçinitu beçanbat. Eta hala hobe da bethiere ahalic eta gutiena beccatutan egoitea, eta maiz cofesatcea.

6. Are guehi ago sei garren arraçoina, behar da maiz cofesatu. Ceren vrthean behin baitcen cofesatcen eztenac, badirudi borreçaz eguiten dela, eta halacoaren cofesatceac, deus guti valio duela.

Comunzqui beccatorea, beccatu eguin berrian, veldur ago, senticor ago eta antsiatçu ago da, handic vrthe baten edo biaren buruan baino. Beccatu bat eguiten duçuncan, albaliz oren berean behar cenduque cofesatu. Ceren baldin luçarçen baduçu, ahantzceco periletan iartcen çara, eta ahantztea, ahantz-

te delaric, bertceric ere cenbait lothuco çaitçu. Hala erraitendu San Gregorioc. *Peccatum quod mox per penitentiam non diluitur, suo pondere aliud trahit.*

Grego.
de peni-
tentia non
differe-
da.

Galdeguin baciniago dembora lucea duela eri den presuna bati, ea nolatan ezten fendatcen? Eta ihardetz baliagaçu, midicina bat hartu nahi gabez, eta midicua gano ioan nahi gabez eztela fendatcen; miretz ceneçaque, eta arraçoinequin erran ciniagaço, erroa dela. Hala da bada erroa, cofesora gana, arimaco midicua gana, ioan nahi gabez; vrthe guztian, hain dembora lucean, garçu-maraino, arimaco eritasunarequin dagoe-na ere. Butuco min batec, succar batec edo bertec eritasun batec hartcen çaituenean, bereçhala, lehen baino lehen erremedio bilhatcen duçu, midicurichoberena deitcen duçu. Cergatic bada gorputceco eritasuna gatic eguiten duçuna, eztaçu arimacoa gatic eguinen?

Çorrac dituenac, baldin prestu bada, atleguin hartcendu hequen pagatceaz, eta ahalic, eta fitetçena pagatçaintu. Bada beccaturac dira, çorrac: eta halatan eguiten diogu egun guztiaz laincoari othoitz; barcca diatçigula. *Dimitte nobis debita nostra.* Bada nola bere nabusiari contuac ongui sman nahi detautçan muñhila, ezpaita



virthearen bururaino, contuac iccussi gabe, eta bere nabusi arequin mintçatu gabe egoiten: hala guc ere baldin gueure arimaco contuac eman nahi baditugu ongui, eta çorrac pagatu; eztugu vrthe guztian, garçumaraino, cofesatu gabe egon behar. Ceren cofesatcea da: Iaincoarquin mintçatcea, contuen eguitea eta pagatceco bidean iartcea. Eta çuc erran agatic garçuman cofesatuco çarela, orduan contuac eguinen eta çorrac pagatuco diruçula, engana ahal cindzque. Ceren çer da: quçu irauenen duçonz garçumaraino? Iaincoac, prometaten deratçu ceure beccatuen barrcamendua ongui cofesaten çarenean; noiz nahi den dela, garçumaren finean bada e.e. Ez ordea ezteratçu prometaten eta ez segurantçaric emaiten, iduriçuico deratçula garçumaraino.

Gauça ici garría da, eta erhoqueria guztien gaineco erhoqueria, beccatu mortalean da: goela, gauaren iragaitera venturatcea; Ceren anhitz ioaiten baña arratlean fendoric oherat, eta guero ezpaita goizean, biciric iaquiricen: *Qui amat periculum, peribit in illo.* Perilean ibili nahi dena, perilean galduco da. Beraz segurean iocatceco, ez virthearen bururaino beccatutan egon, ez hetan sosega lehenbaino lehen, site eta maiz cofesa.

7. Finean çaspi garten arraçoína, maiz behar da cofesatu. Ceren maiz cofesatceaz,

berceac bertce direla, aisia handi bat emanen dioçu ceure buruari. Gutitan cofesaten dena, gaitci çaica cofesatcea ahalque da: halacoa, veldur da, herçtura handitan edireitenda. Halacoac egunetic egunera, garçumaren hastetic accabatcera, accabatçetic bazco çaharçera, azquen eppera luçatcendu, eta batçutan eppe hura ere iragaitera vtzendu. Eta hala guerthatcen çaica halacoari eritcen denean ere: orduan ere luçatcendu: noiz beharce duen; Iaincoac eracutçico dioela, oraino bihotz onduela, appur bat vtzdeçatela erraitendu. Eta guero hala dabillala, maiz guerthatcen dena, cofesatu gabe finatcenda.

Gutitan orraztatcen denac, lehenbicio orratzta aldian, orracea nequez iragaitendu, mintzartcendu. Ceren illeac nahasiac eta icurtuac baitaude. Baina maiz orraztatcen denac eztu traburic edireiten, eztu minic hartcen, hura aisequi orraztatcen da buruan: hala orraztatecenda bada halaber aisequi bere ariman, vrthean laur edo bortzetan cofesaten dena ere: guztiez orhoitcenda, guztiez acculatcenda, eztu traburic edireiten, eta ez minic hartcen.

Engutea bera presuna bat maiz cofesaten dela, asco da, prestu dela erraitceco; eta bai halaber gutitan cofesaten dela iaquitea, eztela sobera debot sinhesteco.

Bada norc ere here arimaz contu ona eman



nahi baitu , eta bere beccatu iraganez , barcca-
mendu erdietfiric , aicinerat guchi ago eguin
gabe egoiteco indar hartu , maiz ofesa bedi :
guerotic guerora ; egunetic bibar-era luçatu
gabe vitheco besta buruetan bedere ; laincoa-
requin mintça bedi , contutan iar bedi. Ceren
halatan emanendu orai presenteon contu ona,
era guero azquen finean erdietficodu , bete
arimaren salbamendua.

*Nola guerotic guerora luçamendutan da-
billanac eguiten dioen bide gabe
laincoari.*

CAP. LIII.

S. Th. 3.
p. 9. 1.
art. 3.

ERraitendu San Thomas Doctox
handi harc. *Si homo non peccasset*
Deus incarnatus non fuisset. Baldin
guisonac beccaturic eguin expalu,
etcen laincoa guison eguinen ; eta aguerida
ezerx ceren guison eguinez guero , bethies
re beccatoréquin ibiltcen cen , hequin sol-
hastatcen , hequin iaten , eta edaten çuen , he-
quin çuen lakhet. Hain lakhet ecen so-
berania idurituric , gaizqui aippatcen bait-
guten scriba Phariseoc , erraiten çut la.

Luc. 13. *Hic peccatores recipit & manducat cum illis*

Cerda haur ? Soberaniac dira hauc , beccato-
réquin, iende galdu, concientcia gabecocquin,
dabilla , eztu neherequin ere bercerequin
onic. Eta hanbat minço ciren ecen azque-
nean comparacino batçuc ibeniric , ihardetfi
behar içatu baitcerauen erraiten çuela. Quec
diogue ecen beccatoréquin nabillala , he-
quin iaten eta edaten dudala , ene iendeac
hec direla. Eta ongui diogue , aithorcen-
dut , ceren hala baita. Baina ezteçaguela
mirers. Ceren nola çhun ardi dituen arçaina,
çhun hetaric bat errebelatcen çaicanean , ioai-
ten baita laur hogoy eta hemetetçiac vtçiric ,
errebelatuaren bilba : eta baren edireiteaz at-
tequin ago hartcen baitu , bertce guztien iccu-
teaz baino.

Hala iaquique , ecen atsequin ago hart-
cendela ceruan ere , penitencia eguiten duen
beccatore batez , laurretan hogoy eta heme-
terci iustu penitenciareen premiariç eztu-
tenez baino. Ceren hura baita ardi errebe-
latuaren edireitea. Hala eritaitendu San
Lucas Evangelistac. *Gaudium erit in cælo*
super uno peccatore penitentiam agente , quam Luc. 19.
super nonaginta non veni iustis , qui non indigent
penitentia.

Halaber , nola hamar erreal dituen emazte
batec hetaric bat galcen duenean , arguia irat-
chequiric , iraultcen baitu etche guztia :
eta guero ediren duenean , alegueratcen



baita, eta contatcen baiteraue bere hau-
çocoey bere fendagailla, eta erraiten eguin
diatçotela bozcarioac. Hala iaquique ecen ce-
ruco Ainguiruac ere alegueratcen ditela, becc-
atore baten convertiteaz, erreal galduatzen
edireiteaz.

Comparacino hautan emaitenda aditcera ;
handia dela gure laungoicoac gure salba-
co duen defira, eta haitan hartcen duen atse-
guina, eta placera. Ceren erraiten baitu, con-
tentamendu guehi ago duela beccatore baten
penitenciaz, laur eta hogoy eta homeretzi iust-
turen, iustutasunaz baino.

¶ I.

Segur da abantail eramaiten dioela iustitac
beccatoreari, garbiac liquitçari : eta hobe
dela arropa berri ossoa, çahar pedaçatua bai-
no. Nolatan erraitenda bada guztiarequin
ere, atseguin ago duela laincoac beccatorea-
ren penitenciaz, iustutaren iustutasunaz baino ?
Iha destendu San Thomasec. *Ceteris paribus*,

S. Tho. innocentiã dignior est, & magis dilecta : dicitur
I. part. tamen plus gaudere de penitente quam de inno-
q. 20. cente quiã plerumque penitentes cautiores, humi-
art. 4. liores & ferventiores resurgunt. Hanbatic han-
batean hobe da hoben gabetasuna, eta behin
ere liquistu gabe egoitea, liquistu ondoco gar-
bitasuna baino. Ordea guztiarequin ere erraiten-
tenda

endu gure laincoac, atseguin ago duela becc-
atore convertituaç, penitenciaz garbituaç
eta eroriz guero iaiqui denaz, behin ete eroi
erzenaz baino. Ceren comunzqui halaco ci-
nez ago permatcen eta emplegatcen baita,
bethi ere iustu içatu dena baino. Beccaturic
eguin eztuena, ezta deusen veldur, baina bai,
penitencia eguiten eta bere beccatuen erremed-
iatcen hari dena, hura veldurda, cinez per-
matcenda beroqui manaiatcendu : eta hala ma-
naiatuz, iragaitenda anhitcetaz ere, bethi iustu
içatu dena baino aitcinago. Hala iragan ciren
londone Paulo bat, Magdalena bat eta bert-
eric anhitz : eta eguin ciren, bethi iustu eta
saindu içan ciren batçuc baino iustu ago, eta
saindu ago.

Hanbatic hanbatean. *Ceteris paribus*. Ho-
beda arropa ossoa, pedaçatua baino. Ordea
halaco pedaçua, appaindura, eta barretura eman
ahal daquidicaio, non guero berretura harc
eta pedaçuaç, arropa osso berriac baino guehi
ago valio bailuque. Hunen arauaz erraitendu
San Gregorioc. *Dux in pralio, cum militem*
plus diligit, qui post fugam conversus fortiter
hostem premit, quam qui nunquam fugit, nec un-
quam fortiter fecit. Et agricola eam terram plus
amat, qua post spinas uberes fructus profert quam
eam, qua nunquam spinas habuit & nunquam fer-
tillem fructum producit. Capitain batec elimat-
en ago du, guerlatic ihes eguin ondoan, bi-

Greg.
Hom. 24
in Evã.



hurturic, valentia handiac eguiten dituen soldadua, behin ere ihesic eguin eztuena, eta valentiaric ere eguiten eztuena baino. Halaber laborari batec ere nahi ago; eta maite ago du anhitz belhar gaixto içatu duen lurra, eta guero hetaric garbitu ondoan, fruitu anhitz eccartcen duena, behin ere belhar gaixtoric içan eztuena eta fruituric ere emaiten eztuena baino. Hala bada gure laungoicoac ere du maite ago, beccatu eguin ondoan beroqui eta doblatuqui obra onetan emplegatcen dena, beccaturic eguin eztuena, eta obra onac ere hotzqui; eppelqui eta lachoqui eguiten dituen baino. Eta eraitendu, maite ago duela halaco beccatorea, hala cintqui eta fintqui penitencia eguiten duena bertce moldezo lauretan hogoy eta hemeretci iustuz baino. Ceren lehen gaixto eta beccatore cen hura, eguiten baita azquenean, penitenciarequin batean, iustu ago eta saindu ago, bethi iustu, eta saindu içatu diren hec baino.

Lajoq.

S. 2.

A Re guehi ago maiteago, eta estimatcen ago du iaincoac penitencia eguiten duen beccatorea, penitenciaric premiaric eztuen iustua baino. Ceren peilean eta galdu-gordean ibili diren gauden edireiteaz, atseguin ago hartcen baitugu, bethi ere segurean eta peril gabe egon direnen, iccusteaz baino.

Guerlaren ondoan estimatcenda baquea: tormenta iragan denean, preçatcenda dembora ederra: eritasuna ioan denean, eduquin cenda ecertan ofasuna. Eta cenbatenaz, eta guerra tormenta, eta eritasuna içan baitira handi ago eta periloz ago, hanbatenaz guero ondo to baquea, dembora ederra eta ofasuna ere dira preçatcen ago estimatcen ago. Cer nahicu guehi ago, Dio San Agustinec. *Edendi & bibendi voluptas nulla est, nisi precedat esuriendi & sitiendi molestia. Et ebriossi quædam salfulcula comedunt, quo fiat molestior ardor, quem cum extinguit potatio, fiat delectatio. Et institutum est, ut jam pacta sponsæ non tradatur statim, ne vilem habeat maritus quam non suspiraverit dilatare.* Baldin placera, placer, eta atseguina atseguin içanen bada, behar da aitcetic appur bat bedere neccatu eta vnhatu. Iaquinen bada cer den placera, frogatu behar da lehenic cer den desplacera. Gaitcen berri ric eztaquienac, eztu ontasuna estimatcen.

Loan ezta goçoric, logale eztenean: eta ezlan edanean ere, aslea dagoenean. Eta halatan idale on bat quec bilhatceintuzte vianda gaciac egarriaren pizteco, eta pizturic edatean placer guehi ago hartceco. Halatan ordenatu cen halaber, etcequiola espos berriari, bere hala lehenbicico guticia menduan edo aipamenean bere esposa eman, nequez içana hobequi estu ma ceçan, edo fite içana arbuia etceçan.

August.
lib. 8.
conf.
cap. 3.

A a ij



Artçaina alegueratcen ago da ardi errebe-
latu baten editeaz, artalde offoaten, larte
onean, alha dela iaquiteaz baino. Aita batec
atseguin ago hartendu, dembora luceaz mu-
tuturic egotuden semearen ahotic hitz baten
ençuteaz, bertce seme guztiac ederqui min-
çatcen direla aditceaz baino. Halatan bere
hacienda partea, ian edanean eta emazteran
gastaturic, galdua eta defeguina, bihurtu cen
semeari, eguin cioen bere aitac, beña guchi
ago, bethiere etchean bere manuco, egon cei-
canari baino. Ceren ethecoa bethiere segu-
rean icuften baitçuen, baina bertcea galdur-
çat ceducana, coberatu baitçuen. Hala da
bada, eta halatan gure laungoicoac ere hart-
cendu hanbat atseguin eta plazer beccato-
rearen penitenciaz. Ceren galduz guero edi-
reiten baita, eta bai peril handitic ere ilquit-
cen, eta elscapatcen.

92:

Beccatorearen penitenciaz atseguin han-
dia hartcendu gure laungoicoac: eta
atseguin hartce haur guztior etaguiten deran-
ca beccatorea gana daducan amorioac. Eta
nola Terencioe dioen beçala. *Amantium ira,
amoris redintegratio est.* Cinez eta eguiac elc-
car maite dutenen arteco haferredurac eta dif-
ferentciac, anhitcetan ere, amorio berret garri

eta fintca garrì'ohi dira. Ceren elccarrequin
minçatu gabe, eta elccargana gabe egotu di-
ren dembora hartan ere, elccarganateco
amoria eta defira berretcen baitçaye. Hala
bada gure laincoari ere, gure moldera minçat-
cera, beccatorea apartaturic dagocan bitarte
hartan, berretcen çaica, beccatore haren bere
ganateco duen defira, eta vorondea. Eta
badirudi ezuela onic, bere gana deçaqueyen
arteino. Ceren bitarte hartan, athera et-
horritic beçala bethi deyez baitagoca: eta
deyez ere luçaro eta behin ere etlitu gabe.
Expectat Dominus ut misereatur vestri. Urthe
batez, biaz eta hamarrez, athal ondoan
iguriquitcendu. Eta ala baina beccatoreac
bere burua gor eta for eguitendu, gueroco be-
re eguin bidea luçatcendu. Gauça gaizqui
eguina da, eta itfusia, adisquideari deyez da-
gotçunean, ez ihardeste athera an iguriqui ara-
citea: eta bere hala eman abal diaçaiõn erre-
puestaren, eta eguin abal diaçaiõn cerbitçua-
ren, gueroco luçatcea.

Beraz cinez içanenda gauça gaizqui egui-
na eta itfusia hain maite çaituen laincoari eta
adisquideari, çure penitencia eguiteaz eta bi-
de oneratceaz, hanbat atseguin hartcen due-
nari: eta bethi ere deitzen çaituela, eta çure
bilha dabillala daquiçunari, hain contu guti
emaitea, hanbat iguriqui aracitea, gueroco
luçatceaz, ez bere hala ihardeste. Badirudi

Isai. 30



ecen baldin Iaincoac, deusez ere albalu damuric, hunetçaz luqueyela.

Beraz hunelatan erran behar da handia dela luçamendutan dabillan beccatoreac, hala ibiltce hartan eta bitarte hartan Iaincoari eguiten dioen bide gabea. Eta halaco bide gabetic ez eguita gatic ere vtzteco lituzqueyela, eta gunituzqueyela luçamenduac, eta guerotic guerora ibiltceac.

Nola, luçamendutan, guerotic guerora dabillanac, eguiten derauen bide gabe Ainguiruey

C A P. L I V.

Prov. 3. **E**Rraitendu Spiritu Sainduac. *Spes qua differitur affligit animam.* Luçatten den esperantçac neccatcendu, gogoa, penatcendu arima. Beraz handia da halaber bere arauaz, Ainguiruey luçamendutan ibiltceaz eguiten deraugun bide gabea. Ceren desira handi ba-
 Aug. in requin, gure penitenciareta eta conuertitcearen beha baitaude, eta berantceaz damu anima hartcen baitute. Hala emaitendu aditcera ad Deu San Agustinec. *Quoties bene agimus gaudent Angeli, & tristantur Demones: gaudium est*

enim Angelis super uno pœnitentiam agente: sed Diabolo, super uno pœnitentiam deserente. Ougui eguiten dugun guztiaz alegueratcen dira Ainguiruac eta tristetcen deabruac. Eta erraiten denean Ainguiruac alegueratcen direla; eta deabruac tristetcen: aditcenda ecen guerore aldetic denaz beçan batean, guc alegueratcen ditugula, edo tristetcen: eta aleguera edo triste albaliteci, guc eguiten ditugun obrec, aleguera, eta trista litçaquetela. Ceren bertce gaineracoan, Ainguiruac nola bethi lorrian baitaude, ecin triste ditezque, eta ez deabruac ere aleguera, ceren hec ere bethi penatan baita

Erraitendu San Thomasec. *Demonas propter invidiam profectum hominum impedire nituntur; & propter superbiam diuina potestatis similitudinem usurpant, deputando sibi ministros, ad hominum impugnationem sicut & Angeli Deo ministrant, in determinatis officiis, ad hominum salutem.* Badaquigu, baduela gutaric bat berderac, Iaincoac emanic, norc bere Ainguiru beguiraillea: eta Ainguiru harc bertce guztien artetic, eta gainetic, eduquitcen duela bere cargucoaz contu, eta desiratcen duela harren salbamendua. Eta nola Iaincoac ontasunean eguiten duena, nahi bailluque Deabruac ere gaixtasunean eguin: halatan Luciferrec Deabru buruçaguiac eta capitainac, emaitendu halaber cenbait Ainguiru gaixto



eta Deabru tentateco, eta beccatu eraguiteco. Eta hala erran ahal deçaquegu eeen Ainguiru on bat beguirateco beçala, badugula halaber gaixto bat ere, bere ahalaz gure tentateco eta gaitceco; ona laincoac emanic eta, gaixtoa, Luciferrec igorric.

Eta ecin erranditeque cein guerla handia duren Ainguiru hec bieç, onac eta gaixtoac, gure arimaren gainean. Biac permatcen dira, biac enfeiatcen dira. Eta cintquienic; heriotceco orenean emplegatcen dira. Ceren orduan dira cinac, eta minac: orduan da arimaren gora behera guzia, eta b. lantçaren, alde batera, edo bertcera, erotceco pontua, eta puntada. Orduan viltcen dira Deabruac eta laguntcen çaitça elcarrì, erraiten dute-la. *Deus dereliquit eum. persequimini & comprehendite. quia non est qui eripiat.* Utcidu laincoac, har deçagun beraz gure, daramagun, ceren gurea da, eta nori berea, ecin nehorc edequidia çaito. Inguratecen dute, tentatecen dute, defesperateco pontura eccatcen dute; eta peril da, cenbait defespe aratcitcen ere baduten. Pontu hartan ethortcen çaitça arima tristeari gogora, egundaino, eguin dituen falta guztiaç: eta hanbat eta hain handiaç direla iccuffinic, bihotça, hersten çaitça, hiltcen çaitça: eta iarcen da bere buruarequin gogoetan, erraiten duela. Cer içanenda orai nitçaz? Cer bide hartuco othedut?

salbatuco othe naiz? Pontuaren latça: Pau. suaren gaitça: eguitecoaren handia: herstura- ren herstia, etaici garrìa. Cer eguin endu orduan arima ici harc? Nor deituco du bere faboretan? Norc escua emanen dio? Nor helduco? Nor lagunduco çaitça? Nor bada? bere Ainguiru beguiraillea: harc orduan, adisquide onac beçala, laster eguitendu, harc escuey eguiten deraue: eta inguruneco etsai guztiaç, demonio tentaçailleac, alde batera, eta bertcera bulcatecintu. Eta guero erraiten dio arimari. Ea arima icitua bihotz har eçagu, esportça çaiteci, eçaitecilla errenda, ezteçagula gal esperantça. Ceren çure beccatuac anhitç, eta handiaç badira ere, iaquiç eeen laincoaren misericordia are dela handi ago: eta laincoac nahi duela salbaçaitecin: eta aitecotz faltaric, çure aldetic içanen dela; etça ez laincoarenetic. Orduan Eliçac ere iguitendu othoitz, erraiten duela. *Occurrite Angeli Domini. suscipientes animam ejus.* Ea ceruco Ainguituac, laincoaren aicinean çaudetenac, orai da ordua, laster eguiçue, herstura- tan dagoen arima huni escua emoque, helça- quitçate. Orduan arima harc bere barren hartan, bere obrequin, berac iharduqui behardu: Ezta ahaide adisquideric hara heltcen: baina bai Ainguiru beguiraillea, harc eduquitcendio on, hura dagoca aldacan, harc ezru vtzten, gorputcean dagoen bitartean.



§. I.

B Aldin arima hura, onatafunean, fedean, eta sperantçan firme egonic, eta bere faltac erremediaturic partitcen bada, laincoaren garacian dagoela mundutic: norc erranendu, cein handia den orduan Ainguiru beguirailleac, hartcen duen atseguina, eta placera? lehenbicoric arima haren ondoan cebiltçan. Deabruac musicatceintu, escarniatceintu, irriz iocatceintu.

Eta guero hartcendu arima hura, becartcendu, laincoaren aiteçnera eramaitendu, erraiten dioela laincoari. Iauna huna non dençuc gomendiotan eman cenerautan arima: manatu nenduçun beguira neçala: beguiratudut, fendoric, eta falboric bihurtcen deratçut. Errecibi eçaçu bada, eta emoçu huni ceure loria, eta niri ere, neure traillauren golardea, eta pagamendua.

Oidea baldin arima hura, ilquitcen bada; beccatutan dagoela, gorputceric, baldin condenatcen bada: orduan vtstendu bere Ainguiru beguirailleac, apartatcen çaica, eta apartatce hartan, erraiten dio, ha gaiztoa, ene neccagarria, ala nic gaizqui empegatu baitut - hirequico, dembora. Amaren sabeletic iltqui intcen pontutic, pontu hunetaraino; bethi ere iarraiqui natçain, eznatçain behin

ere apartatu. Anhitz enfeiu eguin dinat, etsai horretaric hire beguiratceco, eta orai daraman bide gaixtoare huts eraguiteco. Baina alferitic guztiaç. Ceren nola baituen libertatea, eta heure burua heure escuco, hala eguindun heure placera, eta vorondatea: garaitu naun eztun nitçaz conturic eguin: ez aiz nitçaz gouernatu. Galdu dinat nic neure traillaun, eta bai hic ere, secula fin gabe cotçat heure burua. Baldin Ainguiru hura triste albaledi, edo ahalque, vste dut ecen arima haren galtceaz, eta etsai gaixtoac daramacola icusteaz, triste litequeyela, eta ahalque. Eta badi rudi ahalqueturic beçala erraiten derauela bere lagun Ainguiruey, Jeremias Prophetac Babiloniaco hiriaz errançuen *Curavimus Babilonem*. Nic eguindut neure aldetic eguiteco cen guztia. Galdu da arima haur, eta eztu nehorc ere nic baino damu ago. Berac du ordea falta. Ni sinhetçi banendu, ezquinen eguiteco hunetan içanen: eznic içanen nuen hunen bat damu, eta ez hunec ere hun enbat calte, eta atfecabe.

Ordea cerda haur? Nolatan galduda arima haur? Etçuen Iaincoac hunen salbatcea gatic odol ifuri, eta heriotce errecibitu? Eta etçituen balaber eritcen ceneco medicinac, eta erremedioac; Sacramendu sainduac ordenatu? Eta etceratçun çuri ere Ainguiru saindua



beguiratceco cargua eman? Nolatan bada galduda? Nolatan condenatu da? Ihardestendu Ainguiruac.

Eguiac dira horioc guztioac : ene carginan cen , eta etcen erremedio escafic ere ; Ordea etçaitca deus probetchatu : ceren batatz eritasuna baitçuen handia , eta sendatceco desirattipia : eta berriz bertcea ceren bere fantasiac , eta vorondatez gobernatu baita , eta ez ene conseilluz . Damu hartceco occasino handia emaiten çaica , Ainguiru beguirailleari , bere carginan duena , beccatutic ilquitceco luçamendutan dabilconeac , eta are handi ogoa condenatcen çaicala dacufaneac . Handia da hunetan Ainguiru beguirailleari , eta bertce Ainguiru guztiey ere eguiten çayen damua , eta bide gabea . Ceren guztieç gure salbamendua , eta lehen baino lehen beccatutatic ilquiric iccusteac , desiratcen baitute , eta ilquitcen garela dacufateneac , atseguin hartcen baitute .

Beraz hunelatan , hargatic bera gatic ere ; Ainguiruey bai atseguin , baina damuric , eta atsecaboric ez eguitea gatic ere , beharguendugue egun beretic , gueroco luçatu gabe , trabuguztiac kheinduric salbamenduco bidea hartu , eta hartan , guelditcen çaicun gueure mendec appurra , emplegatu .

Nola guerotic guerora luçamendutan dabilanac eguiten derauen bide-gabe , bere buruari : bere guiristino lagunari , eta bai munduco berice-gauçac guztiey ere .

CAP. LV.

B Aldin luçaro beccatutan egoiteaz , eta guerotic guerora ibiltceaz , eguiten baderauegu bide gabe , laincoari , eta Ainguiruey : segur da hala eguiten diogula gueure buruari ere bide gabe , damu , eta calte . Ceren baldin orduan hala beccatutan gabiltçaneac , eta gaudeneac hiltcen bagara , feculacotçat galdu , eta penatu hehar baicara .

Guc dugun etfairic handiena gueure buruadugu . Ezteracu nehorc ere hanbat calte , eta bide gabe eguiten , nola gueroc eguiten baitiogu gueure buruari . Gueroc gueure buruac galtceintugu , ifernura egozteintugu . Eztugu nehortçaz ere hanbat occasino , eta arraçoin arrencuratceco , nola gueure baruoz ; eztugu bertceri cer atchaquia emanic , eta ez , cer hoben egortciric , gueureac ditugu saltac .

Ezquit non dugun adimendua , eta ez cer-



August.
serm. 12
de ver-
bis Do-
mini.
tom. 10

tan pensatcen dugun; ecen munduan ditugun bertce gauça guztiac nahi dugularic diren onac; gure bicitcea bera, gure concientcia, gure arima nahi baitugu den gaixto. *Quid enim est quod vis haberemalum? Nihil omnino, non uxorem non filiam, non seruum, non ancillam, non villam non tunicam, postremo non caligam, & iam non vellis habere malam vitam? Rogo te præpone vitam tuam caligam tuam. Si possent respondere bona tua quibus est plena domus tua, quæ habere optasti, & perdere timuisti, nonne & tibi clamarent? Sicut tu nos bona vis habere, sic & nos volumus bonum habere Dominum.* Erradaçu othoi (dio san Agustinec) nahi othe cenduque deus ere gauça gaixtoric? Ez segur. Eztuçu nahi emazte gaixtoa ez seme gaixtoa, ez cerbitçari gaixtoa, ez athorra gaixtoa, eta ez azquenez goiti çapata gaixtoa ere. Nolatan bada nahi duçu guztiac gainetic concientcia gaiztoa? Bertce gauça guztiac onac, baina ceure burua, ceure bicitcea, ceure concientcia, ceure arima, gaixto. Baldin çure çapatac, eta etchean ceure cerbitçuco dituçun bertce gauçac mintça alba liteci, erran lia çaiçute. Çuc nahi duçu gu garen onac: hala nahi dugu bada gure ere; çu caren ona. Çuc nahi dituçun cerbitçari ona, hala nahi dugu bada gure ere nabusi ona; Baldin galdequin baliçaçute, cer den çuc duçu gauçaric maitèna, ihardets ceneçaque; çure bicia dela: ceren bicia gatic, munduco

gauça guztiac vtz baitiçaquetçu. Nolatan bada bertce gauça guztiac nahi dituçularic onac, nahi duçu çuc duçu gauçaric maitèna, den gaixto? Ecin ediren deçaquet bertce araçoinic, Deabruac itsutu, eta li luratu çaiçuela baicen: eta çu çarela iende hetaric, ceinen gatic erraiten baitu Sophonias Prophetic. *Ambula verunt cæci, quia peccaverunt Domino.* Itsutuac ibili ciren, ceren beccatutan erori baitciren.

Egunetic egunera beccatuaric ilquitceco luçamendutan çabiltçan bitarte hartan, ceure buruaten etsai çara. Ceren ongui ahal çatequeyena, ceure faltaz gaizqui behar baitçara. Beraz orduan hala ibiltceaz, ceure buruari bide gabe eguiten dioçu. Ceren ceure correc ceure burua galtcen baituçu.

§. 1.

B Adā halaber guerotic guerora beccatutan egoiteaz, bide gabe eguiten dioçu ceure guiristino lagunari ere.

Batçuec erraiten dute, baldin gaixto balaiz, neuretçat naiz gaixto, eztute ene beccatuec nehor ifernuraco, norc bereac iasancintu. Eguia da norc bereac iasancintu.

Ordea ezriocu ongui etçarela ceuretçat baicen gaixto. Ceren lehenbicoric, nola ona



anhitcentçat baita on ; hala gaixtoa ere , an-
hitz entçat da gaixto. Bi garrena ceren ceure
b'circe gaixtoaz , exemplo gaixtoa emanex ,
bertceri ere beccatu eraguiteco occasino
emaiten baitioçu. Hala erraitendu San Agu-
stinec. *Qui in conspectu populi male vivit, eum*
Aug. 1. *à quo attenditur, quantum in illo est occidit.* Bert-
de Past. ceren aguerrian , iendèc iccusten dutela , gaiz-
cap. 4. qui bicitcen denac, bere aldetic denaz beçan ba-
tom. 9. rrean, aguerrian diren hec, beha dandenac, hilt-
ceintu, caltiar errendateintu. Beraz ceure
Nicol beccatuaz eguiten dioçu , ceure buruaz bert-
Lyra ceri ere, calte eta bide gabe. Ceren anhitzetan
Deut. 34 ere çure beccatua gatic , bertceac ere gazi-
super gatcen baititu laincoac ; ez gatzigu eterna-
illud laz , baina bai temporalaz.
non oc- Finean ez guiriflino lagunari berari , baina
cidetur are munduco bertce creatura arraçoïnaz vsar-
patres cen eztuten guztiey ere , bide gabe eguiten
pro fi. deraueçu beccatutan çauden bitardean. Ce-
luis. ren lehenbitoric , etheco iaunari bide gabe
eguiteaz , eta defohore emaitiaz , etheco
guztiac vquitcen dira , familia guztia defoho-
ratcenda. Bada nola beccatutan egoiteaz ;
laincoari, mundu guztico etheco iaunari,
eta buruçaguiari, eguiten baitioçu bibe gabi
eta emaiten defohore : eta munduco creatura
guztiac , are harrïac ere , etheco iaun hunen
familia , eta etchatiarra baitira : hala çure
beccatutan ibiltceaz guztiaç vquitcen dira ;

guztiac bide gabe errecibirren dute. Halaber
beccatutan egoiteaz , bide gabe eguiten dera-
ueçu sentimenduric eztuten creatura guz-
tiey. Ceren guztiaç baitira , Erregue Davitec
dioen beçala çure cerbitçuco ordenatuac , eta
çure oïnen azpico eguinac. *Omnia subiecisti* Psal. 8.
sub pedibus eius. Ordea eztuçu mereci cerbit-
çuric , beccatutan çauden bitartean : orduan
nçara iaten duçun oguiaren ere mericient ;
ceren orduan beccatuaren cerbitçari , eta az-
pico baitçara , eta munduan den creaturaric
attheusena , eta ttipiena baino , eztheus ago ,
eta ttipi ago. *Omnis qui facit peccatum seruus*
est peccati. Eta ezta arraçoïn , deus agoac ,
ettheus agoa cerbitça deçan : eta ez ttipi agoac ,
andi agoa here azpico erabil deçan.

Halaber bide gabe eguiten deraueçu mundu-
co creatura guztiey beccatutan egoitez. Ceren
guztiac , çure beccatuac gatic gatzigatu baiti-
ra , eta gatzigatcen baititu laincoac : hain
gatzigatcen eçen erraitèn baitu Doctor batec,
Omnes creaturæ propter peccatum homi-
nis perdidit septem partes suarum virtutum. LPetru
4. omb.
guzquac , illa guziac , eta munduco bertce disent.
creatura guztieç , galdu çuten guizonaten st. 48.
beccatua gatic , bere verthutearen , eta va-
raren çazpi garren çathia , eta pattea. Eta
illa arraçoïnequin arrencura ahal diteque ,
guereilla iguzquia beccatoreaz ; erraiten
çela. Ni hire gatic goibeldu ninduan , eta



ilhundu. Ceren orai argui banaiz ere, eta clar, are lehen ninduan argui ago, eta clar-ago. Halaber abre adimendu gabèc ere, arraçoinequin erran ahal diaça iote. Hire garic gu diluio handi hartan, Noeren demboraco vholdean, hondatu, eta itho guinituan. Bada lutrac ere eguin ahaldiaçai erañçute. Ceren lehen garbi cena, haren gatic elhorritz arantçez, eta belhar gaixtoz bethe baitcen; eta bai flacatu, eta mehatu ere.

Habac. *quod inter juncturas edificiorum est respondebit.*
2. Munduco creatura guztieç, parèteran ioffric dauden harriec ere çucen dute, eta arraçoine beccatorearen contra iaiquiteco. Eta hala eraiten ere du Spiritu sainduaç iaiquico dirclazquen egunean. *Pugnabit pro eo orbis terrarum contra insensatos.*

Eta nola orai beccatoreac guztiey eguiten baiteraue guerla: hala orduan beccatoreari ere, guztieç, pagamendu ordaina, moneda berean, bihurtuco diote; eta orai erreçibitcen dituzten, bide gabe handiez, mendecuhartuco dute.

Beraz hunelatan halaco eguitecotan erortceac gatic: eta hanbat bide gabe, hanbati, laincoari, gueute buruari, Ainguiruey, guiflino lagunari, eta munduco bertce creatura guztiey ere, ez eguitea gatic, behar dugu errenatu, abiatu; eta luçamenduac vtçiric, guero

eguin behar denaren, lehen baino lehen eguitera, bide onean iartcera, eta hartan egoitera deliberatu.

Nola ifernuco penen consideratceac, behar dituen, gueroic guerora ibiltceco, luçamendua laburtu.

CAP. LVI.

Nola laincoac eracutsi baitçuen bere botherea, munduaren creatcean: iaquintafuna guernatcean: eta misericordia erremediatcean: hala eracutsidu, eracustendu, eta eracutside bere iusticia ere gatzigatcean. Ceren baldin ezpada arraçoine, gueldi dadin verthutea pagamendu gabe; ezta arraçoine iragan dadin beccatua ere, gatzigu gabe. Hain ongui dagocagaixtoari ifernua, nola onari parabisua.

Anhitz, eta handiac dira (otainocan ere aditcera eman den beçala) gure guero hunec; luçamendutan ibiltceac, eguiten dituen damuac, eta calteac. Baina damu guztien gainecodanua, calteric handiena, gal-garriena, eta bertce guztiaç çitcen, iragaiten, eta anhanz;



572 IFRNUCO VELDURRAC, BEHARDI-
aracitcen dituena, da, egotzen baitu fin
gabeco guerora, hondar gabeco lecera, secu-
laco penetara.

Eraigoan çaude; amorantearequin çaude;
bertceren ona goraturic çaude. Cein baitira
hiue beccatu fuerte perilosac. Era venturaz
baduçu, beccatu hoiferatic ilquitceco, gogo,
eta vorondate. Ordea noiz? Ez orai, ez egun,
bihar, guero. Era bethi guero, bethi bihar;
horrela çaudela, eritasunac har, heriotcea
ethor, eta ifernura ioan.

Bada nic ecin ediren deçaquet erremedio
hobe agoric, atriaca fin agoric, eta ez medici-
na segit agoric, guero hunen orai, orai-rat-
ceco, fendatceco, eta erremediateco: guero
hunec beronec, eguiten dituen caltén, confi-
deratcea baino. Oraren autliquia, oraren be-
raren illeac behardu fendatu: ifernuco sua;
ifernuco suac behardu iraungui. Ezta halaco er-
remedioric, ez guero ifernuratceco, nola orai
ifernuratcea. Guero ifernura ioan nahi eztue-
nac, orai bahardu ioan ifernura. Orai behar
ditu hangó penac hemen hara gabe considera-
tu gogoan erabili, eta halatan handic, ihes
eguin, itçuri, eta escapatu.

Errán comuna da, ezpatac ezpata far ara-
ciccen duela maguinan. Amórioz, eta onez
onetara, onguiric eguin nahi eztuenari, bort-
har, eta gatzignaren veldurrez eraguin be-
har çaica. Ohoina cere guibelatcendu;

guibelatcen denean, ebañetic: Ez ahalqueac,
ez nehoren gana daducan amorioac. Cer
bada? velduriac. Hala laincoagonaco amo-
rioac, beccatu eguitetic, guibelatcen eztuena
ere, ifernuco penen veldurac, guibelatu
behardu.

Eta haur da egundainoz guero, gure Iain-
coac; beccatore bihotz gogorrari, bere go-
gortasunaren hautsteco, eta beratceco, edi-
ten duen erremedio handietaric bat mehat-
chatcea, erraita, eta gogora eccatcea,
beguira duela, gatzigu pare gabe bat, pena
handi icigarri bat harentçat prestatua, eta or-
denatua dagoela.

Halatan iondone Ioannes Baptistac; cia-
pienac beçala eguin çuen pontu hunetçaz;
ifernuco penez, bere lehenbico predicua;
eraiten çuela. *Facite fructus dignos peniten-
tie. Amenim securis ad radicē arboris posita est!*
Omnis arbor que non facit fructum bonum, ex-
cidetur, & in ignem mitetur. Beguirautçue e-
guicue penitencia, eta eguicue, eguin dituen
beccatuen arauaz. *Fructus digos penitentia* Bec-
tatu handiac gatic penitencia handia. Ce-
en iaquin behar duçue ecen, haiztora, çu-
haiztaren erroari, kheinatua dagocala, eta
aituric iañaiten eztuena, ebaquia iñanen
çela, eta fura egoitcia. Haur da iondone Ioan-
nes Baptistaren lehenbico predicua. Haur
ethorri cenean, berequin eccari çuen ber-



ria: Eta berri hunequin, hunelaco gatzigua;
ifernuco sua, gaixtoen çat ordenatua cegoela,
ençutearequin, hain icitu, eta iccaratü ciren,
ecen presenteco guziac, are ciren gaixtoenac ere,
ethorri baitceitçan galdegutera. *Quid faciemus?*
Cer eguinen dugu bada? Cer içanenda gutçaz?
Nola edo cer moldez escapatuco gara,
çuc dioçun pena handi heretic ifernuco futic?
Bada iondone Ioannes Baptistaç, preditari handi hanc,
orduan iende heyerraiten cerauena,
erraiten deratçuegu guc ere orai çuey.
Eguia da ez hanc beçalaco
saindutasunarequin, eta ez sintasunarequin,
bai ordea hanc erraiten cerauen eguia bera.

Ceren hanc predicatzen çuen leguea;
fedeç, eta laincoa predicatzen, eta esquinibatzen
dugu guc ere; ezta hunetan differentiaric.
Erraiten deratçuegu guc ere hanc beçalac;
beguia duçuela, haizcora çubaitçaren ondoati
kheinatua dagocala; heriotcearen fega, onen,
eta gaixtoen arontateco, haiotça çorrotztua,
eta prestatua dagoela. Eta bihi onac,
ceruco bihiteguien ailtchatuco direla;
eta lastoa, gaixtoac ifernuco lastoan.
Secula fingabecotçat, sua datchetela egonen
direla.

Haur da eguia: eta hauc dira; guere
laungoicoac ailtçineric, eguiten deranzquigun
mehatchuac, kheinadurac, eta bere prez

cariez emaiten deranzquigun auisuaç;
equin batean, ici gaitecin, iccarra gaitecin,
eta iccaratutic, guero eguinen dugula
dion ontasuna, presenteon daguigun amoreac
etc.

§ I.

Guia da ceruco lotiaren esperantçac;
hango placer handi hequen consideratçac,
alegueratçendu guiristinoa, eta bai pre-
senteon bicitceco desira batequin ere ibent-
en. Baina comunzqui, hobequi vquitçendu
çat bedera, ifernuco penen veldurtasunac,
ceruco lotiaren esperantçac baino.

Ezçaitu pagamenduac, eta pagamenduaren
esperantçac, hala aittinatzen, eta aleguerat-
çac, nola guibelatzen, eta tristecen baicaitu,
çatçiguac, eta gatziguaren veldurtasunac.
Eguinen arapaz erraitendu san Chriostomoc.
Egiaz *non ita recordemur, ut Gehenna. Timor
domini promissione potentior est.*

Orhoitu behar dugu parabisuaz, eta hango
placer handiez: baina are ago, ifernuaz, eta
hango penaic garriez.

Ceren nola ofasunac baino, eritasunac ho-
bequi gogoeta eraguiten baiteracu, eta bai
horquiguan ere pensa aracitcen; hala ifer-

Chryf.
Hom. 2.
in epist
Paul. ad
Theff. 1.
cap. 1.
tom. 4.



nucu eritasunac ere; hango-doloren confis-
ratceac, hobequi vquitcen gaitu, eta aitcin
guibel beha aracitcen deroccu, parabisuco
placerean, placerqui, pensatcen egoiteac
baino.

Eta haur ezta miresteco. Ceren handiac
bortitçac, eta icigarriac baitira ifernuco pena
hec. Hetçaz erran ahal diteque bere moldean;
iondone Pauloc ceruco lorriaz erran çuena.
Eztu egun daino nehorc iccussi, ez ençun, eta
ezgogoan iragan, nolacoac içanen diren. No-
la oney emanençayen pagamendua, içanen
baita abant illatua, guztien gainecoa: hala
gaittoec içanenduten gaitigua eta pena ere,
içanenda pare gabea, alde guztiz handia:
hain handia, ecen, nola ezpaita içanen atfe-
guinic, eta ez placeric, salbatcen den batec
goçatuco eztruenic: hala ezta edirenen pena-
ric, eta ez atfecaberit, condenatu batec pai-
ratu beharco eztruenic. Onec on guztiac, gait-
toec gaitz guztiac. Onac bethi ongui, gait-
toac bethi gaizqui.

Eta eguiteco huni bere cimendutic, eta er-
roetanic lotceco: eta halaber iaquiteco cer-
pena, eta nolacoac içanen diren ifernuco pe-
na hec: eta cergatic erraiten den, hec dircla
pena guztien gaineco penac, har deçagun gucu-
re aitcindari san Thomas, Doctor handi hura,
ceren harequin batean içanen gara ongui qui-
datuac, eta mintçatuco gara behar den be-
çala.

§. 2.

ERraitendu San Thomasec. *Pœna damna-* D. T. I.
torum in duo genera di viduntur, quæ sunt 2. q. ar.
pœna damni & pœna sensus. Pœna damni ref- 4. in
pondet a versioni à Deo, & pœna sensus con ver- copot.
sioni ad creaturam. Erran nahi du. Presuna ba- & 22.
tec eguiten duenean beccatu mortal bat, bi gau- 9. 79.
ça eguiteintu. Lehenbicoa, vtztendu bere
creatçaillea: eta bi garrena hartendu creatu- ad. 4.
ra; eta harturic haren baithan ibentendu be-
re gogoa. Guibelaz itçultcen çaica iaincoari
eta beguitarteaz creaturari. Eta nola bi gauça
eguiten baititu, halatan ditu mercei ere bi pe-
na, eta gaztigu. Lehenbicoa, mercedu vtz
deçan iaincoac, egotz deçan bere compainia-
ric, ezteçan seculan haren beccoquiric eta bi-
salaric iccus: vtz deçan vtz çaillea. Eta pena
haur deitcendu San Thomasec. *Pœna damni*
ref. Caronia di vine visionis, caronia di vine
presentie. Iaincoaren ez iccusitea, haren com-
painiatic eta loriatic seculacoteat campoan eta
çaiçagoan, desterraturic egoitea.

Eta haur da ifernuan dageonac iragaiten
duen penatichandiena, eta malenconiaric,
malenconia garriena. Ceren nola parabisuan
dageonatis iaincoaren iccusiteic eta aren com-
pianian egoitetic, ethortcen baitçaitçat ontan-
duen guztiac: hala ifernuan dageonari ere, iain-



coaz gabeturic , eta haren begui viflatic , eta compainiatic defterraturia egoitetic , heldu çaitça dituen calte guztiaç.

Gauça bat galtcen duçunean damu hartcen duçu . Eta cenbatenaz era galtcendu çun gauça hura baita hobe ago , handi ago , eta valiof ago , banbatenaz hartcen duçu damuago , hanbatenaz sentitcen ago duçu . Beraz cinez etarraçoinequin fentituco duçu , eta damu hartuco , laincoa bera , den gauçaric hoberena , handiena , valiofena , eta çuc beharren cenducena galtcen ducunean . Calte handia da beguiztaco viflaz , ofafunaz , eta acienda guztiaz gabetcea : beraz cinez içanenda calte handia ; laincoaz beraz gabeturic iartcea .

Erregueren lebenbico femeac , çucenez , eta ethorquiz Errefuma guztico iatin , eta Erregue heldudenac , damu harleçaque , Erregueçat coroaçu , eta errecibitu behar duten egunean , egotz baleçate defterraturic Errefuma guztic egotz camporat : cer damu cer despit , eta atsecaruc Errefumaco heredero , eta partale helducenac : Errefuma hartan farthu vzte çuen egunean , athea herften diotela , eta camporat egotzten dutela dacufanean ?

Prefuna bati ceure behar orduan , premiaz coan , gauça baten efcartcen çat çaitçanean , damu hartcen duçu , baldin duela daçquigularic , hutfi egotzten ba çaitu , ezetz etc

raiten baderatçen . Bada ceure azquen finean heriotceco orenean , behar ordu guztien gaineco , behar orduan , cer damu , cer bihotz vccaldi errecibituco duçu : Cer pena , eta atsecabe fentituco duçu , laincoac hutfic , behar duçuna gabe , camporat egotz çaitçanean ? Nescio vos . Erçaituela eçagutcen , verandu duçula , ezuçula erremedioric erran diaçaçunean ? Eta hunela erranic athea hertz diaçunean ? Badirudi , hunetan pensatceac berac ere , feculacotçat musut-hutz guelditu behar duela icusteac , nehori buruco illeac , latzeten derautçala . Arraçoinequin erraiten du .

San Chriſtoſtomoc . *Multi hominum Gehenna nam tantum formidant, ego autem, glorie illius amiffionem. Gehenna multo amarioren esse dico.* Chryf. Hom. 47. ad popul. Anthio

Barçue ifernuaren dira veldur , eta ez bertceren : baina niri guztien gainetic , ceruco lotiren galtcea , iduritcen çait dela garratz , eta lici çarri , çuehienic ni harentçat naiz veldur .

Hunetanic aditcenda Propheta Dauiten erran bat . *Pluet super eos ignis & sulphur & spiritus procellarum pars calicis eorum.* Su , çufre , tormenta , eta bertceric anhitz pena emanen deraue laincoac condenatuey . Plal. 10

Baina hec guztiaç . *Pars calicis eorum.* Eza tira parte bat baicen içanen , eta parteric triçpiena . Ceten guztietaco handiena , içanenda ; ceruco lotiatic , laincoaren begui viflatic , eta compainiatic , feculacotçat campoan egoitea ,



Hemen erranen du cenbaitec. Limboan dauden haurrec, baraiatu gabe hiltcen dire- nec, eztute laincoaren beguitarea iccusten, eta ez iccuffico ere: bethi daude, eta egonen dira, ceruco loriatic desterratuac. Eta guz- tiarequin ere Doctoren errana da, eztutela hec penaric içaten, eta ez tristuratic erreci- bitcen, eta ez errecibituco ere. Nolaten diogu beraz ecen laincoaren ez iccuftea ha- ren compainiatic campoan egoitea, dela pe- na guztien gaineco pena? Ezta gaitz ihar- desten. Ceren nola limboco haurrac ezpai- taude han bere faltaz, eta ez bere beccatuac gatic, eztu nahi laincoac duten hec hargatic tristuaric, penaric, eta ez atsecaberit. Baina ifernuan daudenac, nola bere faltaz, maliciaz eta bere presunaz librequi eguin cituzten becc- atuac gatic, baitaude laincoaren compainia- tic campoan, hargatic, eta laincoac ere hala ordenaturic, dute tristura pare gabe bat eta atsecabe guztien gaineco atsecabe bat.

Eta haur da beccatuaren lehenbicoico pena eta gatzigua, beccatoreac içanen duena, laincoaren ez iccuftea, haren compainiatic, eta adifquidetafunetic seculatcotçat campoan guelditcea.

Beccatoreac ifernuan içanen duen bi garren penaz eta gatziguaz, cein deuen baita.
Pena sensus. Sensuaren pena.

C A P. L V I I.

E Guia da, handia da, laincoaren lo- riatic eta compainiatic campoan egoitetic, hel duden damua, eta cal- tea. Ordea ceren baitirudj ecen ha- la egon agatic ere, baluqueyela beccatoreac; cerbait consolamendu: edo ezlicattequeyela alde guztiz on-behar, eta ez osfoqui vrrical- quiçun, baldin nehon minic, edo oinhaceric ezpalu, hartatateotçat beccatorearen bi gar- ren pena, eta gatzigua, beccatoreac mereci duena, eta içanen duena da. *Pena sensus.* Sen- suaren pena, su eternala, acabatuco eztena. Eta pena haur emaiten çaica beccatoreari ce- ren laincoa vrricic, itçuli cen creaturetara: eta laincoaz, eta haren manamenduez baino, munduaz, eta munduco placerez contu guchi ago eguin çuen. Hala erraitendu San Thoma- sec. *Pena sensus respondet inordinata conver- sioni ad creaturam.* Pena hunez erraitendu San Matheoc. *Ite in ignem eternum.* Coazte su Math. 25.



eternalera ; accabatuco eztenera. Halaber eraitendu San Matheoc berac. *Excidetur & in ignem mittetur.* Eba quico da, eta sura egotico da.

Eta ezteçaquila ez pensa : ifernuco su hura, hemengo su hauc beçala içanen dela. Baina hura , nola içanen baita laincoa berac pirttua eta eguina , hala içanenda hemengo suac baino bero ago, eta gori ago: Halaco moldez ecen hemengo sua , hangoarequin comparaturic pitatua beçala içanen baita. Eta haur ezta miresleco ceren are hemengo suetan ere diferentcia handia da. Sufrezco sua, eta are egurrezcoa ere , bero ago , eta indartsu ago da , lastocoac baino. Hala içanenda bada halaber ifernuco su hura ere, hemengo suac baino bero ago, eta bortiz ago.

§. 1.

LUrrean barrena, gure azpian, lurrac duen leccurric beherenean, centruaren aldean, lurraren hondarrean edireitenda lece handi bat , labe gori bero bat , behin ere botzten eta iraunguitcen eztena : alde guztietaric herfistatheric eta leihoric eztena : condenatu guztien eduquitceco asco handia , cein baita, eta deitcen baita ifernua.

Eta han , ifernu hartan egonen dira condenatu guztiaç , alde guztietaric , campotic eta

barrenetic sus inguratuac , futuac, bu din gortua dagoen beçala. Eta guztiaç elccarrequin eta su batean:

Ordea venturaz dudatuco du cenbaitec eta erranen ere bai. Nolatan ahaldateque hori horrela ? Nolatan ahal dauteque condenatu guztiaç, elccarrequin leccu batetan, eta su batetan. Ceren ifernuan dauden artean , bada diferentcia , batac baino bertceac beccatu guehi ago du ; arraçoinda beraz halaber batac baino bertceac pena ere guehi ago duen. *Secundum mensuram delicti, erit & plagarum modus.* Hoberen a rauaz, içanenda gaztigua ere. *Quantum glorificavit se & in deliciis fuit, tantum date ei tormentum & luctum.* Cenbat atsequin, eta placer haitu baitcuen , hanbat eta hain bertce desplacer, eta atsecabe eman bequio. Beraz huneatan eztira condenatu guztiaç su batetan berdin egonen. Ceren hala baleude, guztieç berdin eta oro bat luquete pena, eta gaztigu. Bada ordea su batetan, guztiaç berdin, eta elccarrequin egonen dira. Ordea hargatic beccatu guehi ago duenac, pena guehi ago içanendu. Eta cergatic, eta nola içanen duen pena guehi ago , eman ahal ditezque bi arraçoin. Lehenbicoico da san Thomasena , eta haren hitçac berac dira hauc.

Deut. 25. Ap. 18.

S. Th 3. p. q 97. art. 5. ad 3.

Ad tertium dicendum quod ignis ille est instrumentum diuine iusticie punientis. Instrumentum autem non solum agit in virtute propria & per proprium modum, sed etiam in virtute principalis



agentis, & secundum quod est regulatum ab eo. Unde quam vis secundum propriam virtutem habet quod aliquos cruciet secundum magis & minus, secundum modum præditum, habet tamen hoc, non secundum quod eius actio modificatur ex ordine diuine iustitiæ. Erran nahidu. Ifernucosua hura laincoaren iusticiaren, boireroa, açotea eta muthila da. Eta halatan su harc bere naturalueçaren arauaz, bata baino bertcea erratcen ago eçpadu ere bai ordea erratcen ago du, laincoaren iusticiaren mithil begala. Ceren bere nabusiac manatcen duen begala, bat bederaren alderacotçat, bere berotafuna, eta indarra empletatu behar baitu. Eta halatan du erratcen ago eta penatcen ago beccatu guehi ago duena. Ceren laincoac, su haren nabusiac, hala nahi paitu.

Bi garien arragoia. Beccatu hanitz duena, eta gutiago duena, biac daude berdin ifernucosuan. Ordea beccatu guehi ago duen harc, pena guehi ago iragaitendu. Ceren hura min-bera ago, senticor ago, eta suari ihar defteco, eriago, flaco ago eta erbal ago baita. Bi prefuna daude iguzquian: eta iguzqui harc ez-tia batari deus senti aracite, eztio minic eguiren? baina bertceari, bere hala, burua min betatcen dio, iragaiten dio, icerditan ibentcen dio. Ceren hura baita bertcea baino flaco ago eta senticor ago. Hala da bada beccatu anbitz duena ere, guti duena baino min-be-

rago, senticor ago eta suari ihar defteco flaco ago. Eta halatan biac berdin su batetan egon agatic, ez tira biac berdin erratcen eta ez penatcen: baina bat bedera penatcenda bere duen faltaren, eta hobenaren arauaz.

§. 2.

O Rai hemon galdequin ahal diteque; ea ifernuan beroric baicen hotcie içanen denz? Eta bada erraiten duenic, baietz: eta nol ifernuan içanen baita bero handi bat, hala içanen dela halaber hotz handi bat, içotz, horma, elhur: eta ifernuan daudenac aldatuco direla batetic bertcera, bero handitic hotz handira, eta hotz handitic bero han diray Baina bitartean, batetic bertcera aldatcean; etçaiela penaric arin duco. Eta hunela erraiten dutenec: hartcen dute occasino, hunela erraiteco, lob guiçon faindu haren erran batetatic. *Ad calorem nimium transiet, ab aquis nivium, & usque ad inferos peccatum illius.* Iob. 24. Bero handira iragan bedi, elhur vretic; eta ezta ifernuraino baratuco haren beccatua. Beraz badirudi ecen ifernuan içanen dela, hotz; eta bero, vr; eta su.

Baina eguitico huri ihar defteco, aita Domingo Soto, Doctor handi hari iarraiqui



Vide. Dom. Soto. in 4. ser. dist. 5. q. vni. ca ar. 4.

nabi natçaica. Eta haren erranaren eta idu-
riaren arauaz , diot ecen , ez tala ifernuan iça-
nen elhurric , hormaric , eta ez bertce hotz
suerteric. Ceren gure salbatçailleac , ifer-
nuaz mintço denean , ez tu behin ere aipat-
cen elhurric , eta ez eguiten orhoit çapenic
hormaz , eta ez bertce hotz moldez. Ait-
citic erraiten deraue gaixtoey. *Ite maledic-
ti in ignem aeternum.* Coazte maradicatuac
fu eternalera , accabatuco eztenera. Ceren
hotcetic berora , edo berotic hotcera aldatce-
cotz , aldatu behar liçateque guehi ago pe-
natcea gatic. Baina hartaracotçat ezta hotcen
premiaric. Ceren bataz bortiz ago baita be-
roa hotça baino : eta bertcea ceren , suaz be-
raz emaiten bairio laincoac beccatoreari ,
bere dagocan gatzigua. Beraz badirudi ecen
alfer liçatequeyela hotça , beroa bera alco-
den leccuan.

Eta hala ifernuan cegoen aberatz auaricio-
fac ecin erdiefti çuen vr chorta bat bere mi-
hiaren heçatecco eta fiefçatecco. Eta bert-
cela , ere gaitz da aditcen eta erdieften , no-
la ahal dirateyen elccatrequin , edo bata bert-
cearen ondoan , ifernuco labe hartan , hot-
ça , eta beroa : behintçat batetic bertcere al-
datecco pontu hartan bedere , ceibait moldez
pena arin du gabe.

Eta Iobec erraiten duenean , iragan bedi
elhur vretic bero han dira , ezta ez , han Iob

mintço , ifernuco penez , eta ez han daudeci-
nez. Baina leccu berean iccus ahal diteque-
yn beçala , mintço da beccatoreaz : eta ez ,
ez edo cein beccatorez , baina adulterioan ;
bertceren emaztearequin dagoenaz , amoran-
tearequin bici denaz. Eta hari eguiten de-
rautça bere meharchuac ; eta egotzten deraut-
ça maradicinoac , erraiten duela. *Maledicta
est pars ejus in terra.* Maradicatu da hanc
lurraren gainean duen partea. *Ad calorem
nimum transeat ; ab aquis nivium.* Eguin be-
di elhurra beçain hotz debocinoan , eta sua
beçain bero malician : eta hotztafun hartaric ;
negutic vðara beçala iragan bedi ifernuco be-
rorafunera , eta ezta hareraino , han hel arteino
baratuco. *Vsque ad infernum peccatum ejus.*

Eta erraiten badu ere gure salbatçailleac
ifernuaz min'ço dela. *Ibi erit fletus & stridor
gentium.* Han içanen dela nigar , eta hortz car-
rafç - hotz. Ezta ez aditcen hortz car-
hotz hura , hotcetic heldu dela , eta ez hotçac
eraguiten duela. Baina hura eraguitendu ;
bataz , barreneco damuac , orhoitceac , nola
bere faltaz dituen eguitcco hec guztiaç :
ere berriz bertcea , suac emaiten dioen do-
lore handiac. Hanc gorputzcco parte guz-
tiac iccaratceintu , eta hortz - haguiney car-
rafç - hotz handi hura eraguiten deraue-
Eta hala ifernuan ezta elhurric , eta e-
bertce hotz suerteric , bethi da bero , eta su-



eta su hura ezta behin ere ttipitcen eta ez irau-
nguitcen. Eta ezta hare egurric ere behar,
eta ez aitzinatgaillec. Condenatuaren arima
bethi dago suan, eta bai gorputza ere egonen,
azquen iudicioco eguna iraganez guero.

9. 3.

A Rimac bere penac beçala, arimaren po-
tenciec eta botheréc ere, cein baitira,
adimendua; vorondatea, eta memoria iça-
nen dituzte bere pena moldeac, bere bereac,
eta bereciac. Adimendua egofico da bere
baithan barrena, hanbat pena eta hain han-
diac pairatu behar dituela consideratceaz: eta
gogoaren bertectara aldatecco, astiric ere ga-
be, bethi ere egonenda, pena hetan, pen-
fatecen, eta penatcen; vorondatea ere ibilico
da hasferretua herra errabiatu batequin lain-
coaren contra, ceren hanbat gaitz, eta pe-
na emaiten dioen. Bada memoria ere bere bai-
than nahafico eta neccatuco da, bere faltaz
hartara dela, eta bethi hala egon behar duela,
orhoitceaz.

Eta arimac eta arimaren potenciec beçala;
içanen dituzte gorputçac, eta gorputçaren
censuec ere, cein baitira vista, ençutea, vsna,
gustua, eta vquitcea, norc bere gartzigu molde

Visus.

bere gainezcoac. Lehenbicioaric. *Visus*, be-
guetaco vista içanen da penatua. Ceren ifer-
nucolupe hartan, ezpaitu deus iccuffico, ilhun
içanen baita. Eta suan egonen bada ere,
eta suac bere eguitez arguitcen badu ere ordea
badateque arguitu gabe: edo egurra dela cau-
sa içanen baita sufitea, ceinec ezpaitu argui-
clanic eguiten khe ilhunic eta beltzie bai-
cen. Edo leccua dela causa, içanen baita lur-
rean barrena, alde guzei etaric herfia leihoric
eta atheric gabea, hats hartceco, eta arguiren
edo haiceren sartceco bideric ere içanen
eztuena.

Eguia da ordea, ezta ez choil, eta alde
gutziz ilhun ere içanen: Argui asco içanenda,
lanhope batean beçala, elccarren iccuste-
co: eta iccuste hartçaz guehi ago penatceco,
eta tristetecco. Ceren tristura handia eteci-
bituco dute, noiz eta bere lagunac; ceine-
quin, beccatu eguin baitçuten, eta ceine n ga-
tic galdu baitçiren, iccusten baitituzte bere be-
guen aiteinean. Hala emaitendu adicera San
Gregorioc. *Quamvis ignis ille, non luceat
ad consolationem, lucet tamen ut magis torqueat*
Ifernuco su hare arguitcen ezpadu ere conso-
latecco, bai ordea arguitcendu, eta arguitu-
co du; guehi ago penatceco eta malencon-
latecco. Ceren argui lambo harequin batean;
iccuffico dute hanbat liquitqueria, han-
bat spiritu gaixto eta itfufi: hain compainia

Greg.
li. 9.
Moral.



ici garría hain su handia, ilhuna eta khetfua; non beguietaco vista hemén gauça ederren eta placent iccusteaz, vanoqui loriatu ceta, han gauça itsufien, icigarríen, narda garríen eta atsecabe-corren, begui-esteaz doloretzqui penatuco baita.

Auditus Halaber. *Auditus*, ençutea, beharriac içanen dira penatuac, eta larrico dira harrítuac. Ceren eztute ençunen, oihuric, nigarric, marrascarie, deihadarric, deithoranic, auhenic, eta nigarric baicen. Hango cantuac, leloac, eta bozcarioac, içanen dira, ayac, hatf-bethera penac, inciriac, nigar-chopinac, eta arrencurac: bethi ere arnegatcen, eta maradicatcen dutela, bere buruez, eta erori çaien çorthe gaixtoaz.

Odoratus. Halaber. *Odoratus*. Usna, sudurrac içanen dira penatuac, vsain gaixto batez kbiratz handiaz. Ceren bat azquen egurean iautsico baitira, gaixtoequin batean; munduco hatsqueria guztíac ifernura: eta berriz bertcea. Ceren nola ceruco lorian daudenec içanen baitute vsain ona: hala ifernuan daudenec içanen dute gaixtoa: eta vsain gaixto hartçaz, egonen dira bethiere sudurrac betheac, eta khiratuac.

Gustus. Halaber *Gustus*, gustua, ahoco çaporea içanen da penatua: bat az gossez, eta egarriz, eta bertcea, cenbait ianhari vrdinduz, eta

idari çurmin duz. Hemen hemengoec beçala, han ere hangoeç besta eguinen diote. Ordea differentqui. Hemengo goçotafuna, eta han edaneco placera, hango mintafunaz eta rianda gaixtoez, ahantz aracitcen derautatela.

Halaber. *Tactus*, vçuitcea, presuna guztía içanenda penatua. Ceren eztu nehoré han, furic, çharric eta gauça liquitz narda garríen baicen vtquituco.

Finean nola orai hemén sensu guztíec eta gorputzeco parte guztíec, hartcen baitute atleguin eta plazer: hala han halaber, hartuco dute guztíec, damu eta atsecabe, pena eta dolore, min eta oinhace. Han içanenda dolore guztíen eta gaitz guztíen iunta, vilgura eta batçarrea. Han içanendu condenatu on beharrac buruan min handia, hortz-haguinetan oiñace bortitça, bihotcean dolore errabiatura, gorputcean cota, harri, iccarra, succar, finean ahaldiratequeyen eritasun guztíac. Han bat gairz eta dolore içanendu, non dolore hutsez dolore bihurtuco, conuertituco eta eguinen baita.

Hemengo eritasunec eta oinhacec, eztute comunzqui, behin ere gorputz guztía offoqui hartcen. Batean beguietan duçu min, eta ez orduan beharrietan: bertcean escuetan eta ez oinetan. Eta hanelatan parte batean min içan agatic, eztuçu bertcean min,



§92 IFFERNUCO VELDURRAC BEHAK

eztuçu oinhace offoa eta ez guztietacoa. Eta ala baina parte batetaco oinhaceac berac, haquin batetaco minac, hain penatcen, eta affaldatcen çaitu, non gau guztian, loric eguin gage eduquitcen baitçaitu. Cer ligateque bada baldin gorputz guztian, eta gorputceco endrecera, aurquientça, iuntura, eta parte guztietan, offoqui, berdinzqui, eta batetan oinhace bacendu, eta oinhace harequin errea batetan, guztieç vrcia, baceneuntça? Orduan cinez cinatque on-behar, ondicozco, eta vrricalquiçun. Hala da bada, eta are vrricalquiçun ago, ifernuco penetan da goena. Ceren hura da offoqui guztia eta guztietan eri: hura da guztietan minez eta oinhacez gainez eguina: eztu bazterric, eztu huts-gunic, guztia da bethea. Eta onqui da hala den. Ceren nola gorputz guztiaz, eta gorputceco parte guztiez, offoqui, beccatu eguin baitçuen, arraçoin da halaber, gorputz guztiaz eta gorputceco parte guztiez offoqui paga deçan, eta guztietan den, alde guztiz penatua, gatzigatua, eta oin hazceztatua.

§. 2.

O Inhacè hec, dolorezco dolore hec; emaiten çaitça ifernuan da goenari, differentçui, eguin cituen beccatuen, differentçien arazi

TUELA CUÇAMENDUAC LABURTU. 593

uaz. Han vrguillua, handi, nahia desohorezqui oinen azpian erabilico, eta ofsticatuçoda. Han auariciofa, diruz betheric cegoena edo egon nahigüena necessitate handian, munduco beharic behar era baino, beharreaço iarricoda. Han-sabel-darraio, golofa, lamitia, ian edanera emana, gulura eroria, golez, eta egarriz, vr chorta bat ere ecin eidietfiz, amitua ibilicoda ffacatua, eta iragana iarricoda. Han arnegaria, mihitic vrecatua dilindaca egonenda. Han emaccoia, haraguiaren lohian lieurdua, eta hidoiztatua ibili dena, Deabruçici garriec bere atçapar çorrotceç, ferecatuco, larutuco, eta halacoari dagotçan beitece pena molde batçuez penatuco dute.

Are guchi ago, ifernuan auariciofac auariciofequin: ohoinaç ohoinequin: arnegarriac arnegariequin, finean quideac quidequin, eta ffuerteco-quin egonen dira, bereciac, eta partelatuaç. Hala emaitendu aditcera fan Ma. Mat. 13. theo Evangelistac. *Colligite primum zizania. & alligate ea in fasciculos ad comburendum.* Biltçatçue belhar gaixtoac, biltçatçue multçuca, eta çamaca erratceco elcarrequin. Eta nahi baduçue iaquin cer den hunela. multçuca, eta çamaca vilduric erratcea, declaratçendu fan Gregorioc *Fasciculos ad comburendum ligare, steos qui eterno igni sunt traditi, pares cum paribus sociare, ut quos similis culpa inquinat par etiã pena constringat.* Belhar gaixtoçamac, multçuaç

Greg.
lib. 2.
Moral.
cap. 47.



escumenac, edo escutarac elccarrequin errateco vilteca, eta lotcea, ezta bertce gauçaric, ifernura behardutenen, ohoina ohoinarequin, arnegaria arnegiarequin, quidea quidearequin compainiateca, eta iuntateca baitcen. Halatan beccatu eguitean, culpan, eta hobenean, berdin içan cirçnac, penan, eta gaztiguan ere diren berdin, eta batean begala bertcean ere, elccar eduqui deçaten.

Psal. 43. Halacoz mintço dela erraitendu Erregue Dauitec *Sicut oves in inferno positi sunt, mors pascet eos.* Ardi arraldeac begala tropelaca, eta parcelaca ifernuan egonen dira, herioac bazcatucoitu, herioa içanenda hequen bazca, eta bai hec ere herioaren. Condenatuaren penateca comparatcenda ardiaren belhar iatearequin. Hala dio san Gregorioc. *Depascere dicitur. Qui sicut ovis depascens herbam, non eam radicitus evellit, sed ita pascit, ut manente radice iterum herba crescat, ut iterum depascatur: ita mors semper depascit miseros, quia semper illis relinquitur vita, ut tormenta valeant suslinere.* Nola ardiacezpaitu behin ere belharra osloqui accabatcen, eta ez erroetarie atheratcen; baina gaineco ostoa ian, eta vtzten baitu bethiere barreneco erroa, eta çaina, berriz ere ostoa eguinic, berriz hartarie ian deçaquyen begala: hala herioac, penac, doloreac, minac; eta oinhaceac iaten dute condenatuataric, behin ere erroa athera gabe, bicia accabatu ga-

be. Halatan bethi ere bicitcen direla, bethi ere penatceco. Eta hala hequen bicitcea ezta bicitce, eta ez heriotcea heriotce. Ezta bicitce ceren ezpaitu ontafunic, eta ez consola-menduric. Ezta heriotce, ceren ezpaitu accabatceric. Arracoi nequin erraitenda halacoa gatic. *Bonum erat ei, si natus non fuisset homo ille.* On çuqueyen forthu ezpaliz, edo forthu, eta bere hala huitu, hondatu, eta ez deus bihurtu baliz. Ceren san Thomasec dioen begala. *Melius est non esse, quam male esse.* Hobeda ez gaittea, gaizqui içaittea baino. Hunen arauaz erraitendu iondone Ioannes Euangelistac ere. *In diebus illis desiderabunt homines mori, et mors fugiet ab eis.* Egun hetan, orduan penetan daudenec, desiratuco dute bere egunen lona, eta accabantça, hil nahico dute; herioaren bilha ibilico dira, baina alferrie, eztute editenen. Ceren herioac hetaric ihes, eguinendu, halatan bethiere bicitcen direla, bethiere penatceco. Ceren penatcea hiltcea baita.

Matth. 26.

S. Th. 39. 9. 98. ar. 3. in corpore. Apocal. 9.

S. 5.

ERran beharda handia dela ifernuan daudenec duten miseria; eta ondicoa, orai guc hemen gutien nahi dugun gauça; çein baita heriotcea, hec han hura guehienic bilhatcen, eta desiratcen dutenean.



Ha. 66.

Eta ezta miretseco, hec han hala desfratceca. Ceren bere baithan erreac deseguinac, eta alde guttiz desconsolatuac baitaude. Campoan suac errateintu, eta barranean hara alha çaye. Eta har hartçaz erraitendu. Isaias Prophetac. *Vermis eorum non morietur.* Hequen harra ezta hillen. Eta har hura ezta ez hemengo har hauc beçala, haraguz eguina, eta bicirik dabillana. Baina hura da concientiaren accusamendua, ausiquia, alhadura, chimicoa, erañçutea: eta ifernuan daudenec bere baithan duten damua, vrriquia, eta orhoitcea, nola içan çuten indar, antce, ahal, escu, eta bothere, pena hetaric guztietaric escapateco: eta nola guztiarequin ere, bere faltaz etciren escapatu, bere faltaz galdu eiren: era vtci çuten escuen artean, içan çuten dembora, occasinoz, eta appaillua probetcharu gabe iragaitera, eta galtcera.

Eta hunela orhoitce hunec, accusateintu; larrutceintu deseguiteintu, erraiten duela bat bederac bere baithan. Ha ene galdua, ene goro adimendu gabea, certan pensatcen othe nuen nic, bici nintcen demboran, neure burua neure escuco nuenean? Anhitz etan erran ceitan, nori berea bihur niçola: etsaiarequin adisquide nendilla: iuramentu eguiteco vfança vtz neçala: Behar eten emazteari aparta nenguiola: finean guiniistino beçala laincoaren manamendu sainduen arauaz, eta

ereduz mantena nendilla, eta ezpere orai naiten eguitecoan içanen niatecla. Bana, nic, hunela erraiten ceitanean, irri eguiten nuen, eznuen sin besten.

Bada orai paga deçadala; leccu dolorezco hunetan, hunenbat dolorequin, eta dolorezco lagunequin, mendez mende, seculacotçat gueldi nadilla. Ceren hala dut mercedi. Eznuen erein, ezta arraçoïn vil deçadan. Eznuen irabaci, ezta arraçoïn goça deçadan. Eta neure dut falta, eztu bertceç parteric: ecin demaiot bertceri atchaquiaric, neure neure burua galdu dut.

Hauc dira ifernuan daudenen solhasac: hauc dira hequen arteco dolorezco peçausac. Orhoitcen dira, nola bere faltaz hain on behar errendatu diren: eta orhoitce hunec bere baithan egoiteintu, malenconiatceintu. Eta haur da gau, eta egun, behin ere aslegabe, fosegatcera vtci gabe alha çayen, eta albaco çayen harra: probetchu gabeco vrriquia, dembora loanez guerozco, damua, dolua, eta nigarra: Cein baita, ifernuan daudenec duten pena handietaric bat. Ceren cer ahaldateque; pena, pena gari agoric, eta bihõtç ordia gartierdita gari agoric, bere buruaren secula fin gabecorçat, erremedioric gabe galdua, eta bere faltaz galdua icustea, eta orhoitcea, baino? Ha orhoitce tristea, pena gamma, eta penataric ilquiteco esperantça gabea.



*Nola infernuan daudenec ezuten handic
ilquitceco esperantçaric.*

C A P. LVIII.

HAndiac, eta icigarric dira ifernuco
pena hec. Eta baldin oraino, pena
hequen nehoiz accabatceco, arint-
ceco, laburtceco, edo gutitceco, es-
perantçaric baliz ere: badirudi baligatequeye-
la cenbait consolamendu. Baina hanbat pe-
na, hain handiac, eta finic ez, eta ez finic icai-
teco vsteric ere, haur da gauça latça, haur da
aitcin guibel beha aracitceco, eta gogoeta
eraguiteco, pontu icigartia. Ceren esperant-
çaric eztuena, presenteco penac beçala, ethor-
quicunecoac ere penatendu: hura ere icu-
stendu: hura ere presentean beçala, eta
bere gainean beçala daduca. Ceren baitaqui
harentçat da goela, eta eztela accabatuco.

Oraï hemen doloz, eta oinhacez ingura-
tua çaudenean ere, edireitenda cenbait bide
hats hartceco, eta consolatceco. Eri çate-
nean, ethortcen çazquitçu adifquideac icu-
stera, eta hec appur bat gaitça arintcen de-
ratçute: Midicua visitat cera, hanc ere esport

çatcençaitu. Eta guztien gainetic bethi ere
bici çara, gaitça arinduco çaitçulaco espe-
rantçan, eta esperantçi hanc consolamendu
handia emaiten deratçu. Baina ifernuco
eritafunean, hango penetan, halaco moldez
claude esperantçaren atheac hertsiac, eta por-
tuac hartuac, non hala dauden dolozcoec
eta han daudenec, ezpaitute nehondican ere
consolamenduren sartceco arguitic icu-
sten. *Clausæ est ianua.* Hertsi da halacoent-
çat misericordiaren arthea, vrricamendua-
rena, arartecotafunarena, mericimendua-
rena, garaciarena, finean ontafun guz-
tiena.

Aberats auaticiosa ifernutic erratcen ce-
goen lecutic, hafi ceican oihuz, eta
othoitçez Abrahami, erraiten cioela. Aita
Abraham, badaçsaçu nola nagoen, fu hu-
netan errea, eta idor elcortua, euçu ba-
da nitçaz misericordia, eta egor iaçadaçu
Lazaro, hanc bere erhi puntaz, vrean butti-
tic, mihian vtqui naçan, appur bat heça na-
çan. Esque haur eguiten deratçut, haur da
ene othoitça.

Cer esque escas agoric, edo othoitç ttipi ago-
ric eguin ahal ciaçaiou? Etceican aufartu o-
thoitçtera, egor ciaçola pitcherbat vr, edo es-
cu guztia vrean farceçala, eta ez are, erhi guz-
tia ere. Baina haren desircunde guztia cen;
erhi punta vrean far ceçan, eta hartçaz



mihia vtqui cíaçon, placer hura eguin cíaçon. Gauça appurra cen, desircunde ttipia cen. Baina hura ere, ttipi ago bacen ere, et çuen erdietsi, hain bertee placer ere, erceican eguin. Iaquin deçagun eeen hartaraz guero den placeric ttipienari, eta consolamendaric appur enari ere, atheac hertsi çaitztela.

Itfas, çabalean erortcen denac, badarabileça cerbairi lothu nahiz, escuac, hersteintu: baina alferric. Ceren eztu limbuitcen, eta itçurteen çaicen vr engana garric baicen edireiten. Hala guerthatcen çaye bada, ifernu çabal, bondar gabea, erortcen direney ere. Eztute edireiten, non oina fintca, eztute edireiten, ceri lot: eztute edireiten guirthanic, escu toquinic, sostenguric, eta ez-consolartecco bideric, eta ez esperantçaric.

Bada consolamendu gabeco, fin gabeco; eta fin içaiteco esperantçaric gabeco, pontu hunetan nahi nuque iben bacinitça beguiac, huni beha baciniaco, haur considera bace-neça: eta animalia fuerte batçuec, gauaz haufnaur eguiten duten beçala, çuc ere gauça hunetçaz, cenbait aldiz bedere, haufnaur, eta gogoeta eguin bace-neça.

Eta hunetacotçat, considera eçaçu, eriac gau lucean iragaiten duen trabailua, guztiz ere eritafuna çorotça, eta botirça dencan; nola irautalcenden: nola orenac contaccen dituen: cein luce iduriteen çaitçan, eta nola arguia

arguia desiratcenduen. Bada baldin hemengo çetari, hemengo gaua, hain fite iragaiten dena, hain luce iduriteen baçaica: Cer iduriteco çaica ifernuan dagoenari, hango gau luce eterno, fin gabeco hura? Ha gau lucea, gau beltz, ilhun, ici garría, argui vrratcegabea, oil-lariteric içanen eztuena, secular arguituco eztena, eta ez accabatuco! Cer pena, cer dolore, eta ondico içanenda, arguituco ezten gau hartan, ez hemengo eriac beçala, ohe bera onean, baina labe gori beroan, fuguina gogortean secularcotçat erçateca, eta egoiteca? *Attrahonequin galdeguitendu Isaias Prophetac: Quis habitabit de vobis cum igne devorante? Quis habitabit de vobis cum ardoribus sempi-* Isai. 33. *ternis?* Halaco leccuan, hain fu beroan, garternalean nor egonenda? Nor bicicoda? Norc irauendu? Norc içanendu forbaldaric sostengatecco? indarric iasaiteco? Eta pairuric, eta pacientiaric sofritecco? Oraí hemmen den penaric ttipienac, fu ihar batec quiçicatcen çaitu, assal daccen çaitu: cer içanenda bada, fus, eta kharrez, campoan eta batreçanean, ariman, eta gorpuccean, hartua, inguatua, eta burdin goritua beçala, goritua, eta futua çaudenean? eta secularcotçat hala egon beharco duçunean? Othe dugu centçuric? Othe dugu adimenduric? Ala elheac, ametfac, edo gureçurrac, othe dira hauc? Edo garequin mintço othe dira? Guri othe dagozquigu, ala



bertceri ? Fedec erraiten deracu , guri dagoz-
quigula , gurequin mintço direla , gureac , eta
guretçat direla. Eta eztiela ez elheac , ez
ametfac , eta ez gueçurac : baina eguiac , eta
eguiazqui (baldin hobequi governatcen ez-
pagara) iragan beharco ditugunac direla)
Edo hobequi minçatcera : behin ere iragan
gabe , bethiere egoitçaz , gurequin egonen
direnac , direla.

Ceren oraino , penac hec , bertce penèn ar-
tean , içanen dute pena haur ere guehi ago-
egonen baitira bethi ere estatu batetan ;
egoitça batetan , molde berean , bethi verde-
Etza ihartceric , ezta ttipitceric , ezta muthat-
ceric , eta ez aldatceric. Mundu hunetaco
gauçac eztaude behin ere crozca batean ;
igaiten , eta iautsten dira : eguiten , eta dese-
guiten dira , maiz aldatcen dira. Baditu itfa-
foac bere gora beherac , bere mareac , eta
muthantçac. Prefunac , haciendac , etcheac ;
onac , eta eritafunac ere , eztaude behin ere
baretan. Ezta succarric hain handiric , non
pontu batetara iganez guero , ezpaita behei-
titen , eta ttipitcen : eta ez oinhaceric ere
hain çorrotçic , eta bortitçic , gorenera de-
nean , ematcen , eta eztitcen eztenic. Finean
munduco treballu guziac , eta eguitecoac ;
demborarequin batean , hautsten dira , irau-
guitcen dira , ezeztatcen dira : baina ez iferru-
cofua , eta pena. Pena hura bera da , eta ez

bertceric bethi verde , estante batean dagoe-
na , muthatcen eztena. Hango succarra , eta
berotafuna , ezta behin ere iabaitcen , eta
ez beheititen , bethi dago goren pontuan ;
eta leheneco contuan. Cer ahal dateque
bada tormenta handi agoric , eta necca gar-
ri agoric , bethiere leccu batetan , eta mol-
de berean iguitu gabe , aldatu gabe , eta mu-
thatu gabe , harritua beçala , penatan , gueldi
egoitea baino ? Munduco ianharriric precia-
tuena ere , bethiere hartaric , bertcetara alda-
tu gabe , iaten denean , gaitzestenda , higuin-
cenda.

Ecin çatequeyen gure artean ian hari hobe
agoric , eta ez vianda goço agoric , laincoac
berac Israëleco femey cerutic eman ce-
raena baino. Ordea ceren hartaric beretic ,
bertcetara aldatu gabe , bethi ere iaten bait-
guten , hain higuindu ceyen , non iateracoan
gora-gale bat ethortcen baitceyen. Eta hala
she on batean ere , behin ere higuindu gabe , al-
de batera edo bertcera itçuli gabe , bethi
gueldi egoitea . eta etçatea ere cer pena liça-
te ? Norçpaita leçaque ? Bada baldin dembora
linceaz leccu batean dagoena ongui badago
ere penatcen , eta neccatcen bada , cer iça-
nenda pena eternalcan , su fin gabecoan da-
goenaz.



§. I.

NAhi baduçu iaquin cer den su fin ga-
becoa, accabatuco eztena, frogatcen
duten ondicozcoec daquite, eta ez bertce.
Baldin galdeguin balaçote orai Judasi: Er-
raçu discipelu gaixtoa, ceure nabusiaren sal-
çaillea, cenbat dembora du, barren horre-
tan, ifernuco pena horietan çaudela: Ihardets
leçaque-Badu milla, eta feyetan ehun vrthe,
eta guehiago. Eta orduan lehenbici pena ho-
rietara cinenean cer çor cenduen? Pena eter-
nala, accabatuco eztena. Eta hemendic
bertce milla, eta feyetan egun vrtheren bu-
ruan, cer çoriçanen duçu? Oro bat orduan
ere hastean beçala, pena eternala accabatuco
eztena.

Ezta aitcinatcen, eta ez guibelatcen, be-
thi dago egoitça batean. Crozca batean. Ez-
ta behin ere ifernuco obligantçaren censua, eta
interesa iraunguitcen, eta ez pagatcen; be-
thi da çor principala interesarequin.

Eta nola ifernuan daudenec hanbat pena
iragaiten baitute, eta pena, herçaz cerbait
pagatcen dutela, edo pagatu behar luçete-
la, badirudi ere: eztute ordea pagatcen be-
thiere date oro bat çor. Ceren nola voron-

date gaixtoan, eta malician oftinatuac, go-
gortuac, eta itsutuac baitaude, eta iragaiten
duten pena ere, ez vorondatez baina bort-
chaz iragaiten baitute: eta pagatceco, eta me-
ritu erdiesteço dembora ere iragan baitçaye,
ezterae laincoac deus ere hartcen contu-
tan. Bethiere, lehen deus iragan ezpailliz
beçala, hasten çaye bere pena. Ehun milla,
milla vrtheren buruan, hain vrhun egonen
dira pagatceic, nola lehenbicio sarthu ciren
egunean, eta orenean.

Orai hemen pena appur batez, bihotz ez-
co vrhiqui mendu batez, eguiaczco confes-
sione batequin erremedia ditçaqueçu. Ceure
beccatu guztiaç. Ceren orai laincoaren mi-
sericordiaren atheac idequiac baitaude: eta
çuc ere orai ceure vorondatea libre baituçu,
eta librequi bertce aldera gaixtotic onera it-
gui baitçaqueçu. Baina ifernuraz guero gal-
dudu libertateac bere indarra: itsutu da adi-
mendua, gogortu la vorondatea, accabatu di-
ta animaco feriaç, hertsi dira misericordiaren
atheac. Ainguitu gaixtoac beccatutan erori-
cirenean, guelditu ciren malician gogortuac;
eta erremediotic gabe seculacotçat galduac;
hala guelditcen dira bada beccatutan hilt-
cen direnac ere, hil ondoan seculacotçat er-
remediotic campoan *Si ceciderit lignum ad Au-
strum, aut ad Aquilonem in quocumque loco ce-
ciderit ibi erit.* Çuhaitça norat ere erortcen



baita, nahiz iguzqui haicerat edo mendebalerat : escuinerat , edo ezquerterat , errotcen den leccucan guelditcenda , ezta handic higitcen : ez eta , bebin ifernura erortcen den beccatorea ere , ezta guchi ago iaquitcen , eta ez iaquitceco esperantçarequin guelditcen.

Baldin Ainguru batec erran baliace laincoaren partez , ifernuan daudenez. Ea iende penatuac inda que albiriste , berri on bat eman nahi deratçuet. Ha launa erraçu cer : Ceren beharrean gaude. Iaquin behar duque ecen lurretic hafi , eta ceuraino mundu guztia ediqui ahal deçaqueyen artho bihi contu becenbat vithez , pena horietan egon çarete nean , ilquiteo çaretela hortie , oduan çuen penac accabatuco direla. Edo erran baleque halaber , laincoaren partez. Iaquique ecen itasoco vr guztia , eta munduco bertce vr guztia chin haurri batec , vithean bebin ; bere aslea edanez , çhuta , agor , hondar , eta accaba ditçanen , accabatuco direla çuen horco penac ere. Hunela erran baleque , aleguerateque , esportça litezque , ezluquete handic aiteina , leheneco penaren erdia. Ceren noiz baiteco esperantçarequin consola bai litezque. Eta arraçoinequin consola litezque. Ceren lurrac , ehun milla millaren ere , ediqui ahal deçaqueyen artho bihi contu baino , vithe guchi ago egonen baitira , eta egon be-

harco baitute pena hetan. Eta chin haurri batec ere , milla vrthetarie , milla vrthetata bebin edanez , leben agor , çuca , eta accaba bailitçaque munduco vr guztiaç , itasoa bera barrenan dela , hequen penac accabatuco diren baino. Ceren den gutienaz ere , behi gutitcen dena , eta ez behin ere berretcen , noiz bait accabatuco da : baina ez ifernuco pena , ezta secular accabatuco Ceren irautez , eta iraupez baita fin gabe , eta infinitu.

§ 2.

GOgostan iartcen naicencan , cer içanen den ifernuco pena hartçaz , noiz accabatuco den ; eta finic ecin iceus , accabatceric ecin ediren , hondarric ecin erdiets , guelditcen naiz , vençutua , errendatua , non naçoen eztaquidala. Ceren nola laincoac ezpaitu içanen finic , eta ez accabatceric : hala ifernuco penec ere ezture içanen finic , eta ez accabatceric. Ceren irauenen baitute laincoac dirauen bitartean.

Ha mundu çoroa , guiristino itfu , adimendu gabea : hemengo pena appur batez , oren bateraco minaz , eta oinhateaz , hanbat casu , eta contu eguiten duçuna , eguicça halaber cerbait contu , eta gogoeta fin gabeco mende hartçaz ere ; orhoitçaiteci secula , secula gabeco , secula hartçaz : esperantça gabeco , behiere , hartçaz : eta orhoitçaiteci vtzquitça



laçamenduac ; guerotie guerora ibiltceac ;
penlu gaixtoac eta maliciac.

Ifernuan daudenec auitz milla vithez ;
pena hetan egonez guero , iccuffirie bere pe-
na iraganez ezutela bat ere probetchuric :
confidera ahal diteque , ecen bere gogoetan
trifieric , eta ilhunic , mingatuco çairçala lain-
coari , eta erranen diotela. Cerda haur lain-
co handia , non da çure misericordia , vrrical-
mendua , eta pietatea ? Nolatan duçu horrein
bihotz gogorra , eta alçairuzcoa ? Noiz ar-
teino egonen gara hunein penatuqui , lecu
penatu hunetan ? Noiz asco etfico duçu çure
hanela eduquittea ? Anhitz milla vithe , an-
hitz mende du , hemen gaudecilla. Cer iça-
nen da bada gutçaz : Noiz ilquitco gara he-
mendic ; thardetfico çaye. Ha galdeac , onta-
fonic mereci eztuçuenac , eta içanen ere ez-
tuçuenac , erremediotic campoan çaretenac.
Galdez çardete cer içanen den çuetçaz : noiz
ilquitco çareten hortie. Igutiçaque oraino
appuibat , goiz vrgoitu çarete. Iaçtin behar
duçue ecen , çuen penac , eta doloreac , oraino
orai hasten direla : eta hemendic bertce hor-
rein bertce vithe ren buruan ere , oro bat or-
duan hafico direla. Gal eçaçue gal hortie il-
quitceco esperantça. Ceten secula fin gabe-
cotçat hor egon beharço duçue.

Errepueña haur hunein hotçat , motça eta
gogorra ençun deçatenean , noie penfatuco.

du , cer eguinen eta erranen duten ? Cer senti-
mendu eracutifico duten ? Hafico dira oihuz ,
hafico dira deihadatrez , nigarrez , eta marra-
caz : hafico dira bere ondico handiaren deiho-
ratcen eta auhentcen : hafico dira bere buruen
maradicatcen , beguitatén larrutcen eta aç-
parcatcen. Eta gueldituco dira , alde gutriz
dolutuac , etsituac , desconsolatuac , eta defef-
ratuac , nehon dican ere , erremediotic , confo-
lamenduric , eta esperantçaric ez tuen bat , guel-
ditcen den beçala.

Eta cergatic haur hunela ? Cergatic hunen-
bat gaitz eta pena ? Eta cergatic fin gabe , acca-
bantçaric gabe , eta accabantçaren içaiteco ;
esperantçaric ere gabe ? Cergatic ? Beccatu
mortal baten gatic. Ceren asco da bat. Bec-
catu mortal , hain errazqui laburzqui eta dem-
bora gutitan eguiten den baten gatic. Hain
gutitan non baitirudi ecen bide gabe eguiten
dioela laincoac beccatoreari , buru irçuitec
batez eguiten den beccatua gatic , seculaco
gazitguaten emaitteaz. Baina eztio bide gabe-
rie eguiten , hunen hurreneco capituluan ,
aguerico den beçala.



10
Ea cergatse hain dembora appurrean, eta laburrean eguiten den beccatuari, emaiten çaican, hain gastiçu handia, lucea, eta seculacoa.

C A P I T U L O L I X .

E Guia da, badirudi bide gabe eguiten çaicala beccatoreari, hain dembora gutitan eguiten den beccatua gatic, hanbat demborataco gastiçaren emaitiaz. Baina arraçoïn guztia onguï pensaturic, eta consideraturic, edirenendugu, eztela hartan bide gaberic eguiten. Aitric iustuqui, eta çucentqui, den beccatu mortalic tripienari ere, emaiten çaicala seculaco pena, eta pena infinitua. Ez infinitua, intensiue bortitzafunez. Ceren halaco pena ecin iasan deçaque creaturac. Baina infinitua. Exensiue, irautez eta iraupez, cein baita, seculan accabatuco eztena.

Eta emaitendu arraçoïnac San Thomasec bere hirur garten partean. Eta emaitendu lehenbicoa.

Dembora gutiz, eta laburzqui eguiten den beccatuari, emaiten çaica seculaco gastiçua.

emaiten çaicala gastiçu lucea 617

Quia peccatum est, contra Deum summum bonum quod est infinitum. Ceren beccatua baita laincoaren contra, cein baita infinitu. Beraz gastiçua ere eman behar, çaica infinitua eta accabatuco eztena.

Baldin lurreco Erregue bati behar-ondoco bat emaiten dioenac gastiçu handi agoa mercei badu, edo cein bertceri emaiten dioenac baino: cinez merceico du gastiçu handia, laincoari berari, mundu guztico Erreguari, emaiten dioenac: Nola beccatoreac, bere alde tic denaz beçan batean, emaiten baitio, beccatu mortal bat eguiten duenean.

Eta hunetacotçat, hmen ere, munduco leguen arauaz ere, emaiten ohi çaica, anhitçentan ere, dembora gutiz eguiten den faltari, oheinqueriari, heriotçeari, edo bertce gaixtaqueria bati, gastiçu handia eta lucea; desterrua, galerac, eta batçutan heriotce penatua ere.

Oraino, eguia hunen frogateco beha diaçogun onguï, guçonaren beccatugatic eguicen pagamenduari, eta satisfacioneari, eta eddirenendugu, arraçoïnequin emaiten çaicala; dembora gutiz eguiten den beccatuari seculaco gastiçua. Ceren beccatuaeren bere bidean, eta osloqui. *Ad aequalitatem iustitiae*, berdinzqui iusticiaren arauaz pagatçeco, behar içatucen, prefuna infinituaç, lainco eta guçon cenac paga ceça, eta hartaracotçat, heriotce errec bitu

C c v j

S. Tho.
3. part.
q. 99.
art. 11.



çuen. Halatan çorra beçala , pagamendua ere içaiteco infinitu.

Eta hala , orai pagamendu hartçaz , laincoaren pasione fainduaz probetchatcen denac , erremediatcen , eta pagatceintu bere beccatuac. Ceren baldin beccatuac mereci badu gatzigu infinitua , halaber eguiten duen pagamendua ere , cein baita pasione fainduaren meritua , eta valioa infinitu baita. Baina laincoaren pagamendu hartçaz , haren pasione fainduaz , eta infinituaz probetchatcen eztenac , eta probetchatu gabe hemendic ilquitcen denac , nola çor infinituarequin ilquitcen baita , iustuqui eta arraçoinerequin pairatcendu eta pairatucodu , pena infinitua , finic , eta acçabatceric içanen eztuena.

§. I.

D Embora gutiz eguiten den beccatuari ; emaiten çaiça gatzigu lucea , eta seculacoa. Ceren beccatuaren gatzigatceco , ezta ez hain considerateen , beccatuaren eguitean iragaiten den dembora , eta bitartea , nola consideratcen baita , eta contutan hartcen , beccatoreac beccatu eguiteco , içan çuen gogoa vorondatea , eta deliberamendua. Ceren beccatua berequin duela , eta beccatu eguiteco gogorequin dagoela , hiltcen denac , guehiago bici içan baliz , beccatu guehi ago egui-

nen çuen. Nahi çuqueyen guehi ago bici , beccatu guehi ago eguiteco. Accabatcen çaiça bicia , ez ordea beccatu eguiteco gogoa , eta nahia. Halacoari , eta halacoey guerthatcen çaye , gauaz candela arguitan , iocoan hari direney , guerthatcen çayena. Guelditcen dira locotic , ceren accabatcen baitçaye candela : Iraun balu candelac , bacirauen iocatceco gogoac. Hala dira bada beccatutan hiltcen direnc ere. Iraun araci albaleraucate guehi ago biciani , beccatu guehi ago eguinen çuten. *Voluissent sine fine vivere, ut sine fine possent in peccatis permanere* (Dio San Gregorioroc) Nahi çuqueten fin gabe bici , fin gabe beccatutan egoiteco : eta halatan fin gabeco gatzigua ere emaiten çaye. Ceren oraino San Gregorioroc berac dioen beçala. *Ad magnam iustitiam iudicantis pertinet, ut nunquam careant supplicio qui nunquam voluerunt carere peccato.* Arraçoin da , iustificatzen arauaz da , ezitcein behin ere , penatic , eta gatzigoric gabe egon , behin ere beccaturic gabe egotu nahi etzirenac. Eta hala arraçoin hunen gatic dembora gutiz , eta laburrez eguiten den beccatuari emaiten çaiça seculaco pena , eta gatzigua. Ceren beccatuaren eguitean , iragaiten den dembora ; labor bada ere , ordea beccatu eguiteco vorondatea baita luce , eta bici direino.

Eta batçutan halacoec erraiten badute ere nitsez , nahi luquetela bere beccatuetic il-

Greg.
4. Diar.
log.



qui, eztutela aircinerat ; hetan egoiteco gogoric : ordea obrax contrara eracusten dute. Ceren hetan daudela accabatcen dira , eta halatan accabatuco ezten gatzigua ere iustuqui emaiten çaye.

S. 23

D Embora gutiz eguiten den beccatuari, emaiten çaiça seculaço gatzigua. Ceren
S. Th. San Thomasec dioen beçala. *Culpa manet in vbi su-
pra. eternum , cum culpa non possit remitti sine gra-
tia , quam homo non potest , post mortem acqui-
rere : nec debet pena cessare , quandiu culpa ma-
net.* Beccatua , eta beccatuaren culpa , hobe-
na , eta notha guelditcen da seculacotz. Ceren ecin barcca diteque, eta ez garbi beccatua, laincoaren garacia gabe, eta penitencia eguin gabe : eta hillez guero ezta garacia erdiefteric, eta ez penitencia eguiteric. Beraz beccatuaren penac eta gatziguac ere iraan behardu seculacotz. Ceren ezta arraçoin , dagoen beccatua ; eta dagoen gatzigu gabe.

Mercatalgoa , sal-erosia fite da eguin. Ordea handic harat , salduz guero , guelditcenda seculacotz , saldua , saldu : eta bai erosia ere seculacotz erosia , erosi. Buruan ere colpebat emaiten deraçuteñean , colpea fite da eguin : ordea sendatcea nequez , eta luçaro-

Eta guero ere ; sendatuz guero ere , guelditcenda comunzqui seinalea , guelditcenda marca. Hala bada beccatuaren sal-erosia eta colpea ere fite da eguin. Ordea guelditcen den seinalea , marca , notha , culpa , çorra eta obligacinoa , seculacotz guelditcen da. *Transit actus & remanet reatus.* Iraçaiten da colpea , eta guelditcen da ondoco ondorea.

Beraz arraçoinequin , guelditcen den ondoco ondorea gatic , laburzqui eguiten den beccatuari , emaiten çaiça gatzigu lucea eta seculacoa.

Eta hala emaiten çaiça halaber laburzqui eguiten den obra onari ere , seculaco loria eta pagamendua.

*Cergatic Iainco misericordiosfac 3 demboraren-
buruan bedere , ezterauen , ifernuan
daudeney barccatcen?*

C A P. LX.

G Ogoac emaiten deraut , venturaz erranen duela cenbaitec. Ezligateque hobe , Iainco misericordiosfac , hain misericordios denaz gueroz ; ysa leçan bere misericordiaz , ofloqui eta



complituqui ; eta azquenean barcca liacen guztiey , guztiz ere , plazer duen beçanbat demboraz , ifernuan eduquiz guero , eta han bere faltac eçagut araciric , penitentia eragui- nez guero ? Eta içatu da cenbait bere nahia- requin batean ; hala erran duenic. Eta gaix- toec hala nahilquere. Ordea ezta hala iça- nen ; eta ezta arraçoim ere hala den. Ceren båtaz , baldin ezipaliz feculaco ifernuric , eta ifernuren veldurtafonic , eztaquit liçateque- yenz bat ere munduan onic , eta prefturic. Da- quigalaric badela ifernu bat , guztiarequin ere gara , garen beçalaco , cer liçateque bada , bal- din baguiniaqui ezte la , halacoric içanen , eta içaitecotz ere , cenbait demborataco içanen dela eta ez feculaco : Purgatorio etacoaz confo- latcen gara , handic noizbait ilquitquo garel- laco esperantçarequin , hala confoia guindez- que bada ifernucoaz ere.

Eta berriz bertcea , ezta arraçoim dagoen Judas nehoiz ere ceruco Iorian , londone Pau- loren , eta bertce Apostoluen compainian. Ez- ta arraçoim , diren gaixtoac , hain ongui çor- theatuac , nola onac. Ezta arraçoim Iaincoa- ren contra ibili direnac , eta haren cerbitçuan emlegatu direnac , hemen baino guchiago bertce munduan ere , diren berdin. Hura ez- liçateque misericordia , baina liçateque iusti- cia falta : eta Iaincoa baithan ecin dateque ha- laco faltaris.

Eta ezterauca ez Iaincoac bide gaberíc eguiten , ifernuan dagoen condenatuati , ez nehoiz barccatceaz ; hargatic , ez barccatu agatic , misericordios da Iaincoa. Ceren San Thomafec dioen beçala. *Deus quantum in ipso S. Th. 3. est miseretur omnibus. Sed quia misericordia p 99. sapientia ordinæ regulatur , inde est , quod ad art. 2. quosdam non se extendit , qui se misericordia fece- ad. 1. runt indignos , sicut Demones & damnati qui sunt in malitia obstinati* Iaincoac bere aldetic de- naz beçan batean guztiey barccatcen deraue , guztiey eduquitceadu misericordia. Ordea behar den moldean , iusticiaren arauaz , eta ne- hor hartaco gai eta merecient denean , eta ez bertcela. Eta nola Deabruac eta prefuna condenatuac ezipaitira misericordia erdiefle- co gai , eta ez merecient : ceren malician , eta vo ondate gaixtoan oftinatuac , eta gogortuac bairande : halatan ezta Iaincoaren miseri- cordia hetara heltcen. Eta hequen berén fal- taz ezta hetara heltcen. *Perditio tua ex te Ose. 13. Israël* Baldin ifernuan daudenec balute bere beccatuez , behar den vrriquimenduric , ba- leguite penitenciaric : itçul baleçate bere vo- rondatea bertce aldera , gaixtotic onera , vfa leçaque bai Iaincoac hequen alderatcotçat bere misericordiaz , eta barcca liatçaye be- re beccatu guztiaç , orai guti penitencia egui- ten dugunean , barccatcen derauzquigun be- çala.



Orai gu bidezcoac gara , badaidiquegu penitencia Baina ifernuan daudenec eztefe balaco efcuic era ez bothereric , ecin daidiquete hec penitenciaric nahiago balutere : iragan çaye hey bere dembora , accabatu dira hequen feriac.

Hec han bere beccatuez damu , eta vrriqui badute ere : eztefe ez damu , eta vrriqui hura , behar beçalacoa ; eztefe laincoa gatic , eta ez laincoari çor dioten amorioa gatic , baina dute iragaiten dituzten penac gatic. Abre batec ere min harteen duenean , eguiten du sentimendu : hala bada ifernuan daudenec ere mina gatic , iragaiten dituzten penac gatic , dute sentimendu , damu , eta vrriqui. Baina bertee gaineracoan , ifutuac oflinatuac , gogortuac ; eta bere faltaric behar , beçala eçagutcen eztefe tutela , eta ecin conuerti ditezqueyen beçala , malician eta vorondate gaixtoan gogortuac ; harrituac , eta fincatuac daude. Eta hala mundu huneraco aldia eguinez guero , ezta erremedioric. *In inferno nulla est redemptio.* Ifernuan ezta refcatic , ezta libramenduric. Eta halatan hanbatetan auifatcen gaitu gueure Iaungoicoac , eta bai meatchatcen ere , beguira dugula , orai bici gareino , gueure beccatuac erremedia ditçagula , çeren hillez guero , eztefe erremediatecco leccuric içanen.

S. I.

BAina oraino ecin etstuz ; eta hala baliz nahiz , erranendu aguien cenbaitec. Eguia da laincoac hala auifatcen gaitu , eta bai meatchatcen ere. Ordea venturaz meatchu hec , eztefe meatchu baicen içanen , hitectan iraganen dira : Çeren hala Ionas Prophetaren demboran ere , meatchatu çuen laincoac Niniueco hiria , eta erran , hondatu çuela berrogoy egunen buruan : ordea etçuen hondatu ; etçuen meatchuaren arauaz obratu , kheinatcea eguin çuen , baina ez colperic eman. Beraz hala içanenda , ifernuco penétara feculacotçat egortzeco eguiten dituen meatchuetan ere. Eguia da , hala içanen da , baldin Niniueco hiri harc orduan beçala , guc ere orai penitencia eguiten badugu.

Gure Iaungoicoac meatchatu çuen Noeten demboran mundu guztia , eta erran hondatu çuela vholde handi batez. Eta hala hondatu çuen , bere meatchua bere mugan complitu çuen. Eterauen Niniuecoey beçala barecatu , çeren ezpaitçuten Niniuecoec beçala , penitenciaric eguin. Eguiten deñean penitencia , eztefe laincoaren meatchuac , meatchu baicen. Hala emaitendu



aditcera Ieremias Prophetac Iaincoaren par-
tez. *Si penitentiam egerit gens illa à malo suo,*
agam & ego penitentiam super malo, quod
cogitavi ut facerem eis Baldin nic mehatchatu
nuen iendeac, eguiten badu penitencia bere
beccatuaz, eguinendut nic ere eguin gogo
nioen gatziguaz. Erran nahi du, baldin ien-
de hura, edo nor nahi den bertceic ere, guel-
ditcen eta guibelatcen bada beccatu eguitetic,
gueldituco, eta guibelatuco naiz ni ere, me-
hatchatu beçala, gatzigatceic. Eta noka
ifernuan daudenec ez paitçuten eguin emen
penitenciaric, eta han bertce munduan ecin
baitaidiquete, halatan complitcen dira orai
han, hemen eguin ceizen mehatchuac.


Mehatchateco pōntu hūnen gainean, edet-
Chryf. qui erraitendu San Chriſtoſtomoc. *Vis id eſſe,*
Hom. *minas? Ipſe Dominus eſ facti: melior effcere &*
50. ad *ad minas tantum progreditur, ſi vero quod ab-*
popul. *ſit minas contempſeris, venies ad experientiam.*
Anthio. *Qui dilu vii tempore fuerunt: ſi minas timuiſſent,*
rom. 5. *periculum non ſuſtinuiſſent, & ſi nos minas ti-*
muimus, periculum non ſubibimus. Que nahi
cenduque Iaincoaren mehatchuac ezliren me-
hatchu baicen, bada hori çure eſcuau da-
go, Dio San Chriſtoſtomoc. Ori çaiteci, hobe
çaiteci, eta ezтира mehatchu baicen içanen.
Baina baldin hobetceen ezpaçara, baldin me-
hatchuez conceric eguiten ezpaduça: ethor-
rico çara ceure ordu gaitça, foroçura, pena-

en eſperenciãz frogatcera; eta calcearen
paitratcera. Noeren demboraco iende hec
probetchatu balira eguin ceizten mehatchu-
ez, Ninivecoac probetchatu ciren beçala,
etciren galduco, etceyen guerchatu cevena,
guerthatuco. Ez eta guri ere etçaicu calte-
tic ethorrico, baldin mehatchuec icituric, orai
penitencia eguiten badugu, orai onera con-
vertitcen bagara.

Eta hala baldin orai guero: nor bagara;
ezтира guretçat Iaincoaren mehatchuac, me-
hatchu baicen içanen. Ezta guretçat ifernu-
tic guerthaturen. Baina berçela, baldin bec-
catutan gaudela, beguia herſten baçaicu,
eguin da, arima galdu da, ezta guero guchi
ago onera convertitceic, eta ez penitencia
eguiteric.

Haur de eguia garbia, eta eliçac erreci-
bitua. Gaineraco guztia, Iaincoac bertce
munduan, demboraren buruan, bere miſeri-
cordiaz, gaixtoen alderatcoçat vſatuco duela
erraitca, gogoratca, eta vſte içaitca, da erho-
queria, enganamendua, eta iende galduen
deſircundeã, contua eta penſua.

Beraz hunelatan. *Dum tempus habemus, ad Gal.*
operemur bonum. Dembora duguino, dagui-
gun ongui. Eta badio Iſaiã Prophetac ere:
Quarite Dominum dum in veniri poteſt. Bilha Iſaiã 55
eçaque iauna ediren ahal ditequeyen dem-
boran. Bada orai ediren ahal diteque, eta



ez guero. Hala erraitendu Iaincoac berac.
Joan.7. *Quæretis me & non inuenietis.* Bilhatuco nau-
que, eta ez nauque edirenen. Gauça galdua
galdu den leccuan bilhatu behar da, eta bai
ediren ere. Beraz Iaincoa ere galtcen den
leccuan, hemen bilhatu behar da, eta ez
bertce munduan. Ceren hemen galtcen bai-
ta, eta ez han.

Erran comuna da, eta ongui errana da, (le-
hen ere errandugun beçala) eztiçaiola ne-
horc ere nehorì, hanbat calte eta bide gabe
eguin, nola berac bere burruari. Mundu
herri guztiaç ere, baldin cerorrec, bideric
emaiten ezpadioçu, ecin egotz, çaitçaque
ifernuta. Baina cerorrec, bat baicen et-
çatelatic, cerorrec egotzten duçu ceure
burua.

Etçarela bada cerori ceuretçat horrein et-
çai handia, vrrical bequiçu ceure burua. *Non
tardes conueri ad Dominum, & ne differas de
de die in diem.* Ezteçaçula berant, ezteçaçula
luçat: bihurçaiteci lehen baino lehen ceure
Iaincoa gana: etçabiltçala guerotie guero-
ra, egunetic bilharrera. Eta ez hala ibilce-
co, considera itçatçu ifernuco pena handi
icigarri hec. Eta guztien gainetic secula fin
gabe hura, behin ere ez accabatce hura: eta
accabatceco esperantçaric gabe, etçitua eta
desesperatua egoite hura. Hartan pensa
eçaçu, hartçaz eguiçu pensamendu, hafa

aur eta gogoeta. Eta gogoeta harequin
lobatçat çaiteci arratsean, eta bai iratçat ere
goicean.

Eta hala eguiten duçula, eta hunen aiti-
neco capituluetan emançaizquitçun arraçoi-
nac ere consideratcen dituçuela, esperant-
ça dut Iaincoa balthan, ongui edirenen çä-
rela; egun beretic bide onean iarrico, edo
iartcera enfeiatuco çarela.

Eta halatan mundu hunetaco itçaso hu-
nen tormenta guztiaç iraganic, azquen fi-
nean salbamenduco portura, salboric heldu-
co çarela.

Iaincoac hala nahi duela.



LIBURU HUNETACO

Capituluen contua.

CAP. I.

Nola bertceac bertce direla ; alferqueriatic ihes eguitea gatic ere , behar den travaillatu. Folio 21

CAP. II.

Cerbat calte eguiten duen alferqueriac eta nola handic sortcen den , guerotie guerora ibiltcea. 37

CAP. III.

Nola nahi cunde hutselan , eta desircunde choiletan , iragaiten gaicun dembora. 45

CAP. IV.

Nola eztugun gueroco segurantzaric. 55

CAP. V.

Nola gueroco venturaren , venturan venturaturic , galtcen garen. 68

CAP. VI.

Nola den guero ago gaitz , ago beccatutic ilquitcea. 77

CAP. VII.

Nola guerotie guerora ibiltceaz coberatcen den vjantza gaixtoa. 86

CAP.

CAPITULUEN CONTUA.

CAP. VIII.

Nola usantza gaixtoa gogortcen , eta ez anfitacen duen beccatorea. 96

CAP. IX.

Nola guerotie guerora gabiltzala beha ditequeyen beccatuen neurria , eta osa cantua. 111

CAP. X.

Anhitz valio duela Iaincoaren misericordiac , eta nola behar den hartan fidatu. 127

CAP. XI.

Iaincoaren misericordiam fidaturic ; ez teta penitencia eguitea gueroco utci behar. 133

CAP. XII.

Nola guerotie guerora ibiltceaz galtcen dugun dembora. 152

CAP. XIII.

Gaztetie gahartceara penitencia luzatcen duenaz. 170

CAP. XIV.

Gahartean ere penitenciaric eguiten ez tenez. 184

CAP. XV.

Heriotceraino , beccatutan egon gogo duenaz. 194

CAP. XVI.

Erremusina eguiteaz , eta handic sortcen den broberchua. 219

CAP. XVII.

Nola eremusina , eta bertce obra on vorondacezcoac , cerorec ceure escuz , edo bertcerenez ceroriz



CAPITULUEN CONTUA:

bici çarela , ondoco etara vici gabe , eguin behar ditugun. 234

CAP. XVIII.

Nola obra obilgacinozcoac , concientciaz çor ditugunac , ondocoetara vici gabe cerorrec eguin behar ditugun. 241

CAP. XIX:

Cenbat calte eguiten duen iuramentuac , eta iuramentu eguitico vsantçac , eta nola behar den lehen baino lehen vsantça hura vici. 250

CAP. XX.

Cenbat calte eguiten duen colerac , eta esaiçac : eta nola behar den lehen baino lehen esaiçacitic campora. 270

CAP. XXI.

Coleraren irauuguitceco lehenbico erremedioa ; bat bederat berre condicino hasserrecorra eçaguturic , hari beguiaren edugiticoa. 285

CAP. XXII.

Coleraren irauuguitceco bi garren erremedioa ; diraquien elteçari eguiten çaicana , colerari ere eguitica. 289

CAP. XXIII.

Coleraren irauuguitceco hirur garren erremedioa : ez orduan lehiatcea , colera iragan arçino , pausatcea. 298

CAP. XXIV.

Coleraren irauuguitceco laur garren erremedioa ; consideratcea , esaiçac eguiten deranz quiguten bide gabeac , Iaincoaren gaztiguac direla. 303

CAPITULUEN CONTUA:

CAP. XXV.

Coleraren irauuguitceco borz garren erremedioa , consideratcea , çer moldeç dagoen , çure esaiçac , hasserere denean. 309

CAP. XXVI.

Coleraren irauuguitceco sey garren erremedioa ; ez bilhatcea çer dioten gutçaz. 311

CAP. XXVII.

Coleraren irauuguitceco gaineraco berce erremedioac , capitulo hunetan laburzqui eçarriac. 314

CAP. XXVIII.

Cergatic behar diogun gueure esaiçari barccatu eta amorio eduqui : lehenbico arraçoina , çeren Iaincoac manatcen baitu. 321

CAP. XXIX;

Bi garren arraçoina cergatic behar diogun gueure esaiçari barccatu. Çeren mendecatcea beretçat b guiratcen baitu Iaincoa. 331

CAP. XXX.

Hirur garren arraçoina , eta oraicotz azquena : barccatu behar diogu gueure esaiçari , Iaincoac guri barcca diaçagun amoreac gatic. 334

CAP. XXXI.

Cenbat calte eguiten duen har aguiaren beccatuac lehenbico ic iisuteen duela adimendua , eta nola behar den hartan sartçetic beguiratu , eta sartthuz guero ere , lehen baino lehen ilquitcera ençaiatu. 339

CAP. XXXII.

Har aguiaren amorio desordenatuac eguiten duen

Ddij



CAPITULUEN CONTUA.

bi garren, eta hirur garren calteaz; eztuelaeden
ahaicoaric hurcoenaz ere conturic eguiten, eta ez
hartaco inramenturic complitcen. 349

CAP. XXXIII.

Haraguiaren amorio desordenatuac eguiten duen
laur garren calteaz amoltsu, eta baquezco circ-
nac, eguiten baititu cruel, eta guerlati. 352

CAP. XXXIV.

Haraguiaren amorio desordenatuac eguiten
duen borz garren calteaz, joseguric, eta pausu-
ric gabe ibentceaz. 357

CAP. XXXV.

Haraguiaren beccatutic beguiratecco, eta handic
heldu diren caliën erremediatecco lehenbico erri-
medioa, eta bidea. Oracinoa. 363

CAP. XXXVI.

Haraguiaren beccatutic beguiratecco bi garren
erremedioa, hartaco gogociey leccuric ez emai-
tea. 367

CAP. XXXVII.

Haraguiaren beccatutic beguiratecco; hirur
garren erremedioa. Vorondatearen delibera-
mendua. 370

CAP. XXXVIII.

Haraguiaren beccatutic beguiratecco laur gar-
ren erremedioa. Ez alfer egoitea. 377

CAP. XXXIX.

Haraguiaren beccatutic beguiratecco borz gar-
ren erremedioa, considerateca, cein tiipia, eta la-
burra den hartaco placera. 382

CAPITULUEN CONTUA.

CAP. XL.

Haraguiaren beccatutic beguiratecco sey garren
erremedioa hartaco placrerac cein ondore gaixtoa
bere ondotic vitzten du n considerateca. 387

CAP. XLI.

Haraguiaren beccatutic beguiratecco gazpi
garren erremedioa, borz censuez, eta lehenbico-
ric, beguiez contu eduquiteca. 341

CAP. XLII.

Haraguiaren beccatutic beguiratecco gortci
garren erremedioa, mihiaz, eta gustuaz contu
eduquiteca. 395

CAP. XLIII.

Haraguiaren beccatutic beguiratecco be dratci
garren erremedioa: Sabelari ez sobira emai-
tea. 405

CAP. XLIV.

Haraguiaren beccatutic beguiratecco lehenen
gaineraco erremedioac. 412

CAP. XLV.

Nola guerotic guerora gabiltzan bitartean alha
gaicun concientcia gaixtoa. 419

CAP. XLVI.

Nola guerotic guerora gabiltzan bitartean g dt-
en dugun concientcia onaren baquea, eta sofo-
gua. 439

CAP. XLVII.

Nola orai danic behar dugun, gueroco beguira
egon gabe, ontasuncan irautera, eta perse verateca
enfcia. 454



CAPITULUEN CONTUA

CAP. XLVIII.

No'la icussiric ifernuco bidea den gaitz ago;
parabisucoo baino, behar den guerot.c guerora
ibilicea vici. 474

CAP. XLIX.

No'la parabisuco bidea den erraz. 482

CAP. L.

No'la parabisuco bidea den erraz ago ifernucoo
baino. 499

CAP. LI.

No'la ezten cofesatcea guerot.c guerora luçatu
b har. 523

CAP. LII.

Masiz cofesatceaz, eta handic heldu den pro-
betchuaz. 535

CAP. LIII.

No'la gurotic guerora luçamendutan dabilla-
nac, gaiten dioen bide gabe Iaincoari. 558

CAP. LIV.

No'la luçamendutan guerot.c guerora dabilla-
nac gaiten derauñ gabe Ainguiruey. 556

CAP. LV.

No'la gutrotic guerora luçamendutan dabilla-
nac, gaiten derauñ bide gabe, bere buruari, bere
gaurist no lagunari, eta bai munduco bertice gauça
Luztiey ere. 563

CAP. LVI.

No'la ifernuco penen consideratceac behar
dituen guerot.c guerora ibiliceo luçamenduat
laburta. 569

CAPITULUEN CONTUA

CAP. LVII.

Beccatoreac ifernuan içanenducn bi g irren pe-
naz, eta gasliguaz, cein deitzen baina. Pina sen-
sus sensuaren pena. 579

CAP. LVIII.

No'la ifernuan dand nec ez tuten handic ilquit-
ecco esperantçaric. 598

CAP. LIX.

Eac rgatic hain dembora appurrean. eta labur-
rean eguiten den beccatuari, emaiten gaitcan, hain
gasligu handia, lucea, eta sculacoa. 610

CAP. LX.

Cergatic Iainco misericordiosac; demboraren
buruan bedere, ezterauen, ifernuan daudeneç
barccatcen? 615

FINIS.











